

ANA EIZAGIRRE SAGARDIA

EUSKALDUN ZINTZOAREN
ETXERAKO ESKULIBURUA



ANA EIZAGIRRE SAGARDIA

**EUSKALDUN ZINTZOAREN
ETXERAKO ESKULIBURUA**

Utriusque Vasconiae

© Ana Eizagirre Sagardia

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2008ko Maiatza

ISBN: 978-84-933270-4-0

Lege-gordailua:

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzailea: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

**EUSKARAZKO EGUTEGIAK ETA
EUSKARAZKO IRAKURKETA
ESPAZIO PRIBATUAN.
GIPUZKOA 1876-1918**

Iluntzero egutegiari kendutako orritxoak
irakurtzera gonbidatzen ninduen
amona Alejandrari

AURKIBIDEA

SARRERA	15
EGUTEGIEN GARRANTZIA ALFABETATZEAREN AZTERKETAN ..	21
EUSKARAZ IRAKURRI ETA IDAZTEAREN GIZARTE PRAKTIKAK: EKOIZPEN IDATZIA	27
1. Literatur produkzioaren dibertsifikazioa	31
2. Irakaskuntzarako testuak	35
3. Prentsaren hedapena	37
4. Almanakak eta egutegiak	44
EUSKARAZKO EGUTEGIAK GIPUZKOAN	49
EGUTEGIEN ERAGILEAK ETA ARGITARATZAILEAK	65
1. “Euskal-Esnalea” kultur elkarteak	66
2. Eusebio Lopezen imprimategia eta Isaac Lopez Mendizabal	74
<i>EUZKEL-EGUTEGIYA</i> (1909-1934)	79
1. Hizkera eta idazkera	85
1.1. Herri hizkera eta idazkera: euskalkien eta gazteleraren presentzia	86
1.2. Hainbat testu estrategia esanguratsu	89
1.2.1. Iraskurketa eta ulermena erraztera zuzenduriko estrategiak: sinonimia, itzul- pena eta argibideak	90
1.2.2. Etzana “kontzientzierazlea”	98
2. Edukia: “Euzkel” izaera definitzen zuten ezaugarri identitate emaleak	100
2.1. Hizkuntz formazioa	109
2.2. Euskaltzaletasunaren heziketa	117

2.2.1. Euskararen gizarte egoeraren salaketa eta konponbiderako proposamenak ..	122
2.2.2. Jakiteko ikasi, ikasteko jardun	134
2.2.3. Euskaraz irakurri eta idaztearen garrantzia ..	141
2.2.4. Autoalfabetakuntzarako informazio lagungarria	146
2.3. Euskotartasunaren heziketa	149
2.4. Formazio kulturala	164
2.5. Heziketa moral eta erlijiosoak	190
2.6. Ateraldi xelebreak	206
2.7. Asmakizunak	219
3. Publizitatea	224
<i>EUZKEL-EGUTEGI TXIKIYA (1910-1920)</i>	<i>233</i>
<i>EUZKEL-EGUTEGIYA-K ETA EUZKEL-EGUTEGI TXIKIYA-K HERRITARREN ARTEAN IZAN ZUTEN HARRERA ETA HEDAPENA</i>	<i>245</i>
IRAKURLERIAZ INFERENTZIA BATZUK	257
ZENBAIT BURUTAPEN, AMAITZEKO	265
OIN OHARRAK	275
LEHEN MAILAKO ITURRIAK ETA ARTXIBATEGIAK	347
BIBLIOGRAFIA	353

TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Taulak

<i>Euzkel-Egutegiya</i> : edukia kategorietan bereizia, eta urtez urte agerpen egunetan neurtua	105
<i>Euzkel-Egutegiya</i> : edukia kategorietan bereizia, eta urtez urte agerpen portzentaian neurtua	106
<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1909-1918. Hitz neurtu eta kanten presentzia formazio kulturalaren esparruan, agerpen egunetan eta portzentaian neurtua urtez urte	172
<i>Euskal-Esnalearen Egundiya</i> 1909. Errepikaturik agertu ziren esaera zaharrak	178

Grafikoak

<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1909-1918. Eduki kategorien bilakaera, agerpen portzentaian araberakoa	107
<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1909-1918. Eduki kategorien presentzia, urte bakoitzean eta urtez urte, agerpen portzentaian arabera	108
Hizkuntz formazioa <i>Euzkel-Egutegiya</i> -n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaian araberakoa . . .	110
<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1912, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaian arabera	116
Euskaltzaletasunaren heziketa <i>Euzkel-Egutegiya</i> -n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaian araberakoa	118
<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1910, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaian arabera	119

<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1918, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaien arabera	120
Euskotartasunaren heziketa <i>Euzkel-Egutegiya</i> -n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaien araberakoa	150
<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1911, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaien arabera	151
Formazio kulturala <i>Euzkel-Egutegiya</i> -n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaien araberakoa . . .	165
<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1914, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaien arabera	166
<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1915, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaien arabera	167
Heziketa moral eta erlijiosoa <i>Euzkel-Egutegiya</i> -n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaien araberakoa	191
<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1910, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaien arabera	192
<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1913, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaien arabera	193
<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1917, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaien arabera	194
Ateraldi xelebreak <i>Euzkel-Egutegiya</i> -n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaien araberakoa . . .	208
<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1915, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaien arabera	209
<i>Euzkel-Egutegiya</i> 1916, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaien arabera	210
Asmakizunak <i>Euzkel-Egutegiya</i> -n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaien araberakoa	220
<i>Euskal-Esnalearen Egundiya</i> 1909, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaien arabera	222

IRUDIEN AURKIBIDEA

<i>Eusquerasco pronosticua milla ta zorcireun ta iruro gueiraco Vizcainaco, Guipuzcuaraco ta Aravaraco</i>	50
<i>Euscaldun necazarien adisquidea eta guitaria persona-clase guztientzat ona dana au da, 1866garren urteraco egunaria edo pronosticoa</i>	51
<i>1888garren urterako Egunaria</i>	55
<i>1905-garren urteraco Egunariya</i>	57
<i>Euskal Esnalearen esku egundiya. 1910</i>	58
<i>Euzkel-Egutegiya 1911, horma egutegi formatoan</i>	80
<i>Euzkel-Egutegiya 1917, egutegi liburuxka formatoan</i>	81
<i>Euzkel-Egutegiya, horma egutegi formatoan, barrualdeko orrialdeak</i>	101
<i>Euzkel-Egutegiya, egutegi liburuxka formatoan, barrualdeko orrialdeak</i>	102
<i>Euzkel-Egutegiya, egutegi liburuxka formatoan. Publizitatea barrualdeko orrialdeetan</i>	227
<i>1910.garren urterako Euskal-Egundi chikiya</i>	236

SARRERA

Lan hau Euskal Herriko alfabetatzearen ikerkuntzaren eremuan kokatzen da, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailean azken urteotan garatzen ari garen ikerkuntza eremuaren barruan, zehazki. Azken hamarkadetan, 90ekotik aurrera batik bat, alfabetatzeak Euskal Herrian berrehun urteetan zehar eraman duen garapena esplikatzen saiatu den hainbat lan burutu dugu. Dávilaren (1988) lehenengo lanen ildoari jarraitu gatzazkiolarik, saiatu gara alfabetatzearen azterketa Euskal Herrian kokatzen eta euskal eredia ezaugarrituko luketen elementuak definitzen¹. Testuinguru honetan, eta egun alfabetatzearen azterketan garatzen ari diren ildo berriei jarraikiz, idazketa eta irakurketa gizarte eta kultur praktika gisa kontsideratetik abiatu dugu eskuartean dugun lana, hau da “Dos actividades vistas ahora como prácticas sociales y culturales que tienen lugar en determinados contextos y con determinados soportes. Dos actividades de las que lo que interesa, sobre todo, son sus usos y funciones, así como los modos y maneras en que se llevan a cabo. Unos modos y maneras, unos usos y unas funciones variables en el tiempo y en el espacio y por tanto historiables” (A. Viñao, 1994, 41) kontsideratetik. Ikuspegi berri honek idatziaren hedapenean, funtzioetan eta erbileran, hauen tipologian, ondorietan eta beren euskarri eta tresnerietan arreta jartzea eskatzen du². Eta, hori da guk egin duguna: herri xeheari zuzenduriko kultur praktiken azterketa. Euskarazko irakurketa eta idazketa, formazioa finean, sustatzearen klase popularrei –“subalternoei”– begira burutu izan ziren kultur praktikak aztertzea izan da gure asmoa, eskolatik kanpo garatu ziren praktikak hain zuzen, baina hezkuntza efektuak zituztenak, halere.

Heziketa informalarren (J. Trilla, 1986) zein ez formalarenean kokatu genitzakeen kultur praktikak dira interesatu izan zaizkigunak, eta horien irakurketa “pedagogikoa” da guk egin nahi izan duguna. Heziketa, kasu honetan, kulturaren –kultura idatziaren–, transmisioa den mailan aztertu dugu, irakurketa eta idazketaren praktika soziokultural zehatzen identifikazioa eta azterketatik abiatuz. Gure lan hau, finean, hainbat ikerketa ikuspegitik izan daiteke ulertu eta interpretatua: heziketaren historia kulturaletik³, herri alfabetatzea praktika kultural batzuen baitan aztertzen saiatu garen heinean, eta hizkuntzaren historia sozialetik⁴, euskararen ikaskuntza eta erabilera testuinguru sozial eta kultural batzuen baitan aztertzen saiatu garen heinean.

Zehazki, irakurleak hemen aurkituko duena zera da: herri xehearen baitan garaturiko irakurketa praktika soziokulturalaren ikerkuntza, euskarazko egutegien azterketatik abiatu dena.

Zergatik egutegiak? Egutegien aztertzeari interesgarri iritzi diogulako hainbat arrazoirengatik, intrintsekoak direnak batzuk eta estrintsekoak besteak. Garaiko hizkuntza, hezkuntza eta kulturaren egoerari begirada azkarra ematen badiogu, zera ikusten dugu: ez zegoela euskarazko alfabetatze sistematiko eta erakundeturik herritarren gehiengoa euskarazko irakurketa eta idazketan trebatuko zuena, eta teknika horien erabilera soziala ahalbideratuko zuena. Akulturatze prozesu gero eta indartsuagoaren ondorioz areagotuz zihoan diglosiaren errealitatea, eta euskararen gizarte prestigioa ahulduz, aldi berean. Kultura idatziaren esparruan, bestalde, nahiz eta produkzioan zabalkuntza fasea bizi eta euskara idatziaren eskaintza aurreko garaietakoa baino handiagoa izan, eskaera oraindik nahiko mugatua zuen merkatua zela esan dezakegu⁵. Oro har, euskarazko obren eskaria –liburu zein aldizkariena–, nahiko apala zen. Trebakuntza maila egokiaz eta baliabide ekonomiko nahikoaz gain, hizkuntzarekiko interesa eta motibazio berezia behar izango zuen, neurri batean, euskarazko liburuak edota aldizkariak eskuratu eta irakurriko zituen irakurleak. Eta interes eta motibazio horretan eragitera jo zuten, aurrerago adierazi dugun legez, garaiko euskalgintzan eta kulturgintzan ziharduten pertsonaiek eta taldeek.

Beraz, kultur testuinguru orokor horren barruan, herri irakurketaren nondik-norakoak ezagutzen saiatu gara, horretarako euskarazko produkzio idatzi subalternoa⁶ –herri xeheari begira eta herri xehearentzat egina–, aztertuz. Zentzu horretan, herri irakurketarako oinarri izan den produkzio idatziaren esparruan kokatu izan dira egutegiak eta

almanakak. Izan ere, egutegi eta almanakak erruz agertu ziren XVI, XVII eta XVIII. mendetan herrialde protestanteetan, baita garai berreko populazio katoliko frantsesaren artean ere (R. Chartier, 1993). Baita XIX. mendean zehar ere Estatu espainiarrean, Fernandez-ekidion bezala, “como refrendo del gusto por la popularización de los conocimientos prácticos de aplicación cotidiana”²⁷, eta Euskal Herrian. Gaztelera idatzitako egutegi eta almanakak Euskal Herrian izan zuten zabalkundearen berri zuzenik ez badugu ere, euskarazkoetan egiten ziren aipamenengatik badirudi herritarren artean nahiko zabaldua zen praktika zela berauen irakurketa. Euskaraz idatzitako egutegiei dago-kienez, berriz, batez ere Iparraldean esanahi handia izan zuen publikazio mota izan zen XIX. mendean. Hegoaldean, eta batik bat Gipuzkoan, XX. mendea arte itxaron behar da euskarazko egutegien irakurketa zabaldu, orokortu eta iraunkorraz hitz egiteko.

Euskarazko herri irakurketaren esparruan, zalantza handirik gabe esan dezakegu eliz liburu eta dotrinarekin batera, edo agian gehiago, egutegiak zirela herritar euskaldun gehienek irakurtzen zituzten euskarazko testuak. Gipuzkoako kasurako hirugarren testu mota gehituko genuke herri irakurketaren esparruan: bertsopaperak. Gure ustez, Gipuzkoan XIX. mendean bukaera eta XX.aren hasieran dotrinak, bertsopaperek eta egutegiek osatzen zuten, oro har, herri irakurketaren esparruaren muina.

Egutegien, dotrina edota bertsopaperen irakurketa aztertu izan denean, hau irakurketa tradizional eta intentsiboaren barruan kokatu izan da –Erregimen Zaharreko irakurketa erudian–, non testuak irakurriak eta berrirakurriak izaten ziren, askotan ozenki familia inguruan. Memorizatuak ziren testuak ziren, plegaria moduan, finean bere irakurketak zuen esanahia jada ahoz ezagutzen ziren hitzak deszifratzea zelarik. Testu horien irakurketa intentsiboa oinarritzko erreferentzia bihurtu zen herritarrentzat, zeren eta “tiende a construir toda la personalidad en torno a ciertos esquemas de comprensión o narración” (M. Vilanova, 1989, 257). Bestalde, kontuan izan behar da bai bertsopaperen, eta baita egutegien irakurketa merkatu legeen menpe zegoen ekintza zela, eta ez eliza edo eskola bezalako erakunderen baten testuinguruan kokaturiko irakurketa praktika babestu, bideratu eta behartua. Bertsopaperen eta egutegien arrakasta eta biziraupenerako ezinbesteko baldintzetako bat izango zen, beraz, idazlearen (argitaratzailearen zenbaitetan) eta irakurlearen artean nolabaiteko “feeling”a egotea, esango genuke, oinarritzko elkar ulertzea, alegia.

Ildo horretatik, eta P. Burke-k (1991, 112) Europa modernoa aztertzerakoan almanakei buruz adierazi zituen ezaugarriak gureak eginez, kontsideratzen dugu Gipuzkoako elite euskaltzalearen zati batek eta herri xehe euskaldunaren beste parte batek partekatu izan zutela euskaraz idatzitako egutegien –eta batez ere zenbait egutegiren–, irakurketa, horrela bi tradizioen arteko elkarrekintza emanez. Esan daiteke, egutegien –batez ere *Euzkel-Egutegiaren*– irakurketan bat egiten zutela tradizio txikiak eta handiak, “kultura hezitua” eta “kultura popularraren” artean elkarreragina eta elkarrekintza zegoela. Elkarrekintza erraztua izan zen pertsona multzo berezia –elebiduna eta kulturbiduna–, egon bazegoelako tradizio handiaren eta txikiaren artean kokatua zegoena, eta bitartekari gisa jokatu zuena. P. Burke-k dion “cultura media”ren antzekoa osatuko zuen euskaltzale taldeaz ari gara, hots, “situada entre la gran y la pequeña tradición y que, por supuesto, se inspiraría en ambas”.

Aztertu ditugu gure epealdian argitaratu eta zabaldu ziren euskarazko egutegiak. Hauen sorrera eta bilakaera azaltzeaz gain, egutegi bakoitza osatzen zuten zatien deskribapena egiten eta hauek beraien artean eta osotasunarekiko zein erlazioak zituzten marrazten saiatu gara. Lehenik eta behin, egutegi bakoitza zertan zetzan jakitea ezinbestekoa iruditu zaigu; horretarako derrigorrezkoa edukiaren deskribapenetik abiatzea. Ipuinen azterketarako V. Propp-ek (1985) proposatzen zuenaren antzera, egutegien morfologia egin dugu, honek egutegien arteko konparaketarako bidea errazten digula pentsatzen baitugu eta, aldi berean, irakurlearengan izan zitzaizketen eragin posibleen inguruko ondorioak argiago ateratzeko moduan jarriko gaituela uste baitugu. Horrela, bada, forma, edukia eta xedeen arabera sailkatutako egutegien tipologia modukoa egin dugu. Halaber, egutegien forma eta edukiaren analisiatik abiatuz, eta irakurlearengan sor zitzaizketen eragin moduetan oinarrituz, egutegi bakoitza gai multzo edo kategoria batzuen arabera deskribatu dugu, aldi berean, bere ondorio hezitzaile eta alfabetatzaileak baloratzen saiatu garelarik.

Argitaraturiko egutegien artean bereziki interesgarri eta esanguratsua egin zaigu *Euzkel-egutegi txikiya*-ren eta, batez ere, *Euzkel-Egutegiya*-ren kasua eta, lanaren zati handiena hauek sakonki aztertzeari eskaini diogu. *Euzkel-Egutegiya*-ren kasua azpimarragarria da, batetik, herri-tarren artean izan zuen arrakastagatik, aldaketaren bat edo bestearekin, 1934. urtera arte iraun baitzuen. Bestetik, urteetan zehar biziraupen

luzeenetakoa izateaz gain, hedapen zabaleko liburua izan zelako, garraio euskarazko produkzio idatziaren testuinguruan, eta herri irakurketaren esparruan pisu esanguratsua edukitzera iritsi zelarik. Aurrez zabaldu ziren egutegiek ez bezala, *Euzkel-Egutegiya*-k iraupen eta hedapen mailan izan zituen ezaugarriek kulturaren transmisioa zentzu dinamikoan aztertzeo aukera eskaintzen digute, eragileen zein hartzaileen jarreteran izan zitezkeen aldaketak ere ikusteko egoera paregabea jartzen gaituelarik.

Halaber, dokumentu baliagarria da bere baitan biltzen zuen eduki mota anitzengatik, garai hartan euskaraz irakur zitezkeen idatzi moten lagin garrantzitsua osatzen dutelarik; horregatik garaiko euskaltzaileen kezka eta interesuneen sintesizat har ditzakegu. Beste idatzizko kultur transmisio moduek (aldizkako euskarazko aldizkariak kasu) porrot egin zutelarik –edo, behintzat, arrakasta nahiko mugatua izan zutela esango genuke–, *Euzkel-Egutegiya* izan zen sarbiderik garrantzitsuenetakoa. Halaber, eskolarako euskarazko eskulibururik egon ezean (orokorki zabalduan ez bederen), bere orrien bitartez zabaldu zituen edukiek egutegia informazio testu baino formazio testu egiten zutela kontuan izanik, eskuliburu instruktibo eta formatzaile bihurtu zen (etxerakoa baina) –baita, neurri batean, egutegi txikia ere–. Besterik ezean, gainera, herritar xehe askorentzat euskara hobetzeko eta euskaraz idazten eta, batez ere, irakurtzen ikasteko oinarritzko manuala, erreferentziazkoa izan zitekeela pentsa dezakegu. Guzti hori, “euzkel” izaeraren zeinu identitate emaleak helarazteko testuinguru orokorraren barruan. Arrazoi horiengatik guztiengatik *Euzkel-Egutegiya*-k herri heziketa eta euskarazko alfabetatze prozesurako zeresan pisuzkoa hartu zuela kontsideratzen dugu. Bere garrantzia ez dago soilik zabaldu zuen edukia baita, baita ere hauek garatu eta zabaldu zireneko testuinguru soziolinguistiko eta kulturalean, aztergai dugun epealdiko hizkuntza, kultura eta hezkuntzaren testuinguruan batez ere. Barne aspektuek ez ezik kanpo testuinguruak eman zieten esanahi eta garrantzi berezia *Euzkel-egutegi txikiya*-ri eta *Euzkel-Egutegiya*-ri.

Irakurketa modu batzuen eredutzat hartu ditugu aipatu bi egutegiak, eta saiatu gara modu horien nondik norakoak zehazten, baita irakurle eta irakurketa posibleen ezaugarriak marrazten ere.

EGUTEGIEN GARRANTZIA ALFABETATZEAREN AZTERKETAN

Gipuzkoar gehienek menperatzen ez zuten hizkuntzaz –gaztele-raz–, bideratu ohi zen eskola instruzioa nagusi zen garaia dugu azter- tzen ari garena eta, horregatik, baldin eta ezagutu nahi badugu zein modutan, zein balioren oinarri gainean izan ziren euskaldunak heziak eta, gure gaiarekin zehazki lotuta, zein bidetatik eta nola joan zen sus- traitzen gipuzkoar euskaldunen artean euskarazko irakurketa eta idaz- ketaren ikaskuntza eta praktika, derrigorrez jo beharra daukagu eskola erakunde bideratutako heziketa aztertu ez ezik erakundetik kanpo landu ziren kultura forma hezgarri ezberdinen azterketa egitera. Kon- tuan hartu behar dugu, eskola erakundetik bideratu zen irakurketa eta idazketarako trebakuntza, nagusiki, gazteleraz egiten zela, kasu gehie- netan zer ikasten, zer irakurtzen eta zer idazten zen ulertzen ez zute- larik haurrek, nekazal inguruetakoek batez ere. Bestalde, egon baze- goen populazio esanguratsua eskolara iraunkorki joaten ez zena, baita inoiz joan ez zena ere. Ezin daiteke esan, oro har, eskola asistentzia erabatekoa izan zenik XX. mendearen bigarren hamarkada arte. Beraz, M. Carreño-k (1991, 196) dioten bezala, “los agentes de educación informal tienen especial importancia para el estudio de la educación de las clases populares, por ser éstas las que más dificultad han tenido a lo largo de la historia en acceder a las instituciones escolares”. Guk arrazoi horri hizkuntzaren arazoa gehituko diogu. Alegia, eskolara joaten ziren herritar xeheek ez zutela irakatsitako ia ezer ulertzen. Gure arrazoia bikoitza da herri xehearen heziketaren nola euskarazko alfa- betatzearen historiarako “hezkuntza modu ez-konbentzionalen”, hots, heziketa informalaren azterketaren garrantzia azpimarratzeko garaian.

Testuinguru horretan, herri heziketaren historiarako Carreño-k egin zuen proposamenari jarraituz, heldu diogu “hezkuntza modu ez-konbentzionalen” artean almanaka eta egutegiaren azterketari. Hain zuzen, berak markaturiko ikerketa ildoak hartu ditu guk oinarritzat euskarazko egutegiaren azterketa egitea erabaki dugunean. Espainiako kasurako adieraziko digunez, XIX. mendean herritar xehean artean presentzia nabarmena izan zuen hezkuntza egilea almanakeak eta egutegiak ziren. Euskal Herrian, (eta batez ere Gipuzkoan) XIX. mendean gaztelerazko almanaka eta egutegiak izan zuten pisuzko presentzia. Aldiz, euskarazko egutegiak nabarmenagoak izan ziren XX. mendearen lehenengo hamarkadetan, hezkuntza egile nagusi gisa. Bat gatoz, beraz, Carreño-rekin dioenean liburu eta liburuskak horiek gutxi ezagutzen dugun hezkuntzaren zati baten –heziketa informalean–, historia egiteko iturri izan daitezkeela. Hezkuntzaren historiarako ez ezik, are gehiago esango genuke, iturri interesgarria (behar bada bakarrenetakoa) direla uste dugu euskarazko alfabetatzearen, eskolaz kanpoko euskarazko alfabetatzearen historia egiteko. Egia da klase popularren heziketaren historia egiteko garaietan almanaka eta egutegiak iturri gisa erabiltzea ez dela ohikoa izan, orain arte. Egia da, halaber, egin izan denean hezkuntza eragin orokorraren ikuspegitik begiratuta izan direla aztertuak eta ez, espreski, alfabetatzearen historiarako iturri gisa hartuak. Dena den, bi oinarritzako arrazoi ikusten ditugu, oro har, Carreño-k adierazitakoari jarraituz, heziketaren historia egiteko almanakak eta egutegiak erabiltzea posible egiten dutenak: zuten hezkuntza intentzionalitatea, askorengan espreski adierazita zetorrena, batetik, eta, bestetik, herritarren artean izan zuten hedapena.

Sortzez du almanakak, esango digu Carreño-k, instruzio helburua, eguneroko bizitza antolatzen laguntzeko balio duena. Eta, hasierakoetan, batik bat, erlijio inguruko jaiak eta ortziari buruzko informazioa ematera jotzen bazuten ere, gerora informazio hori zabaldu egingo zen bizitzako beste alderdi batzuk hartuz, hala nola, nekazaritza, medikuntza, higiena, moralak, etab. Almanakak hezkuntza izaera presente zegoen, bai lantzen zituzten gaietan bai bilatzen zuten helburuan.

Esan dezakegu euskarazko almanakak eta egutegiak gazteleraz idatzi ziren egutegiaren ereduari jarraitu ziotela, oro har. Gehienetan, aurreago ikusi ahal izango dugunez, espreski adierazita zetorren gaztelerazko egutegiak bete zuten espazioa ordezkatzeko zuten nahia, neurri handi batean berauen bertsio euskalduna izan zirelarik. Zentzu horre-

tan, interesgarri deritzogu Espainiarako argitaratu zen almanaka batean irakurleei ematen zitzaizkien azalpenak hemen jasotzea, bertan argi eta garbi erakutsi nahi baitzen zer zen almanaka eta zein zen bere hezkuntz helburua, hemen adierazia datorren bezala:

El *Almanaque* es el libro que se dirige especialmente a la familia y debe redactar, por tanto, en términos que pueda ésta buscar en cada día la instrucción y la enseñanza práctica que le son tan necesarias. El *Almanaque* debe ser el <vademécum> de cada uno de los miembros de la familia, cualquiera que sea su edad y su clase. Debe contener en un lenguaje sencillo, claro y preciso los conocimientos indispensables a todos; tratando las cuestiones de moral, de educación, de derecho público, de agricultura, de horticultura, de higiene, de economía política, de comercio, de industria, de estadística, etc. de modo y forma que las personas de todos los sexos, edades y rangos encuentren alguna instrucción, alguna enseñanza útil y adecuada a sus gustos y profesiones. Debe tener también el *Almanaque* por principal objeto el difundir el amor a la virtud, base de la estabilidad de los estados y de la felicidad pública y particular. Debe inspirar constantemente el amor a la religión, al orden, al trabajo; el respeto a las instituciones protectoras de la familia y la propiedad, columnas indestructibles del edificio social. Nada es más a propósito para conseguir tan importantes objetos como estos pequeños libritos que, bajo una forma modesta y a un precio asequible a la generalidad, pueden llegar a ser poderosos instrumentos de la reforma moral y de la civilización, propagando útiles verdades, destruyendo antiguos errores y poniendo en conocimiento de todos los descubrimientos e invenciones de reconocida utilidad, las modificaciones de la leyes y todas aquellas cosas que no deben ignorarse por nadie...¹.

Berez, nahiko argigarriak diren hitz horietan zera azpimarratuko genuke: batetik, egutegia familia osoarentzat pentsatua zegoela, adin guztietako familia kideentzat; bestetik, modu argian eta errazean egon behar zuela idatzia, guztien eskura egon zedin. Eguneroko bizitza egoki eraman ahal izateko, gizarteratzeko hitz batean, oinarritzko informazioa eta ikasbideak eskaini behar zizkion familiako kide bakoitzari. Horrekin batera, irakurleak bere heziketa moralean orientabide egokia izango zuela ziurtatu behar zuen, gizartearen ordenuarentzat oinarritzkoak ziren balioak transmitituko zitzaizkiolarik, ahaztu gabe.

Zabaltzen zituzten mezuak herritar arruntaren beharrei erantzuteko eginak izanik, hizkuntza erraz eta argian –erraz ulertu eta

gogoan hartzeko moduan-, idatziak egonik, eta zuten salneurri merkea eta formato zabalgarria kontuan edukirik, pentsa daiteke berauek herri xehean izan zuten hedapena zabala izango zela. Uste hori babes-tera dator egutegi askok izan zuten bizitza luzea.

Euskal Herrian zabaldu ziren gatzelerazko egutegi eta almanaka askok, baita Gipuzkoarako aztertu ditugun euskarazko almanakak ere –batez ere *Euzkel-egutegiya-k*–, funtsezko intentzio hezgarria agerian jarri zuen aipatu egutegiaren ereduari jarraitu zioten neurri handi batean. Eta, Carreño-k proposaturikoari helduz, garrantzitsua iruditzen zaigu berauek aztertzea, beste hainbat herritan legez, euskal herritar xehearen heziketaren historia egin nahi dugunontzat. Era berean, hezkuntzaren historiaren zati den alfabetatzearen historia egiteko ere oso iturri baliagarria direla pentsatzen dugu. Alfabetatzearen azterketan ezinbestean ezagutu behar dugu nola ikasten den irakurtzen eta idazten eta, aldi berean, zer irakurri eta idazten den jakitea aurrekoa bezain garrantzitsua da. Inoiz ez da ikaskuntza eta erabilera hau instrumentala soilik, beti baitago kultur eduki esanguratsuren bat trebetasunarekin lotuta doana. Beraz, aintzat hartu ditugun egutegiak, euskaraz erabat idatzita zeuden testuak ziren neurrian eta, batzuk behintzat, herritarren artean hedapen zabala eta luzarokoa izan zuten neurrian, euskarazko irakurketa eta idazketaren gizarte praktika popularrak ezagutzeko oinarrizko iturri bihurtu zaizkigu. Ikuspegi etnologikotik ikusita ere, irakurketa eta idazketa praktika soziokulturalek, euskarazkoek gure kasuan, herri eta nazio identitatearen eraikuntzan izan zuten rola ezagutzeko bide interesgarria eskaintzen digute egutegiek².

Oinarrizko iturri dira, halaber, euskararen eta euskarazko irakurketa eta idazketaren ikaskuntza-irakaskuntzaren historia egiteko, aintzat hartzen badugu, batetik, zenbait egutegik argitaratu zituzten idatziak eta agertu zuten alfabetatzea bultzatzeko asmo esplizitua, eta, bestetik, gure azterketa garaian euskara eta euskarazko ikaskuntza-irakaskuntzaren esparruan zegoen gizarte eta kultur baliabide eskasia.

Egutegiak interesgarriak dira, gainera, literatur testigantza gisa. Zuzentzen zitzairen gizarte taldearekin oso kontaktu zuzena mantendu zuten heinean, zein gizarte sektorerengana zuzentzen ziren eta, baita ere, egileak eta eragileak zeintzuk ziren ezagutzeko iturri baliagarria dira. Bere garaiko mentalitatearen azterketa eta ezagutzarako bitartekoak izan daitezke, “(...) nos pueden permitir realizar un análisis social referido, fundamentalmente, a las creencias, las costumbres y los comportamientos. El almanaque nos muestra, como en un espejo, la

imagen de los saberes, creencias y preocupaciones de ese público al que va dirigido” (M. Carreño, 1991, 211). Herritarren kezkek, beharrak, sinesmenak eta jokabideak ezagutzeko aukera eskaintzen digute. Aldi berean, mezuak egin eta zabaldu zituztenen –egileen– pentsatzeko modua islatzen dute, zenbait kasutan. Egutegiak duen interesa areagotu egiten da, garaiko hizkuntzaren gizarte egoera eta, baita ere, garaiko euskarazko irakurketa praktiken inguruan herritarrek eduki zitzaizketen gorabeherak ezagutzeko duen balioaz jabetzen bagara.

EUSKARAZ IRAKURRI ETA IDAZTEAREN GIZARTE PRAKTIKAK: EKOIZPEN IDATZIA

Tarte honetan ez dugu, inolaz ere, euskarazko ekoizpen idatziaren errepaso historikoa egiteko inongo asmorik. Horretarako, badu irakurleak nora jo gaur egun. Zentzu horretan, bereziki azpimarratu nahi genuke J.M. Torrealdai jaunak XX. mendean argitaraturiko euskarazko lanak bilduz egin zuen katalogo aberasgarria, hots, *XX. mende-ko euskal liburuen katalogoa (1900-1992)*¹. Gure aldetik, orain egin nahi dugun gauza bakarra aztergai dugun epealdian euskaraz idazten (argitaratzen) zena eta irakur zitekeenari begirada orokorra ematea besterik ez da. Gure benetako asmoa baita herritarrek ei zituzten irakurketa ohituren artean egutegien irakurketak zuen espazioa eta garrantzia bere neurrian ezagutu eta izendatzea. Horrenbestez, euskarazko egutegien argitalpena euskarazko idatzien ekoizpenaren testuinguru orokorraren barruan kokatuko dugu, lehenik eta behin.

Euskarazko ekoizpen idatziaren azalpen bibliografikoak eskaintzen dituzten bildumez gain, euskaraz idatzitakoari buruz gure artean egin izan diren lanak kultur esparru zehatzen inguruko azterketa partzialak izan dira, ezagutza esparru zientifiko partikularretatik eginikoak. Zentzu horretan, literaturaren historiaren inguruko ikerketak izan dira euskaraz idatzitakoaren bilketa eta analisisa egiteaz nabarmenki arduratu direnak. Euskaraz produzitu denaren historia gehienak literaturaren gainean idatzi dira. Euskal literaturaren historian oinarrizko erreferentzia izan diren K. Mitxelenaren (1998), L. Villasanten (1961), J. Juaristiren (1987a), edota I. Sarasolaren (1970) lanak ez ezik gogorarazi nahi ditugu J.M. Torrealdai (1977), I. Sarasolak

(1975) eta P. Iztuetak (1996) euskal kultura idatziarekiko egin dituzten hurbilpen soziologikoak. Kezka linguistiko eta filologikoez eraginda ere eman izan da, bere aldetik, hainbat testu motaren idazketa eta argitalpenaren inguruko berririk eta egin azterketarik. Zentzu horretan, aipagarriak dira *Anuario del seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* (ASJU) eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariak, sistematikoki argitarata ematen dituzten antzinako euskarazko eskuizkribuak eta bazterren batetik berreskuraturiko inprimakiak direla eta.

Bestalde, literaturaren historiari buruzko lan irakurrietan ahozkoari erreferentzia urria egiten bazaio ere, ahozko kultura eta ahozko literaturarekiko ardura ezaguna da gure artean. Gogora ditzagun ahozko sortu eta transmititu izan diren bertsoak jaso, eta jarritakoak bildu eta aztertu dituzten historia lan ezagunak, besteak beste, M. Lekuonak (1965), J. M. Lekuonak (1982) eta A. Zavalak (1964) eginikoak. Ildo beretik, aipatzekoa da bertsoak, koplak eta zernahi ahozko literatur, zein folklore adierazpenak jasotzeko gure artean izan den tradizioa, J.I. Iztuetaren *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira*-tik (1824) hasi, J. Manterola jaunaren *Cancionero Vasco*-tik (1878) pasa eta, 1961. urteaz geroztik *Auspoa* liburutegiaren baitan, A. Zavalak² eginiko bilketa, idazketa eta argitaratze lan erraldoiraino. Bidean lan interesgarri ugari uzten dugunaz jabetzen gara, baina ildoaren euskarriak nolabait adierazi besterik ez dugu egin nahi izan.

Historiaren ikuspegitik aztertu izan den ekoizpen idatziaren beste esparrua prentsarena izan da. Prentsaren historiari buruzko ikerketak³ ugaldtu dira gure artean eta, horietan izan du lekua, oraindik orain lehen aldiz, euskarazko kazetaritzaren historiak. Euskal prentsaren historiari buruzko azterketetara jotzen badugu, zera ikusiko dugu argi eta garbi: dagoen ikerkuntza eskasia. Aldizkari zehatz batzuei buruzko lan-txo monografiko zenbait besterik ez dugu aurkituko, oinarritzko lan baliagarriak izan arren, ikuspegi historiko orokorra falta dutenak. Gehienetan, bereziki gaztelerazko aldizkarietan oinarrituriko lan historikoetara jo behar izaten dugu argibide gehiagoren bila, eta maiz ikusi beharko euskarazko kazetaritzari buruzko fundamentuzko erreferentziarik ez dagoela. Azterketa urritasun nabarmen honetan, halere, hastapen garai baten aurrean gaudela pentsa dezakegu Diaz Nocik *Euskarazko prentsa XX. mendean (1919-1937)*. *Euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena* izenburuarekin aurkeztu zuen doktorego tesi lana (1992) eta ondorengo urteetan ildo beretik argitaratu dituen hainbat artikulua ikusita eta, batez ere, argitaratu duen *Euskarazko aldizkari*,

egutegi eta almanaken errolda (1834-1959) (1994b) dela eta, beste gainontzeko ikertzaileoi eskaintzen digun aukerari esker.

Azken urteotan, bestalde, hezkuntzaren historiaren esparrutik ere heldu zaio euskaraz argitaratutako testu eta idatzi didaktikoen bilketa eta azterketari. Azpimarragarria da, hezkuntza eta didaktikaren ikuspegitik, G. Arrienen⁴ taldeak II. Mundu Biltzarrean aurkeztu zuen haur liburu didaktikoen errolda. Halaber, eskolarako argitaratu eta ekoiztu izan diren euskarazko testu eta liburuen sorrera eta bilakaeraren arrazoi historikoa ezagutzeko, baita hauen bitartez helarazi izan den edukia eta ideologia zein izan den, eta haurren identitatearen eraikuntzan nola eragin ahal izan duten ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia dira P. Davilak (1997), L. Erriondok (1998) eta G. Ezkurdiak (2004) azken aldian burutu dituzten ikerketak.

Egindakoak gutxietsi gabe, eta jorratutako ildoetatik egin diren ekarpenen balioa zalantzan jarri gabe, alabaina, aztertzen ari garen eperako eta lurralderako faltan botatzen dugu, komunitate euskaldun zehatza abiapuntu harturik, honen pentsamoldea eta jokabidea aztertuko duen ikerketa. Zehazki, komunitate horrek dituen irakurketa eta idazketa praktikak eta ohiturak –pribatuak zein publikoak–, eta praktika horiei esanahia ematen dien mentalitatea bertakoen kultur praktika eta ohitura –ahozko zein idatzizko–, orokorren baitan aztertuko duena. Honelako ikerketa batek gainditu behar ditu, ezinbestean, orain arteko azterketa sektorialek –begi bakarrekoe–, ezartzen dituzten ezagutza mugak eta hartu, horren orde, diziplinartekotasunak eskaintzen digun ikuspegi zabala bezain aberatsa.

Zentzu horretan, Bilbo bezalako hiriaz, bertako herritarren irakurketa azturen azterketa historikoa (Zorrilla Castresana, 1988) egin denaren antzera, edota euskararen historiaren subjektu eta azterketa abiapuntutzat euskal hizkuntza komunitatea hartuz X. Erizek (1997) egin duen euskararen historia soziolinguistikoaaren ildo berriei arreta jarritz, aberasgarria litzateke euskal kultura idatziaren inguruko ikerketa bide berriei atea irekitzea, produkzio idatziaren kuantifikazio eta datu estatistikoetara murrizturiko analisiak alde batera utzi –baita lauzpabost intelektualen bizitzan eta ekintzan zentratutako historia egiteari atsedena eman–, eta euskaldunen irakurketa eta idazketa praktika kultural gisa beraien hizkuntza portaeren sistema zein kultur portaera sistemaren baitan ezagutzen saiatzea, egungoaz egiten den legez egitea ere iraganaz. Horretarako derrigorrezkoa da, gure ustez, azter-

keta historikoa ikuspegi antropologikoarekin uztartzea, baita psikolin-
guistikaren zein soziolinguistikaren ekarpenekin, komunikazioaren
teoriekin eta, zergatik ez, literatur kritikarekin ere, besteak beste.

Gure azterketa ez da hizkuntza komunitatearen –herri xehearen–, azterketa zuzenean oinarritzen. Gurea, komunitate horretako parte batek (elite deitu izan denak) bestearengan eragiten saiatzen den pentsamoldearen eta jokabidearen ezagutzan zentratzen da, eliteen lekukotasunetatik abiatuz, jakinik, Erizek (1997, 42) dion legez, “idazki hauek beren egileen kezken lekuko dir[ela] lehendabizi, ez zuzenean herri euskaldun xehearen kezka edo pentsamoldeen adierazle”. Halere, zenbait lekukotasun idatzi oso bide interesgarriak dira herri xehearen pentsamoldea eta jokabidea ezagutzeko, zeharka bada ere. Zeren herri xehea esaten dugun horiek ez baitu beraren jokabidea eta pentsakera hutsetik sortzen. Herri xehea den hori hain xehea ez den beste herritar multzo batekin elkarrekintzan dihardu iraunkorki. Herri xehea ez da beste gainontzeko gizarte taldeetatik isolaturik dagoen errealitatea. Eta, aldi berean, bada eta izan da elite bat –eskolatua–, herriaz arduratu izan dena, berarengan eragin nahi izan duena eta, horregatik, berarengandik ere eragina jaso duena. Elitearena, herri xehearena bezala, ez da gizarte talde iragazgaitza. Herri xehea eta elitea, herri kultura eta elite kulturaren arteko elkarreagina eta elkarrekintza errealitate historikoa da, errealitate dinamikoa eta ez fenomeno itxi eta estatikoa. Elkarreagin horren zergatia, izaera eta bilakaera ezagutzeko aukera eskaintzen digu azterketa diakronikoak. Horrenbestez, guk bide horri heldu nahi izan diogu, mugak muga, euskaldun herritarrengan (bere pentsamolde eta jokabidean) elite euskaltzale batek zein neurritan, nola eta zein bidetatik eragin nahi izan zuen ikusteko. Eta, aldi berean, herritarren pentsamolde eta jokabideek elite horren asmoak zein mailatan baldintzatu zituzten ikusteko.

Bihoa, beraz, gure ekarpena hezkuntzaren historia antropologi-
koaren azterketa ildotik, herri xehearen baitan eta bere kultur ekintzen testuinguruan euskarazko irakurketa eta idazketarako praktika sozialen ezagutza saiakera honetan. Gure helburua ez da herri literatura iker-
tzea, aitzitik gure azterketa xedea herri irakurketa da, herriari begira idazten den eta herriak irakurtzen duena ikertzea. Horretarako, prak-
tika sozial horiek beren testuinguru kultural orokorrean kokatzeko, lehenik eta behin goian aipatu azterketa sektorialetara jo behar dugu, besterik ezean, eta hauek eskaintzen diguten informazioaz eta ikuspe-
giuz baliatu.

1. Literatur produkzioaren dibertsifikazioa

Oro har, euskaraz idatzitako produkzioaz hitz egin ohi denean gehien bat literatur produkzioaz –literatura gisa zein testu mota kontsideratu daitekeenaren inguruko eztabaidak eta adostasun faltak barne–, aritu izan direla aipatu dugu. Ez gara gu esparru horretan, ezta eztabaida horietan ere, sartuko. Azken batean, irakurketa eta idazketa ohiturak eta praktika soziokulturalak ezagutzeko garaian garrantzi berbera hartzen baitute, hasteko bederen, idatzi literarioek, familia arteko gutunek, eskola liburuek, eliza testuek, koplek eta bertsoek, ateraldi xelebreek, egutegiek, udaletxeko bandoek, notaritzako testuek, etab. Halere, irakurketa eta idazketa ekintza literaturaren irakurketa eta idazketaren ekintzara murrizteko joera arrunta izan da gure intelektualen artean, ikertzaileen artean zein kultur politikarien artean eta, ondorioz, baita herritarren artean ere. Hain estua izan da literatura-irakurketa-idazketa artean ezarri den asoziazioa, ezen “irakurle” eta “idazle” kontzeptuak irudikatzen ditugunean berez literatura irakurle eta literatura idazleari egiten baitiogu erreferentzia. Termino generikoen jabe egin da literaturaren esparrua eta, abiapuntuan, ez da inolako zehaztapenik behar duenik kontsideratzen. Beste gainontzeko esparruen erreferentzian egingo dira, nonbait behar izan ezker, zehaztapenak, “prentsa irakurleaz” ari garelarik, “saiakera idazleaz” ari garelarik, adibidez. Gaur egungo euskal kulturaren aldeko politikan ere ikus dezakegu joera ideologiko hau haur eta gazteengan “irakurzaletasuna” bultzatzeko kanpainak egiten direnean, kasu. Zein irakurzaletasunaz ari gara? Literatur liburuen irakurzaletasunaz, noski. Berez, irakurtzeko zaletasuna literatura irakurtzeko zaletasuna bailitzan azaltzen dugu, ahaztuz (ohartuki edo ohargabe) irakurtzeko ekintza anitza dela, funtzio, interes eta egoera desberdinei erantzunez burutzen den ekintza dela. Gure lana izango da kasu eta une bakoitzean zergatik kultura jakin bateko gizarte talde batek duen herritarren artean irakurketa mota bat edo bestea, berdin idazketa mota bat edo bestea, bultzatzeko asmoa eta intentzioa.

Gurean ere, kultur errealitate gehienetan legez, hierarkia bat ezarri ohi da *de facto*, eta finkatu zer den literatura eta zer ez, zer den benetako literatura idatzia (baliozkoa) eta zer den bigarren edo hirugarren mailako literatur produkzioa. Eta, haritik tiraz, zer den benetako kultura idatzia eta zer geratzen den bere mugetatik kanpo. Hierarkia horretan, bestalde, irakurketa eta idazketaren kultur uniber-

tsoan galtzaile eta, ondorioz, neurri batean baztertuak geratu ohi dira eskuizkribuak liburu inprimatuaren aurrean, liburu kontsideratzen ez diren inprimakiak (liburuxka, bertso paper, txartel, etab.) liburutzat hartzen direnen aurrean, literaturaz kanpoko arloak literatur produktioaren aurrean, ahoz kotasunetik hurbil dagoen idatzia horretatik urrun dagoenaren aurrean, etab. Oro har, irakurketa zein idazketa moduen artean bereizketa ezartzen da, batzuek besteak gailentzen dituzteneko bereizketa ezartzen da, arrazoi ideologiko eta politikoei eta, zergatik ez, arrazoi ekonomikoei erantzunez. Finean, bereizketa horiek guztiak askoz kontra jartze orokorragoari jarraitzen diote, hots, elite kultura (jantzia, landua, eskolatua, modernoa, oinarrian Kultura –hizki larriz–) eta herri kultura (tradizionala, ahozkoa, eskolatugabea, kultura –hizki txikiz–) kontra jartzeari⁵. Horrek guztiak, noski, herri-tarrek irakurketa eta idazketa ekintzetaz duten pertzeptzioan eta, baita, beraien ohiko praktikan, moduetan eta ohituretan eragin zuzena izango du, bai nork zer irakurri edota idatzi behar duen erabakitzeko garaian, nola irakurri behar duen eta nola idatzi behar duen erabakitzerakoan, bai zein hizkuntzatan irakurriko duen eta zein hizkuntzatan idatziko duen hautatzeko garaian.

Oro har, orain arte egin diren euskal literaturaren historiiek eutsi dioten ildoaren arabera, eta Mitxelenak eginiko lehenengo baieztapenari helduz, kontsideratu izan da euskal literatura idatzia berandu agertu izandakoa dela, hego eta iparraldearen artean garapen erritmo desberdina eraman duena, eskasa eta ez oso kalitate handikoa. Ahozko literatura aberatsa eta emankorra izan dela onartu den bezala, idatzia- ren inguruko iritzia bestelakoa izan da. XVI. mendeaz geroztik eza- gutu delarik euskaraz idatziriko lehen lana, fenomeno isolatutzat hartu izan da literatura idatziarena, gizarte sektore dirudunei eta elizgizonei loturiko fenomeno gisa. Landu izan diren gaietan, halaber, izaera erli- jiosoa zuten idatziaren nagusitasuna nabarmendu da, bere izaera prag- matiko eta funtzionala nagusi izanik. Mitxelenak (1988, 22) adierazi zuenez, “(...) predominio desmesurado de las obras de carácter reli- gioso sobre las profanas, fuera de la literatura oral (...) el campo prin- cipal de aplicación de las letras vascas ha sido el de la formación reli- giosa”. Dena den, lehenengo mendeetan lanketa eremu nagusia erli- jioarena izan bazen ere, XIX. mendean zehar dibertsifikazio nabarmena eman zen, aurreko mendeetako ekoizpena kuantitatiboki gairitu zelarik, eta pixkanaka formazio erlijiosora zuzenduriko lanen nagusi- tasuna desagertuz joan zen, nahiz eta idatzi zen guztiaren oinarria

funtsean katolikoa izan oso. Foruen deuseztearen ondorioz loratu zen Kultur Pizkundan –Literatur Pizkundera ere izendatua izan dena– euskararentzat adierazpen modu desberdinak bilatzen saiatu ziren. J.M. Torrealdaik eta J. Aurmendik (1985, 488) azaldu zuten, “hay, pues, una generalización del cultivo literario y consecuentemente una mayor secularización. Se trata aún de minorías, pero la tendencia es irreversible”. Orduan hasi zen, euskarazko idazketa literarioa beste idazketa motetatik –erlijiosozkotik, linguistikotik–, bereizten eta estatutu soziokultural berariazkoa edukitzen. Euskal literatura bere instituzionalizazioruntz abiatu zen, esaten digu B. Estornesek (1988, 171): “una progresiva institucionalización de la literatura como práctica cultural socializada, tanto de la perspectiva de la actividad creativa como de la de la lectura”. Garai haietan euskal literaturak dimentsio berria eta aurrekoarekiko erabat desberdina zena hartu zuen: erromantikoa, nazionala eta herritarra. Estornes jaunak esandakoari heltzen diogu berriro:

... la conciencia del euskara, como carta de ciudadanía colectiva, inscrita ahora en la mentalidad romántica y en el movimiento de reivindicación nacional vasca provocará una actividad literaria distinta cuantitativa y cualitativamente de la de la etapa anterior: la literatura es por un lado expresión, no sólo del genio y la capacidad creadora del escritor, sino del espíritu de un pueblo que tiene en la lengua –el euskara– sus señas de identidad más certeras e indiscutibles, y por otra parte, permite crear un modelo de realidad vasca asentado precisamente sobre los valores que las vicisitudes socio-políticas han puesto en peligro y que es preciso defender y conservar.

XIX. mendearen bigarren erdialdean indartutako literatur pizkundera jarraitu zuen hazten progresiboki bai liburuen edizioari zego-kionez, baita euskal geografia osoan zehar egiten ziren zertamen, lehiaketa eta literatur festei zegokienez ere. Izan ere, literatur lehiaketa eta zertamenen bitartez, eta baita aldizkariaren bitartez ere, kultur azpiegitura osatzera zuzenduriko lan itzela egin zen, literatur ekintza erraztu eta posible egingo zuena neurri handi batean. Testuinguru horretan, euskarazko idazleen kezkarik nagusienetako bat zen euskararen ortografiaren batasunari heldu zitzaion, interesatu guztien parte hartzearekin, mendea hastarekin batera antolatu zen Hendaiako biltzarrean. Bileraren porrota ondoren, ordea, ez zen berriro seriooki planteatu ortografiaren batasuna 1919. urtean Euskaltzaindia sortu zen arte.

Ortografiaren batasuna erabat eramango da aurrera 1968ko Arantzazuko jardunaldietan.

Ahozko literaturaren esparruan, poemagintzak, atsotitzak eta antzerkigintzak izan zuten bere lekua, baina aztergai dugun epealdian gorengo maila lortu zuen literatur mota bertsoaritzaarena izan zen. Aipatu beste literatur motek goitik beherako bidea hartua zutelarik, bertsoaritza erabat nabarmendu zen, kualitatibo eta kuantitatiboki, XIX. mendean, eta Gipuzkoan bereziki. Antolabideak ere berriro egin ziren. Tradizioz bertso desafioak zirenak bigarren karlistadaz geroztik desagertuz joan ziren, eta plazako bertso-gintza modua –lehiaketa modukoa– indartu egin zen. Hau, batez ere, Lore Jokoei esker gertatu zen, txapelketa eta jaialdien antolabide berriak gorputza hartzen joan zirelarik. Testuinguru horretan, J.M. Lekuonak (1985, 466) aditzera ematen digunez, “bapateko bertso-gintza palanka ederra zitekeen herriarengana iristeko, eta herria eritziz eta sentimenduz hornitzeko, jorkabide sozial-politikoaren zerbitzuan”. Badirudi bertsoari jendaurreko emanaldiei eragin soziala aitortzen zitzaizela nolabait. Eta, faktore hori oinarritzeko izango zen, ziur aski, fenomenoaren biziraupenerako.

Orobat, bertsoaritzaaren iraupen eta hedapenean eragin zuen faktorerik garrantzitsuenetakoa XIX. mendean garatu zen bertso-paperearen fenomenoaren izan zen. Aspektu ezberdinak kontuan hartuz, eta ikuspegi ezberdinetatik ikusita, azpimarratu izan da bertso-paperearen fenomenoaren esanahia eta garrantzia: dokumentu historiko garrantzitsuak diren heinean (L. Mitxelena, 1988), bertsoaritza berarentzako aurre-pauso gisa (J.M. Lekuona, 1985), eta informazioaren zabalkunderrako pisuzko baliabide izan ziren neurrian, A. Zavalak (1964, 45) esan-go digun legez:

Es ésta, sin duda, la modalidad literaria vasca que más ha hecho trabajar a las imprentas. El espíritu vasco se nutrirá en adelante [1839. urtetik aurrera ari da] del “bertso-papera” más que de cualquier otro libro religioso o profano, más que de toda poesía culta. El “bertso-papera” ha sido nuestra primera publicación informativa, tanto de asuntos mundiales como locales o personales, nuestro mejor órgano de difusión de la opinión de nuestro pueblo y manifestador de sus sentimientos. Instrumento a veces de justicia popular, y el más fiel retrato del alma.

Eta, baita euskararen kontserbaziorako bide bezala ere, izan ere, “de lo que nadie puede dudar es de la gran intensidad de este fenó-

meno, al que hemos de reconocer como a uno de los principales factores de la conservación del euskera en los labios del pueblo” (A. Zavala, 1964, 64). XX. mendean aurreko bideari jarraitu bazitzaion ere, pixkanaka ahulduz joango zen fenomenoa dugu, herri irakurketa beste produkzio idatzietan zentratuz joango zelarik.

2. Irakaskuntzarako testuak

Irakaskuntzarako testu gisa izendatu nahi dugu izaera praktikoa duen testu oro, irakurleari ikastera eragin nahi dion testu oro. Hemen sartzen ditugu kristau dotrinarekin batera, irakaskuntza morala eta jokabidezkoa bilatzen zuten fabulak eta, noski, irakurketa eta idazketaren ikaskuntzari zein horien praktikari begira argitaraturiko lan guztiak. Baita ere, euskarazko ikaskuntzari begira, euskaraz erakusteko, irakurtzen eta idazten ikasteko edo euskarazko irakurketa praktikatzeo idatzitako liburuak ere. Oro har, testuliburu edota liburu didaktiko gisa izendatu izan diren obra mota guztiak aintzat hartzen ditugu esparru honetan.

Euskarazko irakaskuntza liburu eta eskola liburuen historia egite-rakoan Davilak (1997) bi garai bereizi ditu. Bata, 1876. urte bitartekoa, kristau dotrina irakasteko katixima ugariak (eskoletan baimentzen zen euskarazko testu bakarra), eta frantsesa edo gazteleraren irakaskuntzari begira idatziriko gramatika batzuk nagusi zirelarik. Bigarren epea 1937. urte bitartekoa dugu. Bitarte horretan, XIX. mendeko 90eko hamarkadaz geroztik, silabarioak, irakurketa liburuak, ipuinak, geografia edota aritmetika irakasteko testuak, eta abar argitaratzeari ekin zitzaion, gehienak, neurri handian, ikuspegi nazionalistatik eginak. Horien artean, beraz, XIX. mendearen hurbilenean zeuden irakaskuntza eta eskola liburuak katiximetan, gramatiketan eta ipuinetan bilatu behar ditugu, batik bat.

Oro har, meen eskuetan gehien jarri zen liburu mota kristau ikasbidea izan zen. Eta arruntenak, bai foruen garaian eta bai berauen galeraren ondorengo lehenengo hamarkadetan euskarazko ekoizpen idatzia urrituz joan zenean ere, Astete aitaren eta Ripaldaren itzulpenak izan ziren, euskalki askotara itzuliak izan zirelarik gainera.

Alegigintza, halaber, indar eta entzute handia izan zuen literatura izan zen. Gazteteoei irakasbideren bat agerian jartzera zuzenduak, eta erlijio testuak baino irakurterrazagoak zirenak, zabalduak izan ziren

oso, Samaniegoren alegiekin batera, Bizenta Mogelen *Ipui onac, cein-zuetan arquiteuco dituzten euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco*, eta A. Pascual Iturriagaren *Ipuiak*.

Irakurtzen eta idazten ikasteko idatzitako kartila eta silabarioen artean, gazteleraren ikaskuntzari begira idatziriko manual elebidunak alde batera utzita, euskara hutsean idatzitakoak ere argitaratu eta zabaltzen hasi ziren piskanaka. Gipuzkoako herrialdeko Junta karlistak argitaratu zuen lehena 1875ean, G. Zalakainek moldatua, *Iracurtzaren asierac edo lenasteac euscalerrico aurrentzat* izenburuarekin⁶, irakurketaren irakaskuntza lehenenik euskaraz, eta gero gazteleraz egin zedin, hain zuen, 4. zenbakia zeraman zirkularrean ageri denez⁷. Ondorengo urteetan, kultur susperraldiaren garaian eta batez ere aztergai dugun epealdian, silabarioak izan ziren euskarazko testu liburuen aitzindari gisa eskura jarri ziren lehen testuak. Euskaraz irakurtzen eta idazten irakasteko lehen urratsak izan ziren. Karlistek argitara eman zuten kartilaren ezaugarri bertsuekin argitaratu zen 1886an *Agakia euskeras irakurten ikastekoa* izenburua zeraman silabarioa, K. A. Ormaetxeak idatzia⁸. Horren egitura berdintsuarekin, halaber, argitara eman zuen S. Aranek *Umiaren lenengo aizkidia*, 1897an.

Irakurtzen eta idazten euskaraz irakasteari dagokionez, beraz, aztergai dugun denbora tartearen lehenengo silabarioen, katiximen eta alegien eta, XX. mendearen 20eko hamarkadatik aurrera, Eusko Ikaskuntzaren babespean emango zen hizkuntzaren berreskurapen kulturalerako politikaren barruan argitaratuko ziren liburu eta kartilen bitartean dagoen garaia da. Tarte horretan, dena den, ez zen gauza gehiegirik argitaratu: Euskara ikasteko gramatikak eta hiztegiak, helduei begira idatziak batik bat, hala nola, A. Campionen *Euskal-Izkindea*, Aizkibel ta Novia Salcedoren *Iztegiyak*, J.M. Lertxundiren *Euskal-iztiya*, M. De Arruzaren *Método práctico para aprender el euzkera*, B. 'tar P-k idatzitako *Método fácil para aprender el euzkera*, I. Lopez Mendizabalek egindako *Euskeraz eta erderaz itz egiteko esku-liburua*, Bera-Lopez Mendizabalen *Erdera-euzkera eta Euzkera-erdera iztegia* etab. Aritmetika irakasteko I. Lopez Mendizabalek idatzitako *Ume koxkorrentzat euzkeraz egindako zenbakiztiya edo aritmética*, R.M. Azkueren *Erkindea-Geografia* (ume txikientzat). Irakurketa liburuetan: R.M. Azkueren *Lenengo irakurgai Bein ta betiko*, J.M. Lertxundiren *Polli eta Pello*, E. Bustintzaren *Abarrak*, edota Bizente Aizkibelen *Ipuin Aberkoyak*. Euskara eta euskarazko irakaskuntzari begira argitaraturiko

liburu eta kartilen ugaltzea eta zabaltzea nabarmena izan zen mendearen bigarren hamarkadatik aurrera, lehen esan bezala, Eusko Ikaskuntzaren kultur berreskurapen politikaren barruan argitaratu ziren lanen ildotik. Hor, nabarmen ageri den izena I. Lopez Mendizabalena da, berak eta bere inprimategiak esparru didaktiko honetan egin zuen lana –*Umearen laguna, Xabierto, Martin Txilibitu...*–, erabat esanguratsua izan baitzen, jada abertzaletasun jelkidearen inguruan finkatu zen testuinguru ideologikoaren barruan (P. Davila, 1997), ondorengo urteetan garatu zen euskarazko irakaskuntza eta alfabetakuntzarako.

3. Prentsaren hedapena

Literatur lanen ugaltze eta dibertsifikatzearen fenomenoagatik ez ezik, aztergai dugun epealdia azpimarragarria da Hegoaldean sortu ziren eta nolabaiteko sendotasuna eduki zuten kultur talde ugariengatik nagusiki eta, gehienetan, beraien inguruan argitaratu ziren aldizkari ugariengatik. Oro har, Espainia mailan idatzi eta inprimatuaren erabileraren masifikazioa eman zen unea dugu, J.F. Botrel-ek (1993) esaten digunez. Izan ere, 1868-1914 epealdia idatziaren masifikazio garaia –komunikabide eta garraiobideen garapenarekin bat eman zen masifikazioa–, kontsideratzen du, nahiz eta, oraindik, nekazal zonaldeak hedapen horretatik kanpo geratuko ziren. Euskal Herrian, bestalde, euskal kultura idatzia finkatze prozesuan sartua zegoela esan dezakegu. Euskarazko aldizkarien benetako “boom”a zertxobait beranduxeago eman zen, 20ko hamarkada inguruan, hain zuzen, eta 30eko hamarkadaren erdialderarte iraun zuen. Halere, XIX. mendearen bukaera eta XX.ekoaren lehenengo hamarkadak ere nabarmendu ziren aipatu kultur talde eta aldizkarien sorreragatik. Horregatik guztiagatik, irakurketa eta idazketaren praktika sozial eta kulturala aztertzeke garaian ezinbestekoa da prentsari tartetxo bat egitea. Guk lan honetan prentsaren, oro har, baina batez ere aztergai dugun garaiko euskal prentsaren funtzio alfabetatzailea azpimarratu nahi dugu. Garai hartan euskaraz idatzitako kultur aldizkariak eta, horiekin batera, egutegiak funtzio informatzailea ez ezik funtzio hezitzailea eta alfabetatzailea ere bete zutenaren ideia dugu abiapuntu⁹.

Prentsarekiko hurbilpena, ondorioz, bi ikuspegitik begiratuta egiten zaigu interesgarri: prentsa bera historikoki aztertzen den objektu

gisa har daitekeelako. Eta beste fenomeno sozialen azterketa histori-koetarako iturri gisa baliagarria delako. Lehenengo ikuspegitik azter-tuta, garaiko populazioaren pentsamoldea izan zena, sektore ezberdi-nek sentitzen eta pentsatzen zutena ezagutzen laguntzen digu prentsak. Izan ere, aldizkariaren eta irakurlearen artean ematen den elkarre-kiko komunikazioa zentzu dinamikoan ulertzen dugu, eta publika-zioek luzatutako mezuek irakurleen pentsakera moldatzen dutela ikus-ten dugun aldi berean, publikazioek ere gizarteko parte batek beraie-tan aurkitu nahi duen iritzia –beren izaera eta zentzua emango diote-na–, adierazten dutela ez dugu ahaztu behar. Honela azaltzen digu Rivera Blanco-k (1986, 551) dinamika hori:

... el lector se acerca al medio que le cuenta lo que él quiere escuchar, y no tanto por una cuestión de autosatisfacción o confirmación gratuita de sus propias ideas, como por el hecho de que las claves del mensaje y el mensaje mismo se emiten y se reciben en un marco similar.

Erlazio dinamiko horren adierazgarri dira, beste batzuen artean, aldizkariak irakurleria erakartzearren eta irakurlearengana hurbiltze-arren erabilitako mekanismo ezberdinak, Cal Martínez-ek (1991) XVIII. mendeko Espainiako kazetaritzarako aditzera ematen dituenak, adibidez. Aipatzen duen hainbat mekanismo, hots, edukia eta idazke-ta estiloa egokitzea, egunkarien bereizketa tipologikoa, banaketa mo-duak, publizitatea, korrespontsalgintza, gutunak, kolaborazioak, izen-goitien erabilera, eta abar, gure garaiko euskal kazetaritzaren kasurako aplikagarriak dira XIX. mende bukaeran eta XX.ekoaren hasieran, oraindik orain, mantendu eta erabiltzen ziren estrategiak baitziren.

Aldizkariak historiarako iturri gisa erabiltzea, bestalde, joera arrunta izan da artxibo eskasia dagoen garaiak aztertu izan direnean (J.L. Guereña, 1986). Gure kasuan, euskararen erabilerarenean alegia, hautatu garairako dugun informazio iturri eskasaren aurrean oso baliagarri deritzogu aldizkarietara jotzeari hauen bitartez, irakurleriarekin zuten barne zein kanpo erlazioetatik abiatuz, kultur talde, elkarte eta alderdi politikoen jarduerak berreraikitzeo aukera baitugu. Halere, nahiz eta gure kasurako baliagarria izan, metodologiaren ikuspegitik kontuan hartu beharreko zenbait zehaztapen egin behar diogu informazio bide hau erabiltzeari. Gizarte errealitate jakin batekiko aldizka-riek ematen diguten informazioa, egiten duten errealitatea “errealitate informatiboa” da, bizituriko gizarte errealitatearen bertsioa, hain

zuzen, eta bertsoia den mailan bi oinarritzko mekanismoren bitartez eraikia dena:

a)... seleccionando, entre los diversos aspectos de la vida social, lo que consideran significativo de lo que consideran no-significativo.

b)... estableciendo un orden relacional entre lo significativo/lo in-significante, y entre los elementos que se incluyen como significativos. Este sistema de relaciones se basa en un orden jerárquico que va de lo valorado más o menos positiva o negativamente a lo excluido¹⁰.

Errealitate informatiboaren bidez eskaintzen zaigun gizarte errealtatearen berraurkezpenak jokabide pertsonal edo kolektiboan izan dezakeen eraginaz jabetu behar dugu eta aipatu aldagaiak gogoan hartu prentsaren irakurketa kritikoa egiteko garaian, bertatik ateratako informazioaren balidezia, fidagarritasuna eta adierazgarritasuna baloratzeko garaian; finean, informazio iturri gisa erabiltzeko garaian.

Garaiko iritzi partikular eta kolektiboen, horien arteko gatazka ideologikoen eta garaiko zenbait gertaera sozial eta kulturalen ezagutzarako eta azterketarako prentsak eskura jartzen digun aukera bazterrezina da. Halaber, alfabetatzearen, zehazki euskal alfabetatzearen historiako baliagarria iruditzen zaigu oso aldizkariak, berauek beren eduki, egitura eta erabilerari esker, eskaintzen diguten zenbait aspektu aintzat hartzea. Zehatzago esanda, baliagarriak iruditzen zaizkigu aldizkariak irakurketa eta idazketaren eragile bihurtzen dituzten aspektuak.

Zentzu horretan, irakurketa ekintzaren eragile gisa azaltzen zaigu prentsa irakurketara animatzen duten eslogan edo aholkuak espreski luzatzen dituen heinean, bere iragarkien atalean zein albisteen atalean liburu eta aldizkariaren propaganda egiten duen heinean, edota irakurketa (euskararen kasuan, zehazki ere, idazketa) gidatzeko laguntza “didaktikoak” (hitzen itzulpenak, argibideak, esplikazioak...), eskaintzen dituen heinean. Azken aspektu horren arabera aldizkariaren nolabaiteko “irakasle” edo ikaskuntzarako “orientatzaile” izaeraz hitz egitera ausartuko ginatke. Oro har, esan dezakegu Espainiako XVIII. mendeko argitaratzaileei leporatzen zaien herria alfabetatzeko edo instruitzeko interesa¹¹ bera atzematen dela aztergai dugun epealdiko euskal argitaratzaileengan.

Bestalde, hizkuntz arauen ezarpena eta erabilera finkatzen lagundu duen heinean, hizkuntzaren estandarizaziorako bide gisa uler daiteke prentsa. Euskal kazetaritzaren kasuan, Diaz Nocik (1994a) argi utzi

du bereziki XX. mendeko lehenengo hamarkadetako kazetagintzak, eskaera komunikatibo berrietara moldatuz eramandako euskararen funtzionalizatzeko prozesuagatik batik bat, hizkuntza estandar batzuen ereduaren sorreran izan zuen garrantzia.

Ezin ahantzenez, azkenik, aldizkariak bere iragarki, parte ofizial eta abarren bidez betetzen duen gizarteratze funtzioa (azpitu-tuak, zenbaitetan, aldizkariak gizarterekin duen lotura azpimarratzen du).

Prentsaren azterketak herri heziketa eta alfabetatzeko prozesuen ezagutzarako duen garrantzia azpimarratu ondoren, zer esan dezakegu Euskal Herriko kazetaritzaren historiari? Bada, Hego Euskal Herrian prentsak izandako historiari so egiten badiogu, berehala ohartuko gara, bere hastapenetan bederen, gaztelarazko prentsaren historiari ari garela hitz egiten. Sánchez Arandak¹² azaltzen digun legez, XIX. mendearen lehenengo urteetan hasiera lukeen Euskal Herriko kazetaritza modernoa gaztelaraz idatzitakoa izango dugu. Independentziaren Gerrarekin batera sortu ziren *Gazeta de oficio del Gobierno de Vizcaya* eta *Gazette de Navarre* (edo laister *Gazeta Oficial de Navarra* izango zena) aldizkariak, helburu propagandistikoa zuten aldizkari ofizialak ziren; biak elebidunak (frantsesez eta gaztelaraz), Kataluniakoetan ez bezala, bertako hizkuntza (euskara, alegia) baztertuta zutenak.

Gaztelaraz idatzitako prentsak bazuen, jada XVIII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, arrakastarik Hego Euskal Herriko biztanleen artean. Bertan gaztelaraz argitaraturikoen gain, aipagarria da Espainian argitaraturiko aldizkariak ere Euskal Herriko herritarren artean izan zuten harrera. Argi ikusten da Fernández Sebastián-ek¹³ eginitako lanean, batik bat Madrilgo *Gaceta de Madrid* eta *Mercurio Histórico Político* aldizkarietako harpidedunen zerrendetan azaltzen zen Euskal Herriko biztanleen kopuru handia, beraien jatorri soziala eta zeintzu irakurketa joerak zituzten eta, ondorioz, aipatu aldizkariak, eta bereziki *Gaceta*-k, gure artean izaniko arrakasta. Autore beraren ustez, irakurleria hori izan zen aldizkako prentsaren lehenengo irakurleria publikoa Euskal Herrian. Era berean nabarmendu da, XIX. menderako jada, adibidez Bilboko irakurketa zaletasunak aztertzeke garaian, bertako populazioak edo, hobe esanda, populazioaren parte batek atzerriko aldizkariak (Espainian argitaraturiko gaztelarazkoak zein beste herrialdeetan frantsesez edo ingelesez argitaraturikoak) irakurtzeko zuen zaletasuna (R. Zorrilla Castresana, 1988).

Oinarri hauetatik eman zaio hasiera Hego Euskal Herriko prentsaren historiari, Hego Euskal Herriko gaztelerazko prentsaren historiari. Azken bi mendeetako denbora testuinguruan eta Euskal Herria bere osotasunean hartuta (erdaraz, euskaraz ala elebidunez idatziriko argitalpen guztiak barne), ikusten da XIX. mendearen 50eko hamarkadan eta, batez ere, 60koan nabarmenki hasi zela hazten urtero sortzen ziren aldizkari berrien kopurua (1868ko iraultzaren ondoren argitalpenen agerpenean hazkunde nabaria eman zen): “A estas alturas de siglo, el desarrollo de la prensa era ya imparable” (A. Ruiz de Gauna, 1991, 656).

Prentsaren bultzada honetan eragin zuten faktoreen artean aipatzen dira, besteak beste: informaziozko kazetaritzaren agerpena, berriak irakurlearengana gerturatu zituzten eta aldizkarien hobekuntza ahalbideratu zuten aurkikuntza teknikoak (telegrafoa eta trenbideak), gizartearen gero eta politizazio handiagoa¹⁴, langileria zuzenduriko prentsaren sorrera, eta “... el acceso de una incipiente clase social al mundo de la comunicación escrita”(A. Ruiz de Gauna, 1991, 657). Faktore hauei guztiei erantsi behar zaie, halaber, Sabino Arana Goirik eta bere jarraitzaile nazionalistek aldizkako publikazioen mailan egin zuten lana, beraien ideiak zabaltzeko prentsari eman zioten tokia eta garrantziagatik. Ruiz de Gaunak berak esaten digunez, katalogaturiko publikazioen heren baten inguru esparru nazionalistan argitaratuak izan ziren, nolabaiteko bezero politikoaz ere hitz egin daitekeelarik.

XIX. mendean hasitako ibilbideak jarraitu zuen mende berriaren hasierarekin, hazkunde puntu altuenetarikoa Lehenengo Mundu Gerra garaia inguruan lortuz, eta ondorengo urteetan ere publikazio berrien argitalpena mantenduz eta gehituz, frankismo garaia iritsi arte. Aldizkarien edukiari begiratu ezker, bi datu azaltzen zaizkigu azpimarragarrien: prentsa politikoaren ugaritasuna, non, aipatu bezala, ideologia nazionalistaren nagusitasuna egiaztatuko den, eta, prentsa erlijiosoaren ugaritasuna, honekin ere gure herrian Elizak izaniko presentziaren garrantzia argi geratzen delarik.

Bestalde, euskaraz idatzitako prentsari dagokionez, Diaz Nocik (1992) 1919-1937 denbora tartearen hausturaren epealdia izendatu du. Aztergai dugun garaia, berriz, haustura horren aurretiko eta abiapuntu gisa izango da ikusia. Euskal Herriaren eremu osoa aintzat harturik egin duen euskal kazetaritzaren historia oso estimagarri eta baliagarri izan zaigu gure azterketa xedearen ulerkuntzarako. Gure azterketa garaia den amaiera den unea da, autorearentzat, euskal kazetaritzarako

garai berri baten hasiera, euskarazko kazetaritza modernitatean sartu zeneko unea, alegia. Honela dio berak: “Euskal prentsari dagokionez, gure ustez aldaketa kualitatibo franko emanez (teknikoki, hizkuntz-ereduei dagokionez, politikoki ere) modernitateruntzako behin betirako bidetik abiatu zen, benetako kazetagitza euskaraz egitea posible zela frogatuz” (1992, 10).

1919. urtetik aurrera euskara eguneroko prentsan sartzeko egin zen ahalegin sendoak, euskarak irрати eta komikietan izan zuen sarrerak eta denetarikoz kazeta baliabideen erabilerak eraman dute Diaz Noci modernitatean sartutako euskal kazetaritzaz hitz egitera. Gure epealdiari legokiokeen euskal kazetaritza, beraz, autoreak ezarri 1834-1919 denbora mugen artean kokatzen denez, modernitate aurrekotzat edo euskal prentsaren hastapentzat hartua izango da. Euskal kazetaritzaren lehenengo adibidea 1834an Donostian argitaratu zen *El Correo del Norte* aldizkari liberalean azaldu ziren euskarazko lehenengo testuetan ikusten du, bertan liberalak azalduko zaizkigularik, nekazariak beren ideietara makurtzearren, euskaraz idatzitako prentsa arduratu ziren lehenak. Esan daiteke, polarizazio politikoaren, XIX. mendean zehar areagotuz joan zen polarizazio politikoaren ondorioz piztu zela euskarazko kazetaritza, Ipar zein Hego Euskal Herriko prentsa, almanaka eta kazetetz osatutako kazetaritza:

Mendearen lehenengo erdialdean Ipar Euskal Herrian *Uscal Herrico Gasetak*-ekin burutzen den lehenengo saiakera desberdin bezain garrantzitsuen ondoren¹⁵, ildo berriaren sorrerari eman zitzaion hasiera euskarazko kazetaritzan, zenbait aldizkari kulturaletan gauzatu zen kazetaritza foruzalearen aldi berriari alegia. Foruen galtzea eta gero, 80ko hamarkadatik aurrera batik bat, euskarazko kazetagitza gailurrera ailegatu zen Hego Euskal Herrian. Honela azaltzen digu ildo Diaz Nocik (1992, 98): “Nolabait, hegoan batez ere, aldizkari horiek hasiera eman zioten mugimendu bati, fuerismoarekin lotua, vasquismoarekin zerikusia bazuena, gero foruzaleen aldizkariarekin eta baita Azkuerekin ere zerikusia izango zutena”.

80ko hamarkadatik aurrera, bi korronte nagusi bereizi ditu –mugimendu politiko binarekin–, aurrerantzean gauzatuko zen euskara estandarra ulertzeko eredu ezberdinekin lotuak azaltzen zaizkigunak, maila batean ere: *Revista Euskara*, *Euskal Erria* edo *Euskal Esnalea* aldizkari kulturalen inguruan sorturiko korronte foruzale edo euskaltzalea batetik, Azkueren teoriatik gertu, gipuzkerako ereduari jarraitzen ziona, eta XX. mendearen lehenengo hamarkadetan sortuko zen *Argia*

aldizkarien orrialdeetan etandarizatu, kodifikatu eta finkatuko zena. Eta, bestetik, Arana Goiri eta bere jarraitzaileak, azpieuskalki batzuen elementuez osaturiko bizkaierazko ereduari heltzen ziotenak, eta irakurleriaren eskaera eta beharretatik urrundu zen neurrian kazetaritzan beste erduek baino arrakasta txikiagoa izan zuena. Bien artean, halaber, Euskalerrriakoak leudeke, Azkuerekin, fuerismoan sortu eta aberztaletasunerantz joanak¹⁶.

Testuinguru horretan kokatu behar ditugu, aipatu aldizkari kulturalekin batera *Revista Internacional de Estudios Vascos* (1907-1936); prentsa abertzale-jelkidearen artean, adibidez, *Bizkaitarra* (1893-1895), *Baserritarra* (1897), *Gipuzkoarra* (1907-1913), *Napartarra* (1911-1918), *Arabarra* (1912-), *Euzkadi* (1913- lehenengo kultur aldizkari abertzalea), eta *Euzko Deya* (1916-1923, abertzaleen euskara hutsezko lehenengo aldizkari kulturala); Euskalerrriakoen prentsaren barruan, *Euskalduna* (1896-1909), *Euskalzale* (1897-1899), *Ibaizabal* (1902-1903); jelkide ez izan arren, euskara nolabait erabiltzen zuten aldizkariaren artean, *Adelante* (1901- ?), *La Voz del Trabajo* (1901-1934), *El Kantabriko* (1910-); erlijiozko aldizkariaren artean, *Jaungoiko-Zale* (1912-1932), *Jesus'en Biotza'ren deya* (1917-1936), *Zeruko Argia* (1919-1936); nekazaritzari buruzko aldizkariaren artean, *Gipuzkoako Nekazaritza* (1903-1907) eta *Baserritarra* (1904-1911).

Abertzaletasuna, zentzu orokorrean, eratzeko ezinbestekoa izan zen pentsamolde zabalaren barruan kokatuak zeuden aldizkari horiek. Muga lokalak gaindituz, euskal herrialdeen zein, kasu batzutan, Ameriketako esparrua hartzen zuen irakurleria euskaldun, euskaltzale, euskotar¹⁷ edo “vascongado”aren artean saiatu ziren beraien mezua zabaltzen, ideologia jarraitzaileak bildu eta elkarren artean lotzen. Probintziagaindiko izaera edukitzeak, bestalde, ideologiaren zabalkuntza mailan eragiteaz gain, maila linguistikoa, hizkuntzaren estandarizazioan ere bere garrantzia izan zuen, gure ustez. Ohar gaitezen gure epealdian oraindik ez zela euskara baturik ezarri ezta onartu ere, beraz, hainbat kasutan, euskara gutxi edo gehiago erabiltzen zuten aldizkariak euskalki ezberdinak erabiltzera jo behar zuten beraien mezuaren zabalkundearen mesederako¹⁸. Zentzu horretan, joera nagusia aldizkariaren sorlekuari zegokion euskalkian oinarrituriko idazkera erabiltzea izan zen¹⁹, eta horrek, herrialdeen artean ematen zen aldizkariaren mugikortasuna ikusirik, irakurleari zenbait esfortzu gehigarri eskatzen zion, irakurketan gaitze maila landua beharrezkoa izango zitzaielarik, norberaren euskalkia ez zen batean idatziriko aldizkari eta

testuak irakurri behar izaten zireneko kasuetan bederen. Egoera hau areagotu egingo zen idatzita ematen zen euskalkia irakurlearen ahozko euskalkitik nabarmenki aldentzen zenean, edota erabiltzen ziren euskalkiaren estandarizatze arauak irakurlearen ahozko erreferentzia hurbilenetik (euskalki berekoa izanik) gehiegi urruntzen zireneko egoeretan.

4. Almanakak eta egutegiak.

Almanakak eta egutegiak ere euskarazko ekoizpen idatziaren zati izan ziren. Baina, ez dira orain arte, azterketa bereiziren baten xede izan gure artean. Literaturaren historia egin izan denetan, adibidez, beraien inguruko aipamen soilak besterik ez dira egin. Halere, herri kultura eta herri literatura aztertzeko egutegiak testu baliagarriak direla aitortu behar dugu, horietako batzuetan argitaratu ohi ziren bertsoak, ateraldiak, atsotitzak, eta abar kontuan hartuta, batez ere. Zer esanik ez, euskara baturik ez zegoen epealdirako hizkuntz azterketak egiteko oso dokumentu interesgarriak dira, idazle eta argitaratzaileen artean zeuden lexiko eta ortografia mailako adostasuna, desadostasuna edo anabasa dokumentatzeko, baita herri hizkeraren idazketa eta dialektologiarako oinarrizko informazioa ere eskaintzen diguten dokumentu bat gehiago diren heinean.

Testu didaktiko eta irakaskuntzakoen azterketa historiko gehiengotan, berriz, ez dira ia aipatu ere egiten egutegiak. Trataera zertxobait sakonagoa jaso izan dute euskarazko prentsaren historia aztertu izan denean. Díaz Nocik, hain zuzen, aldizkako almanakak eta egutegiak euskarazko kazetaritzaren aurretiko gisa hartzen ditu, eta zentzu horretan tarterik eskaini izan die bere azterketan²⁰.

Guk geure aldetik ez dugu zalantzan jartzen egutegiek, batzuek bederen, aldizkako prentsari egotzi izan zaizkion ezaugarriak eta funtzioak betetzen zituztenik. Neurri handi batean, hainbat aldizkako egutegi (*Euzkel-Egutegiya*-k adibidez) garai bereko euskarazko kultur aldizkariekin pareka daitezke, batzuek eta besteek zabaldu zituzten mezuak ikusita, batik bat. Eta, zentzu horretan, zilegi da egutegiak prentsa gisa ikusiak eta aztertuak izatea. Aurrerago ikusi ahal izango dugunez, hainbat egutegitan argitaratu ziren idatzi asko –bertako mezuak eta ideiak–, garaiko euskarazko aldizkarietan ere argitaratuak izan ziren. Beraz, oro har, prentsari buruzko tartean egin ditugun

zehaztapenak egutegiaren azterketan ere aplikagarriak direla esango genuke, neurri batean.

Halere, prentsarekin komunak dituzten ezaugarriak dituzten aldi berean, badituzte ere desberdintzen dituzten beste batzuk. Forma, itxura eta edukiagatik ez ezik, irakurleria eta irakurketa eremuagatik bereizi behar dira aldizkako euskarazko prentsa eta euskarazko egutegiak. Finean, bai idazketa moduagatik bai irakurketa moduagatik. Bakoitzaren formak, itxurak eta edukiak eragiten du irakurketa ekin-tzan eta irakurlearengan. Zenbait kasutan, hainbat irakurlerentzat egutegiarena eta aldizkariarena irakurketa osagarriak izango direlarik, irakurleria konpartitu egingo dute euskarazko hainbat aldizkariak eta hainbat egutegik. Baina, beste kasu batzuetan, irakurleria berezia izango dugu bata eta bestearentzat: irakurle mota bat izango dugu euskarazko aldizkako prentsa irakurriko zuena baina euskarazko egutegia irakurriko ez zuena. Eta, alderantziz, euskarazko egutegia irakurriko zuena, baina euskarazko aldizkariarik irakurriko ez zuen irakurleria. Nabarmenkiago irudikatzen dugu irakurle hiritarra –har deza-gun Gipuzkoaren kasurako kaletarraren ideia–, hizkuntza kontzientzia duena, erdi mailako burges txikia aldizkako prentsaren kasuan. J. Kintanaka (2002, 52) Azkuek zuzendutako *Ibaizabal* aldizkariaren irakur-leriaz dioenari hel diezaiokegu adibide gisa: “Erosleak, halaber, (...) hein bateko ikasketak eta gaitasun ekonomiko minimo bat zuten euskaldunak (...) beraz nekazariak eta arrantzaileak baino gehiago erli-jiosoak, herrietako eskulangileak, dendariak etab.”. Kontuan izan behar dugu, halaber, aldizkariaren zabalpen sistema arruntena harpidedunen bitartekoa zela eta, beraz, beronen erosketa eta irakurketa harpide-dunen eremura mugatuko zela neurri handi batean.

Baina ez gara sartuko orain euskarazko aldizkari eta prentsaren irakurleriaren analisisian, ez baita gure lanari zuzenean dagokiona. Gure azterketa herri xehea da, herri xehearentzat gutxi batzuek idatzi eta askok irakurtzen zutena atzematea hots, –“producción impresa subal-terna” delakoa–, zer, nola, zergatik eta zertarako transmititzen zuten ezagutzea finean. Hori da gure asmoa. Zentzu horretan, herritarrak euskaraz alfabetatzeko praktika orokortua ez zegoenez, eta gainon-tzeko herrialdeetan herri xehearengan atzeman izan diren irakurketa joerak ikusita, euskaraz idatzitako testuen kasuan gipuzkoar xeheen artean ere gehien irakurri izan ziren testu motak eliz liburu eta dotri-nak izango zirela pentsatzekoa da, alde batetik; euskaldunengan ahoz-ko tradizioak izan zuten indarra ikusita, bestetik, Gipuzkoan bertsoa-

peren irakurketa ohikoa eta hedatua zela esan behar da. Horiekin batera, halaber, irakurketa popularra dei dezakegun esparruaren barruan sartu dugun testu mota egutegiarena izan da. Oro har, beraz, esan dezakegu abiapuntu gisa, Gipuzkoako herritarren irakurketa praktiken barruan kokaturik hiru testu mota izango zirela hedatuenak: dotrinak, bertso-paperak eta egutegiak.

Kontuan hartuta egutegiak mezu laburrez osatuak zeudela, erraz transmititu zitezkeenak, erraz memoriza eta erraz komunika zitezkeenak, edonon irakurriak izan zitezkeenak (etxean, sukaldean, kalean, etab.), banaka, taldean, batak besteari irakurriak izan zitezkeela ere kontuan izanda, finean, egutegiek dituzten ezaugarri propioak aintzat hartuta, pentsatzen dugu herritarren artean, dotrinarekin batera, irakurrienak eta zabalduenak izan ziren testuak egutegiak izan zirela, bai gazteleraz soilik mintzatzen ziren herritar xeheen artean²¹, bai euskara hutsean mintzatzen zirenetan eta baita elebidunak ziren herritarren artean ere.

Bertso-paperak zein dotrina eta eliz liburuek izan zuten garrantzia inolaz ere baztertu gabe, egutegien ekoizpen, zabalkunde eta irakurketaren ezagutzan oinarritu gara Gipuzkoako herritar euskaldunen idazketa eta irakurketa praktika soziokulturalak argitu nahian. Bertso-paperen azterketa egiteak duen oztoporik handiena, zera da: testuen desagerpena eta beraiei buruzko oso erreferentzia eskasak edukitzea. Dotrina eta eliz liburuen bitarteko irakurketa fenomenoak aztertzeak, bestalde, berau erakunde zehatzaren barruan (hezkuntza erakunde garrantzitsua izanik ere) kokatzera behartzen gaitu. Eta gure asmoetatik aldentzen den lana da hau.

Gure azterketa Gipuzkoan eta gipuzkoar gehiengoaren artean XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran zabaldu ziren egutegien azterketan zentratu da. Gure esparrutik kanpo utzi ditugu lehenengo almanakak, egutegi hutsak zirenak eta segidarik eduki ez zutenak, hots, Joannes Leizarragak 1571n idatzitako *Kalendrea*, eta J.P. Ulibarririk 1815ean argitaraturikoa, *Eusquerasco egunaria erderazcotit iztuliya Vizcaya, Guipúzcoa eta Arabaco probintziarentzat 1815garren urteraco*. Kanpo geratu da, halaber, Iparraldean XIX. mendean zehar sortu eta zabaldu zen almanaka mordoa. Baita, neurri batean, Hegoaldeko beste herrialdeetan –Bizkaian kasu–, argitaraturiko egutegien azterketa sistematikoa. Alde batera utzi ditugu, baita ere, Gipuzkoan eta gipuzkoarrentzat argitaratuak izan arren elebidunak ziren almanakak, hots, Serafin Barojaren *Santo Tomasco Feriya* (1877), eta

Almanaque Bilingüe para el año 1879. Beraz, laburbilduz esan dezakegu, gure lanaren xedea XIX. mendearen hasierako esperientzien eta XX. mendeko 20ko hamarkadan sortu zen *Argia*²² egutegiaren arteko denbora tartean Gipuzkoan eta gipuzkoarrentzat sortu eta zabaldu ziren euskara hutsezko egutegiek mugatzen dutela.

EUSKARAZKO EGUTEGIAK GIPUZKOAN

Gipuzkoan eta gipuzkoarren artean irakurriak ziren euskarazko egutegiak zeintzuk izan zitezkeen ezagutzeko Diaz Noci jaunak egin-dako egutegi eta aldizkarien Erroldea¹ hartu dugu oinarritzko iturri gisa. Bertan, XIX. mendean eta XX.eko lehenengo erdialdean euskara hutsean, nola elebidunean, argitaratu ziren aldizkari eta egunkariak, batetik, eta, bestetik, egutegi eta almanakak ditugu sailkatuak eta, nolabait ere, aztertuak. Erroldea horretatik abiatuz, beraz, Ipar eta Hego Euskal Herrirako euskara hutsez atera ziren egutegi eta almanaken artean², aztergai dugun epealdian zehar, gipuzkeraz edota gipuzkoarrei begira idatzi zirenak hartu ditugu aintzat. Uste baitugu, euskaraz formalki alfabetaturik ez zegoen irakurleria soilarentzat irakurterrazenak izan zitezkeen neurrian, hauek izango zirela, zitekeen eskaintza guztia- ren baitan, gipuzkoarren artean hedatuena eta irakurrienak izango zirenak. Horien artean, bestalde, badira egutegi batzuk iraupen luzea izan zutenak, hots, *Euzkel-Egutegiya* eta *Euzkel-Egutegi txikiya*, alegia. Eta, badira beste batzuk gehienez bizpahiru urtez soilik agertu zirenak. Azken hauek, batez ere XIX. mendearen erdialdetik aurrera Hego Euskal Herrirako eta zehazki Gipuzkorako argitaratu ziren egutegiak, XX. mendean zehar finkatuz joan zen *Euzkel-Egutegiya*-ren aurretikoak izan zirela esan dezakegu. Ondorengo tartea berauei, iraupen motzeko egutegiei, eskainiko diegu.

Lehenik eta behin, aipa dezagun Josef Gorosabel jaunak egin, eta 1860rako Bilboko Delmas inprimategian argitara eman zen *Eusqueras-co pronosticua milla ta zorcireun ta iruro gueiraco Vizcairaco, Guipuz-cuaraco ta Aravaraco. Eta dá ateria icusbide luce batzuc daucazan Mendi altu batetic, derichona hermita bat SANTA EUFEMIA. Eta da medidua*

arlabango erditic. Aurtengo urteraco dauca epactia zazpi. Letra Domecacia 'A g. Beronen autoria JOSEF GOROSABEL. Orra nun ifinidan onen beste papel. Bilbon: DELMASEN alargunaren imprenta edo moldizteguian. 1859³.



Eusquerasco pronosticua milla ta zorcireun ta iruro gueiraco Vizcáiraco, Guipuzcuaraco ta Aravaraco

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabarako aurreikusi zen pronostiko honen helburua gisa bereko beste hainbat almanaka eta pronostikoren tanke-rakoa zen, egunaren inguruko oinarrizko informazioa eskaintzea alegia, pronostiko arruntari dagokion atalak eskaintzen zituelarik: hileroko egunak eta zegozkien santuak eta ilargiaren gorabeherak eta eguraldiaren pronostikoa. Horretaz gain, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako feria nagusiak noiz ospatzen ziren ere adierazten zen.

Informazio orokorra eskaintzeko helburu berarekin argitaratu zen Tolosako Pedro Gurruchagaren moldiztegian, 1865. urtean, *Euscaldun necazariaren adisquidea eta guiaria persona-clase guztientzat ona dana au da, 1866garren urteraco egunaria edo pronosticoa*⁴.



Euscaldun necazariaren adisquidea eta guiaria persona-clase guztientzat ona dana au da, 1866garren urteraco egunaria edo pronosticoa

Goian aipatu dugunaren antzera, ohiko pronostikoari zegozkion atal arruntek osatzen zuten egunari hau, honela izendatuak: “Dembo-raldi sonatuac”, “Elizaco contaquida”, “Festa mudacorrac”, “Cuarta temporac”, “Gurutzeo bulda iduqui ezquero”, “Urtearen lau egoitza”, “Arguigueac edo Eclipseac”, “Oarquera edo albertenciac” eta, ondoren, hilabete bakoitzaren berri, zegozkien santuen izenekin. Noizean behin, eguna zela eta, aipamen bereziak egiten ziren, gehienak erlijioaren ingurukoak, bete beharreko lege edo obligazioez zihardutenak. Azken orrialdean, Gipuzkoako hainbat datu ematen zen “Guipuzcoa-co provinciaren mugapean arquitzen diran eche edo chabolen arrazoya, Madrilco Gobernuac arguitaratutaco liburutic aterea” izenburupean. Lehenago aipatu dugun adibidean ez bezala, hilabete bakoitzari zegokion informazioa eman ondoren eta azken orrialdea iritsi bitartean, gai ezberdinen inguruko testuak eskaintzen ziren egunari honetan. Hauetako batzuk herritarrentzat informazio baliagarria eskaintzen zuten, adibidez, egutegiko data inportanteenak noiz egokituko ziren jakiteko zein kalkulu matematiko erabili behar zen esplikatuz, “Pazcoa erresurreciocoa urteoro ceñi egunetan guertatucodan jaquiteco arguibidea atalean” (36-40 orr.); Edota, ongarrri ona lortu, gorde eta erabili ahal izateko aholkuak emanez, “Necazaritza. Lur-ongarrria eguiteco modua” izenburua zeraman idatzian (40 or.). Horiek guztiak irakurlearen formazio teknika sendotzera jotzen zuten idatziak zirela esan genezake. Baita ere, hilabete bakoitzaren bukaeran adierazten ziren “Campo-Lanac”, hots, nekazaritzaren inguruan garaian garaiko gomendioak eta gogorazpenak. Hona hemen horietako gomendio batzuen adibideak: “Matsac podatzen dira, arbolac iñausi edo mugarratu, baratzuriac oraindik erein ditezque, arbola landareac aldatu, lurberriac atera eta ondeatu” (11 or.); “Ereiten dira azac, lechugac, rabanoac edo lucharbiac eta espinacac. Ill beran babac eta illar berdeac. Erleai quentzen zaie ezta. Asitzen da matsa eta gaztaña biltzen, eta eguiten dira lecuan lecuco beste lan mueta asco” (27 or.).

Adisquidea-k zekartzan beste idatzi batzuetan, hots, “Gurasoen icasbideraco ipuya” (46 or) eta “Bi berri char”(47. orr.) izenekoetan, gehien bat herritarraren heziketa moralean eragitea bilatzen zela esan dezakegu, gurasoen eta seme-alaben arteko erlazioak zer-nolako oreka eta neurria izan behar zuen adierazten zelarik, baita senar-emazteen arteko erlazioaren inguruko ikasbideak ematen ere. Halaber, euskaldunen berezitasunei ere eskaintzen zitzairen nolabaiteko tartea, euskaldunen artean feriak eta azokak antolatzeo ohitura nondik eta nola sortu

zen esplikatzten zuen “Feriac eta Mercatuac” (34 or) izeneko idatzia ikusten badugu eta, baita ere, euskaldunek zuten zenbatzeko modu bereziaren inguruko azalpenak (adibide etimologikoak barne) ematen zituen “Euscaldunac daucaten contatzeco modua da munduan usatu izan diranetatic anciñenetacoa”(43-45 orr.) idatzian erreparatzen badugu. Funtsean, *pronosticua*-k egiten zuenaren antzera, denbora eta eguraldiaren inguruko oinarrizko informazioa eskaintzea zuen helburu egunariak, baina haratago zihoan, oinarrizko helburu horri beste asmo bat gehitu zitzaion neurrian: herritarren euskaldun izaera finkatzen eta indartzen laguntzearena. Hala adierazi zitzaion irakurleari egutegiaren hitzaurrean.

“Itz aurrena”n esaten zenez, gipuzkoarren artean gaztelerazko pronostikoak irakurtzeko joera nahiko finkatuta zegoelarik, euskaraz idatzitakoaz fida zedin eta gaztelerazkoak albo batera utzi zitzaion konbentzitu nahi zen irakurlea. Bi arrazoi ematen ziren aldaketara bultzatzeko: gaztelaniaz idatzitakoek iruzurra egiten omen zutelako (eguraldi pronostikoak, etab. eginez), eta zekarten hainbat informazio gehigarri euskal nekazariarentzat ulertezina eta baliorik gabekoa zelako. Ikus, hitzez hitz:

Necazari iracurlea, cerana cerala, datorren urteraco euscarazco Egunaria edo pronostico berria saltzen dagoela aditzen dezunean, gogoac ematen dit esango dezula: ¿cér, au ere badegu? Eta bereala asice cera, escuetan arturic, maishiatzen, cér liburu ote dan salgai dagoana, ea ote dacatzian gaztelaniazco pronosticoac ecarri oi dituzten becelaco berri edo noticiac, eta icustean pronostico eguiazco batean arquiteu bear diran gauzaric bearrenac ecarriagatican, ez dacazquiala beste cémbat eta cémbat gaztelaniazcoetan jarri oi diranac, usteco dezu, liburucho onec ezerere balio ez duela, ematen zayon dirua dala urera botatzea becela, eta beragatic, pronosticoa erosi bear dan ezquero, obeago dala, oraindaño becela gaztelaniazcoa erostea, eta gai onetan jaquin nai duzun guztia cere itzcuntzan aditzera ematen dizun liburuca escuetatic utziric, joango cerá... Baña zaude pisca batean, arzazu paciencia, esan nazazu, ¿iracorri dituzu asieratic acabaeraraño oraindaño erosi dituzun pronosticoac? Izan bedi ala. ¿Eta aditzen zatzu aetan dagoen guztia? Ezetz, esango dizut, iñorc ezeztatuco naüen bildurragatic, ceren aetan ematen diran noticietatic asco dira, euscal-errietaco necazariac jaquiteco obligazioric ez dute-nac. Bestela goacen pruebatara: gaztelaniazco pronosticoetan Vitorriaco uriac munduan betetzen duen lecuca aditzera emateco ipintzen dute < Latitud 42. °51, '30 'Norte. Longitud oh, 13,14s al ESTE

del observatorio de S. Fernando> ¿cembat necazari dira euscal-errietan itz oec cer esan nai duten daquitenac? Eta beste oec < Sol en Aries, Tauro, etc. cuarto menguante en Géminis, Cancer? Deritzat ez dala izango bat bacarra ere, nun eta á propos ez dan ibilli gauz oec icasten. ¿Cer balioco dizu bada euscarazcoan bérac ipintzea, cer esan nai duten ezpadaquizu, eta jaquitea ere batere importa ez bazatzu?.

Beraz, gaztelerazko egutegieta atzemandako akatsetan ez erortzeko, euskaraz lehen aldiz Gipuzkoan argitaraturiko egunari honetan ez zen ez informazio gehigarri, ulertezin eta ustelik eskainiko, ez eta iruzur eta sasi egjarik ere. Ikus:

Pronostico onetan ez dezu icusico, ez urteco iritzi edo juicioa, ceñean pronostico-guilleac esaten duten ez urte barruan guertatuco dána, ez pada beren iritcia eta burura datorquien gucia; ez eta ere illarguiaren gorapen berapenetan izango dan dembora edo eguraldia, cergatic ¿ceñi da añ eroa ez igatzeco gauza oec somatzea guizonaren ascartasunaz eta jaquinduria guztiaz gaindicacoa dala, eta Jaincoac bestec ez daquizquiala? ¿Eta nai cenduteque zuec, besteac ala eguiten dutelaco, nic ere burura datorquidana jartzea, eta necazari onraduac engañatzea? Ez orrelacoric, ez. Beraz gaztelaniazco pronosticoac dacatzian noticia guciac ez ecartzea, ez da bidezco arrazoya utzitzeco euscarazco pronosticoa.

Horren orde, irakurleak aurkituko zuena zera izango zen: bidezko egutegiari zegokion oinarrizko informazio zuhurra eta, gainera, arazorik gabe ulertuko zuena:

Beragatic guc uste degu ce, euscarazco pronosticoan arquiteu bear liraquean gauzac dirala oec: eguneroco santuac gaztelaniazcoan becela, festa mudacorrac, cuarta temporac, lau egoitza edo estacioac, arguigue edo eclipseac, barau egunac eta vigiliac, indulgenciac irabaztecoac eta purgatoriotic anima ateratzen diranac, illarguiaren gorapen berapenac, illeroco campo-lanac, mercatu eta feri guztia edo natuenac, eta azquenean icasbideren bat edo beste gure Erligio Santuaren eta Necazaritzaren gañean: badirudi onembesterequin cumplitzen dala euscarazco pronosticoac escatzen duena; au eta gueyago gaztelaniazcoetan jartzen da, baña esana dagon becela, ¿cer balio die euscaldun necazariai, aditzen ez bazaye? utsune au guc, moduric onenean erremediatu nai guenduque, pronosticoan euscaraz jarriaz, necazari auscaldunai (sic) jaquitea conveni zayena, lan au, daquizun becela, necazari iracurlea, provincia onetan berria da, eta lan berria, lembicico chandan guichitan izan oida ondo eguifia, ala ere, zuengan

confianza andia daducagu, disimulaturic emen arqituco diran utse-
giteac, ontzat emango dezutela zuen onagatic artu degun lan au, eta
gu ere, Jaungoicoaren laguntzarequin, lan berpera, urrengo urteraco
obeto eguitera sayatuco guera.

Honelako lana Gipuzkoan lehen aldiz egunari honek hartu zuen
beregain, eta horra *Euscaldun necazarien adisquidea*-ren egitasmoa, ez
makala: gipuzkoako nekazariak gaztelerazko egutegiak irakurtzeari uztea
eta euskarazkoen irakurketan zaletzea. Tamalez, ez dugu ondorengo
urteetan egutegi honek jarraipenik izan zuenaren berririk izan⁵.

Ondorengo urteetan, Gipuzkoan euskara hutsez⁶ argitaraturiko
egutegiari buruz dauzkagun berriak hogeit urte geroagokoak dira, hain
justu 1887⁷ eta 1888⁸ urtekoak; Euskal-itz jostaldien Batzarreak⁹ argi-
tararatu zuen *Egunaria*-ren ingurukoak¹⁰.



1888garren urterako Egunaria

Esan genezake *Egunaria* hauen lehenengo zatia 1866. urtekoaren oso antzekoa zela, bai egunen deskribapenean bai “Kanpo-lanak” zeritzan atalean. Lehenengo parte osatzen zuten atalak hauek ziren: “Era Gogoangarriak”, “Mareak”, “Illargiaren illuntzea” eta hilabete guztiak bere egunekin, zegozkien erlijiozko eginbehar bereziak eta ilargiaren gorabeherak adieraziz. Azken orrialdean “Gipuzkoan izaten diran azoka edo merkatuak”, “Abelgorri eta cherri feriak”, eta urtean behin feria izaten zuten herrien berri ematen zen. Horiei gehitu behar zaie, testuen irakurketa errazteko laguntza gisa ematen zen “Itz laburtuen adieraztea”. Horretaz gain, *Egunaria*-k bigarren zati oso bat zekarren bertsoz, umorez, gertaera xeblez motzez, esaera zaharrez, fabulez, eta abar osatua. Adibidez, 1887. urterakoan, batzuk eta besteak tartekatuz, “¿Zerk?”, “¿Zein da?”, “¡Ku-ku!”, “Ama eta aurra”, “¡Kukurruku!”, “Urte berria” izeneko bertsoak agertu ziren, “Sukalde chokoan kontu-kontari”, “Mikela eta Franchisku”, elkarriketa moduko kontakizunekin, Fernandoren ateraldiarekin eta “Ziri-Biursa” ateraldi xeblearekin. Eskaintza osatua geratzen zen “Astoa eta Chimuba” eta “Oloak eta arrautzak” fabulekin eta esaera zaharren sortatxoarekin.

Hurrengo urtean ere, 1888an, hainbat bertso argitaratu zen, hala nola, “¡Bizi bedi Euskara!”, “Urte berria”, “¡Zer aparejuba!”, “Jesusen jayotza”, “Ziri-Biursa”, “¡Kontentu!”, “¿Eta galtzak?”, “Esne saltzallea”, tarteka marteka esaera batzuekin, ateraldi xeblearen batekin (“Botuen billa”) eta fabularen batekin (“Igelak eta beleak”) batera. Urte horretako alean argitaratu zen, orobat, irakurleari seguruen oso baliagarria izan zekioken informazioa, “Donostia-tik Probinzi ontako erriyeterako eta Bilbaorako ateratzen diran kocheak”, alegia.

Funtsean, egunari buruzko oinarrizko informazio eta eginbeharrrak behin eta berriro gogorazi ez ezik, almanaka orok egin ohi duen legez, *Egunaria*-k umore herritarra landu zuen gertaera, pasadizo eta xeblekerien bitartez. Ahozko literatura, poesia eta bertsoen bitartez. Eta, herritarren heziketa morala eta jokabidezkoa argitara emaniko esaera eta fabulen bitartez, batik bat.

Oraindaino azaldu ditugun lau egutegiak XIX. mendeko gipuzkoarren artean nolabaiteko harrera izan zuten euskarazko egutegiak dira. Nolabaiteko harrera diogu, azken batean oso iraupen motza izan zuten proiektuak izan zirelako. Eta, zentzu horretan, saiakera edo aurrerago garatuko ziren ereduaren aurretiko gisa hartu beharko genituzke. Ondorengo mendean, Gipuzkoan argitara eman zirenen artean badira beste bi kasu egutegien mundua euskaraz eskaintzeko saiakera gisa kontside-

ratzen ditugunak: *1905-garren urteraco Egunariya* eta *Euskal Esnalea'ren esku egundiya*, 1910, alegia. Oso izaera eta itxura desberdinekoak direlarik biak, komunean duten gauzarik bakarrenetakoa urtebetez bakarrik agertu izana da.


Lehenengo kasua, *1905-garren urteraco Egunariya*-arena¹¹, aurreko egutegien ereduaren jarraipena izan zen.



1905-garren urteraco Egunariya

Almanaka bati zegokion oinarrizko informazioa eskaintzeko helburuarekin ondorengo atalak eskaintzen zituen lehenengo partean: “Lau Demporac”, “Permentaziñuac”, “Letañac”, “Illuntzeac”, eta hila-bete eta egun guztiak (Santuen izenak, ilargiaren gorabeherak, erlijio arauak, etab. adieraziz). Hauei gehitzen zitzairen irakurketa errazteko laguntza gisa, ohikoa zena, “Berba laburtuen azaera”. Eta azkenik, ahozko tradizioaren aztarnak zirelarik, bertso eta kantu batzuk: “Jesus aurchuari”, “Anchiñaco canta eder batzuc”, eta “Canta Zarra”.

Bigarren kasuak, *Euskal Esnalea'ren esku egundiya 1910*¹², eredu zeharo desberdin bati erantzuten zion. Esan daiteke, ordurarte saiatu gabeko bideari heldu nahi izan ziola Euskal-Esnalea elkarteak egutegia eta, aldi berean, liburua zen *Esku Egundiya* argitaratu zuenean.



Euskal Esnalea'ren esku egundiya. 1910

Egutegiaren egitura, orri kopurua (105 orrialdetakoa) eta hauen banaketa ikusita, badirudi “egutegia” izaera beste gainontzeko idatzi guztiak irakurlearen eskuetan jartzeko aitzakia soila besterik ez zela, *Esku Egundiya*-ren itzalpean literatur “antologia” osoa zabaltzeko plataforma gisakoa, alegia. Izan ere, espreski egutegiari zegozkion informazio erabilgarriak –hala nola, hilabeteak beren egun guztiekin (goitik behera zutabe gisa jarritz), egun bakoitzari zegozkion santuak, eta ilargiaren gorabeherak–, lehenengo bederatzi orrialdeetan eskaini ziren. Hortik aurrera, idazle ezberdinek idatzi eta igorritako lanak agertu

ziren, neurri eta izaera askotariko kolaborazioak, alegia (testu motzen ondoan aurkitzen ditugu bizpahiru orrialde betetzen dituzten testuak), zenbaitetan marrazkiak eta argazkiak tartekatuz (21 argazki zenbatu ahal izan ditugu). Hasierako orrialdean adierazia zenez, idazle bakoitzak bere lana bere erara idatzita bidali arren, idazkera bateratuan jarri zituzten lan guztiak, berdin azaltzeagatik. Eta, batasun ildo horri jarraituz, bildu eta argitara eman zuten, liburu bakarrean, gai anitzen inguruko idatzi mordoska.

Egokia iruditu zaigu, *Euzkel-egutegi txikiya*-rekin zein *Euzkel-Egutegiya*-rekin egin dugunaren antzera, *Esku-egundiya*-n argitaraturiko testuen azterketa egitea eta berauek gai multzo batzuen inguruan biltzea. Honek, gure ustez, *egundiya*-ren eragile ziren Euskal-Esnaleakoek zabaldu nahi izan zuten mezua eta edukiaren nondik norakoa argiago ikusteko aukera emango digu.

Horrela, bada, esan dezagun idatzi gehien (18ren bat idatzi bilduko genituzke guk) herritarrengan euskararen aldeko jarrerak sus-tatzera zuzendurikoak zirela. Beste modu batean esanda, irakurlearen euskaltzaleatasuna indartzera eta tinkotzera, finean heztera, jotzen zuten hausnarketak, iritziak, eta adierazpenak zirela ugarietak. Esparru horretan kokatzen ditugu hainbat jaun euskaltzalek euskaraz hitz egin eta idaztearen alde, euskara erabili eta bere alde lan egitearen inguruan eginiko adierazpen eta hausnarketak, hala nola: Julio Urkijok, F. Lopez Alenek (“Gure izkuntza. Bizi dedilla beti...;beti, beti!”), Bonifazio Etxegaraik (“;Gora biotzak!”), Telesforo Aranzadik (“Idia adarretatik uztartzen degu: gizonari itzetik eltzen diogu”), Kalasan-tar Lertsundi Abak (“Ametz bat”), Ebaristo Bustintzak (“;Ekin!”), Beratar Erroman Mirena Abak (“Berako Altzate Kalian”), Azkoitia’tar Ignazio aitak (“Beti euskeraz”) eta Juan Ignazio Urangak (“Luchicho”) eta J. Erraztik (“Lai daigun”) egindakoak. Baita ere, euskara-erdera hitz egitearen auzia plazaratzen zuen “Iziarcho edo Ama-Zerutarra’ren eskerra” ipui-na, Bustintza eta Azkueren ikasleei aldizkarikoek luzatutako txaloak eta zorionak (“Bilboko euskal-ikasleak”), bertako ikasleek beraiek (andrazkoek) euskararen alde idatzi zituzten gogoetak eta, halaber, Euskal-Esnalea elkartearen alde –urte sasoi horretan bizi zuen krisi egoera zela eta–, eta berak buruturiko lan eta proiektuen alde ere azaldu ziren testu hauek: Euskal-Esnalearen egutegiaren propaganda egiten zuen pasadizua (82 or), Tolosako Amunarriz apaizaren idatzia (“On egiñaz igaro zan”) –egindako lana goraiapatzeaz gain, Esnalea elkar-tearen berragerpena aldarrikatzen zuena–, eta Rafael Pikabearen oihua

(“Euskal-Esnaleko Jaun Prestubei”), Esnaleakoak aurrera egin zezaten animatuz. Eta, azkenik, Isaac Lopez Mendizabalen “Nere iritzia. Egiya, latz ta garratz” idatzia, bertan euskotarrak euskeraren alde esnatzearen beharraz eta agintari eta goi mailako herritar euskaltzaleak ezarri beharraz ohartarazten zelarik: “... Euzkotar bakoitzetik euskaltzale on bategitea biar aundiya daukagu, bañan ezta chikiyagua goyalde erdaltzale ori kendu ta beste euskaltzale bat ipintzeko dagoen biarra” (98 or.), garaiko eusko alderdi jeltzaleko hainbat abertzalek eta euskaltzalek pentsatu legez.

Lopez Mendizabalek adierazitako ildo bertsutik argitaratu ziren beste testu batzuk, batez ere mezu ideologiko-politikoak zabaltzea helburu zutenak. Idatzi horiek herritarren euskotartasuna indartzearen esparruan bilduko genituzke, hain zuzen. Ondorengo hauek zehazki: Euskaldunekiko maitasuna adierazten zuen Prantxisku Gaskueren “Maitatzen ditut” idatzia, euskal baserriarren aldeko deia luzatzen zuen Juan Olazabalen “Euskal-Erria eta nekazaria” testua, *Gipuzkoarra* aldizkariako zuzendariak –euskararen salbamenerako abertzaletasuna pizteak zuen garrantzia azpimarratuz–, sinaturiko “Illezkorra” lana, euskararekin batera askatasuna, Aberria eta Jaungoikoa aldarrikatzen zuen Joseba Olazabalen “Atoz...”. Eta horiekin batera, euskaldunak bildu, tradizioak mantendu eta euskal ohiturak eta abenda zaintzearen alde egitearen garrantzia azpimarratzen zuten deiak eta idatziak, hala nola, Kasildo Zabalaren “Krisallua”, Kandido Olaskoagaren “Nai nukena”, Ingartzi Aranzadi-Etxeberriaren “Maite degu”, Jose Eizagirre-
ren “Ikasle Azkarra”, Remijio Gandasegiren “Neure erritar euskaldunentzat”, Basilio Iraizozen “Atzo ta gaur” eta Serapio Mujikaren “Nola maite ninduten eta nola maite nauten”. Azken honen esaldi batekin laburbilduko genuke egile anitz eta izaera desberdineko idatzi horietan guztietan, modu batean edo bestean, zabaldu zen pentsamendua eta nahia “Mundu mundu dan bitartean Euskalduna izango da Jaungoikoarentzat eta Euskal-erriarentzat” (91 or.).

Batetik, beraz, irakurlearen euskaltzaletasuna zein euskotartasuna sendotzera jotzen zuten idatzi ideologikoak argitaratu ziren. Halaber, argitaratu ziren, neurri txikiagoan bazen ere, herritarren heziketa moralean eragitera zuzenduriko mezuak: gogoeta eta pentsamenduen bitartez (A. Laffiteren *Berezitako loreak*, Muñagorriko Silbestre-
ren *Gogapenak*), bertsoen bitartez (B. Garitaonaindiaren *Daniel goiangeruari*, Toribio Iriondoren *Agur Erregiña*), edota testu madurlagoen bitartez (Doroteo Ziaurrizen *Ordikeriya* eta Azkue Abadearen *Lamindano*).

Bestetik, testu “serio” hauen artean umoreak ere izan zuen tartea hainbat gertaera eta ateraldi xebreraren eskutik. Batzuek egilearen izena eta izenburua zeramaten, hots, Bizente Monzonen “Iru ipuicho”, Ignacio K. Nuñez-Arizmendiren “Kontuak”, Andres Amonarrizen “Erronkalaria” eta P.M. Urruzunoren “Uskeriak” izenekoak. Gainontzeko guztiak, Euskal-Esnalea-ren ipuin batzaldira Biktoriano Iraola jaunak bidali eta sarituak izan zituenetik bereziak izan ziren ateraldi laburrak ziren, guztira hamaika.

Horiez gain, tartean agertu ziren, kultur arlo desberdinak ukitzen zituzten gai anitzen inguruko beste idatzi batzuk. Hitz lauz testuren bat edo beste argitaratu zen egutegi arruntari zegokion ohiko gairen baten inguruan, adibidez, ortziari buruzko datu batzuk Luis Eleizalde jaunak bere “Ortze-Gayak” idatzian ematen zituenak, eta egileak berak zioenez gazteleraz irakurri ohi zirenak baina euskaraz entzuten ez zirenak. Kultura orokorreko gaien esparruan aipatu beharreko beste adibideak euskal kulturako elementu zehatzei erreferentzia egiten zieten adibideak ditugu, hala nola: Martin Landerretxeren “Erregina Blanka Kastillakoaren bi egitate eder” kontakizun motza, Karmelo Etxegarai-
ren “Aita Larramendi”ren inguruko azalpen historikoa, Patrizio Antonio Orkaiztegik “Larreta jauna”ren ohorez egindako idatzia, eta Jabier Irastorzaren “Nere Donostia ta nere Gipuzkoa” gogoeta. Aipatu testuak irakurlearen formazio kultural orokorra eta partikularra (euskal kulturari zegokiona esan nahi dugu) aberastera zetozen.

Era berean, irakurlearen kultur formazioa aberastearen helburua-rekin egindakotzat dauzkagu egutegi berean argitaratu ziren literatur izaerako idatziak. Hitz lauz idatzirikoei dagokienez, pare bat testu literario –Jose B. Landaren “Itsasua ta Biotza” eta Dionisio Azkueren “Damu det”–, kenduta, nabarmenenak ipuinak izan ziren, horietako batzuk Esnaleak antolaturiko Batzaldian saria jaso zutenak zirelarik, zehazki: Gregorio Mujikaren “Loriak eta ogia”, Jose Manuel Etxeitaren “Mari-Jesus ta Iru Artzañak”, Petra Belaustegiren “¡Ametsa!”, Maria O. Artiñanoren “¡Eziñ Aztu...!”, Domingo Agirrerren “Lulu eta Mañu”, Arturo Kanpionen “Malaska ta Akuliña”, eta Sebero Altuberen “Chano-gorrichu”.

Hitz neurtuetan idatzitako literaturak ere izan zuen bere tokiak garaiko idazle ezagunek jarritako bertsoetan: “Udaberriya” (Ramon Inzagari), “¡Oroituz zaitetz!” (Errenderi tar Erraimunda A. D.P.S.), “Antonichu” (Ebaristo Txurruka), “¡Zer ederra!” (Pepe Artola), “Egunez edo gabaz” (Paulo Zamarrripa ta Uranga), “Mariacho-ri” (Ramon Gelbenzu),

“Chapela nai” (Emeterio Arrese), “Uda-berriya” (Jose Gamboa), “Bagramazki” (Patrizio Antonio Orkaiztegi). Baita, euskal musikak ere, zenbait partituren argitalpenaren bidez, Mokoroaren “Zorgiñ dantza” eta Tomas Mujikaren “Euskal-Errian”, alegia.

Edukiaren inguruan ikusi duguna laburbilduz, esan dezagun *Esku egundiya*-k egutegi arruntari zegokion informazio esparrua betetzen zuela, batetik, lehenengo zatian eskaintzen zuen oinarrizko datuen bitartez. Bestetik, kultura eta literatura esparrua betetzen zuen, literatur lanak argitaratzeko bidea eskaintzen zuen heinean (nahiz eta goi mailakotzat hartuak ez izan). Eta, azkenik, formazio esparrua betetzen zuen, zuzenean irakurlearengan pentsakera bat, jarrera bat eta jokabide jakin bat bultzatzera jotzen zuten mezuak zabaltzen zituelako, dela euskara eta euskal gauzen aldeko deia zabalduz, dela Euskal Herriaren aldeko mezu ideologikoak eta politikoak zabalduz, dela zintzotasunaren bidea erakusten zuten jokabideak gomendatuz.

Bestalde, garaiko aldizkarietan egin ohi zen legez, egutegi honek ere eskaini zion tarterrik publizitate eta propagandari (kolorez eta itxuraz ongi bereiz zitezkeen azken lau orrialdeak). Horrela, eman zen *Revista Internacional de los Estudios Vascos* delakoari buruzko informazio baliagarria, egin zen Antonio Elosegiren txapelen propaganda, baita ere Bilbon eta Valladolid-en Gasteizko H^o Yermo y Comp^a delakoak saltzen zituen nekazaritzarako eta oletarako tresnena, Juan Mokoroaren “Landare guziyen azi-denda”ren publizitatea, “Frantzisko Sagarzazu’ren Nabarritegia”ri buruzko informazioa, eta Irungo Valverde inprimategi eta liburudendak saltzen zituen “Euskaldunentzako liburuen” propaganda. Iragarki guztiak euskara hutsean eginak ziren, honela Euskal-Esnalea elkarteak berak iraunkorki bultzatu izan zuen esparrua lantzen zelarik eta, zentzu horretan, euskaraz idatzitako publizitatea egitearen saiakeran adibide interesgarrienetako bat da 1910. urteko egutegi honetakoa.

Oro har, gure ustez, egutegi berezi honen argitaratzeak arrazoi nagusi bati erantzun zion batez ere. Kontuan hartu behar dugu 1910. urtean Euskal-Esnalea elkartearen krisi garaian zegoela. Alde batetik, argitalpen lanari zegokionez, 1908. urteaz geroztik argitaratzen ari zen aldizkaria 1910. urterako eten behar izan zuten –eta ez zen berriro martxan jarri 1911. urtera arte–. Bestetik, 1909. urterako argitaratu zuten hormarako egutegiaren ardura Lopezen inprimategiak hartu zuen erabat bere gain 1910. urtetik aurrera. Testuinguru honetan, bada, pentsa genezake *Esku egundiya*-ren argitalpenarekin idatzizko

adierazpen mailan 1910. urtean elkarteak zuen hutsunea bete nahi izan zela batez ere, erdibideko testu mota hau argitaratuz. Izaera hibridoa duen liburua dugu hau: alde batetik egutegi arruntari dagokion oinarrizko informazioa aurkitzen dugu, neurri batean, hormarako egutegiaren gaiak ere jorratzen direlarik. Eta, beste alde batetik, *Euskal-Esnalea* aldizkariari zegozkion idatzien izaera, itxura eta neurriekin lotura handiagoa zuten testuez osaturik ikusten dugu. Horregatik, berriro diogu, *Esku egundiya* argitaratu izanak, batik bat, elkartearen inguruko arrazoi koiunturalei erantzun ziola pentsatzen dugu. Aldizkaririk gabe eta egutegiaren ardurarik gabe egokitu ziren urtean, elkartearen presentzia publiko idatziak etenik izan ez zezan erabaki izango zuten, gure iritziz, 1910. urterako *Euskal Esnalea*ren *esku egundiya* argitara ematea.

Zentzu horretan, ez dugu uste *Esku egundiya*-ren hedapen esparrua erabat bat zetorkeenik egutegi arruntenarekin, hots, *Euzkel-egutegiya*-renarekin edota *Euzkel-egutegi txikiya*-renarekin. Egutegi baino liburu itxura handiagoa duela kontsideratuz, eta bertako idatzien izaera (batez ere luzera) ikusita, honen irakurleria herritar eta baserritar xumearengandik baino *Euskal-Esnalea* aldizkaria jaso eta irakurtzen zuen bazkidearengandik –euskara eta euskal gauzen inguruko kontzientzia maila nahikoa zuenarengandik–, eta Euskal-Esnalea elkarteak egindako lanarekiko sentsibilitatea zuen euskaltzalearengandik hurbilago egongo zela pentsatzen dugu.

Orain arte azaldu ditugun egutegi ereduak euskarazko egutegiaren saiakerak, aurretiko legez aurkeztu ditugu, izan zuten iraupen motzagatik, aldizkakotasun eskasagatik, batik bat. Ondoren azalduko ditugunak, aldiz, denboran iraupen erlatiboki luzea –eta, ondorioz, irakurleria hedatu eta finkatua–, izan zuten egutegiak dira eta, zentzu horretan, euskarazko egutegiaren ereduak finkatu zituztela esan behar dugu. Ereduak, diogu, bi izan baitziren, aztergai dugun epealdian Gipuzkoan –gipuzkoarrei begira batik bat–, argitaratu ziren eta luzaroan iraun zutenak: hormarako egutegia bata, *Euzkel-Egutegiya* izenekoa, eta sakelerako egutegia bestea, *Euzkel-Egutegi txikiya* izena hartu zuena. Jarraian bi egutegi eredu horien azterketan murgilduko gara.

EGUTEGIEN ERAGILEAK ETA ARGITARATZAILEAK

Tradizioz egutegien eragileak, partikular batzuk salbu, inprimategi jabeak beraiek izaten ziren. Halaber, lan horiek maiz erlazionatuta zeuden aldizkariren batekin edo komunikabideren batek bultzatutako argitalpen bilduma batekin (P. Fernandez, 2003). Euskaraz idatzitako egutegien kasuan, gainera, kultur taldeek protagonismo zuzena eduki zuten. Hor dugu, adibidez, XIX. mendean Euskal-itz jostaldien Batzarreak *Egunaria*-rekin egin zuen saiakera. XX. mendean jada, *Euzkel-Egutegiya*-z hitz egiterakoan derrigorrez bi dira aipatu behar ditugun eragileak: Euskal-Esnalea elkarte batetik, eta, bestetik, Lopezen inprimategia eta bertako semea zen Isaac Lopez Mendizabal jauna.

Euzkel-Egutegiya izen generikoarekin adierazten dugun egutegia *Euskal-Esnalearen Egundiya* izenez argitaratu zen hastapenean. Lehenengo urtean, 1909an alegia, Euskal-Esnalea elkarte arduratu zen egutegia bildu eta prestatzeaz. Ondorengo urteetan, berriz, Lopezen inprimategia arduratu zen egutegiaren argitalpenaz, urtez urte etenik egin gabe¹. Bestalde, egutegiaren argitalpena ez zen izan bi eragile hauengan ekintza isolatua. Aitzitik, Euskal-Esnalea elkarteak zein Lopezen inprimategiak euskara eta euskal kulturaren alde egin zuten ekintza ugarien eta ireki zituzten kultur bide berrien testuinguruan ulertu behar dugu euskarazko egutegiaren sorrera eta, ondorioz, gizartean izan zuen errotzea. Zentzu horretan, esan dezakegu egutegi eta elkartearen arteko lotura beti mantendu izan zela, gorabehera batzuekin izan arren. Lehenengo urtekoa, noski, zuzena. Baina, baita ondorengo urteetako ere, zeharka bazen ere. Batetik, Lopez Mendizabal Euskal-Esnalea elkarteko kide esanguratsua zen eta, maila horretan, bat zetozen euskara eta euskal kulturaren inguruko ikuspegian,

egutegian islatua geratuko zena. Bestetik, *Euskal-Esnalea* aldizkariak maiz mailegatu zizkion egutegiari bere orrietan agitaraturiko idatziak².

1. Euskal-Esnalea kultur elkartea

El pueblo vasco egunkarian euskararengatik kezkatuak zegoen herritar orori egin zitzaion bilerarako deiari erantzunez, 1906ko abenduaren 21ean, Gipuzkoako Diputazioan egin zen bilkuran eman zitzaion elkartearen sorrerari hasiera. Ondorengo bilera batean, 1907ko apirilaren 1ean 500 euskaltzale baino gehiagok Zumarragan egin zutenekoan, elkartearen estatutuak onartu ziren eta, hasieran Euskeraren Pizkundea izenez izendatzekoa bazuten ere, Euskal-Esnalea izena jartzea erabaki zuten. Elkarte ireki gisa agertu zen, ez hizkuntza mailako ez eta politika mailako istiluetan sartzeko inolako asmorik ez zuen talde ireki gisa, euskal herrialde guztiei begira eta herritar guztientzat –euskaldunentzat zein erdaldunentzat–, egina zena. Horrela, bada, joera politiko desberdinetako partaideek (nazionalistek, karlistek, integristek, liberalek, etab.) bazuten tokia bai zuzendaritzan bai bazkideen artean:

Por acuerdo de la Sociedad “Euskal-Esnalea” constituida por personas de diferentes parcialidades políticas, pero cuyo fin único y exclusivo es fomentar entre los vascos el amor al Eskuara, procurando se conserve y difunda el uso de nuestra lengua, y se depure hasta donde sea posible de las formas incorrectas y de los vocablos extraños, que actualmente los infeccionan...³.

Beraz, euskararen inguruan ahalik eta jende gehien biltzea zuen helburu. Elkarreak aukeratu zuen lema bakarra “¡Gora euskera maitagarriya!” izan zen, eta euskara gorde, zaindu eta zabaltzea zen elkartearen asmo bakarra. *Egundiya*-ren orrialdeetan ere herritarrari argi azaldu zitzaion elkartearen helburua zertan zetzan:

Euskera iya il zan. Euskaldun askok, biar ez dan gauza bati bezela begiratzen zioten Euskerari; Erri aunditan euskerarik etzan itz egiten eta erri chikitan asko galtzen ari zan.

Galera ura ezin begiz ikusi zuten euskaltzale batzuk bildu ziran eta beren artian euskera gorde eta zabaltzeko alkartasun bat egin zuben alkartasun ori Euskal-Esnalea deitzen zayona da.

Badakizu bada Euskal-Esnalea'k zer nai duan, Euskera gorde eta aldan guztiya zabaldu.

Zure buruba euskaldun ontzat jotzen badezu Euskal-Esnalea'ko alkartasun oni zure indar guztiyaz lagundu bihar diyozu⁴.

Elkarteak euskara maitatzen zutenak bildu eta elkartuaraztea bilatzen zuen eta, horrekin batera, gizartean ekintza eragileak bideratzen saiatuko zen. Estatutuak erabakitzearekin batera zuzendaritza batzordea onartu zen, izaera irekiari jarraitzen zitzaiolarik, bertan garaiko euskaltzalerik esanguratsuenetakoak bilduz. Hau izan zen lehenengo zuzendaritza batzordea: Arturo Kampion (Lehendakaria), Patrizio A. Orkaiztegi (Lehenengo lehendakari ordea), Julio Urkijo (2. lehendakari ordea), Juan B. Larreta (Idazkaria), Jose Eizagirre (Diruzaina), Alfonso M^a Zabala, Kasildo Zabala, Isaac Lopez Mendizabal, Luis Eleizalde, Toribio Alzaga, Karmelo Etxegarai, eta Alfredo Laffite (Bokalak)⁵.

Zuzendaritzaz gain, oinarrian, elkarteak osatzen zuten bazkideak zeuden. Numerokoak batzuk, 5 pezetako⁶ kuota ordaindu behar zutenak. Beste batzuk bazkide babesle gisa agertzen zirenak, 25 pezetatik gora nahi adina eman zezaketenak. Bazkide egin nahi zutenak Lopezen etxera edo salmenta gune ohikoetara jo zezakeen izena eman eta zegokion kuota ordaintzeko.

Lehenengo urteko txostenak zioenaren arabera, 40 izan ziren bazkide babesleak, besteak beste, honoko hauek: Gipuzkoako Diputazioa, Andoaingo Udala, Bizente Monzon (Bergara), Kasildo Zabala (Donostia), Zabaltegi Markesa (Donostia), Sebero Altube (Gernika), Jose Manuel Zabala (Tolosa), Luis Zabala (Tolosa), Karlos Mendia (Donostia), Eneke Lasa (Zumarraga), Martin Mitxelena (Irun), Anastasio Perez (Irun), Bergarako Batzokia, Zumarragako Udala, Rafael Segués (Donostia), Luis Calisalvo (Andoain), Benito Aranburu (Andoain), Rikardo Urrutia (Cuba), Damián Urbina (Valladolid), Centro Vasco (Donostia), Joakin Elosegi (Tolosa), Polikarpo Elosegi (Tolosa), Juan Elosegi (Tolosa), Jose Joakin Egaña (Bergara), Santos Zabala (Donostia), Nemesio Olariaga (Argentina), Jose Uriarte (Madrid), Zakarias Astiz (Huici), Arturo Kampion (Iruña), Luis Eleizalde (Gasteiz), Urbano Ariztia (Maya). Numeroko bazkideak, berriz, 832 ziren, urte bereko txostenean agertu zenez⁷.

Kuota zela eta, bestalde, berau kobratzeko zailtasuna iraunkorki eduki zuen elkarteak, sortu zenetik bertatik. Horregatik, jendeak ordaintzeko ei zituen zailtasunei aurre egiteko, bazkide kopururik handiena zuten herrietan delegatuak izendatzea erabaki zen, eta zein herri-takoek norengana jo zezaketen zehaztu zen⁸. Horrela, jakin badakigu

bazkide kopururik handienak non biltzen ziren, adibidez: Tolosan, Donostian, Sorabillan, Arrasaten, Ordizian, Deban, Orion, Azpeitian, Bergaran, Elgetan, Hondarrabian, Irunen, Zumarragan, Zumaian, Oñatin, Billabonan, Urretxun eta Zarautzen. Kuota ordaindu zutenen inizialen eta herriengatik, bestalde, badakigu egon bazeudela bazkideak, besteak beste, Alkizan, Alegin, Amezketan, Azkoitian, Berastegin, Berrobin, Zerainen, Gabirin, Hernanin, Iruran, Lazkaon, Mutillon, Lizartzan, Ormaiztegin, Erreterian, eta Seguran. Euskal-Esnalea elkarteak Euskal Herriko herrialde guztietan, batik bat hegoaldekoetan, izan zuen oihartzuna. Gizarte sostengurik handiena Gipuzkoan izan zuen, halere, bai bazkide kopuruari zegokionez bai elkartearen ekintzek izan zuten harrera eta erantzunari zegokionez. Gipuzkoako herri handietara zein txikienetara iritsi zen Euskal-Esnalea, herrialde osoan zehar barreiatuz bere oihartzuna.

Kuota ordainketari esker elkarteak bazkideek beraien organo propio gisa sortutako aldizkaria jaso ahal izango zuten. Xedea bazkideekin zuzenean komunikatu ahal izatea baitzuen, inolako egunkari politikoren bitartekaritzara jo behar izan gabe, *Euskal-Esnalea* aldizkaria sortzea erabaki zuen elkarteak. Aldizkaria bazkideei begira sortu zuten (hilabetekaria lehenik eta hamabostekaria ondoren) eta sozioen artean bakarrik banatzeko argitaratu zen. *Euskal-Esnalea* aldizkaria, lehenik eta behin, euskaldunak esnatzera zetorren: "... euskaldun guztiyak esnatu arte ez gera ezkatutako...". Euskararen edertasuna eta antzinatasunari kantatu besterik egiten ez zuen ikuspegi erromantikoa alboratu, eta galtzeko zorian zegoen euskara berpiztu, zaindu eta zabaltzera joko zuen jarrera bultzatzea zuen helburu. Euskara zaindu eta zabaltzeko asmoarekin euskaraz zein gazteleraz idatziriko lanak onartu zituzten, hasierako planteamenduetan bederen, bazkideen artean euskara zekitenak eta ez zekitenak zeudela kontuan hartuz.

Lehenengo zenbakian argi eta garbi azaldu zuten zeintzuk izango ziren jorratuko ziren gaiak eta atalak⁹. Hona hemen, hitzez hitz, aldizkariarentzat aurreikusten zuten egitura:

Lenengo zatiya: Izkuntzaz.- Emen mintzatuko gera Euskerazko itz, eta batez ere itzen joskeraz. Joskeraz behintzat, eta ¿bai al dakizute zergatik? –Euskal-joskeraz euskaldunik geyenak (agiyan guztiyok) osoro aztuta bizi geralako.(...)

Bigarren zatiya: Anima-janaria. Emen dotriña, otoitzak, Jainkoaren aginduak, eliz-gauzak, liburu santuetan ikasi gentzakeana, ta era ontako beste gayak ikutuko ditugu.

Irugarren zatiya: Antziñako gauzak.- Batik-bat euskerari ta Euzkadiri zerbaitez dagozkienak.

Laugarren zatiya: Euskeragatik.- Zati ontan esango degu Euskeraren alde zeñek, zer, non lan egin duen, eta egiten ari dan.

Bosgarren zatiya: Irakurgai zarrak, irakurgai berriyak.- Len euskeraz ezarri ziran, eta gaur ezarriyaz datozen liburuen berri emateko izango da zati au.

Seigarren zatiya: Egizko gezurrak.- Ipuiyak, ipui-antzeko gauzak, oso ezpada, zerbaiten egizko diranak; eta nolanayean ere edozein bide ona erakusten diyoten esakayak, ezarriko ditugu emen.

Zazpigarren zatia: Nasketa.- Guk ere andik eta emendik datozkigun gauzachoak bildu, ayetatik batzuek aukeratu, eta esan bear dizkitzuegu.

Zortzigarren zatiya: Alper-lanak.- Beste egitekorik gabe lasai lasai bizi diranentzat, edo ta eguinkizun geyegiz nekatuta, buruba zerbait arindu nai dutenentzat, aukeratuko ditugu asmakai ta jolas-keta batzuek, zati ontan ipintzeko.

Aurrerago ikusi ahal izango dugunez, *Euskal-Esnalea* aldizkariarentzat ezarri ziren atalak, gutxi edo gehiago, islatuak ageriko zaizkigu elkarteak argitaratu zuen *Egundiya*-n, eta ondoren *Euzkel-Egutegiya* bezala izendatu zen egutegian, egutegiari zegokion formatoari egokituta noski eta, hori bai, aldizkarian ez bezala, euskara hutsean eginak. Oro har, euskal mugimenduaren organoa izan zen *Euskal-Esnalea* 1908-1931 urte bitartean. Bertan argitaratu ziren euskal festetan saritutako hitz neurtuak, baita elkarteak berak antolatutako lehiaketetan saritutako lanak ere. Bertako lankide izan ziren garaiko idazle ospetsu asko, Nikolas Ormaetxea “Orixe”, Emeterio Arrese edo Xabier Lizardi, batzuk aipatzearren.

Bazkide gehienek sakrifizio ekonomiko berririk egin nahi ez eta, elkartea egoera ekonomiko nahiko larrian geratu zen bere lehenengo urteetan, eta aldizkariaren argitalpena bertan behera uztea erabaki zuen 1909ko Uztailaren 30ean eginiko batzarrean. Ondorioz, ia bi urtez egon zen isilik aldizkaria, ez ordea elkartea. Etenaldian 1910. urterako *Euskal-Esnalearen Esku-Egundiya* argitaratu zuen. Eta bertan elkarteak 1908. urtean antolaturiko ipuin batzaldian saritutako lanak argitaratu zituen. Izan ere, ipuin lehiaketa egitea erabaki zuen elkar-teak, umeak euskaraz irakurtzera bultzatzeko asmoarekin eta orduan saritutako lanak argitaratu zituzten: “... de desear es que entre ellos haya algunos que sirvan de aliciente para hacer leer euskera á los niños de hoy, hombres de mañana”. Beraien oinarrizko funtzioa eragintza

horretan ikusten baitzuten: “(...) El día que consigamos hacer leer a los niños en euskera por propio impulso, la sociedad Euskal-Esnalea no tendrá razón de ser”¹⁰. Elkartearen eginbehar nagusia irakurketaren sustapenean zentratzen zen, bai helduengan baita etorkizuneko helduak izango ziren haurren ere.

Zuzendaritza batzorde berria izendatu ondoren (1910)¹¹, aldizkaria berriro argitatzeko hasi ziren, 1911. urtetik aurrera bigarren garaiari hasiera emanez. *Euskalerraren alde* aldizkariarekin batera argitaratua izan zen urte hartatik aurrera. Esnalea-ko bazkideek ez zuten ezer *Euskalerraren alde*-rekin lotzen zituenik, ez zeuden ezta berau jasotzera beharturik ere. Hala nahi izan ezker, *Euskal-Esnalea* aldizkaria jasotzeaz gain, *Euskalerraren alde* ere jaso nahi bazuen, bazkideak 10 pezetako kuota ordaindu besterik ez zuen egin behar. Argitalpen formatoan sartutako berrikuntzarekin batera aldizkariaren izaera ere eman zen hainbat aldaketa, aldizkaria aurreko aleetan baino eskuragarriagoa eta irakurlearentzat atsegina egiten zuena. Aldizkaria herritar ororentzat egina nahi zuten, arazo linguistikoez oso kezkatuta bizi ez zen gehiengoarentzat. Horrenbestez, erabat ezabatu zituzten gaztelera idatziriko eztabaida linguistikoko guztiak, baita inor irain zeza-keten euskarazkoak ere. Lehentasuna eman nahi zitzaion, oraingoan, ahalik eta herritar gehienek euskaraz irakurri eta idazteari. Horregatik eraldatu zuten aldizkariaren izaera, irakurleari berak nahi zuena emanez, irakurleriaren nahietara gehiago gerturatuz finean, eta idatzi mamitsuegi eta espezializatuegiatik urrunduz. Honela zioten:

(...) Las publicaciones euskéricas de nuestros días han de hallarse al alcance de todo el mundo, económicamente hablando, y hablando por lo que toca al lenguaje empleado (...) porque la afición á leer euskera se nubla extraordinariamente cuando se encuentran en el texto algunas palabras que no se entienden. Atendiendo á estas circunstancias, hemos hecho una revista económica á más no poder y legible por cuantos tengan un poco de buena voluntad, sin caer, claro es, en ramplonerías de lenguaje que serían rechazadas por el buen gusto. Hemos procurado huir de arideces de lenguaje y de arideces de concepto, no porque nuestro ferviente anhelo no sea el de escribir en puro euskera acerca de todos los ramos del saber, sino porque los lectores huyen si no se les dan cosas fáciles y amenas. Ahora damos a los lectores lo que ellos quieren para atraerlos poco á poco á donde nosotros queremos¹².

Mota guztietako pertsonengana iritsi nahi zuten. Beraien apustua herri irakurketa suspertu eta indartzea zen. Jakintsu teorikoak egin baino, bilatzen zutena euskaldunak, ahalik eta gehienak, euskaraz irakurtzea zen. Lorpen handiagotzat hartzen omen zuten etxekoandreak edo bere umeek euskaraz hitz egin eta irakurtzeko ohitura hartzea, bulegoan izugarritzko ikerketa teorikoak egingo zituen jakintzua baino. Ez zituzten azterketa serioak eta ikerketa artikulua erabat baztertzen, aitzitik, horiekin batera lekua eman nahi izan zieten ipuinei, bertsoei, fabulei eta atseginez irakurtzeko egindako idatzi motzei. Esfortzurik handiena kultura eruditoaren zabaltzea baino herritarrengana erraz iritsiko zen kultura garatzean jarri zuten. Horregatik, aldizkari serioari ez zegozkion “umekeriak” argitaratzeagatik kritikatuak izan ziren. Baina, beraiek egin zuten apustua tinkoa zen: herritarrek irakurri nahi zutena zabalduko zuten. Lehentasuna euskaraz irakurtzeko ohitura hartzen laguntzeak zuenez, berebiziko garrantzia zuen irakurketa ahalik eta biderik atseginenaren bidez egiteak. Bide atsegina herri xehearengandik gertu egotetik zetorren, beraien kultur esperientzia eta ohituretatik gertu, herri kulturatik gertu egotetik hain zuzen. Hori izango zen lehenengo pausua, zaletasuna finkatzea, ondoren euskaraz landuriko kultura erudituagoa zabaltzeko. Gutxi batzuk irakurriko zituzten euskaraz idatziriko testu mardulak baino garrantzi handiago zuen herritar askok irakurri ahal eta nahi izango zituzten idatziak argitaratzea. Herritarrengandik gertu zegoen kultura zabalduz, herritarren irakurzaletasuna sustatzea zuten helburu.

Aldizkariaren argitaratzea bazkide ziren irakurleen esparrura mugaturiko ekintza izan zen, gehien bat. Berarekin batera ere saiatu ziren “Biblioteka euskerikoa” egiten, aldizkariarekin batera, aparteko tomoetan, hainbat ipuin, fabula eta foiletotxo argitaratuz. Aztergai dugun epealdian zehar 5 tomo argitaratu zituzten: Bilintxen poesiak, B. Mogelen fabulak, Iturriagaren Jolasak eta Truebaren ipuinen bi tomo¹³. Dena den, haur, gazte eta heldu euskaldunen artean irakurzaletasuna bultzatzeko elkarteak zuen helburuak bazkideen esparrua gainditu egiten zuen eta, horregatik, euskarazko idatzien zabalkundea areagotu egin nahi izan zuten, herritarren artean liburu eta foiletoen banaketa ugari eginez. Ildo horetatik, adibidez, 1911. urtean elkarteak bilerak egiten zituen guneetan hizlariak hitzaldietan ziotena azpimarratzeko orri solteak banatzea erabaki zuten. Era berean, 1914. urtean elkarteak berak argitaratu zituen lanen bildumak jaso eta eskoletan, zirkuluetan, etab., doan banatzea erabaki zuten. Urte horretan euskal

liburuen doako banaketan 6000 entrega egin omen zituzten: bai aristokratei, bai neskameei, bai partikularrei, kartzeletako kaperauei, liburutegietako zuzendariari, goi irakaskuntzako irakasle batzuei, mutikoen maisuei, herri txikietako apaizei, etab. Ondorengo urteetan ere jarraitu zuten sustapen politika berdinarekin. Adibide bat ematearren, 1915. urteko txostenaren arabera, Truebaren ipuinen 100 ale banatu zituzten Azkue eta Bustintzaren eskoletan; Mogelen fabulen 30 bat ale Muñoaren eskoletako umeentzat, etab.; oro har, 15.000 ale inguru, aldizkari, orrialde eta foiletoetan, guztiak doan.

Orri solte, foileto, ipuin eta abar mordoak banatzen zuteneko espazio garrantzitsua euskal festena izan zen. Horietan euskararen eguna antolatzeaz arduratzen zirelarik, iraunkorki aritu ziren poesiak, bertsoak, ipuinak eta bakarriketen aleak herritarren artean banatzen, baita beraiek saritutako lanak argitaratzen. Euskal festak antolatzeari utzi ondoren, 1913an, Euskal jaiak, “Fiestas de propaganda euskérica”, baita umeen artean euskarazko irakurketaren eta dotrinaren inguruko lehiaketak ere egiten jarraitu zuten (Andoainen 1914an adibidez). Izan ere, elkarteak jorratu zuen beste ekintza esparrua lehiaketena izan zen. Hastapenetan, 1908an, antolatu zuten ipuin lehiaketaz gain, bigarren epealdian ere martxan jarri zituzten hainbat: Euskal izenen lehiaketa (1912), Izkirimiriarena (1913 eta 1915), Izen toponimikoena (1915), Antzerki lanena (1916), Nola esan daiteke Antropologia euskaraz (1917), Eskoletako haurrentzako testu egokiarena (1917), eta idatzi sariketa ugari 1924 eta 1930 bitartean. Gehienetan, gainera, sariketa horietara aurkezten ziren lan askoren argitalpenaren ardura bere gain hartzen zuen elkarteak.

Bestalde, idatzizko ekoizpenean eta zabalkunde mailan egin zuen lanaz gain, ospetsua izan zen elkarteak, eta entzunak bertako kideak, ahozko propaganda mailan egin zuen lan handiagatik. Mitin eta hitzaldien bitartez, idatzia iristen ez zen lekura eramanez nahi zuten beraien ahotsa. Ospetsuenak eta sona handiena izan zuten batzarrak Auzan, Elizondon, Lekunberrin¹⁴ eta Bilbon egindakoak izan ziren.

Oro har, eta Erizek (1997, 520) ateratako ondorioei helduz, esan daiteke Euskal-Esnaleak Nafarroako Euskara elkargoak jada 1877. urterako markaturik zituen esparruak (euskararen propaganda, euskal literaturaren bultzatzea, herri literaturaren bilketa, etab.) lantzeari ekin ziola –ez bakarrik, baina bai neurri batean–. Campion eta Iturraldek mugimendu euskaltzalearen jarduerarako zehaztu zituzten ardatz nagusien inguruan aritu zen Euskal-Esnalea:

Campion eta bere lankideen ekarpen nagusia, euskarari tokia ukatzen zion erdal diskurtsoari nahiz egoera orokorrari aurre egiteko asmoz, euskararen aldeko tradizioan txertatu, Europako herri hizkuntzen aldeko ideologia eta mugimenduetatik edan eta sistema ideologiko berria sortzea izan zen, eta, aldi berean, lana bideratuko zuten erakundeak antolatzea.

Garaiko beste kultur talde batzuen antzera, Euskal-Esnalea elkar-teak ere presio talde gisa jokatu zuen, euskaldunen eta euskal erakun-deen kontzientziak esnatzera zuzenduz, eta beraiek euskara eta euskal kulturaren aldeko ekintzak burutzera bultzatzuz presio lan iraunkorra egin baitzuen. Testuinguru horretan kokatzen ditugu elkar-teak luzatu-tako hainbat eskaera, besteak beste: Gotzainari eginikoa, dotrinaren bertsio bateratua eta garbiagoa erabiltzera behartu zitzan apaizak eta eskoletako maisuak; eskaera Gotzainari ere apaizgaitegietan euska-razko katedrak ezar zitezen (1914); ikastetxeetan euskara sar zedin, oztopatua izan ez zedin behintzat, egin zituzten gestioak (zuzendariei zirkularrak bidaliz, gurasoei deia eginez eskoletan presioa egin zezaten euskal kantak irakasteko); leku publikoetan (postan, tren geltokietan, etab.) errotuluak euskaraz jar zituzten eskatuz luzaturikoa. Horiez gain, aipa daitezke Muñoaren ikastetxera zein Etnografia museora antolatuta zituzten bisitaldiak; edo euskal akademia eta ortografia batzea-ren inguruan aldizkarian jarri zuten atal berezia, etab.

Urteak pasa ahala, ordea, bazkideen artean zegoen morositateak bultzatuta, gizarte mailan euskal kulturagintza eta euskarazko irakas-kuntza erakundetzen joan zen heinean –batez ere 1918. urtean Eusko Ikaskuntza eta 1919.ean Euskaltzaindia martxan hasi zirenetik–, elkar-teak gainbehera nabarmena izan zuen, bai bazkide kopuruan bai aurre-ra eramandako ekintzetan. Jende berriak, ideia berriak eskatzen zituz-ten jada 1918. urterako. Gizartea aldatzen ari zen, egitura berriak sortzen eta kultur eragile berriak gero eta indar handiagoa hartzen ari ziren. Euskarazko irakurketa eta idazketaren ikaskuntzaren eta erabile-raren sustapenerako bide berriak irekitzen hasi ziren erakunde nagusi horien baitan, herrialdearen dimentsioaz haratago, euskal lurralde es-parru zabalagoan eraginkorrago jardun nahi zutelarik. Pixkanaka, euskal kulturagintza eta, baita ere, euskarazko alfabetatzearen sustapena erakunde nagusi batzuen inguruan bildu eta erakundetuz joan ziren. Lan egiteko modu berriak, eragiteko bide eta eredu berriak. Bide hor-retan, Euskal-Esnalea elkar-teak bere bazkidetzan beherakada ikusiko zuen, 1908an 832 izatetik 387 izatera jeitsiko ziren 1928an. Jada,

1921. urteko txostenean ziotenez, ez zuten diru gehiegirik, aldizkaria atera eta hitzaldi emaileak ordaintzeko adina justu. Esan daiteke elkar-tearen garairik oparoena 1908-1918 urte bitartekoa izan zela.

2. Eusebio Lopezen inprimategia eta Isaac Lopez Mendizabal

Eusebio Lopez jaunak inprimategiaren gidaritza hartu baino lehen jada euskarazko debozionarioak argitaratzen ziren bertan, baina berak hartu zuenean debozionarioak ez ezik euskal herriarrekin zerikusia zuten lan asko argitaratu zituen, besteak beste: Campionen *Gramática*, Aizkibel eta Novia Salcedoren *hiztegiak*, Iztuetaren *Gipuzkoa'ko dantza gogoangarrien kondaria edo historia*, Lardizabalen *Testamentu zarreko eta berriko kondaira*, Gorosabelen *Cosas memorables de Guipúzcoa*, P. Mendibururen *Otoitz-gayak*, foiletoak, manualak, hiztegi txikiak eta beste hainbat argitalpen. Halaber, ezaguna zen bere etxea, beste zenbaitzuenekin batera –Barojarena, Tolosako Gurrutxagarena, Mugerzarena, Azpeitiko Matinezena, Oñatiko Ralduarena, Eibarko de Diego eta Oruena, Gernikako Goitiarena, eta Erreteriko Valverderena–, bertsopaper ugari inprimatzeagatik. Bertan argitaratu ziren, baita ere, *Euskal-Esnalea* aldizkariako lehenengo urteetako aleak (1908-1909), eta Euskal-Esnaleak prestatu zuen *Egundiya*, gerora Lopezen etxeak berak beregain argitaratzen jarraitu zuena, etenik gabe.

Lopezen garrantzia, halere, ez zetzan liburuen argitalpenean soilik. Liburuak argitaratzeaz gain, berauen zabaltze eta hedapenez arduratu zen pertsonalki, herriz herri eramanez bere lanak eta herritarrak berauek eros zituzten konbentziturik. Honela zioen “Aztertze”k inprimatzailearen heriotzaren urtean gorazarre eginez idatziriko artikuluan:

Pero la dura tarea de don Eusebio López no se redujo a publicar esas obras, sino que, además, tuvo que venderlas, y para ello recorrió personalmente el país, incitando a las gentes, buscando suscripciones, ofreciéndole sus libros, convenciendoles de la obligación moral que tenían de secundar la obra que había emprendido con tanto sacrificio y tanto amor.

Aquel apostolado no fue estéril. La casa editora creó ambiente, y el público fue acostumbrándose más cada vez adquirir y leer y conservar con afecto los libros que guardan en sus páginas ecos de la vida de las gentes de nuestra raza¹⁵.

Herri eta herritar xumeengana jo ez ezik, maiz luzatu zizkion Diputazioari berak argitaraturiko lanen ale batzuk eskuratzeko eskaerak: zela Novia Salcedoren *Diccionario manual de la Lengua Vascongada*-ren ale batzuk eskura zitzan eskatuz, zela A. Campionen *Gramática de los cuatro dialectos* liburuaren ale batzuk eros zitzan eskatuz, edota Aizkibelen hiztegiarenak, Iturriagaren fabulenak, Lardizabalen Testamentuarenak, Kempis-enak, eta eliz liburu ugarirenak¹⁶. Alde batetik herriarrak eta, bestetik, herri erakundeak euskara eta euskal kultura idatzia babestera bultzatu zituen Lopez jaunak, euskarazko testuak herrian zabaltzen lagunduz. Bere jarrera euskaltzale tinkoari helduz, eta merkatari senak gidaturik, euskarazko idatzien merkatuaren aldeko apustua egin zuen eta, neurri handi batean, merkatua bera sortu ere bai.

Aitak hasitako bideari jarraitu zion semeak, Isaac Lopez Mendizabal jaunak (1879-1977). Filosofia eta letretan doktorea eta euskal nazionalismoak Gipuzkoan izan zuen bururik nagusienetakoa –Jose Eizagirre eta Luis Eleizalderekin batera–, 1916an Lausanan ospatu zen Nazionalitateen Hirugarren Konferentzian euskal nazionalismoaren ordezkari izan zen. Halaber, Gipuzkoako ordezkari gisa Comución eta Aberri arteko berbiltzea emango zeneko batzar nazionalista antolatze-ko batzordeko kidea izan zen Migel Urretarekin, Abelino Barriolarekin, Jose Maria Agirrerekin eta Jose Eizagirrerekin batera. Gogor ekin zion bere bizitza osoan zehar euskara eta euskarazko irakaskuntzaren aldeko lanari, politikan ez ezik euskal kulturaren erreferentziazko pertsonaia aski ezaguna bihurtuz.

Etxeko giro euskaltzaleak, alde batetik, eta 1936ko guda aurretik Tolosan osatu zen euskaltzale taldeak, bestetik, eragin handia izan zuten bere kultur ekintzan. Herrian garai bertsuan bildutako lagunekin (gehienak EAJ alderdian ardura karguak zituztenak) hala nola, Patrizio Orkaiztegi artzapeza, Doroteo Ziaurriz mediku eta politikaria, Antonio M^a Labaien idazlea, Jose Eizagirre atikulgilea, Jose Ariztimuño “Aitzol” apaiza, Jose M^a Agirre “Lizardi” idazle eta olerkaria, lan egiteko aukera izan zuen. Foruzaletasunetik aldenduz, EAJren nazionalismoa izan zen bere ekintza politikoaren ardatza, baina baita bere ekintza kulturalarena ere. Abertzaletasunak eraman zuen hainbat kultur erakunderen sorreran parte hartzera (Euskaltzaleen Biltzarra 1902, Euskal-Esnalea 1908, Euskaltzaindia 1918), eta, beste obra batzuen artean, euskararen ikaskuntzari begira zein euskarazko irakaskuntzari begira liburuak idaztera, beraietan islatua geratu zelarik bere abertzale-

tasun jeltokidea. Ezin aipatu gabe utzi berak idatzi eta aski zabaldu eta ezagunak izan ziren lanak, hala nola: *Aita Santu amargarren Pio'ren doña laburra* (1907), *Manual de conversación castellano-euskera* (1908), *Zenbakiztiya* (1913), *Euskera* (1915), *Diccionario vasco-castellano* (1916), eta euskal eskoletarako oinarritzko testuliburu bihurtu ziren *Umearen laguna* (1920) eta *Xabierto* (1925). Telleriak dioena jasoz, “gizon jantzia zen Ixaka Lopez-Mendizabal. Eta jakinduria horrek ikuspegi berezia eman zion euskarak eta euskal kulturak zituen beharren inguruan. Lehenik beharrak non zeuden sumatzen, eta ondoren, behar horiei bidezko irtenbidea ematen. Premia non, erantzuna han”¹⁷, zuen ikuspegi zabala azpimarratu nahi genuke guk ere, horrek eman baitzion garaiko euskaltzale askorentzat bideraezinak ziren hainbat esparrutan saiatzeko ausardia.

Euskara erabilera esparru berrietara zabaltzeko ausardia izan zuten lehenik Eusebiok eta, ondoren, Ixakak. Inprimategiak zuen tradizioa alde batera utzi gabe, saiatu ziren euskararentzat bide berriak irekitzen bai euskara eta euskarazko irakaskuntzari begira (etorkizuneko euskal eskolei begira) liburuak eta testuliburuak idatzi eta argitaratuz, bai herri heziketari begira egutegiak osatu eta argitaratuz. Ausardi handia izan zuen Eusebiok *Euzkel-Egutegiya* eta *Euzkel-Egutegi txikiya* argitaratzeari ekin zionean. Lehenengo momentuetako harrera hotza, eta tartean izandako ahulaldiren bat edo beste gaindituz lortu zuen Ixakak, bere aitaren laguntzarik gogotsuenarekin, ondorengo urteetan proiektua aurrera ateratzea eta, ondorioz, irakurketa eredu berria euskaraz finkatzea.

Oro har, esan genezake bi gune nagusiren inguruan, Donostia eta Tolosan, bildu zela, Gipuzkoan aztergai dugun epealdian, euskara eta euskal kulturaren eragintza. Batzarrearen inguruan mugitzen zen euskaltzale taldeak Donostia zuen ekintza gune gisa –ez bakarria baina bai nagusia–. Partaide nagusiak Donostiako Udala eta Diputazioa izanik, hauekiko lotura oso estua mantendu zuen Batzarreak, oro har, eta bere zenbait kidek bereziki. Euskal-Esnalea elkarteak, berriz, Gipuzkoa ez ezik beste gainontzeko herrialdeetan ere eragitea zuen helburu, eta hala saiatu zen egiten. Gipuzkoan bertan, bestalde, Donostian eta herrialdeko beste herrietan ere presentzia nabarmena izan zuen. Eta, zentzu horretan, Tolosa nabarmendu behar da beste gune garrantzitsu gisa. Bertako euskaltzale taldea, hots, P. Orkaiztegi, J. Eizagirre, I. Lopez Mendizabal, D. Ziauriz, etab., erreferentziatzeko pertsonaiak izan baitziren garaiko mugimendu euskaltzalean eta kul-

turgintzan. Tolosan, bereziki, Lopeztarren inprimategia azpimarratu dugu. Donostia inguruan garatu zen *Euskal-Erria* eta Euskal-itiz-jostaldien Batzarreako kideen planteamendu foruzaleei erantsi behar zaizkie Euskal-Esnalea elkartearen inguruan ere bildu ziren planteamendu abertzale-jeltzaleak, horien ordezkari nagusia Tolosa inguruko euskaltzale taldea izanik. Guztien baitan, halere, oinarritzko ezaugarri ideologiko batzuk nabarmen ditzakegu, Gipuzkoan XIX. mendearen bukaeran eta, batez ere, XX. mendearen hasieran garatu izan ziren –eta guk aztertu ditugun–, kultur ekintza alfabetatzaileak ezaugarritu zituztenak: katolizismoa, foruak eta hizkuntza. Gregorio Mujikak 1907ko El-goibarko Euskal Festetan irakurri zuen hitzaldian, *Euskeraren alde* izenburua zuena, bota zuen lema ongi baino hobeto laburbiltzen du Euskal-Esnalearen inguruan biltzen ziren euskaltzaleen jarrera ideologikoa: “Izkuntza eta Lege Zarrak”. Ikus dezagun planteamendu hauek guztiak nola gauzatu ziren *Euzkel-Egutegiya*-n eta *Euzkel-Egutegi txikiya*-n.

EUZKEL-EGUTEGIYA (1909-1934)

Guretzat, esan dugu, *Euzkel-Egutegiya* aztergai dugun epealdian euskarazko alfabetatzea sustatzeko bideratu ziren kultur praktika ugari eta defendatu ziren oinarrizko planteamendu ideologikoak biltzen dituen adibidea da. Eta ildo horretatik analizatuta eskainiko ditugu lanaren ondorengo orrialdeak.


Lehenik eta behin, forma eta egiturari buruzko azalpenak eman beharrean aurkitu gara, izan ere aztertu ahal izan ditugun erreferentzi-etan egutegiei buruz –eta, batez ere, hauei buruz–, nahasmen dezente dagoela iruditu baitzaigu.

Izenburuak eta argitalpenaz arduratu zirenak desberdinak izan arren, egutegi berdinez ari gara hitz egiten *Euskal-Esnalea'ren Egundiya* eta *Euzkel-Egutegiya*-ren kasuan¹. Edukiaren eta egituraren azterketak, baita garaiko adierazpenek ere hori baieztatzen dute. Bestalde, 1909. urterako ateratako *Euskal-Esnalea'ren Egundiya*, eta ondorengo urteetan *Euzkel-Egutegiya*² izenarekin argitatatuz joan zenaren kasuan hormarako egutegiaz ari gara hitz egiten, paretan jartzeko tako moduko egutegiaz. Izan ere, aztertu ahal izan ditugun aleetako batzuk –1910ekoa³, 1911koa⁴ eta 1915ekoa⁵–, tako gisa iritsi zaizkigu eskuetara, zorte handiz, askatu gabeak (erabili gabeak beraz), eta gero- nek orriz orri ireki ditugunak.



Euzkel-Egutegiya 1911, horma egutegi formatoan

Aztertu ditugun gainontzeko aleak⁶, berriz, eskuko liburu txikiaren formatoan enkuadernatutako takoak izan dira, azal gogorrekoak, dotoreak, urte bakoitzerako kolore desberdinekoak, mezetarako eskuko liburu lodikotearen itxura dutenak. Beraz, hormarako tako moduko egutegiak inprimatu eta saltzeaz gain, liburuxka gisa ere inprimatu eta saltzen zen egutegi berdina, “... liburu antzean josita dagona, eta egunero orri bat kendutzekoa”⁷, alegia. Litekeena da, “horma egutegi”ek zuten kontserbazio zailaren aurrean, eduki bera luzaroan iraunarazteko eta aprobetxamendu handiagoa ateratzeko asmoarekin argitaratuak izatea liburuxka moduan ere.



Euzkel-Egutegiya 1917, egutegi liburuxka formatoan

“Horma egutegi” izendatu ditugu hormarako egutegi takoak, berauen neurria 7,5 zentimetro (zabaleran), eta 11,5 zentimetro (luzeran) ingurukoa izanik. “Egutegi liburuxka” izendatu ditugu enkuaderaturik argitaratutako aleak, hauen neurria aurrekoena baino zertxobait handiagoa zelarik (zentimetro erdia), enkuadernazioko azalak kontuan hartuta. Esan behar da ere lehenengo aleak (1909koak eta 1910ekoak) zertxobait handiagoak zirela, zentimetro bat gehiago. Ondorengo urteetan formatua goian aipaturiko neurrietan finkatuta geratu zen.

Idatzia eta idatziaren egitura zela eta, urte bakoitzerako argitaratu egutegia berdina izan zen horman itsasteko takoaren kasuan eta liburuxka moduan saldutakoarenean, inprimatze formatoak ez zuen idatzian

eragin: informazioa bera zen, era berean eta ordena berean antolatuta emana. Gorputza berdina zen baina “jantzi” desberdinez saltzen zen.

Lehenengo urteko egutegia, 1909. urtekoa, argitaratzeko asmoa publiko egin zuen Euskal-Esnalea elkarteak izen bereko bere aldizkarian 1908ko 10. zenbakian. Ondorengo zenbakietan, halaber, eman zituzten egutegia izango zenaren inguruko xehetasun guztiak, gaztele-raz eta euskaraz: izango zuen itxura, formatoa, edukia, salneurria eta saltokiak. Zein beraien adierazpena baino hobe egutegia izango zena ezagutzeko:

Dicha sociedad ha considerado que un calendario completamente euskérico puede ser un poderoso medio de propaganda del Euskera (...) El calendario será de los llamados de pared, y su presentación será esmeradísima en forma tal que podrá competir y parangonarse con los mejores que en esta clase se realizan en otros países y en otros idiomas. El cartón del calendario medirá un tamaño de 37x24 centímetros con arreglo á un boceto pintado por D. José Eizaguirre, (...) y se está confeccionando a catorce tintas en uno de los más importantes establecimientos litográficos de Barcelona.- La composición que el dibujo representa es de carácter puramente vasco, como corresponde al contexto del calendario y á la idea que con él se persigue. El taco tendrá un tamaño de 13x9 centímetros, y se está tirando en la casa editorial donde se imprime esta Revista (...) Todo él está escrito en euskera. La parte anterior de las hojas es igual á la de todos los calendarios con la única diferencia de estar redactada en nuestra lengua, conteniendo el santoral, días de ayuno, salidas y entradas del sol etc; en la parte posterior de cada hoja se han puesto canciones vascas, chistes, pequeños cuentos, charadas, jeroglíficos dibujados etc. Todo con gran amenidad y todo ello en euskera. En la redacción de ellos han colaborado varios distinguidos escritores vascos, con lo cual se ha conseguido dar gran variedad al trabajo. El conjunto, pues, que forme el calendario será muy elegante y digno de figurar en cualquier habitación. El Euskal-Esnalearen egundiya se venderá en todas las librerías y principalmente en la de esta Revista al precio de 1'5 pesetas (...) no trata de lucrar con su calendario sino que por el contrario ha reducido todo lo posible dicho precio, para que así esté al alcance de toda las fortunas y se extienda hasta los más apartados rincones, llevando consigo la buena nueva del hermoso resurgir de nuestro idioma⁸.

Euskara zabaltzeko bide garrantzitsu gisa hartu zuten egutegia. Hormarako egutegi gisa kaleratua izanik, tako moduan jarriko zen sal-

gai berau paretean itsasteko kartoia eta guzti, Jose Eizagirre jaunak margoturiko euskal kutsua zuen marrazkiren batekin. Edukia zela eta, aurrealdekoa eta etzealdekoa bereizturik zegoen. Aurrealdekoa egutegi guztien antzekoa izango zen, egunaren inguruko xehetasunak emango zituen. Atzealdean, berriz, eduki atsegin eta entretenigarri ugari eskainiko zen. Hau guztia, egileen aldetik partaidetza zabala eta anitzak ematen zion aberastasunarekin. Saiatu omen ziren ahalik eta salneurrikerik merkeena jartzen, edonorentzat eskuragarria izan zedin egutegia, eta dirua ez zedin euskara irakurtzeko oztopo izan, helburua ahalik eta jende gehienak irakurtzea baitzen. Beraien helburu nagusia euskaldunak euskaraz irakurtzen zaletzen eta ohitzen laguntzea zen. Euskaldun sentitzen zen orok eskuratuko zuenaren ustea zuten egutegia bultzatu zutenek:

... en la seguridad de que con ello además del beneficio y solaz que al comprador reporte, habrá contribuido eficazmente á la conservación y propagación del euskera (...).

Euskaraz egin zuten adierazpenean ere antzera egin zen deia:

... Euskaldun batek ere ez luke gelditu biar egundi au erosi gabe. Besterik ez bada erderazko nolabaiteko Kalendariyo lasaikeriz betetakoen ordezkiz edukitzeagatik ere bat. Baserriyeko sukaldietan eta kale-eche eta jauregiyeko tokirik onenian jarri biar da egundi au. Ta egunero gure begiyen aurrian egon biar duben gauza nola baitan, poliki-poliki, piskabana, aitzenerako on asko egin lezake euskeraren alde. Uste degun, ba, euskaldun on denak gure Egundiya erosiko dutela.

Erosi nahi zuenak ondorengo liburudendetara jo zezakeen, batez ere, Tolosako Eusebio Lopezenera, Donostiako Barojarenera eta Jorñen liburudendara, Bilbon Astuyren, Elespururen, Verdes Achiricaren eta San Joseren liburudendetara, Gasteizen Pio Luis Larrañagaren liburudendara, Iruñian Jesus Garciarenera eta Nemesio Aranbururen liburudendara, Elizondon Manuel Irigoyenena eta liburudenda nagusietara.

Egutegian agertu zen mezu asko hedatu zen, aldi berean, beste bide batzuetatik eguneroko prentsan, kultur prentsa espezializatuan (*RIEV*, *Euskal-Esnalea*, *Euskal-Erria*, etab.), baita Itz-Jostaldi eta Euskal Festetan, batik bat bertan irakurritako hitzaldietan. Baina egutegian mezu horiek modu sinpleagoan emanak ziren, herritarrei begira eta egutegiak suposatzen zuen irakurketa modu arinari begira. Prentsa

itxura zuen, euskaraz idatzita zeuden aitukulu eta idatzi guztiak (garai-ko kultur aldizkarietan gertatzen ez zena), ia dena gipuzkeraz, irakur errazak, urte askotan zehar argitaratuak eta irakurle ugari irakurriak izan ziren. Egutegiaren potentzialtasun pedagogikoaz ederki jabetu ziren berau bultzatu zuten euskaltzaleak, ondorengo pasartean ikus daitekeenez:

(...) Gure egundia ez dala ezertarako... Ator, gizarajo ori: ¿asteko egun guztien izenak euskeraz ondo baialdakizkik? Ik bai, apika, baña beste askok ez. Eta ortarako aukerako liburu bat artuta parra-parra egunen izenak ikasten noizbait euskaldunak asiko dirala uste al dek? Eta ik, egunen izenak badakizkik ere, urteko ille guztien izenak euskeraz ezetz ondo esan? Eta i ere, liburu bat artuta ¿asiko alaiz beñere izen aiek ikasten? ¡Bai zera! Gauza oiek ez dizkik iñork ikasi nai, ikasteko lan pitin bat egin bearra zeok-eta. Ona bada egi aundi-aundi bat: iñork (ez askok beintzat) ez dik euskera ikasi nai, ortarako lan apur bat egin bear baldin bada. Euskera erakusteko ikasleak lan egin gabe erakusteko bide bat aurkitu bear genduan: orregatik egundia argitaratuko diagu. Urte betea, 52 aldiz egun bakoitzaren izena erakutsiko dik egundiak. Urte betean, 30 aldiz, (...) erakutsiko dik ille bakoitzaren izena. Ta nai ta nai ez, ikusi bear izen oiek, egundia erosiko duten guztiak. Eta uste diat, astotso bat ez izan ezker behintzat, 30 edo 52 aldiz gauza bat esan ezker ikasi leikeala. Geiago ere baziok oraindik, Atze-aldean, alderantzian, orri bakoitzak ipui, tsirristada, ziribiursa, alegia, edo onelako beste gauza politen bat zekarrek euskeraz: geien-geienara jo ta ere hoge errenkada. Ta ik (eta ik bezela besteak) parra egiteagatik eta euskeraz irakurtzen ikasteagatik: ez aldituk egunero ogei errenkada irakurri naiko? (...) Ez lagun, ez; ez dek alperrikako lana. Egundia erosi ta umilla gabero, apalondoan, egun artako orria irakurri erazi; au dek ik egin bear dekana. Ta erorrek irakurtzea ere ez zaik gaizki etorriko (...) Erosi ezak egundia, ta jarri ezak ire etseko orman, gela agirie-nean: ondo ikusi dedilla. Ta gabetan irakurri orria ta ume tsikiak ere irakurri erazi. Ta, bai ta aundiai ere. Emazteak irakurtzen badik, obe, orain eta oraindik obeago neskameak ere irakurtzen badik. Au egin eta egin erazita, ikusiko dek urte azkenerako ire etseko umiak eta zarrak euskeraz, batere lanik egin gabe ederki irakurriko dutela.(...)⁹.

Horrelako beste adibiderik (izaera literario, kulturala eta hezitzailea zuenik) ez dugu aurkituko Gipuzkoan –ez literatur mailan, ez prentsaren esparruan ez eta irakaskuntzako liburuen alorrean–, azter-

gai dugun epealdian, dotrinaren kasua kenduta. Horregatik, egutegiaren ezaugarri intrintsekoengatik batetik, eta, bestetik, garaiko testuinguru soziokulturaleko ezaugarri estrintsekoengatik, *Euzkel-Egutegiya* herri hezkuntzaren eta herri irakurketaren historiarako oso iturri interesgarria da. Eskaintzen digun azterketarako aukera paregabea da.

1. Hizkera eta idazkera

Idazkerari dagokionez, almanaka popularren xedea izan ohi da, oro har, hizkuntza erakargarria eta erraza erabiltzea, denen eskura egongo dena, herri mailako hizkeratik gertu egongo dena erabiltzea, alegia (M. Carreño, 1991). *Euzkel-Egutegiya* bultzatu zutenen asmoa ere bertsua zen: ahalik eta jende gehienak irakurtzea lortu nahi zelarik, irakurerraza izan behar zuen, beraz, herriak irakurtzeko moduan idatzia.

Aztergai dugun epealdian euskara idatziak bizi zuen egoerari errebasoa egiten badiogu ikusten duguna, zera da: oinarri ahula eta normalizazio eza, oro har. Ortografia aldetik bakoitza bere aldetik zebilela esan daiteke, planteamendu ideologikoen menpe bat baino gehiago. Halere, esplizituki akordiorik ez bazen ere, euskarazko argitalpenen arteko “armonizazio ortografikoa” az¹⁰ hitz egiten da, Azkue-ren proposamenak Aranarenak baino oihartzun handiagoa hartu izana azpimarratzen den aldi berean.

Testuinguru orokorra, eta idazle desberdinen lankidetzak biltzen zituen testua zela kontuan hartuz, *Euzkel-Egutegiya*-k garatu zuen idazketan bi ezaugarri azpimarratu nahi genituzke, gure epealdian zehar ardatz nagusiak izan zirenak. Alde batetik, bertan erabiltzen zen ortografia gazteleraz alfabetaturiko euskaldunei egokitzen saiatu ziren, Azkuek *Ibaizabal* aldizkarian egin legez, “berrikuntza ortografikoak, apurka-apurka irakurzaletasuna finkatu ahala sartzeko asmoz” (J. Kintana, 2002, 51) seguruen. Aspektu hau oso da azpimarratzekoa, gure ustez. Irakurtzen eta idazten euskaraz irakasten ez zen garai batean (ez behintzat zentzu zabal eta orokortuan) oso garrantzitsua izango zen euskaraz idatzitakoaren ortografia eskolan irakatsitakoaren antzekoa edo hurbilekoa izatea, horrela erraztu egingo baitzitzaion irakurleari eskolan garatutako ezagutza eta trebakuntza (gazteleraz landutakoa), borondatezko ekintzaren bitartez, euskararen irakurketa “aske” eta autodidaktara transferitzea. Dena delakoa izanda ere, orto-

grafia, eskolan bideratutako irakurketaren irakaskuntzan erabili izan denekotik gero eta urrunago badago, orduan eta zailagoa egingo zaio irakurleari ikaskuntza hori beste esparruetara eta hizkuntzetara aplikatu ahal izatea, nahiz eta norbanakoaren ama hizkuntza izan. Kasu horietan beharrezkoagoa egiten da ortografia arrotza irakurketa ekin-tzarekin erlazioan jarriko duen zubi lana pedagogizatzailea eta hezitzaile-a. Zailtasuna ez datza hiztunaren fonetika eta idazketarako arau ortografikoen arteko distantzian soilik, baita menperatu behar diren bi ortografien arteko distantzian ere. Distantzia horrek erraztu baino gehiago zaildu egiten baitu ezagutza eskolaratua euskarazko irakurke-ta praktikara aplikatzeko saiakera autodidakta. Finean, ikaskuntza pro-zesuan erabilitako gaztelerazko ortografiatik zenbat eta gehiago urrun-du, orduan eta handiagoa izango da euskaraz irakurtzearen ikaskun-tzan bitartekaritza lana egin beharra.

Azpinarratu behar dugun beste aspektua, zera da: idazketarako eredu gisa herritarren ahozko hizkuntza, barietate bat behintzat, hartu izana. Zentzu horretan, oinarrian erabili zen euskalkia gipuzkera izan zen, nagusiki beterrialde-tolosaldeko bariantea esango genuke. Halere, beste euskalkietan idatzitako testuei, batez ere bizkaieraz idatzitakoei ere eman zitzairen aukerarik tarteka-marteka.

1.1. Herri hizkera eta idazkera: euskalkien eta gazteleraren pre-sentzia

Aurrealdeko orrialdean, adibidez, gipuzkeraren nagusitasuna era-batekoa zen bezala, atzealdeko idatzietan noiz edo noiz azaldu ohi zen bizkaieraz, edo bestelako euskalkiren batean idatzitako testurik. Idatzi horietako zenbaitetan espreski adierazten zitzaion irakurleari bizkaie-raz idatzita zeudena. Beste kasu batzuetan, nahiz eta esplizituki adie-razi ez, bizkaieraz idatzitako idatziak ere argitaratu ziren. Topatu izan dugu, halaber, euskalki batean idatzitako testua –bizkaieraz dema-gun–, beste urte batean beste euskalkian idatzita –gipuzkeraz kasu–. Zenbaketa sistematikorik egin ez badugu ere, orientazio gisa esan dezakegu bizkaieraz idatzitako testu gehien lehenengo hiru urteetan agertu zela, eta bereziki, Lopez Mendizabalek ardura hartu zueneko lehenengo bi urteetan, 1910 eta 1911n hain zuzen. Urte horietan egutegi bizkaitarraren¹¹ eruedetara hurbildu zelarik, idazle bizkaitar-ren eta bizkaieraren presentzia areagotu egin zuen. Ildo horretatik,

bereziki da aipagarria 1911. urteko *Egutegiya*, atzealdeko orrialdeetako idatzietan ez ezik aurrekaldekoetan ere nabarmena izan baitzen gipuzkeraren eta bizkaieraren presentzia orekatua, Ilbeltzaren lean agertu zen “Agur”ean adierazitako helburuei jarraikiz:

... Beti aurrian izan degun korapillo bat (eta au egiya da) Euzkadi'n izkelgi, edo dialecto asko izatia da. Izkelgi oyek bat egitera iritxiko bagiñake, aurrerapen aundiya litzake. EGUTEGI au bi izkelgitan (Gipuzkoeraz eta bizkayeraz) dijua eta bat-egite ontara ta euzkera zabaltzea bere apurra laguntzen badu bere asmua betia aurkituko da.

Hala, orrialdeak itxura berria hartu zuelarik, hilabetearen izena ematen zen lehenik, adibidez, gipuzkeraz eta, ondoren, azpian (parentesian) bizkaieraz. Txandakatuz zihoazen euskalkiak, egun batean deitura nagusia gipuzkeraz jartzen zuen eta parentesian bizkaieraz, eta ondorengo egunean nagusia bizkaieraz eta parentesian gipuzkeraz. Hona hemen urtarrileko lehenengo lau egunetakoa adibide gisa: (hilak 1) “Ilbeltza (Bizk. Urtarrilla)”. / (hilak 2) ”Urtarrilla (Gip. Ilbeltza)"/ (hilak 3) “Ilbeltza (Bizk. Urtarrilla)"/ (hilak 4) “Urtarrilla (Gip. Ilbeltza)”.

Egun batzuk pasa ondoren ez zen azpian ageri beste euskalkiko bertsioa, zuzenean txandakatu egiten zituzten bi bertsioak, honela: “Otsailla”, “Epailla”, “Jorrailla”, “Orrilla”, “Dagonilla”, “Irailla”, “Urrilla”, ”Lotazilla” modu bakar batean azaldu ohi ziren; “Gara-garrilla”-“bagilla”/ “Garilla”-“Uztailla”/ “Azarua”- “azilla” hilabeteen kasuetan, berriz, lehenengo lau egunetan euskalki batekoa ageri zen nagusi eta azpian beste euskalkikoa. Ondorengo egunean alderantziz, horrela lau egunetan (bi euskalkietako bertsioak elkarrekin); gero, ondorengo egunetan, ez zen azpian beste euskalkiari zegokiona jartzen, euskalki bakoitza egunetik egunera txandakatuz ageri zen.

Gipuzkera eta bizkaieraren arteko elkar ulertzea bultzatu nahia adierazten digute astearen egunek ere. Hemen ere txandakatuz, batzuetan gipuzkerazko deiturak eta besteetan bizkaierazkoak agertu ziren. Har ditzagun ilbeltzaren asteetako egiturak adibide gisa. Bigarren astean: “Astelena, Asteartia, Egubaztena, Osteguna, Barikuba, Larunbata, Igandia”. Hirugarren astean: “Astelena, Asteartia, Asteazkena, Egubena, Ostirala, Larunbata, Igandia”. Laugarren astean: “Astelena, Asteartia, Egubaztena, Osteguna, Barikuba, Larunbata, Igandia”. Horrela hileru.

Ez dirudi ez harrera ez eta arrakasta handiegirik eduki zuenik saiakerak, eta izaera euskalki-bidun hau ez zen ondorengo urteetako egutegietan errepikatu. Ondorengo urteetan gipuzkeraren nagusitasuna erabatekoa izan zen aurrealdeko orrialdeari zegokionez, bederen. Eta, gero eta nabarmenagoa atzealdeko idatzietan. Antzeko saiakera euskalki-biduna egin zuen, berriro, Lopeztarren etxeak, jada aztergai dugun epealditik kanpo, 1924. urtean hain zuzen, baina orduan elkar-tu zituzten euskalkiak gipuzkera eta lapurtera izan ziren.

Euzkel-Egutegiya-k zerabilen hizkuntza zela eta, bereziki adierazi behar den ezaugarria gaztelerak izan zuen presentziarena da. Ezin esan daiteke egutegia elebiduna zenik, ez eta gaztelerak presentzia zuela esplizituki adierazten zenik ere, beste egutegiren batean ikusi dugun bezala¹². Euskaraz idatzitako testuek osatzen zuten *Egutegiya*, baina gazteleraren presentzia ez zen desagertu. Gaztelerara jotzen zen funtzio desberdinetarako. Ideologia mailan, halere, helarazten zen mezua bes-telakoa zen: gaztelania ohitura onen suntsitzaila zela, sinesmenaren kontrako jarrerak bat zihozela gaztelera eskuratzearekin, etab., esaten zen. Nahiko jarrera kontraesankorra, batetik gazteleraren aurkako mezua eta jarrera bultzatzen zelarik –salatzen zena ez zen gaztelera ezagutzea, euskararen ordezkapena baizik–, bestetik, gazteleraren erreferentziari eutsi beharrean aurkitzen baitziren derrigorrez, nolabait, garaiko egoera soziolinguistikoak bultzatuta, bai irakurleei zegokienez, bai idazleei zegokienez, bai eragileei zegokienez ere. Denak zeuden “kutsatuta”.

Gazteleraren presentzia zela eta, hizkuntza mailako aldaketak egutegiari zegokion oinarrizko informazio alorrean eman ziren. Urteko egun bakoitzari zegokion oinarrizko informazioa euskara hutsean azaldu zen bai 1909. urtean, bai 1910. urtean. Ondorengo urteetan zehar, berriz, pixkanaka-pixkanaka gazteleraren presentzia gero eta nabarmenagoa izan zen. Jada, 1911. urtekoan, egunari zegozkion santuen izenak lehenik euskaraz eta ondoren parentesia artean gazteleraz agertu ziren. Honela, adibidez: “Deunak: Tita, Akilin, Eukeni ta lagunak, Gergori ta Bedite (Tito, Aquilino, Eugenio, Gregorio, Benita)”.

Ezaugarri hau ondorengo urteetarako ere finkatuta geratu zen. Era berean, 1911. urtetik aurrera gazteleraren presentzia areagotu egin zen oinarri-oinarrizkoak ziren egutegiaren beste ataletan (urteko egun bakoitzari zegokion oinarrizko kokapen informazioa). Hilabetearen eta astegunekoaren euskarazko izenen azpian gaztelerazko itzulpena

agertzen hasi zen 1913. urtean. Honela azalduko zen, aurrerantzean, egunari buruzko informazioa:

Ilbeltza
Enero
Eguzkiya irten=7'22
Sartu= 4 ¼8
Ilargi berriya 7'an
1
Lenengo astia
Asteazkena
Miércoles
(Barkapen osua)
1/ Josu'ren Billebaiketa/ 364
Deunak: Puljenti ta Eukeni (Fulgencio, Eugenio)¹³.

Aurrealdeko orrialdean ez ezik nolabaiteko tokia ere izan zuen gaztelerak –Bizkaian argitaratutakoetan baino askoz eskasagoa¹⁴, halere–, azken urteetan azaldutako publizitatean. Ondorengo eslogan hauetan ikus daiteke nola: “E. Lopez-Tolosa. Ingar-kutxa-ola. Fábrica de Cajas de Carton”, “Amondarain'dar Kepa-Tolosa.- Iragigei bildegia – Almacén de materiales para construcciones”, edo “Egindako arrinabar-lantegiyak-Talleres de marmol comprimido Pedro de Amondarain –Tolosa”¹⁵.

Adierazitako espazio horiez gain, aintzat hartu behar dugu irakurketa erraztera zuzenduriko estrategien artean aurrerago azaldu dugun joera, hots, euskarazko hainbat hitzen ondoan gaztelerazko itzulpena, edo sinonimo gisa gaztelerazko hitza euskaldundua jartzekoa.

Gaztelerak zuen presentzia horregatik, halere, egutegiak ez zuen bere burua elebidun gisa azaldu beharra ikusi. Ez zuen zehazki irakurleari gaztelerazko itzulpenik ematen zenik adierazi beharrik izan; aitzitik, esan dezakegu berezko joera gisa agertu ohi zela gaztelera euskara hutsezko egutegian. Gertaera horrek, gure ustez, “euzkel” izen eta izanaren oinarrian zegoen ezaugarri diglosikoa adierazten du dudarik gabe.

1.2. Hainbat testu estrategia esanguratsu

Egutegia osatzen zuten testuak idatzita zeuden moduan eta inprimatuak zeuden eran ere beste aspektu batzuk azpimarragarriak irudi-

tu zaizkigu. Alde batetik, egileek hainbat testutan idazketa errekurtsu (edo estrategia) desberdinetara jotzen zutela ikusi dugu, gure ustez, irakurleari testuen irakurketa eta edukiaren ulerkuntza errazteko asmoz. Irakurketarako laguntza estrategiatzat hartu ditugun errekurtsu horiek, sinonimiaren erabilera, itzulpena ematea eta hizkuntza mailako argibideak eskaintzea ziren, nagusiki. Estrategia horiek ez ziren, bestalde, egutegiko testuei espreski zegokien berezitasuna, argibideak eta zehaztapen linguistikoak ematea, joera zabaldua baitzen garaiko prentsan –*Baserritarra, Eukal-Erria, Gipuzkoako Nekazaritza, Ibaizabal, Euskal-Esnalea* aldizkarietan, etab.–, eta euskaraz argitartutako lanean, Domingo Agirreren *Garoa*-n adibidez. Dena den, egutegiak duen bilduma izaeraz baliatuz, garrantzitsua iruditu zaigu joera bera azpimarratzea eta, zehazki, zein estrategiatan gauzatu zen jakitea. Testu estrategia horien nondik norakoa ezagutzeak lagunduko digu aztergai dugun garaian euskaraz idazteko eta, batez ere, irakurtzeko herritarrek izan zitzaizketen zailtasunak hobeki ezagutzen.

Egutegiko zenbait idatzitan agertu ohi zen beste idazketa errekurtsu bat ere azaldu nahi genuke, irakurketarako laguntza estrategia gisa baino gehiago irakurlearen kontzientzian eragitera zuzenduriko estrategia gisa hartu duguna. Estrategia horri “etzana kontzientzierazlea” deitu diogu.

1.2.1. Irakurketa eta ulermena erraztera zuzenduriko estrategiak: sinonimia, itzulpena eta argibideak

Oro har, testu laguntza hauek eduki eta forma desberdinetako testuetan ageri ziren. Ez ziren gai edo idazki mota bati eskusiboki zegozkionak. Osasunerako idatzietan, erlijiozko testuetan, ateraldi xelebre eta kontakizun umoretsuetan, azalpen testuetan, gogapenetan, esaeretan, iritzi kritikako testuetan, bertsoetan zein kantuetan ageri ziren. Halaber, egunaren atzealdeko idatzietan ez ezik aurrealdeko informazioetan ere ikusten dira honelako laguntzak.

Berauen presentziari neurria hartzeko, laguntza estrategia hauen agerpen maiztasuna neurtzera jo dugu, horietako bakoitza egutegiko zenbat egunetan azaltzen zen zenbatuz¹⁶. Egindako zenbaketa bakunak izan dezakeen hutsegite maila dela eta, datu zehatzak –kontu handiz hartu behar badira ere–, ideia orokorra egiteko baliagarriak zaizkigula uste dugu.

Hala, neurri handiagoan ala txikiagoan, urtero agertzen zirela ikusi dugu, ez oso modu linealean, gainera. Estrategia hauen erabilera gero eta ugariago edo urriagoa izan zen esateko moduko linealtasunik ez dugu sumatu, beraz. Aitzitik, tarteka-marteka azaldu zaizkigu erabilera zabalagoa eduki zuteneko urteak, azaletik bederen, joera aldaketa horretarako arrazoi garbirik ikusi ez dugularik. Urteak dituen 365 egunetatik 40-50 (%11-12) egun inguruko idatzietan aurkitu dugu irakurketa erraztera zuzenduriko laguntza horietakoren bat edo beste, urte gehienetan. Minimoak, %11, 1909¹⁷ eta 1910¹⁸ urteetakoak izanik, kopuruek gora egiten dutela ikusi dugu 1911¹⁹ eta 1912²⁰ urteetako egutegietan, 68ren bat (%18) egunetako testuetan atzeman ditugularik honelako estrategiak. Ondoren, 1913 (%11)²¹ eta 1914 (%12)²² urteetan maiztasuna jaitsi egiten zaigu, 40-50 egunetako bitartean kokatuz. Berriz, maiztasunak gora egiten du 1915. urtean (%19)²³ eta jaitsi, oster, 1916an (%11)²⁴. Azken bi urteetan, halaber, badirudi 1915ean ezarri dugun minimotik gora egiten dutela maiztasun neurriek 1917 eta 1918 urteetan, 118 egunetan (%32)²⁵ eta 88 egunetan (%24)²⁶ atzeman baititugu.

Portzentaien igoera nabarmena ikusita –azken bi urteetakoek nabarmen gaınditzen dituzte aurreko datuak–, laguntza estrategia hauetara jotzeko joera gero eta handiagoa izango zela pentsa genezake. Baina, epealdiko urteetako joan etorriak kontuan hartuta, oro har, eta bestelako datu gehiagorik ezean, zuhurragoa litzateke areagotze-urritze ugariz betetako bilakaeraren aurrean gaudela pentsatzea.

Irakurleari testua errazago ulertzen laguntzeko atzeman dugun laguntza estrategietako bat sinonimiarena izan da. Hainbat hitzen ondoan –irakurleari berria egingo zitzaiolakoan edo irakurle izan zitekeen populazioaren artean erabilera eskasa ustetan–, erabilera arruntagoa eduki zezakeen sinonimo ezagunagoa azaltzen zen, parentesi artean gehienetan edo testuaren bukaeran, behealdean, beste batzuetan. Sinonimoa gehienetan, beti ez esateagatik, gaztelarazko hitza euskaldundua izaten zen (euskaldunek beren erabilera arruntean txertatua legez euskarazkoa bailitzan deklinatuta ageri zelarik). Horregatik, euskaldunduta ageri zelako, kontsideratu dugu erabilera hau sinonimia gisa eta ez itzulpen gisa. Finean, irakurleari berria suerta zekiokkeen hitzaren kasuan (batzuetan neologismoa zen, besteetan erabilera galdua zuen hitz zaharra zen), esanahia egoki uler zezan testuak berak ematen zion laguntza dugu. Urteetako erabilera aztertu ondoren, halere, ez da oso garbi atzematen zein hitzetan jarri behar zen sinonimoa

eta zinetan ez adieraziko zukeen araua. Horra hor, sinonimoa testuan bertan parentesi artean eskainia ondorengo adibidean:

Euzkeldunentzat egun oroigarriak.

(Urtarrillakoak) (Enero, bizkai-eraz).

1542-Urtarrilla.-1an-Mozanbique'ra elduta bidaltzen diyo Loyola'tar Deun Iñaki'ri idazki (*karta*) bat Jabier'tar Deun Pantzeska'k, bere ibiltearen berri ta eldu dala esanaz Goizparra (*Ebanjeliyua*) zabaltzeko bidaldua izan dan errira.

1841-Urtarrilla-5.an Madrid'eko Gobernuak Bizkaya, Gipuzkoan eta Araban pase foral'a kentzen du.

1690-Urtarrilla-6an Begoña'ko Amak itxasuan gaizkatzen (*salbatzen*) du Maidana'tar Ander, guda-ontzi San Joseph'an zebillen Bizkai seme bat.

1494-Urtar.-10an. Iruña'ko Eleiza Nagosiyar artzen dute Naparroa'ko bureztuna (*koroya*) Jon eta Katariñe'k, Naparroa'ko legezko bakaldun (*errege*) azkenak izan ziranak.

614-Urtar.-13an- Deun Pirmin, ziñopa (*martiri*) iruñarraren gorputza idiro, ta Iruña'ko Deune Miren Eleizara eramaten da²⁷.

Beste kasu batzuetan, sinonimo bidezko argibidea testuan bertan eman beharrean, bukaeran, orrialdearen behealdean eskaintzen zen. Ikus, adibidez, "Otoitz egizu" izenburua daraman idatziaren behealdean jarritako azalpena:

Otoitza=orazioa.

Urruindu=despreciatu²⁸.

Gaztelerazko sinonimo euskaldunduarena izan zen laguntza estrategien artean maiztasun handiagoz erabili zena. Bi urteetan izan ezik beste gainontzekoetan nabarmen azaldu zaigu joera horren nagusitasuna. Egundun kopuruetan, gutxi gorabehera, horra hor zenbatu ditugun maiztasunak: 25 egunez (%6) 1909an²⁹; 19 egunez (%5) 1910ean³⁰, 38 egunez (%10) 1911n³¹, 26 egunez (%7) 1912an³², 24 egunez (%6) 1913an³³, 30 egunez (%8) 1914an³⁴, 40 egunez (%11) 1915ean³⁵, 20 egunez (%5) 1916an³⁶, 65 egunez (%18) 1917an³⁷ eta 32 egunez (%8) 1918an³⁸.

Kopuru horiei guztiei gehitu behar zaie termino ezagunagoa "edo" juntagailu hautakariaren bidez emateko zegoen joera, dezentez urriago ageri zena izanik ere: 2 egunez (%0,5) 1909an³⁹, 3 egunez (%0,8) 1911n⁴⁰ eta 1914an⁴¹, 11 egunez (%3) 1915ean⁴², 8 egunez (%2) 1916an⁴³, 19 egunez (%5) 1917an⁴⁴, eta 9 egunez (%2)

1918an⁴⁵. Sinonimoa parentesi artean eskaintzearen estrategiaren beste bertsioa besterik ez da. Termino “berria” (ustez ezezagun edo ulergaitza izan zitekeena) bere sinonimo erabiliagoarekin (gaztelarazko hitza euskaldunduarekin) “edo” juntagailu hautakariaren bitartez elkarturik ikusteko adibidea dugu ondorengoan:

Irakasle edo maxu batek baserritar bati zenbakizti edo aritmetika erakutsi nai lioke, eta galdetzen diyo.

– Bi eta bi alkartuta lau dira noski?

– Ez jauna, ez.

– Ezetz...?

– Ez, atzo esan zidazun bi biko idazteko edo eskribitzeko eta ayek ogeita-bi zirala esan etzenduan ba?⁴⁶

Maiz erabilia ikusi dugun beste estrategia zera izan da: zuzenean gaztelarazko itzulpena eskaintzea, hots, euskarazko hitzaren ondoan parentesi artean bere gaztelarazko itzulpena ematea. Ondorengo testuan ikus dezakegu estrategia horren adibidea:

Gizategi batean gizon-emakumeak askotan gertatzen dana, ari ziran nor ziran bikañagoak erabaki nairik, gizonak ala emakumeak. Emakume batek zion: Goikoak gaudia (universo) irasi (crear) zuanean betik gora asi zala, ederrenak eta bikañenak azkenerako utziaz (...)⁴⁷.

Goian aipatu dugun sinonimiaren kasuan bezala, gaztelarazko itzulpenak testuan barruan txertatuak ez ezik, orrialdearen behealdean ere ematen ziren; ikus adibide hau:

... bat bakarraz jabetu bihar dezute: izperringiaz. Orrezaz jabetzen bazerate lurbirako bakaldun zerate. Izperringien jabe danak guzia dauka.

Ikasi ederra ta bikaña da kistar motelentzat; baitare euzkotar tentel askorentzat.

onu=consejo; izperringi=periódico; bakaldun=re⁴⁸.

Gaztelarazko itzulpen zuzenetara jotzea, bestalde, maizen agertu zen estrategietako bat izan zen, gaztelarazko sinonimo euskaldunduaren erabilerarekin batera: 13 egunez (%3) 1909an⁴⁹, 16ren bat egunez (%4) 1910ean⁵⁰ eta 1911n⁵¹, 45 egunez (%12) 1912an⁵², 20 egunez (%5) 1913an⁵³, 13 egunez (%3) 1914an⁵⁴, 27 egunez (%7) 1915ean⁵⁵, 17 egunez (%4) 1916an⁵⁶, 57 egunez (%15) 1917an⁵⁷,

eta 50 egunez (%13) 1918an⁵⁸. Nabarmen azaldu zaizkigu 1912, 1917 eta 1918. urteak gaztelerazko itzulpenaren erabileran.

Idatzi batzuetan gaztelerazko itzulpenarekin batera ematen zen ere euskarazko hitzaren etimologia, modu honetan:

Laterri: lagi – erri= esp. Estado.
Jarauntzi > > = > heredar.
Gudarozte: > = > ejército⁵⁹.

Baita euskaraz emandako esplikaziorik ere, ondorengo adibidean ikus daitekeenez:

Lurriñontziya da lurriñaren indarrez ibiltzen dan ontziya, erderazko buque de vapor.(...)⁶⁰.

Testuetan erabili zen irakurketarako, ulermenerako, beste laguntza estrategia izan zen euskarazko hitz “ulergaitza”ren ondoan bere sinonimoa ematea, baina berau ere euskarazko sinonimoa izanik, honela emanda: “Geidearen (lagun-urkoaren) ospea (izen ona) zauritzen duanak ez du bere ospea sendorik izango (...)”⁶¹. Zenbaitetan, euskarazko sinonimoarekin batera, azalpen etimologiko edo linguistikorik ere ematen zen. Horra adibidea:

Askotan jazoten da aurra edo seña ezin jayortia, edo Amea ilagiñian egotia, edo aurra illa egiteko zorija ixatia. Onetariko aldijetan, osalarijak (osagilliak esaten dabe euzkeldunik geyenak, edo osalarijak barik emakume erdilarija da emaztiai aurra-egiten lagunduten dauksaena) Amaren sabelian aurra ikutu dagilla agiñik eta egikai-itxak esanik (...)⁶².

Euskarazko argibideen artean bereziki aipatu nahi dugu aditz trinkoen ulerkuntzarako ematen zen laguntza, aparteko laguntza gisa. Aditz trinkoak azaltzen zirenean, espreski, ustez ulergaitza zena ulerkor egingo zuen argibidea eskaintzen zen maiz, ondoan parentesi artean agertzen zelarik zegokien konjugazio arrunta, ikus adibidez:

Norberaren gurutzalbena.

–Josu’ri esayozu: <Zure gurutzan nere buruba neonek dazarrket (ezarriko det) eta iltzak Zeorrek sarrtzea nai det>. Itza arrtuko dizu, bai, Gaizkatzalleak. Beraxek iltzatuko zaitu, ta gotzonak (aingeurubak) izango ditu laguntzalle. Arantzak, iltzak, lokiyak, aztamakilla ta ozpiña dakarrzkike (ekarriko ditu); baña ortze-luditarrrtean josita, Beraxe egon zan beela, zakuskenean (ikusiko zaitunean), ludiya oñaz ikutzeke ta ortzera igo ezin dezularik, errukiz urtuko zayo biyotza, ta zure eskintza betetzeke gurutzatik eratziko zaitu...Berak eutsiko dizu

buruba, ta Ama Deunak eratzango zaitu bere altzuban, baña negarrik ezta izango; barre gozo bat dagitzuke (egingo dizu) Miren'ek. (J.K. Huysmans.- Sainte Lydoine de Schidam)⁶³.

Aditz trinkoaren azalpenek nahiko garbi erakusten digute informazio gehigarri horrek zituen bi funtzio: testua ulerterrazagoa egitea, batetik, eta hizkuntza irakastea, euskaran trebatzen laguntzea, bestetik.

Aurrez aipatu ditugun estrategien ondoan, euskarazko sinonimo eta argibideetara jotzeko joera maila apalagoan agertu zaigu urte guztietan. Hona zenbaturiko egunak: 6 egunez (%1) 1909an⁶⁴, 10en bat egunez (%2) 1910ean⁶⁵, 1911n⁶⁶ eta 1912an⁶⁷, 7 egunez (%2) 1913an⁶⁸, 6 egunez (%1) 1914an⁶⁹ eta 1915ean⁷⁰, 2 egunez (%0,5) 1916an⁷¹, 18 egunez (%5) 1917an⁷², eta 14 egunez (%4) 1918an⁷³. Beste kasuetan bezala, azken bi urteetan nabarmenagoa izan zen laguntza estrategia honen erabilera. Halere, aurrez aipatu ditugun bi estrategien arteko konparazioan, euskaraz emaniko argibideei dagozkien maiztasun portzentaiak txikiagoak dira, are gehiago kontuan hartzen badugu hauetako argibide asko aditz trinkoei buruzkoak zirela. Oro har, testu argibideak euskaraz ematera baino maizago jotzen zen gaztelerazko sinonimo euskaldunduetara eta gaztelerazko itzulpen zuzenetara.

Bestalde, noiz erdal hitza euskaldundua parentesian eta noiz gaztelerazko itzulpen zuzena jarri erabakitzeko arrazoi garbirik ikustea ez da lan erraza. Arau garbia atzematea –ahal balitz– zaila egin zaigu benetan. Ikusi dugunez, hitz berdinari batzuetan gaztelerazko sinonimo euskaldundua jartzen zitzaion eta, besteetan, zuzenean gaztelerako itzulpena. Beste kasu batzuetan, halaber, termino berberari ez zitzaion inolako argibiderik jartzen. Zergatik laguntza argibide mota bat batzuetan, eta besteetan beste bat? Auskalo. Egoera eta adibide anitzekin egin dugu topo. Testu berean estrategia desberdinak konbinatu izan zirela ere ikusi dugu, hitz bati parean parentesi artean antzeko termino erabiliagoa –gaztelerazko euskaldundua–, jarriz, adibidez, eta beste bati, gaztelerazko itzulpen zuzena. Hona hemen adibide bat:

(1) txadona=eliza. (2) eundi=siglo. (3) Neskutz=Birjiña. (4) eraspen=debozio. (5) ostera= peregrinación. (6) Doipuru=Aita Santu. (7) Gotzalla=Obispo⁷⁴.

Era berean, testu berdinean hitz batzuei termino erabiliagoa edo ezagunagoa jartzen zitzaion bezala, beste batzuei, aldiz, euskarazko sinonimoa. Horra adibidetxoak:

¡Maite zugatzak!

(...) Intxaur, gaztain, ezkur, madari, sagar, piku ta beste garau anitz (asko) zugatzen etekin dira. (...) Urtero, onesten (bedeinkatzen) ziztuzten Euzkadi'ko basoak, eta oraindik oraiñago ere ekandu-oitura au, Orozko'n Murueta'ko Kepa Deunaren Eliz-barruan gorde izan da⁷⁵.

Gauza da, urte beteko testuak bere osotasunean hartuta ez zaiola irakurleari –ez guri behintzat–, oso argi geratzen “arau” edo irizpide garbirik ba ote zegoen. Funtsean, ez dugu uste bata edo bestea hautatzeko irizpidea bakarra eta bateratua zegoenik. Aitzitik, idazle bakoitzak (argitaratzaileak?) unez une hartutako erabakien emaitza zela pentsatzen dugu. Litekeena da irakurlearengandik gertuena egotea izatea egileak buruan zuen irizpidea, irakurlearen hizkuntza joerengandik ustez gertuen zegoen terminoa (euskarazkoa ala gaztelerazkoa) aukeratzeko. Gure ustez, egoera soziolinguistikoaren azterketa zientifikoa egitetik baino irakurlearen talde sozial berdineko kide izatetik, bizikidetasunetik zetorkion ezagutza soziolinguistikotik abiatzen zen idazlea irakurlearen hizkuntza gaitasunen eta hutsuneen nolabaiteko diagnostikoa egiteko eta, ondorioz, une bakoitzean ulermen egoikiari begira laguntza behar zuten hizkuntza egoerak zeintzuk ziren erabakitzeko. Irakurlearenganako bizitza hurbiltasuna zen, gure ustez, egilearentzat erreferentziarik garrantzitsuena. Izan liteke ere, beste hipotesi bat, irakurketa-laguntza hauek –finean hizkuntza laguntzak zirenak–, irakurleria potentzialaren hizkuntz hutsune posibleetatik baino egile eta argitaratzaileen zulo linguistikoetatik abiatuta erabakitzea. Bigarregoa ahaztu gabe, lehenengo hipotesiari heltzen diogu guk, oraingoz.

Dena delakoa izanda ere, egile desberdinek egindako idatziak zirenez testu bakar batean biltzen zirenak –inprimatzaileak jatorrizko testuak errespetatu eta egile bakoitzak aukeratutako laguntza irizpide propioak txertatzen zituelarik (hipotesi gisa har genezake hau ere)–, honek irakurlearengan sor zezakeen inpresioa nahiko anabasazkoa izan zitekeela uste dugu. Izan ere, testu guztiak segidan irakurtzean (horretarako dago egina egutegia, egunez egun irakurria izateko) irakurleari ez zaio batere garbi geratzen zein arrazoi egon zitekeen zenbaitetan gaztelerazko termino euskaldunduak, besteetan gaztelerazko itzulpen zuzenak, eta besteetan euskarazko sinonimoak jartzea aukeratzeko.

Oro har, ezin esango dugu, urte bakoitzari zegozkion testuak bere osotasunean hartuta, irakurketa erraztera zuzenduriko testu laguntzen agerpena kuantitatiboki ikaragarrikoa izan zenik. Nolanahi ere, kuali-

tatiboki garrantzizkoa da horien presentzia, garaiko euskarazko idazketa eta, batik bat, irakurketa modua murrastzen laguntzen diguten lerroak eskaintzen baitizkigute. Azaldu laguntza estrategia horietara jotzeak agerian jartzen du, besteak beste, garaiko egoera soziolinguistikoa, non herritar euskaldunen artean gazteleraren presentzia gero eta nabarmenagoa egiten ari zela ikus dezakegun. Hain errotua egongo zen, ezen irakurleak euskaraz idatziriko hainbat testu egoki uler zezan, idazleak gaztelerazko erreferentzietara (euskaldunduta zein euskaldundu gabeetara) jo beharra ikusiko baitzuen maiz. Beste modu batean esanda, garaiko hainbat testu irakurtzen zituen herritar euskaldunari euskaraz irakurtzeko garaian lagungarria eta argigarria suertatzen zitzaion, nonbait, gaztelerarekiko erreferentzia. Hori zen idazlearen abiapuntua behintzat.

Irakurleen hizkuntza praktikak ezagutzeko, zituzten hizkuntza zailtasunak non kokatzen ziren eta euskara zein neurritaraino menperatzen zuten ezagutzeko iturri interesgarria da laguntza estrategia horiena. Bidean, egileen asmo erreformatzaileen berri ere ematen digute. Estrategia horiek erakusten digutena, zera da: irakurlearen euskara erreformatzeko idazleek edo inprimatzaileek zuten asmoa. Egoki idatziriko (jatorriz euskaldunagoak ziren hitzak erabiliz edota berriak sortuz) testuaren irakurketaren bitartez euskara garbiagoaren ezagutza eta erabilera bultzatu nahi zuten euskaldunen artean eta, bide batez, euskarak gazteleraren bidezko ordezkatzeko prozesuari freinoa jarri.

Egia da askotan zail egin zaigula zehaztea zeren sintoma ziren, zein errealitate islatu nahi zuten, ze asmok bultzatuta erabili ziren aipatu errekurtso horiek guztiak. Baina, nahiko garbi agertzen zaiguna da zein hitzetan, zein egoera soziolinguistikotan kokatzen zen egilearen eta irakurlearen arteko “tentsio linguistikoa” deituko genukeena. Tentsio horren adibideak ikus ditzakegu hainbat esparrutako hitzei itsatsitako argibide (sinonimo zein itzulpen) maiz errepikatuetan, hots, elizaren inguruko “Jaupari”, “Bakaldun”, “Goizparra”, “Gogo”, etab. bezalako terminoetan, teknologia berrien inguruko “Bultzi”, “Idatzi”, “Idazki” gisakoetan, neurketa sistemari loturiko “Neurkin”, “Anei neurkin”..., etab. bezalako hitz berrietan. Adibide horietan herritarrek zituen hizkuntza ohitura batzuen eraldaketa bilatzen zela ikusten da, erabiliagoa zen terminoarekin batera –idazlearentzat desgokiagoa zena–, beste berria eskaintzen baitzitzaion irakurleari, behin eta berriz, berau ezagutu zezan eta, zeharka, erabil zezan bultzatuz. Baina, termino berdinen inguruan behin eta berriz argibideak ematen aritzeak ere erakusten diguna, zera da: irakurlearengan egon bazegoela ohiko terminoa

(nahiz eta gaztelera kutsatua izan) utzi eta hitz berria barneratzeko nolabaiteko erresistentzia, euskaldungoan egon bazegoela, alegia, bere hizkuntzaren eta hizkeraren erreformarako nolabaiteko erresistentzia.

1.2.2. Etzana “kontzientzierazlea”

Egutegiya-n atzeman ditugun testu estrategien artean aditzera eman nahi dugu interesgarri deritzogun beste bat, hots, hainbat hitzi ezarritzen zitzaion etzana estiloa. Idazketa arruntean, oro har, etzana deituriko estiloa erabiltzeak duen funtzio nagusia informazio zehatza nabarmentzea eta deigarri egitea izan ohi da. Ildo honetatik, gure egutegi honetan ikusi duguna zera izan da: etzanaren errekurtsuari heltzen zitzaiola, besteak beste, irakurlea hizkuntza errealitate jakin batetaz ohartarazteko. Esan dezakegu hainbat hitz –kasu gehienetan irakurleen artean erabilera arrunta zutenak ziren–, etzanda jarriak ageri zirela helburu kontzientzierazlearekin. Kasu horietan hitza etzatearekin nabarmen azaldu nahi zena zen horiek ez zirela jatorriz euskarazkoak, gazteleraazkoak baizik, nahiz eta euskarazkoak bailiran deklinatuak egon, esaldian txertatuak eta euskaldunen artean eskuarki erabiliak izan. Hona hemen, urte desberdinetatik hartutako adibide batzuk:

Jateche edo *restaurant* baten sartu zan gizon bat eta maian jarri ta bereala ekarri eutsan ogi-sopea morroiak; au alde egiten asi zanean, deitu eutsan arek esanaz:

– Zu, sopa au nik ezin neike jan.

– Morroiak artu eban erratillu edo platera ta eroan eban; laster ekarri eutsan zirisol-sopea (*fideo*) ta orduan bere gizonak esan eutsan: (...)76.

Beste gertaera xeble honetan:

Arlote bat jaun bati kalia dijuala bertaratzen zaio (...) – Argatik eskatu dizkiot, ba, ezagunai eskatzia enaiz *atrebitzen* da!77.

Pernando Amezketarraren ateraldi honetan ere:

– Ik jakingo dek noski

Nola ditezkie

Izan iru *persona*

Jaungoiko batian?...78.

Ondorengo bi ateraldi xebleok ere esandakoaren adibide argiak eskaintzen dizkigute:

Sendagille jaun batek utsi dizkio bere morroyari gabian sei *errezeta* goxotegiyan dauden sei gaxoei emateko ta urrengo goizian juanik mutilla esaten diyo sendagilleari: – Jauna bost il dira.

– Sendagilliak ¿ta bestea?

– Seigarrenak ez du artu nai izan iñundik ere ordia⁷⁹.

Bi lagun *trenean* dijoaz beste gizon bizar gorri bat ondoan dutela, ta onegatik sumalak esaten gudara juan gabe igestutako pantzetarra zalako ustean.

– Adi zak; orren ondoan zintz t´ernai egoten ez ba-aiz erlejuia ere ostuko dik, lapur antzekoa dek ori-ta.

Lagunak, atereaz zakeletik *erlejuia*, erakutzi t´esan dio:

– Oraindik emen zeok eta naiko lan izan bear dik ostutzen.

Orduraño ixilik zegon bizargorriak, esandako ezer ulertu ez balu baño ezari aundiagoan, erlejuia ikusi dionean galdetzen dio:

– Adiskidea; ¿zer ordu da?...⁸⁰.

Etzanaren erabilera berezi horrek, gure ustez, helburu inplizitu bat zuen: irakurlea –euskalduna zena–, euskara eta gaztelaniaren arteko desberdintasunaz ohartaraztea eta, bidenabar, euskarak bizi zuen gazteleratze fenomenoaz ohartaraztea. Lehenengo eta behin, euskaraz aritzerakoan —arrazoi funtsezkorik gabe askotan–, arrunki erabili ei zen hitza, gaztelerazko jatorria zuena, nabarmendu nahi zela uste dugu. Eta, horrekin batera, gaztelerazko hitzen erabilera, justifikaziorik gabea, zeharka salatu eta, ondorioz, irakurlea euskaran jantzi eta euskaraz alfabetaraztea zela helburua esango genuke.

Estrategia izenbururik gabekoa da, azalpen berezirik gabekoa baina iraunkorra. Ulermena erraztera zuzenduriko testu mailako laguntza estrategien kasuan legez, oraingoan ere ez dugu atzeman zein hitz etzan behar zen eta zein ez erabakitzeke irizpide garbirik. Nahiko zorizkoa zela dirudi, hainbatetan ikus baitaiteke gaztelerazko hitz euskaldundua etzana testu batzuetan eta oso “zutik” besteetan. Kasu honetan ez dugu maiztasuna zorrozki neurtu planteatu dizkigun zailtasun teknikoengatik, batez ere. Izan ere, testu askotan nahiko zaila suertatzen baita bereiztea zein kasutan den etzana arrunta, eduki nabarmentzailea duena, eta zeinetan etzana kontzientzierazlea dena. Badirudi, halere, helburu kontzientzierazlea hitza etzateko joera urriagoa zela azken urteetan batik bat.

Hala deitu diogu guk estrategia honi: Etzana “kontzientzierazlea”. “Kontzientzierazlea”, etzanaren helburua hizkuntzaz kontzientzia hartzea bultzatzea zela uste dugulako. Euskarak bizi zuen gazteleratze

egoeraz ohartarazi nahi zen zeharka, irakurleria hizkuntzaren egoeraz kontzientzia hartzera zuzendu eta euskaldunak, ahoz zein idatziz, euskara garbiagoa erabiltzera bultzatu. Beste testu estrategiekin batera, neurri horrek, hizkuntzaren ordezkatzeko prozesuari nolabaiteko freinoa jartzeko baliagarria izateaz gain, herritarrengan kontzientzia linguistikoa indartzeko balio izango zuen, gure ustez.

2. Edukia: “Euzkel” izaera definitzen zuten ezaugarri identitate emaleak

Egutegiak zabaldu zuen informazioa eta edukia aztertzerakoan bereiztu ditugu orrialdearen aurrealdean eskaintzen zena eta orrialdearen atzealdean eskainitakoa (horma egutegian aurrealdea dena egutegi liburuxka formatoan eskuinaldeko orrialdea da).

Egutegiko aurrealdeko orrialdeei zegokienez, ondorengo informazioa zen eskaintzen zena: zein hilabetetan geunden; Eguzkia noiz irten eta noiz sartzen zen; Ilargia zein modutan zegoen (ilgora, ilbehera, berria, betea zein egunetan izango zen); Eguna (zenbat zuen hilak); Esaera zahar bat azpian⁸¹; Hilaren zenbatgarren astean geunden⁸²; Astearen zein egunetan geunden; Erlijioaren ikuspegitik egun berezia zen kasuetan, zein zen berezitasun hori eta gorde beharreko araua; Egunari zegozkion Santuen izenak. Astearen zein egunetan azaldu ondoren egunari zegozkion ezaugarriak, arau eta gertaera erlijiosoak gisa honetan adierazten ziren: “(Bulda izanarren Garizunako ostiral guzietan aragirik ezin jan diteke) (Barukaldiya=Tempora). Barau-eguna”⁸³. Edo beste honelako adibidean ikus dezakegun moduan: “Austerre-eguna (Barkapen osua) Barau-eguna – Aragiya uztekua. (Azten dira Berrogeikarua ta baraubak)”⁸⁴. Datu horiek guztiak garrantzi handiko informazioa ziren, batez ere, Europako herrialde aurrekapitalistetan eta, zehazki, erlijioa tinko ezarria zen gure nekazal inguruneetan. Carreño-k (1991, 198) esandako hitzak gureak egiten ditugu:

La indicación de las fiestas de precepto era fundamental en la cultura campesina, no sólo porque la obligatoriedad de ciertas fiestas imponía la asistencia a los cultos bajo pena, sino también porque estas fiestas, enraizadas en ancestrales rituales paganos agrarios, conformaban una parte importante de la vida de las gentes del campo y constituían una de las pocas formas de reunión y diversión.

Euskal-Esnalearen egundiya-n, 1909an, ezarri zen informazio egitura bera mantendu zen ondorengo *Euzkel-Egutegiya*-n. Hona hemen adibide bat:



Euzkel-Egutegiya, horma egutegi formatoan, barrualdeko orrialdeak

Halere, urteetan zehar diseinu, eduki eta hizkuntza mailan aldaketa batzuk eman zirela ikusi dugu. Aurrealdeko orrialdean eskaintzen zen edukia zela eta, adibidez, hilak zenbat zuen azaldu ondoren, esatera zaharra azaldu zen 1909. eta 1910. urteetako egutegietan. Aldiz, ondorengo urteetan ez zen esaerarik agertu aurrealdean.

Horma egutegiko orrialdeen atzealdean agertu zen informazioari dagokionez esan behar da, bestalde, izaera desberdineko eta hainbat gairen inguruko idazkiak zirela eskaintzen zirenak. Batzuetan izenbururen baten pean agertzen ziren testuak, izenburu generikoan azpian beste zenbait. Zenbaitetan ere egilearen izena agertzen zen. Beste testu askotan, berriz, ez izenbururik ez eta egilearen izenik ez zen aditzera ematen. Gai bakoitza aztertu dugun garaian zehazki adierazi ditugu egilearen izenarekin agertu ziren idatzien erreferentziak, baita egilearen izenik gabe agertu zirenenak ere. Era berean, zehazki adierazi ditugu izenburuarekin agertu ziren testuen erreferentziak, baita izenbururik gabe agertu zirenenak ere. Orrialde egitura, bestalde, ez zen eredu bakar bati loturikoa. Aitzitik, testu konbinaketa modu bat baino gehiago topatu dugu, hots, izaera desberdineko bi idatzik elkarrekin orrialdea betetzen duteneko ereduak, izaera bereko bi idatzirekin osaturiko orrialdearen estiloa, edo idatzi bakarrak moldatutako orrialdearen ereduak.



Euzkel-Egutegiya, egutegi liburuxka formatoan, barrualdeko orrialdeak

Orrialde bakar batean hasi eta amaitzen zen testuaren ereduarekin batera ere argitaratu ziren egun bat baino gehiagoko iraupena zuten testuak, “por entregas” deituriko ereduaren antzera eskainiak, irakurlea egutegiaren irakurketa iraunkorra egitera gonbidatzen zutenak, nolabait.

Aspektu horiek guztiak kontuan hartuta, beraz, egunaren atzealdean igorri zen informazioa aztertu dugu, idatzien irakurketa jarraia- ren eta testu azterketaren bitartez. Bide horrek, halaber, edukia hain- bat gai multzo edo kategoriaren inguruan sailkatzera eraman gaitu, ageriko adierazpenik ezean, mezua zein asmo eta helbururekin egina zegoen edo, bestela ikusita, irakurlearengan izan zezakeen eragin mota abiapuntutzat hartuta. Esparruak sortzeko garaian, testu desberdinek lantzen zituzten gaiak irakurlearengan izan zezaketen eragin posiblea, eragin hezgarri posiblea hartu dugu kontuan batik bat, hori izanik egutegiak zabaldu zuen edukia sailkatzeko garaian erabili dugun irizpi- de nagusia. Horrela, bada, zazpi gai multzo edo esparru nagusi sortu ditugu: Hizkuntz Formazioa, Euskaltzaletasunaren Heziketa, Eusko- tartasunaren Heziketa, Formazio Kulturala, Formazio Moral eta Erli- jiosoa, Ateraldi Xelebreak eta Asmakizunak. Azken bi atalen kasuetan izan ezik, –Ateraldi Xelebreen eta Asmakizunen kasuetan, alegia–, zu- zenean egiten baitiote erreferentzia testuen izaerari, beste gainontzeko atalen kasuan gai multzoaz baino egokiago litzateke eragin esparruez hitz egitea, testuen irakurketak irakurlearengan izan zezakeen (eta lortu nahi zen, esango genuke) eragin motari erreferentzia egiten dioten heinean.

Esparruak izendatzeko garaian egin dugun bereizketa termi- nologikoaz bi hitz esan nahi genituzke. Esparru batzuetan formazioa terminoa erabili dugun bezala, beste batzuetan egokiago iruditu zaigu heziketa terminoa erabiltzea. Euskaltzaletasunaren eta euskotarta- sunaren kasuan egokiago deritzogu tasun horien heziketaz mintzatzea, izan ere, tasunak norbanakoaren zein taldearen kalitateak islatzen dituztela kontuan hartuz, hauek formatu baino gehiago hezi egiten direla kontsideratzen baitugu. Aldiz, hizkuntza eta kultura alorreko gaietan zorrotzagoa da, gure ustez, formazio hitza erabiltzea, uler bai- taiteke kasu hauetan gizakia esparru desberdinetan lantzen, formatzen dugula, hizkuntzan edota kulturaren, alegia. Heziketa moral eta erlijio- soaren kasuan, berriz, nahiz eta idatzi asko erlijio gai zehatzetan jan- ztera zuzenduak izan eta, neurri horretan, “formazio erlijiosoa” erabil- tzea ez litzateke desegokia izango; halere, erlijio testuen oinarrian eta urteak pasa ahala nabarmenagoak izan ziren idatzi moralizatzaileen presentzia gero eta nabarmenagoan, batez ere, balio eta jokabide moral

batzuk sendotu eta ziurtatzera jotzen zen neurrian, heziketa kontzeptua erabiltzearen alde egin dugu.

Ohartu gara, halaber, landu ziren gaiak oinarrizko atal eta esparru batzuetan biltzarekin soilik ez dugula, bere horretan, erabat ongi islatzen, oro har, zabaldu zen edukia, ez eta honek urteetan eraman zuen bilakaera ere. Horregatik, atal edo esparru bakoitzean testuek lantzen zuten gai zehatzaren arabera azpiatal (azpigai moduan) desberdinak sortu behar izan ditugu, idatzien edukia egokiago ulertu eta aztertu ahal izateko. Horrenbestez, testu batzuk multzo bat eta azpimultzo bat baino gehiagotan txertatu behar izan ditugu. Testu bakoitzean izaera, helburu eta xede anitzak atzeman ditzakegun arren, eskaintzen zenaren nolabaiteko analisisa egin nahian, bakoitzean ezaugarri bat nabarmendu dugu eta horren arabera sailkatu. Dena den, idatziak eduki kategoriatan edo bestean txertatu izanak ez du esan nahi bizpahirutan egoteko baldintzarik betetzen ez dutenik kasu askotan. Sailkapen bat da, argigarria eta zorrotza izan nahi duena, baina jakin badakigu erabat arbitrarioa dena. Geronek ere testuan lantzen zena esparru batean edo bestean kokatzeko irizpideak ez ditugu oso garbi izan askotan. Nahiko nahasgarria izan zaigu kasu batzuetan testuak, adibidez, irakurlearen euskotartasuna ala euskaltzaleatasuna indartzera jotzen zuen erabakitzea. Gai multzoen arteko mugak hainbatetan ahulak suertatzen direla ezin ahantz dezakegu. Zentzu horretan, ondorengo gai multzo edo kategorien artean intersekzio gune dezente daudela onartu behar dugu: Euskaltzaleatasuna eta Euskotartasunaren artean; Hizkuntz Formazioa eta Euskaltzaleatasunaren artean, Euskotartasuna eta Heziketa moral eta erlijiosoaren artean, Formazio kulturala eta Formazio moral eta erlijiosoaren artean, Formazio kulturala eta Euskotartasunaren artean, Ateraldi xelebreak eta Euskotartasunaren artean; Ateraldi xelebreak eta Heziketa moral eta erlijiosoaren artean, etab.

Gauza bera gertatu zaigu eduki mota bakoitzaren barruan bereiztu ditugun azpigaien artean. Batzuetan, hain zuzen, behartuegia ere gerta daiteke zenbait azpimultzoen artean egindako bereizketa, hots, Hizkuntz Formazioa deituriko esparruaren barruan, adibidez, “euskararen aldeko deia”, “ikaskuntzara, praktikara bultzatzekoa” eta “proposamen eta gomendioak” artean bereiztea. Kasu hauetan bereizketarako hartu dugun irizpidea ez da egileen asmoa izan, baizik eta gure aztergairako garrantzia zuen hainbat esparru landu izana. Azpisailkapenak zein berauei atxikiriko testuak ezin dira, inolaz ere, modu zurrunean hartu. Aitzitik, nahiko modu zabal eta malgutan hartu behar

ditugu, onartz azpisaikapena bera egiteko irizpideak nahiko irrista-korrrak direla, baita eztabaidagarria testu bakoitza zernahi azpimultzo-tan kokatzeko hartutako erabakia ere.

Oinarrizko gai multzo eta eragin esparruak ezartzearekin egin nahi izan duguna *Euzkel-egutegiya*-ren izaeraren, eta bere bilakaeraren nondik norakoa zehazki marraztea izan da, eskaintzen digun azterketa diakronikorako aukeraz baliatuz, gure ustea baita honelako marrazkiak lagunduko digula hobekiago ezagutzen zein oinarrizko printzipiotan formatu eta hezi nahi izan zen irakurlea batetik eta, neurri berean, zein ezagutza eta balioen jabe egin ei zen garaiko euskalduna, bestetik.

Ildo horretatik eta edukiaren erradiografia osatzearen, jorratu ziren gaien agerpen maiztasuna neurtzen saiatu gara, gai multzo batekin edo azpigai zehatz batekin zerikusia zuten idatziak urte bakoitzean zenbat egunez argitaratu ziren zenbatuz (alegia gai multzo edo esparru bat urtean zenbat aldiz izan zen landua), eta urteko kopuru osoaren barruan kategoria zehatzak betetzen zuen proportzioa atereaz. Beheko taulan ikus daiteke esparru bakoitzerako zenbat agerpen egun zenbatu ditugun urte bakoitzean.

Ezkel-Egutegiya: edukia urtez urte agerpen egunetan neurtua

edukia	1909	1910	1911	1912	1913	1914	1915	1916	1917	1918
Hizkuntz formazioa	10	23	26	26	4	4	0	0	4	0
Euskaltzaletasunaren heziketa	26	36	52	26	7	15	9	13	21	24
Euskotartasunaren heziketa	14	4	30	28	19	26	7	19	22	11
Formazio kulturala	93	41	34	87	75	95	100	81	72	91
Heziketa moral eta erlijiosoa	60	143	107	62	107	69	59	73	100	77
Ateraldi xebreak	153	121	129	151	159	160	195	187	147	165
Asmakizunak	28	18	1	1	3	1	3	0	8	4

Euzkel-Egutegiya: edukia kategorietan bereizia, eta urtez urte agerpen egunetan neurtua

Iturria: Euskal-Esnalea'ren Egundiya 1909, eta Euzkel-Egutegiya 1910-1918

Kategoria bakoitzaren inguruko mezuek izan zuten igorpenaren dimentsioa, eta ondorioz hartzailearenganako efektu posiblea, zenbatekoa izan zitekeen argiago ikusteko jo dugu gai multzo bakoitzean zenbaturiko egunek urte osoko egun kopuruaren (365 egun) barruan ze portzentaia hartzen zuten kalkulatzera. Jakin badakigu irakurketa ekintza ezin dela urtearen dimentsioaren arabera neurtu –ez dugu urteka irakurtzen–, baina mezuaren emisioaren neurria eta modua ezagutzeko erreferentzia baliagarria iruditu zaigu.

Ezkel-Egutegiya: edukia urtez urte agerpen portzentaian neurtua


edukia	1909	1910	1911	1912	1913	1914	1915	1916	1917	1918
Hizkuntz formazioa	%2	%6	%7	%7	%1	%1	0	0	%1	0
Euskaltzaletasunaren heziketa	%7	%9	%14	%7	%1	%4	%2	%3	%5	%6
Euskotartasunaren heziketa	%3	%1	%8	%7	%5	%7	%1	%5	%6	%3
Formazio kulturala	%25	%11	%9	%23	%20	%26	%27	%22	%19	%24
Heziketa moral eta erlijioa	%16	%39	%29	%16	%29	%18	%16	%20	%27	%21
Ateraldi xelebreak	%41	%33	%35	%41	%43	%43	%53	%51	%40	%45
Asmakizunak	%7	%4	%0,2	%0,2	%0,8	%0,2	%0,8	0	%2	%1

Euzkel-Egutegiya: edukia kategorietan bereizia, eta urtez urte agerpen portzentaian neurtua

Iturria: Euskal-Esnalearen Egundiya 1909, eta Euzkel-Egutegiya 1910-1918

Eduki esparru bakoitzaren inguruko idatziak zenbat egunez –eta, batez ere, zein proportziotan–, argitaratuak izan ziren zenbatzeak urte bakoitzeko eduki multzoaren testuinguruan esparru bakoitzari (gai desberdinei) helarazlearen ikuspegitik zenbaterainoko nagusitasuna eta garrantzia ematen zitzaion atzematen laguntzen digu eta, aldi berean, urteen joan-etorrian eduki eta esparru desberdinek izan zuten bila-


kaera marrazteko aukera ematen. Epealdian zehar esparru bakoitzari eskaini zitzaion lekuaren bilakaera ikus daiteke grafikoan.



Euzkel-Egutegiya 1909-1918. Eduki kategorien bilakaera, agerpen portzentaien arabera

Iturria: Euskal-Esnalearen Egundiya 1909, eta *Euzkel-Egutegiya* 1910-1918

Ondorengo grafikoan, berriz, ikus daiteke urte bakoitzeko eduki osoaren testuinguruan eduki multzo bakoitzak hartzen zuen proportzioa eta, ondorioz, eskaintzen zitzaion tartea, garrantzia finean.



Euzkel-Egutegiya 1909-1918. Eduki kategorien presentzia, urte bakoitzean eta urtez urte, agerpen portzentaien arabera

Iturria: Euskal-Esnalearen Egundiya 1909, eta *Euzkel-Egutegiya* 1910-1918

Grafiko hauek eskaintzen diguten panoramika orokorra abiapuntu izaki, kategoria bakoitzaren ezaugarriak azaltzeari eta urteetan zehar esparru bakoitzaren inguruan ikusi dugun bilakaera esplikatzeari ekingo diogu, zehatz-mehatz, ondorengo orrialdeetan.


Mezuen igorpenaren azterketatik abiatu gara gai desberdinen agerpen egunen zenbaketa eginez. Aldi berean, edukiaren igorpenak irakurlearengan izan zezakeen eragina irudikatzen saiatu gara testuen banaketa orekatua eginez eta egun kopuruak batazbeste banatuz. Jakin badakigu idatziak ez zirela urtean zehar modu orekatuan argitaratzen hileroko edo asteroko maiztasuna kontuan hartuz. Ikusi dugunez, baziren hilabete batzuk ideologikoki, adibidez, oso kargatuak agertzen zirenak eta, beste batzuk, aldiz, oso arinak zirenak. Halere, egun kopuruak zenbatu ditugunean, hauen irakurketa hipotetikoa egin dugu

horretarako agerpen egun kopuruak birbanatu ditugarik, hileroko edota asteroko batzbesteko banaketa eginuz. Irakurketa horrek, gure ustez, eduki eta mezu jakinek irakurlearengan izan zezaketen efektuaren neurriaren ideia argiagoa egiten laguntzen digu. Eta honek, aldi berean, irakurlearengan izandako harrera moduaz gehiago jakiteko egokieran ere jarri gaitzake.

2.1. Hizkuntz formazioa

Irakurlearengan hizkuntza mailako oinarrizko formazioa bultzatu nahi zela ikusi dugu egutegi honetan, horretarako bide desberdinak erabiliz. Zenbait testuren bitartez, irakurlearen euskara ezagutza sakontzea bultzatzen zen. Beste zenbait testutan, aldiz, euskararen gaineko ezagutza linguistikoa zen lantzen zena. Goian aipatu ditugun laguntza estrategien kasuan, irakurketa ulerkorragoa egitera zuzendurikoenetan alegia, helburu formatzailea ezkutukoa zela iruditu zaigun bezala, aldiz, irakurlea hizkuntzan, euskaran zehazki, formatzearen inguruan bildu ditugun idatzietan xede hezgarria agerikoa zela pentsatzen dugu, emango ditugun adibideek erakutsiko digutenez.

Oro har, kuantitatiboki, ezin esango dugu urte osoko testuen artean izugarrizko presentzia hartu zuten idatziak izan zirenik. Izan ere, formazio linguistikoaren xedearen inguruan bildu ditugun idatziak lehenengo urteetan zehar azaldu ziren maizen. Urtean zenbat egunetan argitaratu ziren zenbatuta, ugarien 1910 (23 egunez⁸⁵), 1911 (26 egunez⁸⁶) eta 1912 (26 egunez⁸⁷) urteetan argitaratu zirela ikusi dugu. Beste gainontzeko urteetako kopuruak hortik behera agertu zaizkigu: 10 egunez 1909an⁸⁸, eta 4 egunez 1913⁸⁹, 1914⁹⁰ eta 1917⁹¹ urteetan.



Hizkuntz formazioa *Euzkel-Egutegiya*-n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaiaen araberakoa

Iturria: Euskal-Esnalea'ren Egundiya 1909, eta Euzkel-Egutegiya 1910-1918

Ez dugu izaera honetako idatzirik topatu ez 1915ean, ez 1916an ezta 1918an ere. Beraz, goiko taulan ere ikus daitekeenez, egutegia argitara eman zeneko lehenengo lau urteetan ekin zitzaion, intentsitate handiagoz, irakurlearen formazio linguistiko zuzenari eta, dirudienez, ondorengo urteetan –noizean behin bakarrik aurkitu dugu honelako adibide solteren bat–, formazio linguistikorako grina erlaxatuz joan zen. Murrizte joera horri nolabaiteko esplikazioa bilatu nahian, bestalde, hainbat arrazoi posible ematera ausart gintezke: momentu batetik aurrera irakurlearen hizkuntz formazioa egutegiaren zeregina ez zela kontsideratzera pasa zitezkeen eragileak (beste formazio bide eta moduak –ikastolak, euskara ikasteko testu ugariago, etab.–, sortuak egon zitezkeelako beharbada), aurreko urteetako emaitza errealak ikusirik, beharbada, alferrikako lana hartzea zela pentsa zezaketen eta, ondorioz, etsita edo, jada, euskarazko irakurlearengan horrelako formazio beharrik ez zegoela erabakitzea. Dena den, kopuruetan gutxi eta denboran murrizta izan arren beraien presentzia, ikuspegi kualitati-

botik esanguratsu deritzogu egutegi arruntean izaera eta helburu linguistikoak zituzten testuak eskaintzeari.

Xede berari begira eginak, hots, euskararen ezagutza linguistikoa sendotzeari begira, argitaraturiko eduki eta egitura desberdineko hainbat idatzi mota bildu eta aztertu dugu.

Hauetako testu batzuk euskarak bizi zuen ordezkatzeko prozesuan eta gazteleraren ondoan euskara ahula eta pobrea zenaren uste gero eta zabalagoaren aurrean, egoera irauli nahian edo, irakurleari euskarak zuen hizkuntz aberastasuna ikustarazteko eginak zeuden. Horra tximeletak euskaraz hartzen dituen hamazazpi izenen zerrenda eskaintzen zuen adibidea: “Euskera argala izan, eta gauza bat esateko amazazpi izen eduki? Lotuitzek chipeleta oyek isetsetik”⁹²; aguardienteak euskaraz hartzen zituen izen ezberdinak ematen zituen beste hau⁹³; edo euskalkien aberastasuna, umorez, agerian jartzen zuen honakoa:

- Pelis urten da etxetik.
- ¿Urten da esan dok Dari?
- Bai, ¿zer-ba?
- Gure baserrijan – Pelis’ek urten dau edo urten yok- esaten yubek.
- Urten-da; urten dau ta urten yok, dozak, toki batera joten daben iru bide.
- Bai, euzkera ederrak olako bide asko yaukazak⁹⁴.

Beste testu batzuk nabarmengarriak dira ematen zituzten argibide linguistikoengatik, honela adibidez: “Zaran bat dagianak, bi dagiz (Gipuzkoarrik geyenak *otarra* esaten diyote zaranari)”; “Iraunik ez eman iñori (orain eztakit *iraun* esaten dan iñon ere; erderazko *aldón* edo *infamia* dakur)”⁹⁵, edota, euskararen erabilera egokia zela eta, luzatzen zituzten gomendioengatik, ikus: “Fortunea”(*), “(*) Egillearen itz beraxek iraun-erazo ditugu, bañan *fortuna*’ren orde zoriya egokiyago litzateke euzkeraz, ta alako beste abar”⁹⁶; edo, “Noronok orrilla’ren orde, lorilla diño; baña egokijagua uste dogu orrilla, lora españerazko flor-etik datorrelako, argiro”⁹⁷; edo “Erderazko *gustatu-ordez*, gogozkoa-izan, atsegin-izan erabilzkikak: euzkerazkoak ezik ulerterraxak ere bai-dituk-eta”⁹⁸ dira atal honetan kontuan hartzekoak.

Horra, hain errotuta omen zegoen euskara traketsa pixkanaka garbitzen joateko bidean egiten zen beste gomendioren bat ere:

Zoazte Gipuzkoa’ko mendi batetik zearka ta baserriarren bat bidean arkituaz esaten ba’diozute *artsalde on*, maiz-maiz entzungo dezute *igualmente*, erderazko itza.

Zergatik itz au, arrotzen itz au ibilli, euzkera garbian erantzun ba'diteke?

Euzkeldunak! Norbaitek egun onak edo artsalde onak ematean ez beñere erantzun *igualmente* baizik, *Baita zuri ere, Jainkoak ala dizula, Ongi etorri* edo onelakoren bat⁹⁹.

Gauza, hizkuntza egokiaren erabilerarako ereduak eskaintzea zen eta, helburu horri begira, behin baino gehiagotan argitaratu ziren hizkuntza inguruko, gramatika eta lexiko mailako kuestio zehatzei buruzko lezioak eta ikasgaiak, hots, “Urteko illen izenak (Gipuzkoe-raz)”¹⁰⁰, “Asteko egunen izenak Bizkai-euzkeraz”¹⁰¹, edo “Agur” noiz esan behar zen azalduz ematen zenekoa, adibide batzuk ematearren:

AGURR noz esan biarr dan
Geure *agurr*'a da laterazko ave lakoxia.
Esan biarr da, batzuk algar aurrkituten dabela, ta berolan, be, alga-
rretik alde-egiten dabenian.
Aldi bijok emen itz batzugaz irakutsiko dogu.
Agurr Ixakar: eu otzak akarr ona.
Agurr, Jauna: ¿neugana etorri zara?
Agurr, Iñaki: ¿nora ua?
Agurr, ba, etzi arte¹⁰².

Agertu ziren gramatikazko ikasgaien artea azpimarratu nahi genituzke, halaber, “Euzkerazko Irakurrkizuna”¹⁰³ izenburupean lau egu-
netan zehar “-ko” eta “-ar” atzizkien esanahi eta erabilerari egokiaz
eskaini ziren azalpenak, edo 1912. urtean zehar “¿Euzkeraz ikasi za-
zute!”¹⁰⁴, “¿Ikasi euzkeraz!”¹⁰⁵ eta “Euzkel-Ikastiya”¹⁰⁶, izenburu
–esanguratsu– desberdinen azpian zabaldu ziren ikasgaiak, arau gra-
matikalak, atzizkien erabilerari buruzko azalpenak, leku izenen jato-
rria, abizenen jatorria, atzizkien esanahiak etab. argitzen zirelarik
bertan. Hona hemen hauetakoko baten adibidea:

Euzko: euzkerazko itz-jatorriyak ikasten jardun bear dezu iñoiz
edo berriz: erdera ikasten alegintzen zera, euzkera zertako ikasi ez?
Ona euzkel-itzen aztarrena: *Ugarte*=urez inguratuba. *Ibarrondo*=zelai-
ondo. *Iturriotz*, *Iturralde*, *Iturburu* eta abar, garbi askuak dira.
Intxauspe=Intxaur betik. *Arrieta*= arri asko dagon tokiya. (...) ¹⁰⁷.

Era berean, azalpen gramatikalak ematen zituzten testuekin bate-
ra argitaratu ziren ere eraman beharreko hizkuntz jokabideari buruz
iritziren bat ematen zuten idatzi gutxi batzuk, zalantza edo proposa-
men desberdinen artean hartu beharreko bidez azalpen garbiak ema-

ten zituztenak, baita hitz berrien erabileraren aurrean hartu behar zen jarreraz ere. Ikus adibidez hau:

Itz berriyak, ele edo izkera guziyak biar dituzte; beste edonor aña gure Euzkerak ere.

Itz-zusterrayak Euzkera beraxek ditu; ez du, ba, Euzkerak inoren lagunbenik itz berriyak eraltzeko.

Gure urrealdeko erdera biyak, lateratik eta gerkeratik ataratzen oituzte itz berriyatarako eralgayak, aitatutako ele ayen aurak diralako.

Ez dauka Euzkerak ele-guraso ezagunik baña ezta inoren biarririk ere, itz berriyak eraltzeko. Euzkera beraren zusterrayak zurki ta egokiro landu ezker ta eren ikurpeni dagokiyon zabaltasun ta azkundera eman ezker, bertatik atarako ditugu nai añako itz berri.

Itz berriya eraldu aurretik, nai dan gaya ikurtzeko itz zarririk dagon ala ez, aztertu biar da. Itz zarra ba-dago, berau zabaldu biar da, berriarik eraltzeke. Euzkelgiren baten ezpa-dago besteren baten dagoana, batetik bestera eraman biar da.

Adi-bidez: Bizkaya'n erderakadaz esan oi-zan (*errege* edo *oraziño*), Gipuzkoa'n eta Naparrua'n zurki *otoi* esaten dana. Itz garbi au zabaldu biar da, ba, Bizkaya'n ere, erderakada ura alde batera utzita¹⁰⁸.

Izenak euskaratzeko garaian hartu beharreko bidez ere ikasbideak argiak ziren:

Ixenak euzkeraztuko doguz arrtunda euraen jayotzean. Españerazko José-ixena datorr Joseph'ti eta euzkeralduta, JOSEBA egiten da. (...) Zeintzuk dirian gixonen ixenak eta zeintzuk emeranak, dazauguz, onek azkenduta E-gaz, badagoz ta arek, era batzutan, baña, innoz bez, E-tan.(...)¹⁰⁹.

Baita hitanoaren erabilerari zegozkionak ere:

Bazekiat euzko, *itato* izkera-ri eder erizten ezdiokala. Zu-politagitotzat daukak zu-ka begirapen geigo agertzen dala diyok. *Itato*-izkera ordea lagun artean, kidekoen tartean ongiago zeritzayete euzkera-irakasliai. *Itato*-izkera indartsuago, sendoagua euzkel-adigarri goa dek *zu* motela baño. Zu gorde zak gurasoai, zarragoai, nortin (pertsone) itzaltzuagoai esateko. Gaiñerakuan ezagunai, mendekoai *itatoz*, emaztekiari *itanoz* itz egiyek. Erderaz Jainkoari *tu* esaten baziotek, guz-euzkeraz alkarri zerdalata itatoz itz egin bear ezdiogu? Idaztietan (liburuetan ere) obe gendukek *itatoz* geigo idatziko bagendu¹¹⁰.

Euskararen ezagutza linguistikoa indarra jartzen zela ikusten da ere zenbaitetan ematen ziren euskarazko hitzen etimologietan, gehienetan gaztelera izulpenek irakurleari ematen zioten argiaz lagunduta eskainiak izaten zirelarik. Hona hemen, adibidez, erabiliena izan zen azalpen moduaren eredia “Gipuzkoa’ko leku-izen batzuben itzorkuna” testuan: “Eibar = egi-ibar (la vega de las cuestras)”. Euskarazko hitzen etimologietan oinarritzen ziren testu batzuetan hitz zehatzen inguruko azalpen linguistikoak ere ematen ziren, jatorria zein zen, beren erabilera nolakoa izan zen azalduz, eta egilearen gomendioa ere eskainiz. Hauetako beste batzuetan izen eta deituren inguruko azalpenak ematen ziren, batik bat¹¹¹.

Zentzu honetan, argigarria da ondorengo testuaren estiloa, adibide gisa: “Euzkel-itz berri batzuben ikurrpena” izenburuarekin agertu zerrenda, hitz batzuen etimologiarekin batera gaztelera izulpena ematen zaigularik: “Iskora (its-gora)=errdz. Marea alta... (...) Ortze (itz zarra da au)=Eguzkiya ta beste izarrak dauden tokiya; erderaz, *firmamento*. (...) Oztadarr (ortze-adarr)=errdz. Arco iris; itz zarr au ere oraindik erri batzuben erabiltzen da. (Behean Oharra): “Itz abetatik, izartxoa * daramatenak zarrak dira, lekuri geyenetan aztuta daudenak; besteak, berriyak. Guziyak, zabalgarriyak”¹¹².

Esan bezala, kasu batzuetan hainbat hitzen inguruko hizkuntz azalpenak ematen ziren, erabilerarako hautua eta gomendioren bat ere eskaintzen zelarik, “Ortziri (trumoya)”, “Aro da Sasoea”, “Oñeztua ta tximista”, “Miren’en Izena”, “Urrilla”, “Loi-tokijaren ixenak”, “Endore (alkate)”¹¹³ izenburuekin argitaraturiko idaztitxoak ditugu adibide batzuk. Gomendioak, zehazki, honelakoak ditugu noiznahi:

... Deitu ba aurrerantzian euzkeldunak, orain artian deitzen ixan dautzazuen *komuna edo erretreteriari, iroltegiya*...¹¹⁴.

Irakurlearen hizkuntz formazioa aberasten laguntzen zuten beste testu batzuk euskara-gaztelera hiztegi moduko hitz zerrendak eskaintzen zituztenak ditugu. Batez ere 1912-1913-1914 urteetan zehar ugariak izan ziren, euskarazko hitz sorta bat ematen zutelarik bakoitzari zegokion gaztelera izulpena parean jarritz. Har ditzagun adibide gisa ondorengo testuak: “Gela” hitzarekin lotuta dauden hitz eratorrien zerrenda¹¹⁵, edo “Abizenak”¹¹⁶, “Erri batzuen izenak”¹¹⁷, “Zuaitz batzuen izenak”¹¹⁸, “Euzkerazko itz garbi batzuek”¹¹⁹, “Euzkeraren alde” hiztegitxoak¹²⁰, edota “Euzkel-itzak” izenburupean zehazki idazketaren inguruko terminoekin egindako zerrenda:

ixilkai = secreto
idatzi = escribir
idazki = escrito, carta
idazkipe = (I.P.) = posdata
idazki bultzi = tren correo
idazkitzain = correo (empleado)
idazkutxa = buzón
idazketxe = correo (administración)¹²¹.

Euskarazko hitzen etimologia eta gaztelera-ko itzulpena zuzenean eskaintzen zen aipatu zerrenda horietan, baita ere, era berean, espreski hartarako prestatuturiko honelako ataletan: “Itz barri ala atzalgarriyak” edo “Ingurri onetako itz barri ala atzalgarriyak”¹²² izenburua zeramaten ataletan testuan azaltzen zen hainbat hitzen gaztelera-ko itzulpena eskaintzen baitzen, baita, batzuetan, euskarazko hitzaren etimologia eman ere. Ikus ondorengo adibideak:

Berrio-Otsoatarr Balendin. (Amaipena)
Beste idazkija euzkerazkoa idatzi eutsan, beraren jayotz-urri, Elorrio’ko Jaupari-Burubari, ziñotsola onek: Beto, betoz burdiñea ta suba ta barrenditarraen amuru ta asarre gustija... Emon arren ezautzen anaí zinesbako bateri, Jaunaren ontasuna ta errukitasuna, dan-dana...

Albizuri’tarr Serapin.


“Itz barri ala atzalgarriyak”.
Goizparr= Goi-itz-barri: esp.evangelio.
Idazki= Idaz-ki: > carta.
Abenda= Aba-enda:> raza.
Ele= > idioma.
Idatzi=> escribir.
Jaupari= Jaun-opa-ari:> sacerdote¹²³.

Antzeko edukiarekin ikusi ditugu, izenburu desberdinez argitaratuak, “Itz berri ta zar batzue” (1910), “Euskal-itz zar ta berri batzuek” (1910) “Euzkeldunik geyenak eztakizkiten itz zarr batzuek” (1910) idatziak. Azkenekoaren kasuan, adibidez, Mendiburu eta Lizarragaren liburuetan azaldu eta zabalgarriak ziren hitz batzuen zerrenda ematen zen, euskaraz ahalik eta ongien ikasi nahi zuenak gogoan har zitzan. Honela¹²⁴:

Euzkeldunik geyenak eztakizkiten itz zarr batzuek.
Emaitz=erdz. Dádiva, regalo (Liz.p.5.)

Akarr=errdz. Represión (Ib.98), (Bizkai-eraz, agirika)
 Beazun= errdz. Hiel (Ib.49) (Arana-Goiri'k biatzun)...¹²⁵.

Nabarmendu ditugun adibide horietan guztietan garbi ikusten da egutegia egin eta antolatu zutenek irakurlea hizkuntza alorrean formatzeko zuten asmoa. Zela euskararen aberastasun linguistikoa agerian jarritz, zela euskararen ezagutza gramatikalean eraginez, nahiz euskara moderno baina aldi berean jator eta garbiagorako gomendioak eta ikasbideak jarritz, egileek irakurlearengan hizkuntzarekiko interes linguistikoa –etimologikoa zena nagusiki–, bultzatu eta landu nahi zutela erakusten digute eta, asmo horrek bultzaturik, egutegia euskararen autoikaskuntzarako laguntza eta gida bihurtu nahi zutela ondorioztatzen dugu.




Euzkel-Egutegiya 1912, edukia kategorietan bereizita, agerpen portzentaian arabera

Iturria: Euzkel-Egutegiya 1912

Interes eta bultzada hori, esan bezala, lehenengo lau urteetan –1910, 1911 eta 1912. urteetan batez ere–, izan zen nabarmena. Goiko grafikoa ikus daitekeenez, 1912. urtean egin dugun zenbaketaren arabera proportzio berean agertu zaigu hizkuntz arloko idatziak, euskaltzaletasuna indartzera zuzendurikoen eta euskotartasuna bultzatzera jotzen zuten testuen emisioa. Urte horretan bakarririk atzeman dugun gertaera izan da, hain zuzen. Esan daiteke, 1911 eta 1912 izan zirela, oro har, hizkuntzaren inguruko gaiak maizago eta nabarmenago landu zireneko urteak. Ondorengoetan, ahulduz joan zen egingizuna izan zen.


2.2. Euskaltzaletasunaren heziketa

Kontzeptu honen barruan bildu eta aztertu ditugun testuak garaian bizi zen hizkuntz errealitateaz jabetuaraztera jotzen zuten idatziak dira, gehien bat. Oro har, euskarak bizi zuen ordezkatzeko, baztertze, uzte eta zikintze egoeraz herritarrak kontzientzia hartzea lortu nahi zen idatzi horien bitartez eta, aldi berean, ekintzara pasa zitezen bultzatu. Zein ekintzetara? Euskararen (ahozkoa zein idatzizkoaren) zaintzan, ikaskuntzan, helarazpenean eta erabileran oinarritzen ziren ekintzetara, alegia. Finean, idatzi hauek euskaltzaletasuna zertan zetzan, euskaltzale izatea zer zen ongi baino hobeto erakusten zioten irakurleari eta, ondorioz, baita guri ere. Idatzi hauen irakurketak euskaltzaletasunaren baitan zegoen ideologiaren, eta berari loturiko jokabidearen ildo nagusiak zehazten lagundu digu, zalantzarik gabe.



Euskaltzaletasunaren heziketa *Euzkel-Egutegiya*-n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaien arabera
Iturria: Euskal-Esnalea'ren Egundiya 1909, eta *Euzkel-Egutegiya* 1910-1918

Urtero topatu izan ditugun arren, euskaltzaletasuna indartzera zuzenduriko idatziak bereziki ugariak izan ziren lehenengo lau urteetan (grafikoan agertzen denez). Urte horietan euskaltzaletasunarekin zerikusia zuten testuen presentzia 25 egunetatik gorakoa izan zen: 26 egunez 1909an¹²⁶ eta 1912an¹²⁷, 36 egunez 1910ean¹²⁸ eta 52 egunez 1911n¹²⁹. Beraz, idatziak berdin banatuko bagenitu hilerok, batez bestekotan, irakurleak hilean bi egunez (edo hamabostean behin), gutxienez, jasoko lituzke gisa honetako mezu euskaltzaleak. Maila horretan bereziki esanguratsuak agertu zaizkigu, batik bat, 1911. urtea eta, baita, 1910.a ere, idatzi hauei eskainiriko egun kopuruari dagokionez bederen, karga ideologiko euskaltzalea nabarmena izan zela ikusi baitugu bi urte horietan.




Euzkel-Egutegiya 1910, edukia kategorietan berezia, agerpen portzentaien arabera

Iturria: Euzkel-Egutegiya 1910

Argitalpen egunen banaketa berdina egingo bagenu urtean zehar, honelako testuak hilean, gutxienez, lau egunez (astean behin demagun) agertuko ziren 1911. urtean; 1910. urtean, berriz, hilean 3 egunez. Nahiz eta euskaltzaleatasunarekin zerikusia zuten testuak proportzio handiagoan 1911. urtean agertu zaizkigun, hona 1910. urteko grafikoa ekarri dugu, batez ere, gai ideologikoen artean, esango genuke, euskararen inguruko gaiari eman ei zitzaien nagusitasunagatik. Kasu honetan, euskotartasunaren heziketa deitu duguna neurri txikia goan izan zen landua. Ondorengo lau urteetan, euskaltzaleatasuna espreski indartuz eginiko idatzien agerpena dezente jaitsi zela esan behar dugu. Egindako zenbaketaren arabera 7 egunez 1913an¹³⁰, 15 egunez 1914an¹³¹, 9 egunez 1915ean¹³² eta 13 egunez 1916an¹³³ argitaratu ziren. Batez beste egindako egunen banaketa hipotetikoan ez ziren hilean bi egunez azaltzera iritsiko. Badirudi, bestalde, azken urteetan zenbaturiko agerpen egunak ikusita –21 egunez 1917an¹³⁴ eta

24 egunez 1918an¹³⁵-, berriro nahiko indarrez ekin zitziola herritarren euskaltzaletasuna sendotzeari, horretarako propio argitaratuz idatzi kopuru nabarmena (demagun, hilean bi egunez argitaratuak izango balira bezala).



Euzkel-Egutegiya 1918, edukia kategorietan bereizita, agerpen portzentaien arabera

Iturria: Euzkel-Egutegiya 1918

Goiko grafikoan ikus daitekeenez, badirudi ia lehenengo urteetako lekua berreskuratu zuela esparru honek azken urteetan. Baina oraingoan edukiaren banaketa desberdinaren testuinguruan.

Izaera anitzeko testuen argitarapenez baliatu ziren mezu euskaltzalea zabaltzeko: bertsoen bitartez, elkarrizketa moduan azaldutako egoeren bitartez, gertatutako errealiteren baten kontakizunaren

bitartez, kontakizun eredugarrien bitartez, edota azalpen eta iritzi testu zuzenen bitartez. Zehazki, bertso eta kanten presentzia, proportzioan, nahiko nabarmena izan zela ikusi dugu 1916an, 1915ean, eta 1914an. Urte horietan herritarren euskaltzaleatasuna heztera zuzenduriko idatzien artean %40-45aren¹³⁶ inguruko portzentaian zenbatu dugu bertso moduan jarritako testuen agerpena. Portzentaia txikienak, aldiz, 1918an¹³⁷, 1911n¹³⁸ (mezu euskaltzalea zeraman testu ugarienen zenbatu duguneko urtea izanik, bertso moduan jarritako idatzien kopurua oso eskasa izan zen arlo honetan), 1913an¹³⁹ eta 1909an¹⁴⁰ atera ditugu, %10-25 ingurukoak. Gainontzeko urteetan, 1910ean¹⁴¹ (mezu euskaltzalea zuten bertsoen egun kopururik handiena zenbatu dugun urtea izanik ere, proportzioan hauen presentzia ez da hain esanguratsua eduki berdintsuko hitz lauuko idatzi kopuruarekin konparatuta), 1912an¹⁴² eta 1917an¹⁴³, bertso euskaltzaleen proportzioa %25-35aren ingurukoa izan zen. Atera ditugun portzentaian arabera, badirudi, presio euskaltzalea gutxiagotu zen urteetan, hots, 1914, 1915 eta 1916. urteetan batez ere, presentzia handiagoa eskaini zitzaiola bertsoaren bitartez helarazitako mezuari. Gainontzeko urteetan, oro har, bertsoetara baino nabarmenago jo zen hitz lauz idatziriko testuetara mezu euskaltzalea zabaltzeko garaian.

Halaber, “euskaltzaleatasunaren heziketa” gisa ulertu dugun xede orokorraren (askotan inplizituaren) inguruan bilduak izan diren arren, interesgune zehatzak eta helburu anitzak zituzten testuekin ari garenik ezin dugu ahaztu. Euskararen egoera salatzea zen, adibidez, eragileen asmoetako bat eta, ildo horretatik, testu askoren baitan nabaria zen euskararen errealitate linguistiko eta soziolinguistiko tamalgarria azalarazteko eta berarekiko kontzientziak piztera jotzeko interesa. Interes horri esker, halaber, orrialde hauetan egiten ziren salaketa eta kritikez baliatuz, posible dugu garaiko euskararen gizarte egoeraren marrazkia egitea, nahiko modu argian egin gainera. Kontuan izan behar dugu erabilitako iturria eta, zentzu horretan, egin dezakegun marrazkia salaketa egiten zuenaren begietatik eratorritakoa izango dela, onartuz salatzaileri nabarmengarri egiten zitzaizkion errealitateetatik abiatuz egindako marrazkia dugula, alegia.

Beste testu batzuetan, hizkuntzaren egoeraren kritika baino, batez ere, euskararen aldeko deia zen nabarmena. Euskararekiko maitasuna azpimarratzen zen eta, aldi berean, euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazioa piztera eta kontzientzia harraraztera jotzen zen.

Hauek ere euskaltzaletasunaren heziketa helburu nagusiaren barruan jaso ditugu. Atal honetan aintzat hartu ditugun beste testu batzuen ezaugarriak nabarmenena ekintzarako proposamenak, gomendioak eta aholkuen eskaintza eragitean datza.

Beste batzuetan laguntza xedea atzeman dugu ezaugarri azpimarragarri gisa, irakurleari bere euskaltzaletasuna praktikan jartzeko laguntza eskaintzearen intentzioarekin edo, baliagarriak izan zitezkeen helbideak, informazioa eta errekurtsuen berri ematen zuten heinean.

Testu mota horiek guztiek –kritikan oinarrituak, motibazioa piztu eta ekintzarako proposamenak egiten zituztenak edota laguntza izaera zutenak–, bat egiten zuten, gure ustez, oinarritzko ezaugarri berean: irakurlearengan euskararekiko sentsibilitatea indartzera eta euskararenganako zaletasuna sustatzera jotzen zuten, hitz batean esanda, irakurlearengan euskaltzaletasuna heztera. Hizkuntz errealitateaz jabetuaraziz euskararen aldeko formazio ideologikoan jartzen zuten indarra, euskaldunak bere hizkuntzaz kontzientzia har zezan lagunduz eta, euskara ahoz zein idatziz erabiliz ekintzara pasa zedin bultzatuz.

Egutegiaren eragile izan zen Euskal-Esnaleak elkarte bezala bere egin zuen euskaldunak esnatzeko asmoa ere *Euzkel-egutegiya*-n islatzen da, haien “esnatzea” zertan gauzatzen zen ikusteko aukera paregabea eskaintzen digularik. Zentzu horretan, atalaren barruan jaso ditugun idatzien azterketaren ildotik, beharrezkoa ikusi dugu bertako edukia azpi xede eta gai zehatzagoen inguruan analizatzea eta, horrenbestez, landu ziren oinarritzko interesgune (mezu) batzuk azpimarratu nahi izan ditugu, euskaltzaletasunaren heziketaren nondik norakoak errazago ikusten lagunduko digutenak: Euskararen gizarte egoeraren salaketa eta konponbiderako proposamenak, Jakiteko ikasi – ikasteko jardun, Euskaraz irakurri eta idaztearen garrantzia, eta Autoalfabetakuntzarako informazio lagungarria. Gai hauen azalpenari ekingo diogu ondorengo lerroetan.

2.2.1. Euskararen gizarte egoeraren salaketa eta konponbiderako proposamenak

Lehenik eta behin, euskararen gizarte errealitate gordinaren marrazkia –gazteleratze prozesuak markatuta zetorrena–, argi erakusten zaigu egutegian argitaraturiko lehenengo salaketan:

Prantzezak itzegiten dute prantzeses, Ingelesak ingeleses eta euskaldunak... ¡Nola itzegiten degun, guztiyok dakigu! – Oraiñ eun

urte, erdaldunak nora jua etzekitela gelditzen ziran euskalerriyetan. Gaur, erderaz ez dakiyen euskaldun batek ez daki nora jo euskalerriyetako kalietan¹⁴⁴.

Bertsoen bidez ere aditzera eman ohi zen, samintasun handiz behin baino gehiagotan, euskaldun handi eta txikiak zeramaten galbidea. Horrela erakusten digu bertso honek:

Ume guztijak andi ta txiki
ikusten dira kalia
Berta ta Berba diardubela
Erderaz euren artian.
;Onelan zelan jarraitukogu
Landu gendukan bidian
Naigabeturik gogoratuten
Egunaz eta gabian
Ete gagozan erdalerrijan
Ala Euzkadi maitian?
;Beti bixiko nintzake pozez
Anboto mendi-ganian
Gaizbide orrek ez ikusteko
Neure begijen aurrian!¹⁴⁵.

Garaiko egoera diglosikoaren irudia ikustarazten saiatzen ziren baieztapeak errazak dira topatzen urtero, batzuetan testu serio eta bortitzen bitartez eginak¹⁴⁶, umorez eginiko elkarrizketa egoera xelebreen bitartez besteetan¹⁴⁷. Herritarren erdaltaletasuna, “ezur-muñetaraño”¹⁴⁸ sartua lehenengo hiruzpalau urteetan izan zen nabarmen agerian jarria. Geroago, 1917/1918 urteetan ere, berriro ekin zitzaion langintza berari, sendoago beharbada, euskaldunak erdaldunduak baino “geyegi erdaldunduak” zeudenaren sentimendua gero eta nabarmenago bizi zutela azpimarratzen zen aldi berean:

Geyegi erdeldunduak gaudela agirian dago, izkidunak (letradunak) batez ere. Gaztetatik erdera darabilgu, beti erderaz ari gera, erderapetuak gaude. Izkigietartean (letrik ez dutenetan) beste orrenbeste ikusten degu, erdera maiteago dute euzkera baño.

Erderaz ez dakitelarik, berealaxe asiko zaizkigu; nayago dute. Erdera euzkeldunentzat euzkera bera baño errezagoa dala dirudi, Euzkera, amaren maglean ikasitako izkera, utzi, aiztu ta bazterturik, erderaz ari dira euzkeltarrak! Eroagorik eta lotsagabeagorik ez dakit ote-dan lurbira osuan!

Euzkera illezkero
Nik ez det nai bizi¹⁴⁹.

Esan daiteke, goiko idatzi honek erakusten duen samina eta etsipen puntua nahiko nagusitu zela gazteleraren gainjartzearekin batera euskararen gainbehera ikusten zutenen artean, norberaren eta herriaren “heriotza” sinbolikoa aldarrikatzen zuten hainbat eta hainbat bertso eta adierazpenek hala azaltzen baitute. Kinka larrizko egoeraren aurrean, ordea, zerbait egin beharra ezinbestekoa zen euskaltzale batzuentzat, beste arrazoi batzuen artean, “... Euzkera galtzen dijoakigun lez, gure erriya gaiztoagotzen dijuakigu-ta”¹⁵⁰, batez ere. Horra hor, erdaltzaletasunak, berari itsatsirik, Euskal Herriari zekarzkion kalteak: dantza lohiak eta lizunak, kanta zikin eta biraoak. Finean, euskalduna Jainkoarengandik urrutiratzen zuten ohitura aldrebesak eta modu onak galtzea ziren, esango zenez, bertako ogia utzi eta erdal herriko otazari begira egotearen ondorioz eratorri ziren ezbehar larriak. Testuinguru tamalgarri horretan, garrantzitsutzat jotzen zen gurasoek arrisku hau aintzat hartzea eta zentzuz jokatzea, adibidez, beren semeak soldaduzkara bidaltzeko garaian: “... ezarri beren biotzetan Jaungoikuaren maitasuna ta euskerearen zaletasuna, gaiztakeri usain barik Jaunaren laguntasunaz echera biurtu daitezten...”¹⁵¹. Gurasoak, guraso euskaldunak, beren oinordekoen zintzotasuna eta euskaltzaletasunaren erantzule zuzenak omen ziren eta, horregatik, zegokien ardura hartu beharrean izango ziren: “... Gaurrtik jaso errime etxian euzkeria eta arrduretu bene-benetan etxequak ikasi ta erabilli dayen”¹⁵².

Noizean behin gazteleraren inposaketari nolabaiteko kritika orokorra egiten bazitzaion ere¹⁵³, ezin da esan egoera soziolinguistikoa azterketa kritiko orokorra nagusitzen zenik. Kritika gehienak norbanakoari zuzentzen zitzaizkion, herritar soilari, herritar euskaldunari bereziki. Bi jokabide deitoragarri aurpegiatzen zitzaizkion herritarrari: bere hizkuntzarekiko zuen zabarkeria eta utzikeria batetik, eta euskara linguistikoki zein moralki zikintzen ibili izana, bestetik. Jaurtikitzen ziren kritikek denboran zirauten; esan nahi da, iraganeko euskaldunek –ordezkari politikoez eta elizgizonen tartean–, euskararekiko izan zuten jarrera salatzen zen, baina, batik bat, garaikideen jokabide okerrean zentratzen ziren salaketa ugariak, garaiko euskararen iraupenerako eta, batez ere, etorkizunerako zuen garrantzia ikustarazten saiatzen ziren.

Gehienetan, oso zuzenak ziren egindako kritikak, mezu motzen bidez eginikoak. Honela, gutxi gorabehera: “Erdaldunak baño euskaldun erdalzaliak euskerari gaitz geyago egiten diyo”¹⁵⁴. Euskarak bizi zuen lurperatze eta bazterketaren erantzule eta errudunik nagusia hein handian, beraz, bertako euskalduna zen. Euskalduna –euskotarra–, zen euskara galtzearen errudun, benetako euskotar eta benetako euskaldun bezala ez zuelako jokatzeko. Euskara bularrarekin batera jaso eta zabarkeriagatik, utzikeriagatik, galtzen utzi duen euskaldunak ez du lotsarik, esango zuten:

Amaren magalean lenengo
entzungenduben izkera,
indar berritzen baldin badegu
maitatuk izango gera;
bañan gugatik lurpetzen bada
gure amona *Euskera*
orduban geren aitaren seme
onak izango ez gera¹⁵⁵.

“Ez gara euskaldun onak euskara galtzen uzten badugu”, esaldi horretan labur genezake behin eta berriz errepikatzen zen mezua. Bideanabar, kritika autokritika bihurtzen zen, norbanakoaren azken erantzukizunari zegokionez bederen, egileak bere burua “gu” horren barruan kokatuz, kritikatzeko zuen hizkuntz komunitateko partaide legez luzatzen zuenean mezua.

Herritar euskaldunari hizkuntzarekiko zuen zabarkeria kritikatzeko zitzaiotzanean, haren hainbat hizkuntz jokabide, arbuiagarria zena, jartzen zen agerian. Horietako bat, amaren bularrarekin batera euskara jaso zuen euskalduna izanda, euskara ez erabiltzea: “Zu, euskalduna, ¿zertako dezu euskerazko izengaiñ, edo apelidoa? Zertarako jayo zifñaten Euskalerrian? Zertarako zerate Euskaldunen semeak? Milla ta milla urteetan bizi izan dan Euskera ederra zuen zentzugabekeriz iltze-ko?”¹⁵⁶. Beste modu batean ikusita, beharrik gabe gaztelera erabiltzea zen kritikatzeko zena, hots: “¿Zertarako da <nik maite det euskera> esatia, bere etsairik aundiena, erdera, beti mingañian badabilki? Badirudi kokotzian bizarra eta ginballa edo kasketia buruban jantziezkeroz euskeraz itz egitia lotsatu egiten dirala euskaldun asko. Biarrik gabe erdera dabilkiyen euskalduna ez da benetako euskalduna”¹⁵⁷.

Ikusten eta salatzen zen euskararen gaztelerratzea ez zen bizitza errealtate berriekin bat zetozen termino arrotzak bereganatzen zitue-

lako euskaldunak. Euskaraz hitz egokiak izanik, hauek gaztelerazkoen-
 gatik ordezkatzegatik baizik. Izan ere, nahiko arrazoi funtzionalik
 gabe, estatus sozialaren aldaketa adierazten zuen neurrian jotzen zen
 euskararen gazteleratzera eta, joera hori zen egutegiko orrialdeetan
 salatzen zena. Euskarazko hitzak eduki, euskaldun askok horiek
 ezagutu eta, halere, “zabarkeriz” erdal hitzak erabiltzea herritarrengan
 finkatzen ari zen joera omen zen, eta hori erabat salagarria zen.
 Salaketa eta kritikaren bitartez herritarra bere jokabidearen okerraz
 jabe zedin saiatu ziren eta, ahal zen neurrian, berbideratze egokirako
 aukerak ireki. Ikus, adibide gisa, hitz arrunt batzuekin egindako
 ondorengo zerrendatxo, besteenak utzi eta euskaldunek berenak zabal
 zitzaten espresuki prestatu eta aditzera eman nahi zirenak:

Erderakuak	Euzkerakuak.
costumbratu	oitu
kamiyua	bidia
kamiyo erriala	bide zabala
	gurdi-bide zabala
karrua	gurdiya
errubera	kurpilla
xestua	saskiya, otarra
pareta	orma ¹⁵⁸ .

Euskaraz zuen aberastasunaz kontziente, egokiena Euskal Herri-
 ko herri desberdinetan zehar barreiatuak zeuden hitz eta esamoldeak
 jaso –euskalki desberdinetako hitzak aprobeztatuz–, zabaldu eta be-
 raiek erabiltzea zela defendatzen zuten, hizkuntzak zuen aberastasunaz
 baliatzea euskara garbitzeko, hain zuzen, eta horrela “...orke ta ango
 euzkeran, masti zarran bezelaxe, dauden utsuneak, beste aldeko
 euzkel-itzez ta esakeraz beteko dira, erderatik ezertxo ere ekarri gabe;
 dana etxean daukagu-ta etxea aztertzen ba-dakigu”¹⁵⁹.

Egiten ziren azalpen, kritika eta salaketek agerian jartzen zuten
 euskaldunak, euskaldun askok, gazteleraz hitz egin beharra oso barne-
 ratuta zuela, askotan, behar horrek bultzaturik, hizkuntza adierazpen
 mordoilo eta erridikuluetan erortzen zelarik. Hona egoera horren
 adibide adierazgarrietako bat:

- Petra, qué ha traído V?
- Pedernil, señorita.
- ¿Qué es eso de pedernil?

- Uste lo que me ha dicho, pues... ene ¿Cómo es pues? ¡ja! Urdei azpiko.
- ¿Y merluza?
- No señorita.
- Pues?
- Erdipuerdikochoko estaba y por eso pies.
- Pero qué tenía.
- Dolor.
- Y en qué ha conocido que una merluza muerta tenía dolor?
- En nariz.
- En la nariz de la merluza?
- No señorita, sino en mío, arrimando á merluza sentir que hace dolor que no es usai-gozo.
- Diga V. Siquiera olor y no diga V. Disparates.
- A señorita. Perdonar pues porque yo no quiero también disparar. Me á equivocaro. Ya apuntaré: loor.
- Ba, ba! Predicar en desierto sermón perdido.
- Sí señorita. Mal gente es aquellas prabicantes y uelgueros de Desierto, Sestao y así¹⁶⁰.

Erdaltzaletasunak, eta aldi berean erdaraz ia tutik ez jakiteak, eramaten ei zituen euskaldun asko, bere ezjakintasunean, gaztelera era desegoki eta lotsagarrian erabiltzera. Aldi berean, erdaltzaletasunak euskaldunek euskarazko adierazpidea okertu eta zikintzea ekarriko zuen ondorio kaltegarri gisa. Hona hemen, beste adibide argigarria:

- Kaiso, Mari, zer dion?
- Oi,oi Dolores *bien y tu?*
- Aztu altzain euskeraz?
- Ezin *pronunziatu* diñat palabra bat *tan siquiera; en bascuence del todo olvidatu* zaidan.
- ¡Ez dizkiñagu aditzeko guziak aditu! Euskeraz aztu?
- *Qué quieres, pues, necesidadeak ez din perdonatzen.*
- Erosteak egin alditun?
- Bai ta *ensegida marchatu* bear diñat *aprisa echera, para ahora gure señora prevenida* zeon *riña* egiteko.
- Zer den bada?
- *Kamak* egiteko zeuzkanat eta *koziñan* ere *atenditu* bear; *además karnizeruak diez céntimos kilo* aragia *subitu* din ta...gure *señora* ain den *agarratuba!*
- Neska aldegin zan izkuntz orrekin nai denan lekura.(eta segitzen du...)

– Oye Tolosako mutil bebedoriak como siempre sidreretik sidrerira continuatuko diten?

– Ez unan ik ere ori esaten aien atzetik ibiltzen itzianian, arrotzar orrek!¹⁶¹.

Behin baino gehiagotan argitaratu ziren elkarrizketa eta bizitza egoerak ikusita, badirudi emakumezkoengan, “kaleko” zerbitzu sektorean (neskameak, ostalaritza edo merkataritza langintzan ziharduten zerbitzariak, etab.) lanean zebiltzan emakume euskaldunengan nabarmentki adierazgarria zela hizkuntzak nahasteko joera¹⁶². Bistan da, egileentzat, behintzat, nabarmentzeko adinako gertaera zela emakumezkoen hizkuntz jokabide aldrebesa¹⁶³ eta, baita, emakumezkoena zela, espreski, berbideratu eta berrezi behar zen populazioa.

Helburu horrekin, emakume euskaldunari ikustarazi nahi zitzaion, zer nolako abantaila paregabeak zituen, erdalkeriak alde batera utzita, euskaldun jator gisa euskaraz behar bezala hitz egiten ariteak. Bi motatakoak ziren abantailak: onura ekonomikoak eta sozio-afektiboak. Ikus, ematen zitzaizkien informazio ohargarriak:

Bilbao'n, Iruña'n, Gazteiz ta Donosti'ko etxe aberatz askotan euzkeraz ederki ta garbi itz-egiten duten neskamiak nai izaten dituzte beren etxietako eta sukaldetako lanak egiteko.

Euzkeraz itz-egiten duten neskame, iñude ta sukalkiñak ongi ikusiyak izaten dira erri oyetan.

Euzkeldun mutil gaztiak, askozaz nayago dute euzkeraz itz-egiten duten neskatz gaztiakin itz-egin, tipili-tapala erderaz itz-egin nayian ibiltzen diran neskatzekin baño.

Askozaz politagua ta ederragua ematen du euzkel-neskatx batek euzkeraz ari danian, erderaz ezin asmatu rik ari danian baño¹⁶⁴.

Ildo beretik, aipatu nahi dugu euskaltzaletasuna emakumezkoengan berpiztu eta indartzeak hartu zuen garrantzia, berauek, ama izan zitezkeen neurrian, etorkizuneko euskaldun semeen hazkuntzan eta hezkuntzan erantzukizun zuzena baitzuten. Euskal semeen endokulturatzean giltzarria zen emakumea –ama–, euskal kulturaren eta euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ziurtatzeko ezinbesteko faktorea, alegia¹⁶⁵. Eginkizun horretan aurkituko dugu euskotar neskatxei, euskaraz hitz egin zezaten, berau landu zezaten eta, finean, euskaldun bero sutsuak izan zitezeten dei eginez¹⁶⁶, bertso bat baino gehiago zuzendu izanaren arrazoi nagusia.

Emakumezkoena ez ezik salaketa eta kritika ugari jaso zuen beste hainbat gizatalde eta lanbide egon bazegoen. Hauetako bat euskaltzaleena zen. Euskara maite eta euskararen aldeko aitortzen omen ziren euskaldunengan ere ikusten zen jokaera salagarririk: askok euskararen alde zerbait egiten hasteko besteek zer egin zai egoteko joera omen zuten. Beste batzuk salerosketetan, zeregin eta irabazietan kalteren bat izango zutenaren beldur edo, euskararen alde ezer ez omen zuten agerian egiten. Eta, noski, oso garbi jakinarazi nahi izango zitzaion euskaltzaleari, bere kontzientziari hots eginez, “bestiak ez egitiak ezaitu erru bako egingo zeuk bakarrik al zenduzan gauzetan”¹⁶⁷. Batzuen euskararen aldeko jarrera hitzontzikerian geratzen omen zen askotan; ekintzetara pasatzen ez zen euskaltzaletasuna zen astindu beharrekoa, beraz. Eta zeintzuk ziren, bada, benetako euskaltzaletasuna behar bezala frogatzeko euskaldunari eskatzen zitzaizkion ekintzak? Euskararen eta Euskadiren alde lan egitea. Hona hemen argibide gehiago:

Euzkerea ilterik ez dozula diñozu? Bera indarrtuta ikustia ixango litzakela zeuretata gauzaik atsegingarriena diñozu? Baña ¿zer egiten dozu itz onek egijaztuta ikusteko? ¿Ze laguntasun damotzazu euzkerea jaso ta zabaltzeko egiñalak-egiten dabiltzanai? Zenbat diru damozu Euzkal-ikastolak imintzeko; Euzkal-idatzi edo liburuak idazteko; deus euzkerearen alde egiteko? Ezertxu bez? Azalekua eta guzurrezkua da ba orduban euzkereari eta euzko-gauzai dautzazun maitetasuna¹⁶⁸.

Garbi samar ikus zezakeen irakurleak nola, eta zertan, bidera zezakeen euskararenganako zuen maitasuna, bere benetako euskaltzaletasuna: euskara jaso eta zabaltzeko eginahalak egiten zenbiltzanei laguntasuna emanaz. Eta laguntasun mota gutxienekoa, garrantzitsuenetakoa aldi berean, laguntza ekonomikoa zen. Zentzu horretan, deigarria da egutegian behin edo behin ikusi ahal izan dugun kexua¹⁶⁹, zeinetan garbi adierazten den zenbaterainoko zailtasunak zituzten Euskal-Esnalea elkartekoek beraiek euskaldun askorengandik –euskara piztearren ustez edozer gauza egiteko prest zeudenengandik bestalde–, laguntza ekonomiko minimoena ere jasotzeko, elkarteko bazkide izateko beharrezkoak ziren bost pezetak jasotzeko kasu.

Hamar urtetan zehar euskararen alde lan ugari egin ondoren –hizlariak herriz herri euskara goratzen, makina bat ingi, orri eta idatzi Euskal Herrian zabalduz, hamaika batzaldi eta sariketa antolatuz, irakurle eta idazleen artean dirua ugari zabalduz, etab.–, kexu agertzen ziren elkartekoak, azken urteetan egindako adierazpenetan, lan egiteko

garaian herritarren aldetik ikusten zuten parte hartze eskasagatik eta laguntza faltagatik. Bihotzez euskaltzale on ugari bai, esango zuten, baina lan egiteko orduan inor mugitu ez, "... beti batzuek, beti berak. Zortzi, amar...or nunbait..."; besteek egiten zutena kritikatu bai, eskatu ere bai, baina lanik egin ez:

... Besteak zer egin bear luteken guztiok dakigu: guztiok dakigu besteak nola ibilli bear duten, baña gu.... ¡geldi bertan!. Euskal-Esnalea'k au egin bear luke, ura egin bear luke; au egiteko dago, ura bearrezkoa da. Ta ¡atozte! Esaten badu Euskal-Esnalea'kberritxu guztiak iges. Beti berdin: indarra mingañean, eta besoak geldi"¹⁷⁰.

Abertzaleak izan ziren kritika zorrotzak jaso zituzten beste batzuk. Euskararekiko ustez nolabaiteko kontzientzia zuen populazioaren barruan abertzaleen jokabideak ere kritikak jaso zituen egutegiko orrialdeetan, azken urteetan nabarmenkiago. Ondorengo bertso honetan ikus daitekeenez, esatearen eta ekitearen arteko kontraesanean murgilduta egotea leporatzen zitzairen, batez ere:

...Tilin-tin ari dira
Abertzale asko,
Euzkeldunak euzkeraz
Elkar itz-eiteko,
Jo ta jo joalean
Ala guziez; baño
Erdera dariote
Gero ta geyago¹⁷¹.

Finean, abertzaleei euskararekiko jarrera utzia edo azalekoa aurpegiatzen zitzairen. Ideologikoki euskararen alde egon arren, beraien hizkuntz praktika erabat bestelakoa zela esaten zen. Batik bat egoera publikoetan, sozialki garrantzia zuten egoera publikoetan abertzale askok gaztelerara jotzeko zuen joera azalarazten zen behin baino gehiagotan. Izan ere, abertzaletasuna hitzetan erraz azaltzen baitzuten euskaldun batzuek, euskara eusko abendaren sorrera zela eta berau orraztu, garbitu eta beronetan garbi hitz egin eta idatzi behar zela maiz ziotelarik. Baina, gero, ekintzetan ederki idatzi eta hitz egiteko behar adina lana hartu behar zen garaian ezin eraman zezaketela ikusten omen zen.

Halere, euskara zela eta, abertzaleengan koherentzia falta nabarmena ikusten bazen ere, ez zen, horregatik, egiten zen salaketa abertzaletasun ororen eta abertzale guztien aurkakoa. Abertzale *batzuk* ziren

jokabide desegokia zeramatenak. Aitzitik, arian-arian, nagiak atera eta ekintzaren bitartez, euskaraz ederki idaztera iritsi ziren abertzaleak ere bazirela garbi utzi nahi zen. Eta azken hauen bidea eredutzat hartu ezker, aldaketarako aukera, benetako euskaldun eta benetako abertzalea izateko aukera, egon bazegoela aldarrikatuko zuten¹⁷²:

Ezta, bada, ene irakurle, egizko abertzaletasuna itzetan agertzen egikunetan baizik. Eta, beraz, abertzaletasun-itzez ta oldozkunetz mintzatu-arren, euzkerari ekiten ez diotenak, egizko abertzaleak ez dirala, zigur esan dezaguke. Bañan, orrelako itz-oldozkunetik esan gabe, ixil-ixil euzkeraren alde lanik asko egiten dutela ba-dakigu, abertzale zintzo ta bene-benetakoak bai-dirala oyek esan dezakegu, ziñez. Ekin dezagun, ba, euzkeraz idazten eta batezere ongi itz-egiten. Bada, aunela bakarrik iltzeko zorian dagon gure Aberri-Ama gaxoa sendatuko degu¹⁷³.

Kolektibo edo lanbide gisa, gehiegi aipatuak izan ez baziren ere, behin edo behin kritikatuak izan ziren maisuak ere, eta ondorioz eskola. Kritika, batetik, euskara ez jakin eta ez ikasteagatik zetorkien. Bestetik, ikasleei gazteleraz eginarazteagatik eta, batez ere, eraztuna erabilarazteagatik, euskarari zenbaterainoko kaltea egiten zioten azpimarratuz. Hona, topatu dugun adierazpenik adierazgarrienetako bat:

Bein batian ibilliz ibilliz mendiko erri chiki batera irichi nitzan.

Elizan sartu atera bat egin da gero, eche-arte edo plazan, alde guztietara begira, auba zabalik ango euzkotasan pozgarriyaren aurrian negoela Ikastecheko atia irikita guchienaz eunkada bat ume atera zan. Bere ardalla, karrasi eta diadarraz erriko eche guztik aidian jarri zituen.

Bañan iruditu zitzaidan erderaz mintzatzen zirala; zinistu naiezian ume pillan baten bertaratu nitzan eta ez dakit nola bertan zerraldo erori ez nitzan.

Ume ayek erderaz ari ziran – Bati ya zergatik ala egiten zuten galdetu nionian = Anillo poner maestro erantzun ziran.- Ez nuben geyago entzun nai izan ta erri chiki arri agur egiñik biotza zatitu eta barren guztiya korapillaturik echealdera biurtu nitzan.

Olako maisuak Euskalerriko baztarretan zenbat gaitz egiten duten Goikojaunak bakarrik daki¹⁷⁴.

Irakasleen hizkuntz jokabideaz gain, aurpegiratu ohi zitzaion eskolari bertako edukiak ez baizik eta kanpokoak soilik irakastea. Errealitate horren aurrean “euzko-gauzak” erakutsiko zituen “euzkal-

eskola” jaso beharraren aldarrikapenak ere izan zuen lekurik –ez handia– egutegiko orrialdeetan¹⁷⁵.

Ildo bertsutik jaso zituzten kritikak gizon letratu edo hizkidunek ere. Letratuei egiten zitzaizkien kritiketatik nahiko ongi ikus daiteke nola gizarte bereizketarekin batera errotuz joan zen hizkuntz bereizketa. Izan ere, apaizak, handikiak, legegizonak, osagileak eta ikaskizuntan luzaro ibili ziren hizkidun eta “señorito” guztiek, zein eskuetan makila zerabilten gizon gehien-gehienek, zioten, “nik maite dot euzkerea” esan arren gatzeleraz aritzen omen ziren beren artean. Baserritarak, arrantzaleak eta txapeldunak, berriz, euskaraz.

Handiki eta ikasiek euskara ez erabiltzeko eduki zitzaizketen arrazoiak bi azpimarratzen ziren nagusiki: batetik, euskaraz hitz egiteak ematen zien lotsa, ez baitzuten beraien gizarte estatusari zegokion hizkuntza gisa hartzen euskara. Bestetik, izandako eskola formazioa. Eskola formazioaren eraginez urteetan gogamenak gatzeleraz argitara ateratzen ohituta baitzegoen ikasien populazioa, euskaraz egin ahal izateko behar zen esfortzu intelektualerako gogo makala erakusten zuen. Horrenbestez, euskararen benetako gaitza ziren, euskarari kalterik okerrera gizon ikasiek eginikoa zen, berauen jokabide okerraren ondorio kaltegarriak hirietakoek ez ezik herri eta baserrietako euskaldunek ere pairatzen baitzituzten¹⁷⁶. Ondorengo idatzian argi asko adierazia dugu salaketa:

Euzkeraren alde okerrera izkidunak (letrados) dira. Izkidunak denak euzkeraz asiko balira, beti euzkeraz egingo baluteke, izkigeak (literatos) pozago egingo luteke. Baño ikusten dute beren artean beti erderaz ari diradela, beñere euzkerarik ez darabiltela: orrek asko biotzgetutzen (desanimar) ditu. Euzkera baserritar, ikazkiñak, arrantzaleak, bekoak bakarrik darabilte; goikoak apaizak, lege-gizonak, jauntxoak, *bigotedunak*, aundizkiak, izkidun guziak erderaz. Nola nai dezute horrela euzkera jasotzea, sutitutzea. Besteri esan eta gerok itzegin ez, besteri erakutsi eta gerok egin ez? Ori bai dala *berriketa utsa*. Asi ditezela bada euzkeraz izkidunak beren artean, goikoakin eta bekoakin, aberats eta beartsuakin, apaiz eta lege-gizonakin eta ikusiko dezute zeñen arin euzkera ez baserrian, itsaldean, bastarretan bakarrik, baizik toki guzietan itzegingo dan. Ez bestek egitearen begira egin bakoitza asi dedilla eta berealakoan zabalduko da¹⁷⁷.

Hiri, herri eta kale testuinguruan begiz jo zen beste lanbidea merkatari eta ostalariena izan zen. Gutxitan aipatuak izan arren, irmo salatu izan zen dendari eta tabernari askok euskararekiko zeraman ja-

rrera, iragarkiak euskaraz ez jartzeagatik edota gazteleraz bakarrik hitz egiteagatik kritikatuak izan zirelarik. Salaketa egin ez ezik, erantzun gisa, euskarari kaltea zekarkion jarrera zuten jatetxe eta tabernei boikotatuta egitea proposatzen zitzaien euskaltzaleei¹⁷⁸.

Azkenik, elizgizonen txanda dugu. Kolektibo gisa hauek izan ziren sarrien kritikatuak egutegiko orrialdeetan. Elizgizon batzuei euskaraz ez jakitea eta, herritarrak euskaldunak izanik, bertako elizetan elizkizunak eta sermoi asko gazteleraz egitea leporatzen zitzaien, izan ere: “(...) 1^a Euskerearen adiskiderik mamienak elizgizonak dira. 2^a Euskeraren arerio kaltegarrienak elizgizonak dira”¹⁷⁹. Beste elizgizon askori atzemandako akatsa zera zen: euskaraz jakin arren, maila egoikiaren eza aitzaki, euskaraz aritzen ez saiatzea. Hona hemen salaketaren adibide bat:

- Egun on, Jon Aba, noiz onera zifian?
- Orain lau urte edo.
- Ta nola zaude Euzkelerrian?
- Errdel Errietan baño hamaika bider obekigo.
- Aisa! – Ta zenbat errdel-erri ikusi al dituzu?
- Sei urte igaro nituen China’n; beste sei Pilipiña’tan; lau edo lau ta erdi Japona’n.
- Zenbat ele dakizkizu?
- Ikusi ditudan errien guziak.
- Praille langille ezin aspertuak! ¿Baño noiz predikatuko dezu emen?
- Ezin dut. Euzkera eztakit ongi!!!!¹⁸⁰.

Halaber, beste batzuei euskara jakin bai, baina pulpitan hizkera nahasia (euskeraz-erdaraz-latinez), zikina eta pobrea erabiltzea¹⁸¹ kritikatzeko zitzaien. Kritikak kritika, ordea, nahi izan ezker, egoki nola joka zezaketen erraz ikasteko aukera zuten elizgizonek egutegiko orrialdetxoetan, bertan ezagutzera ematen ziren herrialde desberdinetako elizgizonen hizkuntz jokabide eredugarriei jarraituz, alegia. Hainbat adibide eta egoera eredugarri zuen irakurleak eskura, hala nola: umeei alemanerazko dotrina irakur ez zezaten agindu zien apaiz poloniarren adibidea, britanieraz meza emateagatik saririk gabe geratu ziren apaiz batzuen egoera¹⁸², edo irlanderez otoi egiten zuen buruzagiaren eredia, euskaldunek, oro har, zeramaten jokabidearekin zeri-kusirik ez zuena, alegia: “... Orra gaurko euzkeldunen jakinduria O’Conellek irlandez egitea oso ondo deritzate. Euzkeldun batek euzkeraz egitea txorakeria da. Euzkeldunen arlotekeriaren antzekorik

ludi osoan ez da¹⁸³. Eredu horien bitartez, elizgizon euskaldunen jokabide desegokiaz ohartarazi nahi zen eta, bide batez, bide zuzenerako atea ireki.

Eskaini zen jokabiderik eredugarriena, beharbada, Aita Santuarena izan zen, bere etxeko asko ez bezala, saiatzen omen baitzen herri-tar bakoitzari bere hizkuntzan hitz egiten, eta bere ordezkariak bidaltzeko garaian ere kontuan hartzen omen baitzuen bertako hizkuntza zekien norbait izatea. Euskaldunen artean, berriz, zer gertatzen zen? Bada, hauxe:

... Ori da doibatzak erridi guzietan egin duana; erridi bakoitzeko izkera ikasteraño lan egiñaz. Ori ongi dagoala orok dakusgu ta denak ala diote... Baño euzkeldunai euzkeraz egiteko eskatzen badegu *bizkaitarristak* geradela digute. Erromako Doipurua ere *bizkaitarrizta* ote da? Erakutsi, erakutsi erderaz gogoz. *Mueran los curas, frailes y obispos* esanaz datozenean, erderaz itzegingo dizute¹⁸⁴.

Oharra argia zen: Sabino Aranaren bizkaitarrismorantz lerratzeko joera ideologiko-politikoan erortzeko arriskua aitzakiatzat hartuz, euskaraz egin ez eta gaztelerara jotzeko hautua egiten zuen kristauak, boomerang efektuaz, bere izatearen aurkako hautua egiten zuen.

Aldiz, euskararen aldeko hautua egin ezker, lan asko egiteko aukera ona zutela ikustarazi nahi zitzairen apaizei. Nola? Bada, elizan euskara garbian mintzatuz, koruko abestiak euskarazkoak aukeratuz¹⁸⁵ (posible ez zen kasuetan egokiagotzat hartzen zen latinez egitea, inondik ere ez gaztelaniaz), dotrinako umei euskarazko abestiak irakatsiz, eskutitzak euskaraz idatziz, eliz ateko agerkariak euskaraz jarritz, ageriko ohar guztiak euskaraz jarritz, eliza eta bide inguruetakoko gurutze eta antzekoak euskaraz ipinaraziz, eta hilobietan euskarazko idazti egokiak jartzen lagunduz, besteak beste. Erljio eta eliza gaietan euskara erabiltzeko erantzukizuna apaiz eta elizgizonena zen, baina ez beraiena bakarrik. Elizan eta otoitzetan euskara sustatzeko ardura kristau euskaldun ororena zen, euskarazko eliz liburutxoak irakurri eta otoitzak euskaraz egitea guztien oinarritzko eginbeharra zelarik¹⁸⁶.

2.2.2. Jakiteko ikasi, ikasteko jardun

Goiko lelo horretan laburbil daiteke egutegiko orritxoetan zehar zabaldu zen salaketa nagusienetakoa. Ikasteko jardun egin behar da, eta hori da eragileek euskaldunengan atzematen ez zuten jarrera.

Erdara bai, erdara ikasteko eta erabiltzeko badirudi, bertan esaten zenari helduz, prestuago ageri zela euskalduna, ez, aldiz, euskara ikasi eta lantzeko garaian. Horra salaketa:

Non dira ordia euzkera ikasteko zerbaiten lana artu nai duten euzkeldunak. Erdel-zaleak bai baditugu, jakin ez da ere, erderaz egin nai dutenak *piñagoa* bai ta ba, asko *pindu* bai gera euzkeldunak, *pindu* geran ezkerotzik erdera darabilkigu. Ya lo creo. Bazenekizute zeron erdera mordoltoa zeñen parragarria dan!¹⁸⁷.

Fintasunagatik izan ala ez, erdara ederrena zena eta euskara ezertarako balio ez zuenaren ustea nahiko indartsuki barneratua zegoen bai kale eta bai hirietan, zioten, euskotarren artean entzuten ziren “arrantzek” erakusten zuten: “Euzkerea, diardu batek, baserrirako; ziu-dadean ¡no fuera malo! Kastilleno ablatzen degu; neguziyo inperenteak manijeten dituanak kastilleno lingakien nezesidadea dauka”¹⁸⁸. Baita, euskaltzale batek baino gehiagok zuzenean baieztatu ahal izan zuenez, Gipuzkoaren baitan barru-barrurainoko kontzientzian sartuta egon ere bazegoela ikusten zen:

... Ezin adierazi ongi baserritar andre batek esan zidana: – Auxe da lana– ¿Zer bada?– Zuek ederki dakizute erdera baña guk...etzan oraingo aurrerapenik, gu beti motz. Erdera jakin gabe ez da beraz aurreraterik... ta Gipuzkoa barren-barrenan au entzun... Beste batean onela eraso zion euzkeldun andreak euzkeltzale bati: – Esan nai dezuna, baña nik erdera ikasi nai det; erdera omen da ederrena ta euzkera ezertako ez!¹⁸⁹.

Azalerazten ziren egoera hauetatik ondorioz ateratzen dugun erreallitatean zera ikusten da: euskaldunak estatus kultural, sozial eta, maila batean ere, ekonomiko berriarekin lotzen zuela gaztelera. Aurrerakuntzarekin eta modernitatearekin lotzen zen gaztelera eta, nahiz eta hizkuntzaren menperatze maila eskasa izan, gaztelera hitz egitea beharrezkoa sentitzen zuen modernotze testuinguruan, “garai berrietan” txertatu nahi zuen euskaldun, batik bat, kaletar askok.

Halere, egon bazegoen euskaldun asko salaketa ugari egiten ziharduena, baina horietako askorengan ere euskara ikasteko lana hartu behar zenean, ordu laurdena hartzeko gaitasunik ez zen ikusten nonbait, egutegiko lehenengo urteetan deitoratu zenez. Euskara “aberriko izkeratzat ez idukitzea”gatik edo, beste nonbaiten esango zenez, “...euskaldunak bere buruba ezagutzen ez dutelako...”¹⁹⁰ gertatzen zen hau, benetako hizkuntz kontzientzia eta herri kontzientzia ez zutelako,

alegia. Euskaldunen “arlotekeria”, bestalde, ez zen ondorengo urteetan desagertu. Gerora ere arazoa berdina zela ikusten da. Euskaldunen hizkuntzarekiko jarrera ez zen gehiegi aldatu, zeren eta gaztelera ikas- teko azaltzen zuten prestutasunaren aitzin, euskaraz jabetzeko, hura ikasi, sakondu eta hobetzen saiatzeko erresistentziek bere horretan iraun baitzuten. Horra, erresistentziarako arrazoa aitzakia bihurtzen zuen hainbat adierazpen:

Euzkeldunak beren elea ondo jakiteko ikasi biarra danik ez dute uste: ala dirudi behintzat euzkeldun askok berak eztazarten (ezagutzen ez duten) itzen bat entzun edo irakurtzen dutenian diotenak: – Au ezta euzkera, euzkera berria sortzen dabilta orain; ¿nork ulertu euzkera au?– Eta askotan entzun ala irakurri duten itza euskel- itzik zarrenetakua da. Uste dute horrela mintzatzen diranak erdal- dunarentzat bere elean ezagutzen eztan itzik ezta eta euzkeldunen- tzat ere euzkeran ezta izan biar. Baña ori uste dutenak oker daude; ezta erdeldunik bere eleko itz guziak dakizkianik ain gutxi euzkel-itz oro dakizkian euzkeldunik.

Beheraxeago,

Baña euzkerazko itz ezezauna entzunik min artzen dutenak erderaz irakurtzean ez dakiten itzik arkitzen badute, bere ikurra jakin arte edo zer esan nai duen ikusi arte galdezka edo eztira gelditzen. ¿Zergatik? Euzkerarako baño erderarako zaletasun aundiagoa dute- lako. Erdera euzkera baño gehiago maite dutelako.

¿Erdera ikasten bezela aleginduko ba'lira euzkeldun asko beren elea beren izkuntza ikasten! Bai, ikasi gabe eztago ondo jakiterik ez euzkerarik, ez erderarik.

Ikasi ezpadezu euzkerarik ez arritu askotan zuk ulertzen ez dituzun itzak arkitzez. Jakiteko ikasi egin biar da¹⁹¹.

Ez zen gaztelera ikastea salatzen zena, aitzitik, berau ikastea go- mendagarria ikusten zen, aukera izan ezker. Hizkuntzak ikasteagatik, gaztelera ikasteagatik zehazki, nork beraren hizkera uztea, euskara baz- tertzea zen onargarritzat jotzen ez zena¹⁹². Horrenbestez, ezinbestekoa zen euskaldunak, ikustarazi nahi izango zenez, euskara jakiteko ere ikastea. “Jakiteko ikasi”, “ikasteko jardun”, “nahi izatea ahal izatea” (horra euskaldunaren borondateari egindako deia)¹⁹³ dira lehenengo zein azken urteetan errepikatu ziren leloak. Eta, ildo horretatik, eus- kara ikastea ez zela zaila erakutsi nahi zioten irakurleari, “Eziñik ez da”, “Nai izatea. Vouloir, c’est pouvoir. Nai izatea, al izatea da”¹⁹⁴, esaten

zitzaion. Are gehiago, euskara ikasi ez ezik, euskara ikasi nahi zuenari –orduko “euskaldunberriari”–, lagun ziezaion ere eskatzen zitzaion euskaldunari: “Euzkeraz ikasi nai duenari lagundu zayogun. Etzayozutela arren gogo eta nai ori kendu. Beste izketak ikasten diran bezela euzkera ere ikasgarria da ta....”. Izan ere, euskaraz zekienaren ardura zen, nolabait, ikasten hasi berriari, motibatuz, bidea erakustea: “Naikunde ori esnatu zayozute bizitu, geitu. Lotsa galduta itz egiten asi dedilla, oker diona zuzendu zayozute eta oso erraz erakutsiko diozute”¹⁹⁵.

Hasieran aipatu dugunez, hizkuntz egoera eta jokabide anitzen kritika egitera zuzenduriko idatziez gain, eta horiek zabaltzen zuten mezuaren osagarri eta errefortzu zirelarik, baziren beste idatzi batzuk egutegi honetan zuzenean euskararen aldeko deia zabaltzera jotzen zutenak. Hauen artean gehien bat bertsoak eta kantak ditugu, ia urte guztietako aleetan topa daitezkeenak. Horietatik asko eta asko egile ezagunek sinaturiko bertsoak dira, hala nola, J.L. Etxeita, K.S. Irure, Juan Ignazio Uranga, B. Mokoroa, Antonio Arzak, Jose Artola, I. Galdotz, Ramon Gelbenzu, Ramos Azkarate, Ane Mujika, J.L., E. Arrese, Aberri, E. tar Kepa, Erauzkiñ¹⁹⁶, eta abar.

Horrela, izenburu adierazgarri desberdinen pean argitaraturiko bertso anitzek, hots, “¡Ama Euskera!” eta “Etzait aztuko!” 1909an¹⁹⁷; “¡Ama euskera deadarka!”, “Euskera”, “Euskera gabeak”, “¡Esan euskaldunak gera!”, “Gure izkuntza”, “¡Ez da ilko ez euskera!”, “¡Gora euskera!”, “Beti biziko da ama euskera!” 1910ean¹⁹⁸; “Euzkera zar maiteari”, “¡Gora Euzkera!”, “Euzkerakin beti”, “¡Beti Euzkeraz!”, 1912an¹⁹⁹, “¡Mutillak aurrera!” 1913an²⁰⁰; “Euzkaldunari euzkeraz”, “Euzkera”, “Amari”, “Gogaldia” 1914an²⁰¹; “¡Gora Euzkera!” 1916an²⁰²; “Bakoitzak beria maite”, “Ekin euzkeraz”, “Aberriya ta euzkera” 1917an²⁰³, baita inolako izenbururik gabeko beste askok²⁰⁴ ere, euskararen aldeko deia luzatzean (euskararekiko motibazioa piztean esango genuke gaur egun) egiten zuten bat. Bertso horien guztien muina ondorengo ideia hauetan laburbilduko dugu: euskararen egoera larriaren aurrean euskaldunak bere hizkuntza zaindu behar zuen; euskara arrak jota zegoen eta euskaldun guztiek “euzkeltzale” onak izateko ahaleginak egin behar zituzten euskara ikasiz, euskaraz hitz eginez, biraorik gabeko hizkuntza garbian arituz, eta euskal ohi-turei zintzo jarraituz. Euskaldunek euskaraz eta euskararen alde egin behar zuten. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen zen, eta hartara dei-

tuko zen, denok bat egitea, denen artean laguntzea euskara hil ez zedin eta bere ondasun guztiak behar bezala azal zitezen. Ez zuen ezertarako balio foruak aldarrikatzea, Antonio Arzaken hitzek garbi erakusten zutenez, baldin eta gero gartzeleraz egingo bazen.

...;Zer *Fuero* ta zer...
itz egitekotz
gero erderaz²⁰⁵.

Ideologia politiko bat edo bestearen gaintetik euskaraz hitz egitea zen garrantzitsuena.

Bertso eta kanta askoren izaera liriko eta poetikoaren estiloari helduz hitz lau ere ikusi dugu, lehenengo hiru urteetan batez ere²⁰⁶, euskaldunaren bihotzean euskararekiko maitasuna piztera zuzenduriko mezurik. Zentzu honetan, nagusiki eta gehien errepikatuko zen ideietako bat, hauxe da: euskaldunak euskara jakin eta maitatu behar du, amak umea eta umeak ama elkar maitatzen duten bezala. Ez zen, gainera, inolako kanpo edo barruko arrazoi berezirik bilatu behar maitasun hau zilegizkoa zela aitortzeko, arrazoi apologetiko edota linguistikoko guztien gaintetik, euskalduna jaiotzea nahikoa arrazoi bazen berez. Horra Gregorio Mujika jaunaren jarrera ezin argigarriagoa:

... Nik ez dakit Adan eta Eba'ren izkuntza euskera zan ala ez zan, neri etzait ajolik, euskerak anchiñako gauzak jakiteko laguntzen badu edo ez: berdin izango litzake neretzat, euskera ederra, aberatsa ta dizdizaria dan bezela, zeken, beartsu ta argala balitz. Nik, orain ainbat maiteko nuke. Euskaldun jayo nintzan: euskera maitatzeko ez det arrazoi geyagoren bearrik. Ama bat maitatzeko, ez da ederra dan ala ez dan begiratzen, eta ederra baldin baldin bada, ez da ederra dalako maitatzen, ama dalako maitatzen da²⁰⁷.

Euskararik gabe ez dago euskaldunik, are gehiago: “Gorputza ta anima bezela daude Euzko-Erriya ta euzkera alkarri lotuta. Euzkeragabeko Euzko-erriya animagabeko gorputza bezela da”²⁰⁸. Askotan, euskaraz eta euskararen alde egiteko mezua –batik bat kontzientzia harrarazlea zena–, erregu, mesede bihurtzen zen. Oro har, hiztunarengana luzatzen ziren mezuek honen kontzientzia kitzikatzeraz jotzen zuten. Are gehiago, euskaldunaren erruduntasun sentimenduan eraginez lortu nahi zuten haren kontzientzia piztea.

Euskaldunon bihotza berrezi nahi zen, hortik abiatuz bere jokabidea –hizkuntzazkoa zein morala–, berbideratzeko. Helburu horrekin zabaldu nahi zen ikasbidea erabatekoa zen: euskaldun ona izatera

euskaltzale zintzoa izanez iristen da, eta euskaltzale zintzoa nor den bere ekintzen bitartez ezagutuko da. Horrenbestez, hizkuntzarekiko kontzientzia hartzea bultzatzeaz gain, euskararen aldeko eta berarekin zerikusia zuen guztiaren aldeko ekintzarako motibazioa eragin nahi zen, ekintzarako proposamen praktikoak eta gomendio zehatzak emanenez. Lehenik eta behin, irakurleak bere euskaltzaletasuna praktikatzeko garaian nondik jo inolako zalantzarik eduki ez zezan, horra euskaldun orok bete beharreko hamar aginduak:

Lenbizikoa.- Euzkera, beste edozein ele edo izkera baño geyago maite-izan.

Bigarrena.- Euzkeraz beti egiteko benazko asmo bizkorra arrtu.

Irugarrena.- Euzkerari dagokioten egipen eta eginkizunak aldeztu, al-dan bezela.

Laugarrena.- Gure enda edo erriyaren ele edo izkera bakarra Euzkera dala gogaldu (goguan erabilli).

Boskarrena.- Euzkera erailtzen iñor ez utzi.

Seigarrena.- Euzkera ez nastu.

Zazpigarrena.- Euzkerarentzat errdelitzik ez lapurtu.

Zortzigarrena.- Errdaldunen aitziañan, aldiya danean, Euzkera aldeztu, edo Euzkeraren alde-egin.

Bederatzigarrena.- Esakun naiz itz loikorrik Euzkerara ez ekarri. Euzkeraren garbitasun orbangabea iraun-erazo.

Amargarrena.- Euzkeraren ondoan, beste eleren bekaitzik ez izan: guzirik maitagarriyena gure auxe da-ta.

Darrain eran laburtu dagizkike onek agintzok:

Euzkeraz egin, Euzkera iraun-erazo, garbitu ta zabaldu²⁰⁹.

Lirismo gutxiagorekin bada ere, euskaraz garbi eta zikinkeriarik gabe hitz egitea (nahiz ondo jakin ez, erabiliaz hobe zitekeen), otoi-tza euskaraz egitea eta euskararen alde egitea, finean, herri bakoitzak bere hizkuntza erabili eta hitz egin behar zuela, gogorarazten zitzaion irakurleari behin eta berriz, iritzi testu luze²¹⁰, mezu motz eta zuzenen bitartez²¹¹, gertaera eredugarrietara joz²¹² edota, umoreari helduz. Ondorengo ateraldi xelebrea ikus dezakegu:

Au pralle batena da. Euzkeraren alde ari zan geron izkera maitatu biar genduala adieraziaz, egiz eta benaz euzkera maitatu ezkerorresena zala egiztu nairik. Orok egiten dutena da, bakoitzak bere izkera beste denak baño geyago erabiltzea. Zenbat eta urrutiago dau-den gogo biziagoz darabilte, poz geyagoz oitutzen dira, ortara oso

egiñak, ongi oituratuak gelditzeraño.– Azkenik zion – il artean euzkeraz egin bear degu.

– Lagun batek galdetu zion: eta, gero? Il arteraño euzkeraz egitekotan il da gero nola egin bihar degu?

Latiñez. Latiñez lurperatuko gaituzte. Andik au bera zan lagun orrek motikoak erakusten ziena.

– Motikok, il artean...

– Euzkeraz.

– Eta gero?

– Latiñez²¹³.

Argi erakutsi nahi zitzaion euskaldunari nondik jo behar zuen egiazko euskalduna eta euskaltzalea izateko: "...euskaraz mintzatu, gure arteko joan-etorri guztiak euskaraz egin eta gure haur eta ondorengoei euskara eta Euskal Herriaren maitasuna erakutsi..."²¹⁴. Luze joko zuen egitasmoa zen hau, bestalde. Izan ere, urteak pasa ahala, aurrerapausoak atzematen zituzten arren –euskara zabaldu eta indartu nahirik gero eta jende gehiago zegoen, eskoletatik euskaraz hitz egitearen aurkako eraztuna desagertzeaz bat "euzkel orratzak" ikusten omen ziren, gero eta euzkel-ikastola gehiago omen zen²¹⁵–; halere, ez zirudien, 1917. urteko agurra ikusita, euskaldunak esnatzen aritzeari uzteko unea iritsi zenik oraindik:

Gaur irixten gara Euzkel –Egutegi onen azkenera.

Bera egitean gure gogoia izan da euzkera zabalteaz, euzkera sendotzea. Gure izkuntza euzkera da; euzkeraz egin bear degu ba geren egiteko guzietan: izketan, idazketan eta irakurketan. Guk, euzkeldunok, euzkeraz itz-egiten ez ba' degu, norik egingo du? Arrotzak? Gure euzkera zarra guk maitatzen ez ba' degu norik maitatu bear du?

Gaur da Egutegi onen azkena bañan berak esan dizkizunak zure gogoan iraungo dute noski. Ez ba aztu jolas-tartean esan dizkizun onu edo kontseju onak. Izan zaite ba, beti, egitazko euzkeldun²¹⁶.

Horrela, bada, euskaldun askorengan ikusten zuten utzikeriari aurre egin nahian, beren hizkuntzan saia zitezten eta une oro erabil zezaten dei egiten jarraitu zuten. Utzikeria hori –euskararen trebakuntzan sakondu nahi ez izatea– euskaraz alfabetatu nahi ez izatea zen finean.

2.2.3. Euskaraz irakurri eta idaztearen garrantzia

Euskaldunen utzikeria are nabarmenagoa egiten omen zen euskaraz irakurri eta idaztearen kasuan. Izan ere, euskaldun gehienek ez zekiten, hala dirudi, euskaraz irakurtzen eta idazten. Eta gertaera hau, noski, lotsagarria izateaz gain, onartezina zen hainbat euskaltzalerentzat.

Idatzietan salatzen zenez, idatzi eta irakurtzeko saiakera gehiegi ez zen egiten eta, euskaldunaren nagikeria haratago zihoan, euskaraz idatziriko testuak eskaintzen zitzaizkionean ere beti baitzuen euskaraz irakurri ordez erdarara jotzeko aitzakiarik, hots, gazteleraz irakurtzeko ohitura handiagoa zuela, euskaraz idatziriko fundamentuzkorik ez zegoela, etab. argudiatuz. Jarrera axolagabe horrek ondorio larriak ekarriko zituen, esaten zenez: besteak beste, euskaraz irakurtzeko gaitasuna galtzea eta, ondorioz ere, euskal merkatu idatzia garatzeko zailtasuna areagotzea. Hona hemen, kate-maila horien lotura logikoaren azalpena:

Naigo nuke zerbait baño biotz-biotzean betiko irarrita geldituko balitzaguke esakera auxe. Izan ere, nagi osoak gera euzkeldunak. Idazti gutxitxo dauzkagula euzkeraz eta negarra dario gure begietatik, eta gero... izpar-ingi (periodico) bat edo erdi-erderaz dagon idaztiren bat gure eskutaratzean, utzi aldebat euzkera ta edera irakurri. Elizara emateko erderazko idaztiak, esanaz; oituta gaudela... erderaz errezago irakurtzen degula... idazti mamidunik ez dagola euzkeraz... Noiz arte, euzkeldunak esnatu gabe? Irakurtzen eypadegu, eztatigu ba zaletasunik gabe geldituko gerala? Ta eztatizu euzkerazko idaztiak baño lenago edozer erosiko degula? Ta erosle gabe nork idatzi ta irarri euzkeraz? Zuk eta nik, biok asmo bat egin dezagun... bigar esan bearko²¹⁷.

Oro har, tamalgarri zeritzoten euskarazko idazkiak irakurtzeko zaletasun eskasari eta, ildo horretatik, euskarazko egunkari²¹⁸ ezaren, edo aldizkariak egon arren gaztelerazkoak irakurtzea nahiago izatearen inguruan²¹⁹ zentratzen ziren, bereziki, kritika haiek. Alde batetik, beharrezkotzat eta garrantzitsutzat jotzen zen euskarazko egunkaria eta paperak, finean irakurgaiak, argitaratu eta baserrietan, biltzarretan, ferietan, zuhaitz gerrietan, hormetan zabaltzea, igor zitezkeen mezu askoren artean bide batez erakutsiz “... Euzkotarra zer zan, zer dan, zer izan bear duan....” eta, baita zera gogoraraziz ere: “... Euzkotarra, euzkotarra, euzkotarra iltzera oa, ireak egindik! Bañan ik nai badek piztuko aiz”²²⁰.

Beste aldetik, gaztelerazko irakurketek, boomerang efektuaz he-
men ere, zein eragin kaltegarri egin ziezaioketen erakutsi nahi izango
zitzaion abertzalea omen zen euskaldunari. Erdaraz irakurtzeak euska-
rari zekarzkion ondorio kaltegarriez ohartarazi nahi zen irakurlea.
Baina, baita ere, euskaldunentzat gazteleraz idazteak zekartzanaz, hots:

Erderaz idazten duanak, idazten duanari bizia kentzen dio,
Euzkel-errian bizitza euzkerazkoa dalako.

Erderaz idazten duanak ezin dezake Aberriatzazko itzik idatzi
bere matrallak lotsaz gorritzeke; ezin dezake Euzkadi'rentzako esku-
biderik aitatu, eskubiderik bidezkoena ta bereena ber-berak ukatzen
diola.

Erderaz idazten duan izperringi katolikoak, bere eginkizun
bakartzat Josu-Kisto'ren erakuspideak aitortu, aldeztu ta edatzea
daukalarik, eragospen aundiak ipintzen dizkio Kisto'ren irakas-
kintzari gizonen biotzetan sustarrak bota ta lurra artzeke; gizonak
bere adimen (...) eta biozketen bitartez aditzen ditualako gauzak;
irudimena ta biotza, berriz, ez du nor berarena ez dan izkuntzak
berealakoan esnatzen eta igitzen. Erderaz idazten duanak, gure jayo-
terri maite onen usain gozo gabeko idazkunak besterik ezin dagizki.
Erderaz idazten duanak ez du irakurlearen biotza ikutzen, beti euz-
kera goxoaren otzean bizi izan dan irakurlearen biotza. Erderaz
idazten duanak ezin dezake irakurlearekin maitasunik, biotz-zabalta-
sunik eta azkatasunik izan; ba gure artean Euzkera bakarrik da, gure
elea bakarrik da maitasunezko, biotz-zabaltasunezko ta azkatasu-
nezko izkuntza²²¹.

Gazteleraz idazteak Euskal Herriarentzat zekartzan ondorio kalte-
garriak maila askotakoak ziren: batetik, politikoa, idazketa ekintza
berarekin Euskadiri bere eskubiderik bidezkoena –hizkuntzarena–,
ukatzen zitzaion heinean, bestetik, morala, Jesukristoren mezua herri-
tarrei sakon helarazteko zailtasunak ezartzen ziren heinean; eta, az-
kenik, komunikaziozkoa, irakurlearen ama hizkuntza euskara izanik,
gazteleraz idaztearekin idazle eta irakurlearen artean benetako komu-
nikazio erreferentzial eta esanguratsua lortzen ez zen heinean.

Kalteak kalte, ordea, euskaraz hitz egiten zuten askok beren
idazkiak erdaraz egin oi zituzten, tamalez esango zuten. Zer zela eta?
“... Bein ere euzkeraz idazten ikasi ez dutelako. Ez ikasi eta ez ikusi.
Ikasi balute nola ala asiko lirake, ikusi balute besteak antzarpetu (imi-
tar) naia izango luteke. Baña lenagoz ikasi ezduanak eta gaurkoz
ikusten ezduanak zer egingo du? Ezin litekelakotzat utzi...”²²². Arazoa

horretan zegoen, hain zuzen: irakaskuntza edota eredu egokia ezean, euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko aukera faltan. Dena den, aztertu ditugun urteetan zehar, ez dugu euskarazko irakurketa eta idazketaren irakaskuntzaren aldeko aldarrikapen pisuzkorik egin zenik ikusi. Ezin dugu esan idatzi hauetan islatzen zen asmo nagusia euskarazko irakaskuntzaren inguruko kontzientzia piztea eta irakaskuntza mailako errebindikazioak egitea zenik. Norberaren ama hizkuntzan ez zen beste hizkuntzan alfabetatua egoteak sor zitzakeen zailtasunez eta posibilitateez oharturik, interes handiagoa jarri zuten, gure ustez, euskarazko irakurketa eta idazketaren *ikaskuntza*²²³ bultzatzen. Indarra euskarazko idazketa eta, batez ere, irakurketaren ikaskuntzan eta erabileran jarri zuten egutegia bultzatu zutenek.

Horrenbestez, erreferentziazko abiapuntua gazteleraz alfabetatutako euskalduna zen (erdialfabetatua edo alfabetatu osoa izan zitekeena), bai kritika egiten zenean, bai mezu kontzientzia harrarazleak luzatzen zirenean, bai gomendio, proposamen eta baliabideak eskaintzen zirenean. Eta euskaldunari gazteleraz garatu zituen irakurketarako edota idazketarako abileziak euskarara transferitzea eskatzen zitzaion, funtsean, horretarako borondatea edukitzea eta ahalegina egitea. Beraz, euskaraz irakurtzeko egin beharreko lehenengo gauza norbera saiatzea izango zen; norberaren eginahala ezinbestekoa zen. Askoren aburuaren aurka behar bada, berez eta inolako eginahal edo esfortzurik gabe, eta kanpoko eragin automatikoren baten zain egin ezin zen gauza zela ikustarazi nahiko zioten herritarrari. Euskaraz irakurtzen edota idazten ikasi nahi zuen euskaldunak barneratu behar zuen oinarritzko ideia ondorengo esaldian borobilduko genuke: besteen euskaltzetasunak ez dio norbanakoari irakurketarako trebetasunik emango. Horretaz jabetzeko zer hobe egoera xeblete batek ematen duen argibide hau baino:

- Euskal-Esnalearen egundiya emen ere badezute beraz?
- Bai, jauna.
- Ta nork irakurtzen dizute?
- Inork ere ez, jauna, ez dakigu-ta; euskeraz irakurtzeko ederki erakusten zuala esan ziguten ta emen daukagu²²⁴.

Nagikeriak alde batera utzita, euskaldunak onartu behar zuen norberaren esku zegoela irakurtzen ikasten saiatzea, bakoitzaren esku zegoela euskaraz idazten ikasi eta aritzea, eta hau, irakurleak (entzuleak) irakurri (entzun) ahal izango zuenez, ez zen ezinezkoa. Aitzitik,

posible da, esaten zitzaion, nahiz euskaraz inoiz irakurri ez (ez ahaztu gaztelera irakurtzen zekienari zuzentzen zitzaie), nahiz euskaraz inoiz idatzi ez, saiatu ezker, arian-arian praktikaren bitartez euskaraz ongi irakurtzea eta ongi idaztea.

Oro har, mezu hauetan ikusi dugunaren arabera, esan dezakegu euskarazko irakurketa eta idazketaren ikaskuntza eta erabilera autodidaktikoki bidera zezan gonbidatu, animatu, bultzatu nahi zela euskalduna. Gehien indartzen zen jarrera hori zela uste dugu: ezagutzak transferitzeko gizakiok dugun gaitasunari helduz nolabait, euskarazko irakurketa eta idazketarako formazio autodidakta bultzatzea. Norberak bere burua alfabetatu behar zuen euskaraz, autoalfabetatu behar zen, hitz batean esanda. Testigantza partikular hainbat eskaini ohi zen irakurleak adibide eta eredutzat har zezan²²⁵. Ikuspegi honetan, lehen ere adierazi dugu, garrantzizkoa zen gaztelera erreferentzia. Inplizituki, bere burua euskaraz alfabetatzea euskaldun helduak gaztelera gutxienez irakurtzen jakin bazekiela hartzen zen abiapuntutzat, eta hortik abiatuz, bere borondate tinkoari eutsiz, euskaraz idazteko edota irakurtzeko, behintzat, gai zela kontsideratzen zen. Ikus, ondorengo pasartea:

¿Euzkeraz idazten bai ote dakizu? Orduban, euzkeraz idatzi, al dezakezun geyena: ingiyetan, egutegiyetan idazkiyak, tarjetak, al dezun guziya. Zer idatzi ezpa-dakizu, arr ezazu errderazko idaztiren bat, eta euzkeraltzeko alegiñak egizkizu. Onelan, asko ta asko ikasi dagikezu.

¿Euzkeraz idazten ez, baña irakurriten bai ote-dakizu? Orduban, Euzkeraz irakurri ezazu, al-dezakezun ainbat. Lenbiziyan, nekeza iritziko zaitzu; baña jardunaz, asko ta lasterr erraztuko zaitzu; arr ezazu, arren, Euzkeraren alde, lan-pitin ori! Ez da (askok uste duten bezela) gauza zalla, ez da gauza nekakorra, Euzkeraz irakurritea. Zeorrek ikusi dezakezu: poli-poliki asi zaitkeez, ta ikusiko dezu zelan eta zenbait aurreratzen zeran.

Euzkeraren pizkundea geonen eskubetan dagola gogalduko bageneza, Euzkeraren alde egiten deguna baño geyago noski egingo genuke!²²⁶.

Finean, euskarazko idazketa eta irakurketaren sustapena zela eta, egutegiak eskaini dizkigun edukietan atzeman dugun ikuspegia hiru osagai nagusietan oinarritzen zela esan dezakegu: borondatean, eginahalean eta laguntza apur bat jasotzean. Egiteko hauek, hurrenez hurren, norbanakoari, herritarrari eta aditu zein eragileei zegozkienak

ziren. Ikuspegi honi jarraikiz, bada, hainbat gomendio egiten zitzaion irakurleari euskarazko irakurketaren lanketa egokiari begira: lehenik eta behin, gaztelarazko egutegiak alde batera utzi eta euskaldunen aldekoak erosi. Oso garrantzitsua zen, baita ere, euskarazko egunkaria edukitzea: “... bat bakarraz jabetu biar dezute: izperringiaz. Orrezaz jabetzen bazerate lurberako bakaldun zerate. Izperringien jabe danak guzia dauka...”²²⁷ Eta egunkaria osoa euskaraz izatea posible ez zen kasuan, euskarazko zatiak irakurtzen saiatzea gomendatzen zen, beldurrik gabe eta iraunkorki ekinez. Horra hor, gomendioetako baten adibidea:

Auxe da: Al dan geiena euzkeraz irakurtzea: izperringia dezula, irakurri lenengo euzkera... Baña ez dakizkidan itzak ere bai ditu sarritan... etzitzagun au gertatuko lenago asi bagiña irakurtzen... uste al dezu erderaz irakurtzen duten euzkeldunak erderaz ikusten dituzten itz guziak dakizkitela?... Bai, nai, baña... ez dakite ezer... Nai al dezu nere esana egin? Ez bildurtu, ez naiz geiegia izango. Illabetean, egunik uts-egin gabe ordu laurden batez irakurriz: nai dezu ziñestu zuk uste baño lasterrago ta errezago irakurri baietz? Ez al dakizu goizean berandu jeikitzen danari zer eragin bear zaion oitura ori kentzeko? Ez bakarrik esan, oso gauz ederra dala goizago jaikitzea osasuna izateko, bestela orrenbeste ezagutu arren epel-epelean egongo da: baizik jaikiazi egun mordoska batean nagikeria utzirik. Auxe bera ba euzkeraz ere. Lenbizi gere buruari eragin esan dana, ta gero gure ume, etxeko ta adizkidiei berebat eragin. Nai al dezu, au egin ondoren ziara poztuta neri eskerrak egin baietz?²²⁸.

Gauza bera gomendatzen zen idazketari zegokionez. Beldurrik gabe ekin, “uste baño erresagoa da eta berealakoan ikasten dana...”, idazten hastea garrantzizkoa zen, honela euskaldunak indar handiagoz esnatu ahal izateko eta, urte gutxi batzuen buruan, ohitura zabaldu eta euskara jaso ahal izateko. Ahal zen guztietan euskaraz mintzatzearekin batera ezinbestekoa ikusten zen, adibidez, eskutitzak euskaraz idazten hastea: “... Euzkelerriyaren biyotzeko elizpe, pelotaleku, baso, zelai, erreka zulo, bidezabal eta zere atadiko irakarriak euzkeraz izendatu...”. Guzti hau, noski, euskararen alde ziharduten pertsonenganako errespetu osoa bermatuz, hots: “... Euzkera alik eta ongien ikasten jarduten diranak txorotzat aotan erabilli ez ditzatzu: eta Euzkeraren maitaleak maite itzatzu. Obela dagokizu zuri jene irakurlea! Eta onela dagokiye ere, ziñezko euzkeldun guziyai”²²⁹.

Horrenbestez, euskaldun –euskotar– zintzo eta jatorra izateak bere baitan zekarren, jada testuinguru hartan, ez bakarrik euskaraz hitz

egitea baizik eta euskaraz irakurri eta idaztea eta, noski, euskarazko kultura idatziaren alde lan egitea. Laburbilduz, euskara-zaleari eskatzen zitzaiona zera zen, besteak beste: euskal idaztiak erostea, gaztele-razkoak alde batera utzita euskarazko irakurgaiak zekartzaten egunkari eta aldizkariak erostea, euskaraz idaztea lagun eta ahaideen arteko idazki edo kartak, seme-alabei (guraso zirenei) euskara garbinez hitz egitea euskaraz irakurtzen eta idazten erakusteko. Honela eginez bakarrik izan omen zitekeen euskotarra euskaldun jatorra²³⁰.

2.2.4. Autoalfabetakuntzarako informazio lagungarria

Bestalde, egutegi honetan euskarazko irakurketa eta idazketaren ikaskuntzan eta praktikan sakontzeko lagungarri eta erabilgarri suerta zekioken hainbat informazio aurki zezakeen euskaldun eta euskaltzaleak. Nolabait, norberak bideratu behar zuen alfabetatze prozesuari begira euskarri izan zitekeen informazioaz ari gara, euskarazko irakurketa eta idazketaren garapenerako informazio funtzionalaz. Autoalfabetatu nahi zuenarentzako laguntza ematearen funtzioa beteko lukete informazio praktikoa hauek. Berez, egutegia euskaraz idatzita egotea bazen, jada, nahiko euskarri garrantzitsua, irakurketaren praktikarako batez ere. Gainontzean, ezin esan dezakegu irakurketa-idazketaren ikaskuntza eta garapenerako baliabide eta errekurtsu apartekoak eskaintzea zenik egutegi honetan ikusten dugun ahaleginik handiena. Aitzitik, indar handiena herritarren mentalitatean eragin eta hauen kontzientzia astintzean jarri zela esan behar dugu. Halere, garrantzitsua iruditzen zaigu aipatu informazio praktikoa ere kontuan hartzea, ugariak ez izan arren, funtzio interesgarria bete zezaketela uste dugulako. *Euzkel-egutegiya*-k osatzen zuen entziklopediatxo “didaktikoaren” barruan beste osagai oinarrizkoa osatzen zuten eta, neurri horretan, egutegiaren izaera bere osotasunean ulertzeko ezinbestekoak dira.

Mota desberdinetako testuek eskaintzen zuten irakurketa eta idazketarako informazio lagungarria. Alde batetik, irakurketari begira, testu zehatz batzuk irakurtzeko aukera eta gomendioa luzatzen zuten idazkiak ditugu. Arestian aipatu dugun legez, euskara ongi hitz egin, irakurri edo idazteko gakoa jardunean zegoen: “...jardutea, oitutzeta. Oituraren bidez zailtasuna joango zaizute, errestasuna etorri ere bai”; eta zentzu horretan, oso egoki zeritzoten euskarazko idaztiren bat hartu eta egunero zertxobait irakurtzeari. Honela, bada, gomendatzen zen, besteak beste, Iztuetaren edo Lardizabalen idatziren bat irakurtzea

Gipuzkoan; *Peru Abarka* Bizkaian; *Geroko Gero* Iparraldean eta, ahal izan ezker, guztiei guztiak irakurtzea. Libururen bat eskuratzea gomendatzen zen, noski, lehendabizi euskarazko idatziak irakurtzekotan. *Gipuzkoarra*, *Bizkaitarra*, *Euskal-Esnalea*, eta *Euskalduna* egunkari eta aldizkariak izan ziren gomendatuak lehenengo momentuan. Gerora, aukerak zabal-tzearekin batera, zenbait euskarazko aldizkariri buruz –*Euskal-Esnalea*, *Euzko-deya*, *Jesus'en biotzaren deya*, *Jaungoiko zale*, *Irugarren Prantzisko'tarra*, *Euskalerraren alde*, *Euskal-erria*, eta *Euzkadi*– oinarritzko informazioa jarri zen irakurlearen esku, hots, argitalpen lekua, maiztasuna eta ordaina. Ondorioz, "... beraz ez inñundik esan irakurtzekorik ez dagola. Euzkotar guztik lagundu bear giñioke izperringi edo periodiku oiri eta ori egiñaz gure izkuntz ederra egunetik egunera bizkorrago ta gorago agertuko litzake"²³¹.

Euskal-Esnalea elkarteari zein izen bereko aldizkariari buruzko informazioa zen zehaztasun eta maiztasun handiagoz eman zena aztergai dugun epealdian. Beren inguruko propaganda eta azalpenak egiteaz gain, elkarteari babesa eta laguntza ematea eskatu zitzaion, behin baino gehiagotan, irakurleari. Laguntzeko moduetako bat, adibidez, gaztelerazko egutegia erosi beharrean Euskal-Esnalea-rena erosten hastea zen, oso polita, berri-berria, eta eguraldi gaiztorik ez zekarrena, alegia²³². Hala, hasierako erresistentziak gaindituta, "... asieran ba-ziran euzkeldun kaxkar asko Egutegiya emanarren artu nai etzutenak, arrokeriz beterik esanaz: erderaz ere ba-dakigu bai!...", badirudi gero eta euskaldun gehiagok ekin ziola euskaldunen alde zegoena aukeratzeari.

Elkarteari laguntzeko beste modu oso eraginkorra urtean bost pezeta ordainduz, elkarteko bazkide egitea omen zen: "...euzkotar guziyak euzkerari laguntz ori emango balio teke laxter jasoko luke buruba, bai!...". Ordainetan, "amabostean beingo polit-polit bat" jasoko zuen bazkide bakoitzak. Gainera, Euskal-Esnalean sartzeko ez zen lan gehiegirik egin behar, elkarteko buruari, "Arturo Campion – Pamplona", izena ematea nahikoa zen²³³. Eskatzen zitzaion diruak euskarari zer nolako onurak zekarzkion ikustarazten saiatu ziren ere egutegikoak, hamabostekari az gain, elkartean eginiko inbertsioak euskal kulturaren izaniko ondorio emankorren berri emanez: Bilintxen hitz neurtuak bildu eta argitaratu izana, inon aurkitu ezin ziren Iturriagaren *Jolasak* eta Mogelen *Ipui onak* berrargitaratzea, eta Truebaren *Ipuiyak* euskaratu izana, besteak beste²³⁴.

Bestalde, Hegoalderako argitaraturiko aldizkarien berri emateaz gain, mugaz beste aldean hedaturikoena ere eman zen, *Ezkualduna* egunkariari buruzko informazioa, bereziki. Baita irakurtzera gonbidatu ere, "...Zu, Gipuzkoa'ko euzkotarra Lapurdi'ko semea baño euzkoa etzera. Zure euskerak aiñexe balio du Lapurdi'ko euzkerak. Irakurri zazu, ba, noizik bein badere, Bayona'ko 'EZKUALDUNA', zure anayen, berri ikasteko. Mauleon, Sara, Uztaritz, Baigorri, Game, Ligiñaga, Urdiñarbe eta beste euzko-erri askoren izenak agiyan ez dituzu jakingo. Andaluzi ta Balentzi-kuak bai noski..."²³⁵, noizik behingo irakurketa besterik ez bazen ere.

Funtzio bikoitza eman diezaiekegu azpimarratu ditugun informazio horiei eta, beraz, eragileen asmoei: euskarazko idatzien propaganda egitearena, honela euskarazko idatziaren merkatua bultzatuz. Eta, euskaraz irakurtzeko borondatea zuen euskalduna irakurtzeko zituena aukera desberdinez informatu eta janztea, honela euskaldunen autoalfabetakuntzari lagunduz²³⁶.

Beste idatzi batzuk euskaraz idatzi nahi baina nola egin ez zekien euskaldunari laguntza ematera bideratuak zeuden, eredugarriak eta imitagarriak izan zitezkeen euskarazko idatzi zehatzak bere esku jarritz. Adibidez, ateburuetan jartzeko iragarki edo errotulu posible batzuen ereduak:

"Katalin Txintxortaren Jatetxia.

Ondo, garbiro, ugari ta merke jateko ez iñora joan, sartu ementxe."

"Musugorri'ren Ardoetxia.

Ardo ona, txakolin ederra ta sagardo bikaña salgai dauzkat. Egarri zaudeten gixaxuok, atozte, ta nik asetuko zaituztet."

"Epelde'ren Bizargintza ta Illegintza.

Igarri gabe bizarra kendu, illiak moztu ta usaindu, bibotiak kixkur-tu, bizarrak apaindu, kina-igurtziyak egin; itxusiyak edertu."

"Aramendi'ren Arategiya"

"Arana'ren Jostundegi ta oyaldegiya.

Oyaletan emen bezelako aukerarik eztago iñun. Azkeneko erara ebaki ta josten dira etxe ontan gizonezkoen jantziyak"²³⁷.

Era berean, jaunartze eguneko oroigarria, seme-alaben jaiotzaren berri nola eman, edo elizetako zenbait ohar publiko euskaraz idatzita nola jar zitezkeen azaltzen zuten adibide eredugarriak eskaini oi ziren beste egun batzuetan, zenbaitetan inskriizioen bat euskaraz zein helbidetan lor zitezkeen ere adierazten zelarik²³⁸. Finean, euskaldunak bere eguneroko bizitzan euskaraz irakurtzeko edota idazteko topa zitzakeen

informazio-formazio mailako arazoak eta hutsuneak nolabait betetzen laguntzera zetozen idatziak ditugu hauek guztiak.


Oro har, euskaltzaletasunaren heziketa kategoriaren barruan txertatu ditugun idatziek euskararekiko, euskarazko ele, idazketa eta irakurketarekiko motibazioa piztu eta indartzea zuten helburu nagusia. Motibazio hau, halaber, arrazoi instrumentaletan baino, arrazoi ideologikoetan zegoen oinarrituta gehienbat. Euskal Herriari eta euskaldunari berez zegokion hizkuntza euskara zela onartzetik abiatuz, honek bizi zuen zokoratze sozial, kultural eta politikoa salatu eta desagertzeko zuen arrisku larria agerian jarri nahiak eragin zuen aztertu ditugun idatzi hauek argitaratzea, hauen bitartez irakurlea, hots, herritar euskalduna batik bat, bere hizkuntzaren egoeraz jabe zedin eta bere hizkuntzarenaganako, euskararenaganako, ardura eta konpromezua har zezan. Honela, batetik, herritarrengan kontzientzia linguistikoa gartzeari eta, bestetik, euskaldunengan hikuntz komunitate bereizi bate-tako kide zirenaren sentimendua indartzeari lagunduko zitzaion, kontzientzia linguistikoa sendotzeak eta hiztunak hizkuntz komunitatearekiko zuen lotura estutzen zuen konpromisoa indartu eta bideratzeak hizkuntz identitatearen eraikuntzan eragingo zuelarik, bai euskaldun norbanakoarengan bai hiztun taldean. Noski, euskalduna partaide zeneko komunitate bereziaz egutegian ematen zen definizioak beregan hartzen zituen, hizkuntzarenarekin batera, kultura, politika eta moral mailako beste ezaugarri oinarritzko batzuk, segidan ikusiko dugunez.

2.3. Euskotartasunaren heziketa

Euskotartasunaren heziketa izenburupean bildu ditugun testuetan atzeman dugun ezaugarri nabarmenena zera izan da: zuten kutsu ideologiko-politiko. Egutegiko orrialdeetan ikusi ditugu “euzkel” izatera, bere osotasunean hartuta, islatzen zuten testuak, espreski herritarrengan euskaltzaletasuna indartzean oinarritzen zirenak. Bestalde, ezin ahantz genitzake “euzkel” izateak, bere baitan, definizio linguistikoa-rekin, kulturalarekin eta erlijioso-moralarekin²³⁹ zituen erlazio estuak. Baina, horiekin batera, eta horien artean ere, azpimarratu behar ditugu, zehazki, ezaugarri linguistikoetan baino gehiago ezaugarri ideologiko-politikoetan indarra jarri zuten beste idatzi batzuk. Horietan, “euzkeldun” izatea, batik bat, “euzkotar” kontzeptuak definitua ageri zen, eta “euzkotarra”, aldi berean, abertzaletasunaren muga barruan kokatzen

ziren ezaugarri ideologiko-politikoetan oinarritzen zen izateko modua zen. Zenbait kasutan (ez askotan), halaber, egiten zen propaganda politiko eta partidista ikusita, euskotar izaeraren ezaugarriak abertzale-tasunaren muga zabaletan baino euzko alderdi jeltzalearen ideologia politikoaren mugetan kokatzen zirela esan beharko genuke²⁴⁰.


Oro har, beraz, mezu ideologiko-politiko euskotarra –abertzalea–, zabaltzen zuen heinean, bereziki herritarraren “euskotar” izaera aldarrikatu eta indartzeko asmoa –“euskotartasuna” herritarrarengan indartzeko asmoa, alegia, igartzen zaio nabarmen egutegiari. Zentzu horretan, mezuek herritarraren ideologia politikoan eragitera jotzen zuten neurrian, maiztasun batez egutegian hauek jasotzeak irakurlearen mentalitatean nolabaiteko eragina sor zezakenez zalantzarik ez dugu. Are gehiago, norbanakoaren identitate ideologiko-politiko eraiki eta sendotzen lagun zezakeen neurrian, eragina hezgarria litza-teke. Ondorio hezgarri horri erreferentzia eginez, hain zuzen, hitz egi-ten dugu guk irakurlearen –herritarraren–, euskotartasunaren hezike-taz. Irakurlearen euskotartasunean eragiteko xede, interes eta asmoa-ekin argitaraturiko idatzien azterketatik atera ditugun emaitzak dira ondoren azaldu nahi ditugunak.



Euskotartasunaren heziketa *Euzkel-Egutegiya*-n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaiei arabera

Iturria: Euskal-Esnalea'ren Egundiya 1909, eta Euzkel-Egutegiya 1910-1918

Gainontzeko gai multzo eta ataletan gertatu legez, urtez urteko agerraldia ez zen batere erregularra izan mezu abertzalearen kasuan ere. Egunetan zenbaturiko agerpen maiztasun handiena zenbatu duguneko urteak 1911 (30 egunez²⁴¹), 1912 (28 egunez²⁴²) eta 1914 (26 egunez²⁴³) urteak izan dira. Urte horietan zenbaturiko agerpen egunen arabera, esan dezakegu, gisa honetako idatziren bat irakurtzeko aukera izango genukeela, gutxienez, hilean bi egunez, idatzien batez besteko banaketa berdina egingo bagenu, noski. Hamabostean behin, beste modu batean irakurrita, izango zukeen irakurleak, beraz, mezu abertzale edo aberkoiren bat zeraman idatzirik irakurtzeko aukera. Beste hiru urteetan ere –1917 (22 egunez²⁴⁴), 1913 (19 egunez²⁴⁵), 1916 (19 egunez²⁴⁶)–, nahiko esaguratsua izan zen, kuantitatiboki bederen, idatzi hauen presentzia, hilean batez beste ia bi egunez aurkitu zitezkeelarik (hipotetikoki). Gainontzeko urteetan –1909 (14 egunez²⁴⁷), 1918 (11 egunez²⁴⁸), 1915 (7 egunez²⁴⁹), 1910 (4 egunez²⁵⁰)–, egun dezente gutxiagoz zenbatu dugu kutsu ideologiko-politikoko testuen presentzia.



Euzkel-Egutegiya 1911, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaian arabera

Iturria: Euzkel-Egutegiya 1911

Urteko egun kopuru osoa kontuan hartuta, 1911. urtea agertu zaigu mezu euskotarra portzentaia handienez zabaldu zen urtea legez, hizkuntza formazioarekin eta euskaltzaletasunarekin zerikusia zuten edukietan ere portzentaia handienak atzeman ditugun urte berdinean, hain zuzen. Urte horretan, halaber, gerturatu zen gehien egutegi bizkaitarren eredura *Euzkel-Egutegiya*, besteak beste, bi euskalkietan idatzita argitaratua izan zelarik.

Horietako hainbat idatziren eginbehar nagusia euskal sena zertan zen aditzera ematea zela esango genuke. Nolabait euskaldunaren “jatortasuna” zertan zetzan esatera zetozen. Eta, oro har, azpimarratu nahi genuke, euskotarrei zegokien tasun berezia galtzeko arriskuan ikusten ziren jokabide batzuen bitartez definitzen zela batez ere. Euskaldunaren izate jatorraren, “euskotartasuna”ren, definizioa aurkariaren identifikaziotik abiatzen zen eta bere aurka eraikitzen ziren berezko sena omen zenaren ezaugarri propioak²⁵¹. Ildo horretatik, gainbehera zetorren egoera garaikidearen kritika egiten zen eta, aldi berean, antzinako urte ederretara bihurtu nahia gero eta indar handiagoa hartzen ari zen joera zen, iraganeko nazio, herri, komunitate eta biztanleen izaera eta irudi mitikoa berreskuratu nahi zelarik, neurri haundi batean eredu gisa hartuz.

Ikuspegi tradizionalistaren haritik, beraz, euskaldunaren “jatortasuna” jokabide egokian eta ohitura ederretan oinarritzen zen. Ohitura eder eta garbi horiek, bestalde, tradizioan eta moral kristauan oinarritzen ziren. Iraganek eskaintzen zuen –tradizioan eta moral kristaun–, ez bakarrik norbanakoarentzat egokiena zen jokabide eredu, baita gizarte eta herri mailan gara zitekeen naziotasunaren ideiarako eredurik sendoena ere, hots, Lege Zaharretatik eratorritakoa. Bestalde, behin baino gehiagotan adierazi zen legez, Lege Zaharrak ez ziren berreskuratu ahal izango euskotar onak izanda baino. Eta, zer zen, bada, euskotar ona izatea? Ze ezberdintasun zegoen euskaldun eta euskotar artean? Nola bereizten ziren euskotar onak eta txarrak? Zer zen abertzale izatea? Hona hemen oinarri-oinarrizko galderak, garaiko euskaldun askok egingo zituenak seguruen eta, egin ez bazituen ere, behin baino gehiagotan egutegiak irakurlari planteazaziko zizkionak. Baita, erantzunak argi baino argiago eman ere bere orritxoetan.

Aintzat hartu ditugun idatzien artean, aberriari zuzentzen zitzaizkion bertso eta kanta sortaxoa aipatu nahi dugu, lehenik eta behin. Bertso eta kanta batzuk aberriarekiko maitasuna adierazi nahi zuten, berari gorazarre egin eta, neurri handi batean, berau erreibindikatu.

Beste bertso batzuek euskaldunen batasuna aldarrikatzera jotzen zuten nagusiki; beste batzuek, halaber, asaben legeekiko begirunea azpimarratzera. Oro har, bertsoaren bitartez, batez ere, herritarraren sentimenduak ziren ukitu nahi zirenak. Norbanakoak bere herriarekin zituen lotura afektiboak indartu nahi ziren,aldi berean, ordea, galbahe ideologiko zehatzetik –abertzaletasunetik–, berreziak izan ziren lotura afektiboak.

Bertsoetara eta kantetara jotzea, kasu honetan herritarrengan euskotartasunaren sentimendua eta ideia indartzeko asmoz, egutegian maiz erabili zen errekurtsua izan zen, nahiz eta berauen presentzia ez oso homogeneoa izan. Horrela, urte batzuk izan ziren, 1914 eta 1916 urteak, bertso eta kanten agerpena bereziki nabarmena izan zutena. Agerpen egunak zenbatzerakoan 1914. urtean, adibidez, formazio ideologiko-politikoarekin zerikusia zuten idatziak 26 egunez atzeman bagenituen, hauetako 21 egunetan (%80an)²⁵², ia gehienak beraz, bertso moduan jarritako mezuak ziren. Gauza bera gertatu zen 1916. urtean argitaraturikoekin, zenbaturiko 19 egunetatik 15etan (%78an)²⁵³ bertso edo kanten bidez adierazitako mezuak baitziren. Gainontzeko urteetan, mezu euskotar eta aberkoia izaera bereko idatziaren artean, gutxi gorabehera %20-60 bitarteko portzentaian²⁵⁴ eman zen aditzera bertso moduan.

Bertso moduan jarritako idatziez gain, aurreko atalean ere adierazi legez, adierazpen zuzen eta motzen, iritzi testu luzean eta egoera desberdinen azalpenen bitartez ere zabaldu zen mezu euskotarra.

Horrela, testu horietan zehar nabarmen azpimarraturik ikusi dugun ideietako bat, zera izan zen: euskaldunek beren burujabetasuna galdu eta Espainiarekiko menpekotasuna areagotu zutenez geroztik euskara galtzen hasia zen eta, aldi berean, gaztelera bereganatzearekin batera, euskaldunen gainbehera kulturala eta morala bidean zen, herritarra eta herria galbidean murgilduz erabat. Irmo heldu zitzaion ikuspegi hori zabaltzeari. Gainbeheraren zeinurik nabarmenena, hain zuzen, euskaldunei ei zegozkien ohitura onak eta Jainkoarenganako sinismena galtzea zen, ondorengo idatziak ongi erakusten digunez:

Euskera baztertzen ari dan bezela sinismena galtzen dijua Euskalerrietan.

Erri oyetan ez da aditzen euskal soñu alai ta biguñik; ez da ikusten antziñako dantza garbi ta ederrik.

Zortzikuaren orde z *malageñak* eta *tanguak* besterik ez dira nabaitzen.

Aurreskuba iya eskutatu da, ta bere ordañetan *valtzeo* zikin ta nazkagarriya ikusten da erromeri ta jayetan.

Loikeriya, itz gaiztuak ta uskeriya besterik ez dago.

¡Errukarriya dator Euskalerriyaren izaera erdalkeriyari utzita euskeraren alde egiten ez badu!²⁵⁵.

Ez da goikoa aipatu arazoaren inguruan egutegian argitara ematen zen idatzi bakarra. Antzeko mezua zeraman testu bat baino gehiagorekin egin ahal izan zuen topo irakurleak urte guztietan zehar, zela iritzi testu luze eta erakusgarrien bitartez, zela mezu motz, zuzen eta zorrotzen bitartez, zela bertso hunkigarrien bitartez. Idatzi horietan guztietan, iragana Euskadiren bizitza paketsu, pozgarri eta gizata-sunezkoaren erakusgarri bezala ikusten zen, hots:

Len, euzkerea garbi-ederra egiten zan Euzkadi'ko bazterr guztijetan. *Len*, euzko-erria bere burubaren jaube bakarra zan. *Len*, euzko odola etzan arrotz-odolaz nazten, guda-zelajan baño. *Len*, igande ta jai egunak zindo-zindore zaintzen ziran Euzkadi guztijan, biarr eztan lanaz loitu barik. *Len*, euzkotarr-aboetan etzan bidaurik entzuten, baña gizonak gizonagoak ziran oraingoak baño. *Len*, etziran euzko-gaztiak nazte-dantzetan ibilten, orainguak lez: baña gudari zinduak sortzen ziran Aberrija aldezteko²⁵⁶.

Oraina ekandu onen galtzea eta nahasmen eta zikinkerriaren garaia gisa azaltzen zen, bertan joera makurrak egokiak baino ugariagoak baitziren. Oraina “zikintzen” ari omen zen. Zikintze hitzak zuen konnotazio moralari erreferentzia egiten zitzaiolarik batez ere, “zikintze”aren ideia esparru edo maila desberdinei aplikatzen zitzaiera esan behar dugu: hizkuntzari zegokionez, arestian ikusi dugu, egiten zen kritikarik sutsuenetakoa bide horretatik zihoan, gaztelerarekiko zaletasunak ondorioz baitzekarren euskararen narrastea, trakeste, biraoz betetzea, hitz batean esanda, hizkuntza zikintzea.

Zikintze prozesua bizi zuen beste alorra, eta horregatik salatzekoa zena, euskaldunen odolarena zen. Goiko aipuan agerian jarri denez, “... *len*, euzko odola etzan arrotz-odolaz nazten, guda-zelajan baño...”, gaur aldiz, salatzen zuten, erdal jendearekin nahastu eta ezkontzen dira eta, ondorioz, euskaldunen abenda “euzko-enda garrbi eta sendua”²⁵⁷ galtzeko arriskuan dago. Baina, batez ere, maizen jaurtiki ziren zikinkeria salaketa sutsuenak euskaldunen ohiturei eta bihotzei zegozkienak ziren, izate eta ekite moralari zegozkionak, alegia. Zikinkeriak zekarzkeen kalteen artean kaltegarriena euskaldunen moralean eragiten zuena zela ikusten zen. Jainkoarenganako sinismena galtzen ari zen

neurrian euskaldunen jokabide morala zikintzen ari zela zekusatzen. Hor zegoen, hain zuzen, “jzoricharrekua bularra zartadatuaz zerurontz begiratzen ez duan Euskalduna!”²⁵⁸, euskaldunaren-euskotarraren eta euskadiren, finean, euskal sena eta izatearen deuseztapena.

Bestalde, nola aurre egin zikinkeriaren arerioari? Ahal bazen gehiago ez zikintzen saiatuz eta, ahal zen neurrian ere, garbituz. Garbitu hizkuntza, erdalkeriak eta lizunkeriak beretik ezabatuz. Garbitu odola, “Euzkotarra! gure abenda ederra galdu eta zatituezkero Euzkadi austuko da eta euzkotarren izenak gizonen oroimenetik iges-egingo du! Euzkotarra, euzkotarrekin ezkondu, ba, ez erbestetarrakin”²⁵⁹. Euskotarrak euskotarren artean ezkontzea zen, bada, gomendio nagusia. Testuinguru horretan, egutegiko testuetan zehar jaurti ziren kritiken artean migrazio mugimenduari, eta bere ondorioei, eginikoak behin edo behin tartekatu ziren ere. Alde batetik, euskotarrek erdal herrietara joateko zuten gero eta zaletasun nabarmenagoa salatzen zen (batzuentzat nahi baino nabariagoa zena nonbait), alde egiteak zekartzan kalte nabarmenak ikusita bertan gera zitezen erregutzen zitzaielarik. Ikus adibide bat:

...Euzkotarra ba-zera
Ene irakurrlia
Ez inoiz arren juan
Erdel-erritara
Gazi-kiratsa baita
Errdeldun-oitura
Ona kalte guziya
Ekarri diguna,
Ez oldoztu ederra
Ta gozua dala:
Gazi-samiña da-ta
Errdeldun erriya²⁶⁰.

Euskaldun semeak atzerrira joatea desegokitzat jotzen zen hein berean kritikatu zen kanpotik etorritako inmigrazioa. Hala, erbestearren etorrerak zekartzan kalteez oharterazi nahi zitzaion irakurleari, hala nola: odol nahasketa, eta ondorioz eusko-endaren zikintze eta galtzea²⁶¹, euskotarrei zegozkien ondasunen jabe kanpotarrak egi-tea²⁶², euskal ohituren pozointzea, etab:

(...) Arrezkeroztik etsai argala
jabetu oi da euzko-ekandubaz
maltzurru, legun, oro galdubaz²⁶³.

Garbitu bihotza eta ohiturak. Hau da aplikatzen zen formula, garbiketa eta garbizaletasunarena alegia. Horretarako, batetik, galdutako jokamoldeak berreskuratu beharra zegoen eta, bestetik, praktika eta jokabide berriak bultzatu behar ziren galbide eta desagerpen arriskutik ihes egin ahala izateko. Luzatu ziren dei eta proposamen guztiek aipatu bide hautetatik jo zuten. Horra adibidea ondorengo idatzian:

Euskalerriyari ongi nai badiozu bere oitura zarrak gordetzen egin zazu alegin guztiya; bere jolas, jai eta batez ere bere dantza garbiyak ez ditezela aztu euskaldunen artian. (...) Askoi, oyek gauzak chikik dirala iruditzen zaye; alakuai ezan nai diotet, oitura onak galdu ezkeru azkar galduko dala gure jatorri edo abenda eta baita gure euskera²⁶⁴.

Ohitura onak, hots, zaharrak, berreskuratzeko langintzan euskal dantzek leku pribilegiatua izan zuten. Berauek berreskuratu eta mantentzearen aldeko idatziak maiz ikus ditzakegu egutegi honetan, lehenengo egunetatik jada, askok behar bezala egiten ez ei zekien aurrekua nola dantzatu behar zen azalpenak emanez²⁶⁵, edo euskaldunak euskal dantzak, oro har, dantzatu behar zituenaren ideia bultzatuz:

... Egiz
kantatu genezake
euskaldunak gerala
dantzik onenen jabe:
jolas eder au
len ala zan, ta gaur
jolas guziyen gañ jarri bear litzake.
Zertako bals-polkak
Gazte meditarren artian?
Erdaldetik datoz
Oitura garbiyen kaltian.
¡Ez, ez,
emen ez dira jayo!
¡Euzkeldunak euzkel-dantzak ditu nayago!²⁶⁶.

Dena den, badirudi, irakurtzeko eskaintzen ziren testuetako mezuen arabera, garaiko euskaldunak galbidean sartzera eraman zituen arrazoietako bat, zera zela "... *len* Euzkadi'k beran buruba ezaban ezagutzen, eta origaitik etorri izan da egoera negarrgarritzokoraño...", beren herria, aberria, ez "ezagutzea". "Ezagutzea" ari zirenean, halaber,

ezagutza mota batetaz ari zirela esan behar dugu, errealitate baten berrezagutzaz eta jabekuntzaz, “aberriaren” kontzientziaz alegia, euskaldun eta euskotarrarengan hori baitzen faltan botatzen zutena, hain zuzen, aberriaren kontzientzia politikoa edukitzea. Izan ere, euskotarrei eta euskadiri irtenbidea eta itxaropena hortik zetorkien, noski, bere burua ezagutzetik: “... *orain*, oztera, buruba ezagutzen asi da Euzkadi, ta ezaguerian-ondoren osasuna ete-datorrkio?...”²⁶⁷.

Irakurleari bere herria berrezagutzen lagundu nahi zitzaion atal honen inguruan bildu ditugun idatzi gehienetan, bere formazio politiko eta ideologikoan indarra jarriz, euskaldunari aberriaz kontzientzia har zezan bultzatuz, eta euskotarrari abertzaletasuna sendotzen lagunduz. Ildo horretatik, bada, idatzi ugari, bertsoz zein hitz lauz, aberriari luzaturiko kantak ziren, bere aldeko maitasuna, begirune eta fidelitasuna aldarrikatzera zuzendurikoak alegia. Horra lehenengo urteko adibide bat:

Eder-ederra zara,
Neure Aberrija;
Ta edertasun ori
Geuretzat egin da.

Ezaindu gura ba-zau
Erbesteren batek,
Jaso Goiko Iturrirantz
Zeure begi orrek²⁶⁸.

Aztertu dugun azken urteraino “entzun” zitzakeen irakurleak aberriaren alde altxatzera deitzen zuten kantak. Hona beste adibide bat:

Txori xoxo ta birigarruak
goizetan daude alayak,
loras ederki apaindurikan
mendi, baso ta zelayak;
negu beltza ere itzuli eta
argi ta garbi odehyak,
kukua zintzo ekarri digu
betiko bere garayak;
Ama Euzkadi ojuka dago
Esnatu gaitzan anayak. (...) ²⁶⁹.

Bitarte horretan, urtez urte argitaraturiko bertso eta kanta gehienetan ikus daitezkeen izenburuek, baita zenbait egileren jarrera ideologiko argiek ere, garbi adierazten zuten bilatzen zen helburua: “Aberri

Ederra” (Sabin Arana-Goiri), “Agur Euskal-Erriyari (Iparragirre)”, “Euskal-Erria” (Emeterio Arrese)²⁷⁰; “Udaberriya” (Beratar E.M. Aba)²⁷¹; “Zazpigarrena: ez ebatsi” (B.E.M.A.)²⁷²; “Euzkalduna” (E. Arrese), “Lenago il” (E.G.S.), “Piztuko balirake...”; “Itxarkundia”, “¡Aupa euzkaldunak!”, “Mendiko negarra” (A.G.), “Gu ta gutarrak ¡Gora Euzkotarrak!” (Pedro Mari Otaño), “Ene aberriya” (A.G.)²⁷³; “¡Gora!” (E’tar E.), “Baso-gizonen kantua” (E. Arrese), “Argiya” (E’tar E.)²⁷⁴; “Euzkelerría”, “Txanton Piperri-operaren azkena” (T. Alzaga), “Ederra zara” (Sabin Arana-Goiri), “Gu ta gutarrak” (Otaño), “Abestiya”²⁷⁵; “Euzkalerríya” (T.A.), “Ama Euzkadí’ri” (K.)²⁷⁶; “Euskalerria” (Emeterio Arrese)²⁷⁷; “Euzkeldunak gera”, “Zortzikoá”²⁷⁸; “Abertzale baten negarra” (A.G.S.), “Ama euzkadí’ri” (Etxe-txulo), “¡Ene Ama!” (Sabin Arana Goiri), “Didar bat aditu da”²⁷⁹.

Batzuek Euskal Herriarekiko maitasunean eragiten zuten, semeak amari zor zion maitasunaren parekoa izango zen maitasunean, bere ezaugarri on eta bikaintasun guztiak agerian jarritz. Beste idatzi batzuetan, halaber, indar gehiago jartzen zen euskaldunengan aberriarekiko kontzientzia abertzalea esnatze lanetan, euskotarrei aberriaren alde altxa zitezen dei ozena luzatuz. Halaber, norbanakoari eskatzen zitzaion aberriarekiko konpromisoa emankorra izan zedin –euskara eta Euskal Herria heriotzetik libratzeko–, ezinbestekotzat jotzen zen elkarren artera biltzea, hots, “Euzkaldun guziyok bat” egitea, “Anai maitteak (...) Katolikua geran aldetik, Jaungoikua maitatuaz: euzkeldunak geran aldetik gure zorioneko Lege-zarrak gordez; itz batian anai guztiyok bat egiñaz”²⁸⁰.

Denok bat ikuspegiari jarraituz, adibidez, bizpahirutan izan ziren argitaratuak Gernikako arbolari Arrese eta Beitiak egin zizkion bertsoak, fedea eta asaba zaharren inguruan euskaldunak biltzearen beharra aldarrikatzen zuen ideia indartzeko²⁸¹. Batasunerako deia espreski horretara zuzenduriko bertso zein hitz lauz eginiko idatzien bitartez luzatu zen. Gainera, batasunaren ideia beste eduki ideologiko orokorragoen baitan ere zabaldu zen.

Bertsoen bitartez zabaldu zen aberriaren aldeko deia indartua ageri zen hitz lauz idatzitako testuetan eta, ondorioz, aberriarekiko eskatzen zen konpromisoa erabatekoa egiten zen:

Gure Aberriyan, ezagutu degu, bere lege ta edestiyaren bidez: asmo sendua artu degu Aberriya aldezteko bere etzai oroen aurrean.

Begiyok jaso ditugu Goiko Jaunarantz, Euzkadiren Jaun bakarra danerantz, ta zin esan degu lan egingo degula gure indar makalakin

Aberriya piztutzeko ta bizi-erazteko, aurrean jarriko zaizkigun jarki guziyen ardurarik gabe, zaletasun guziyak, otasunak, sendi aizkide-tasunak eta bizitza bera ere galdurik, galdu bear badira²⁸².

Gauza guztien gainetik, baita bizitzaren gainetik ere, euskotarrari eta euskaldunari zegokien aberriaren alde lan egitea, izan ere...

Euzkadi da neretzat
amarik onena
gaur arte besoetan
ekarri nauena:
Berari nik zor diot
Euzkalduntasuna
Ta ori baño obe dan
Euzkotartasuna²⁸³.

Aberriarekiko nolabaiteko kontzientzia edukitzea, printzipioz, Euskal Herriko biztanle orori eskatzen zitzaion. Baina, aberriarekiko benetako kontzientzia eta konpromiso ideologiko-politikoa edukitzea, inondik inora saihestezina zena, euskaldunari, eta neurri handiagoan –erabatekoan–, euskotarrari zegokion.

Horrenbestez, kontzientzia abertzalea sendotzeari begira hartu zen lehenengo lanetako bat euskaldunaren eta euskotarraren arteko bereizketa azpimarratzearena izan zen. Hona hemen ikasgaietako bat:

- Lengoan azaldu zidazun, Polentzi, Euzko-Abendakoen izena euzkotarra dala. Izen berezi-egokia deritzat, egoki-berezirik ba-da. Enuen ordea ongi ulertu zergatik ez-dagokien *euskaldun-izena euzkotarrarena* bezik egoki.
- Gauzak apurka, Soter. Ta lenengoz: *euskalduna* baño *euzkelduna* esan bear dezu. *Euzkelduna* da euzko-ele-duna, euzkotarren ele edo izkuntza itz-egiten duana. Ta aunegatik eztira euzkotar guziak euzkeldunak, ezta euzkeldun guziak euzkotarrak ere. Euzkel-abizen edo apelliduak dituan edonor, ori bai euzkotarra da, Eukera-pitiñik ere jakin ez-arren, bere zañetan Euzko-Abendaren odol garbia daramata; karabiñeruen semeak oster, ijitoen antzera, ezin litezke *euzkotarrak* izan, Euzkera garbi ederra dariotela ba-diardute ere; *euzkeldunak* izango dira baña besterik ez. Artu, ba, ongi gogoan, Soter: Euzkotarra, gure odolduna; Euzkelduna; Euzkeraz dakiana²⁸⁴.

Gisa honetako ikasgaien bitartez, erakutsi nahi zitzaion irakurleari zeintzuk ziren “Euzkadi” kontzeptua definitzen zuten oinarritzko elementuak: lurraldetasuna, arraza, hizkuntza, kultura eta erlijioa.

Behin, hizkuntzak eta arrazak ezartzen zituzten mugen arteko bereizketa argitu ondoren, halaber, euskotarren artean bereiztu beharra zegoen euskotar onak zirenen eta euskotar txarrak zirenen artean eta, ondorioz, euskotartasunari atxikiriko funtsezko ezaugarriez jabetu. Urteetan zehar, ongi azpimarratzen saiatu ziren zein zen euskotar zintzoari zegokion jokabide egokia. Has gaitezen, bada, euskotar onak ez zirenei egiten zitzaizkien kritiketatik benetako euskotarrari zegokion jokabide zintzoaren ardatzak zeintzuk ziren jakiteko. Batez ere, usko-abendaren odola zeraman euskotar askori leporatzen zitzaiona zen lege zaharren aldeko deia egin bai, baina euskaldunen jatorri, hizkuntza eta ohitura ederren alde ezer egin nahi ez izatea²⁸⁵. Halaber, kanpoko politiketan murgildurik ibili, atzerritarren lagun egin eta beraien alde borrokatu bai, baina Euskal Herriaz eta honi zegozkion arazoez ardurarik ez izatea²⁸⁶. Irakurleak nahiko garden, eta bortitz aldi berean, adierazia ikus zezakeen, adibidez, zer zen euskotar txarra izatea ondorengo mezu motzean laburbilduta: “Zar ta biartsuba ikusirik amari alde egiten diyon semia nazkagarri bat da. Euzkotar nazkagarriya, Aberriyaren nekiak ikusirik alde egiten diyona”²⁸⁷.

Bereziki, euskotarra euskotar txarra zen baldin eta beste aberri bat maitatzen bazuen, arerioarekin bizi eta bere alde egiten bazuen. Baina, baita ere, beste alderdi politikoen (kontserbatzaile, liberalen, etab) alde egingez, alderdi jeltzalearen aurka eta gorrotoz aritzen bazen:

Jakin eta gero bere aberrija Euzkadi dala, euzko-semiak beste aberri bat mateago ba-dau beria baño, Euzkadin bera bixi ixanagatik, ezta euzkotarr ona.

* * *

Jakin eta gero Euzko-alderdi utsaren arerijo bixijak dirala, alderdi edo *partidu* arrotzale guztijak, danak eta bakotxa, batzuek Jel'en arerijo osuak (baltz ixenekuak), besteak Lagi-zarr aldekuak (zuri ixenekuak), da alan-be euren alde zsenperrenak eta ejuak egiten dabezan euzkotarra, apurtu nairik Euzkadi maite dauan alderdija, ezta euzkotarr ona ez gitxiago be, deungia baida.

* * *

Jakin eta gero arerijuari lagundutia abenda, ele, oitura, eskubide ta edesti euzkuari, erijotza emoten lagundutia dala, erraz da guzti-be, arerijo artian bixi ba-da lan sendo egiten euzko-etsaiantzat, euzkotarr oso baztua da²⁸⁸.

Horrenbestez, egin behar ez zenaren azalpenetatik ongi baino hobeto adierazita agertzen zitzaion irakurleari zertan zetzan euskotar

ona eta zintzoa izatea: aberria maitatzea zen euskotar onak zuen egin-beharreko nagusia. Aberria maitatu eta aberriaren alde egin, inoren beldurrik izan gabe eta inolako lotsarik sentitu gabe. Funtsean, euskotar ona izatea abertzalea izatea zen. Eta, ildo horretatik joanez, euskotarrari, berriketak alde batera utzi eta, abertzaletasunari heltzeko deia maiz luzatu zitzaion, kontakizun historiko ugariren amaieran ondorio gisa edota zuzenean misiba motz eta zorrotzen bitartez²⁸⁹. Ildo beretik, abertzaletasunaren laguntza behar-beharrezkoa ikusten zen, hain justu, euskaraz hitz egiteak askotan zekarren nekea arintzeko.

Aberria maitatzeak, bestalde, zera esan nahi zuen: "... *Jaungoikua* maitatu bear dezu, katoliko ona izanaz, eta *Lege-zarra*, maitatzen badi-tuzu gure *oitura onak, abenda ta euzkera*, gure izkuntz ederra". Zehazki, aberria maitatzeak, abertzalea izateak, jaioterria, gurasoen hizkera eta ohitura onak maitatu eta defendatzea esan nahi zuen. Gauza guztien gainetik, ordea, abertzaletasunaren barruan banaezina ageri zen binominoa azpimarratzen zen: Jaungoikoa eta aberriak osatutako binomioa. Sabino Arana Goirik zabaldu eta defendatu zuen ideia "Gu Euzkadirentzat, eta Euzkadi Jaun-Goikuarentzat" gogoan eta bihotzean eraman beharra zeukan beti euskotar abertzaleak²⁹⁰. Ikuspegi horretatik, Jaungoikoa maitatu gabe ezin zen aberria maitatu, eta aberria maitatu gabe ere ezin maita zitekeen benetan Jaungoikoa. Jaungoikoa-aberria formula banaezina esplikatzeko egun desberdinetan zehar argitara eman ziren ikasgai moduko zenbait testu motz. Horra horietako batzuk:

Gauz guztiyen egille, Jainkuaren ondoren, Aberriya maite izan bihar degu. Beste gauz guztiyak baño geyago maite izan bihar degu. Jainkuak berak olaxen aginduba dauka.

Oraindik ere geyago esango degu: ezin diteke Jainkua maitatu, Aberriya maitatu gabe.

Aberriya maitatu gabe, Jainkua maitatu nai duena, gezurti ta egiyaren etsai da; guztiyak dakiten gauza jakitia bai-da urko laguna maitatu gabe Jainkua ezin maitatu ditekela. Bañan nun dira urko lagun bertagokorik gure odoleko, gure abendako, gure euzko-erriko anayak baño?

Beraz gure aberriyaren kaltez datorren guziya gorrotatu egin biar degu.

Gure abenda, gure euzko-erriya, Euzkadi, ori da gure Aberriya. Ezta gure Aberriya gu, euzkotarrok, bizi geran mendi ta ibarrak; bañan

mendi ta ibar oyetan bizi dan abenda, euzko-erriya, ori da gure Aberriya.

Gure Jainkua maitatu nai badegu, gure Aberriya ere maite izan biar degu.

Egiz Aberriya maite duena, bere aldez alegintzen da, ludi ontan beste saririk artzia uste izan gabe.

Aberriyaren aldez lan egiñaz, Jainkuaren aldez lan egiten da. Ezin diteke Jainkoagabeko Aberririk²⁹¹.

Euskotar abertzaleak ezin zitzakeen, beraz, bereiztu Jaungoikoa eta Aberria. Biak zinez maitatzera beharturik zegoen, Jaungoikoa eta Lege Zaharra baitziren euskotarrari zorionik handienetakoa emango ziotenak. Agindua hor zegoen: Jainkoaren ondoren Aberria maitatu behar zuen, eta euskaldun eta euskotarren Aberria Euskadi zen.

Testuinguru ideologiko horretan, oso garrantzitsutzat jotzen zen aberria zein zen ezagutzea, Euzkadi ongi ezagutzea, baldin eta harekiko maitasuna areagotu nahi bazen. Helburu horrekin, euskotarra eta euskalduna bere aberriaren ezagutzan janzteko helburu eta asmoarekin argitara eman izan zela, esan genezake, egutegi honetako hainbat idatzi. Hauen artean, testu batzuek irakurlea denbora historiko zehatzean kokatzen laguntzen zuten, irakurlearentzat erreferentzia historikopolitiko oinarritzkoa izan zedin urtero ia gogorarazten zelarik une zehatz bat: Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian 1876ko Uztailaren 21ean gobernu espainiarrak ezarri zuen gudari-legeaz ari gara. Urte hartatik abiatuta egiten zen urte zenbaketa, honela: “Gaur ogeita hemeretzi urte, gobernu espainiarrak ezarri zuan Araba, Gipuzkoa ta Bizkaya’n gudari-legia”²⁹². Foruen galtzea ekarri zuen gudari legearen ezarpenak markatu behar zuen euskotarrantzat garai berri baten hasiera, non eskumenak galtzen ziren baina, aldi berean, kontzientzia berriari, aberri kontzientziari alegia, hasiera emango zitzaion. Erreferentzia gisa hartua izan zedin gogorazi nahi zen beste elementua Sabino Arana Goiriren irudia zen, eta ondorioz ere JEL alderdiarena. Tarteka-marteka topa zitezkeen alderdiaren sortzailearen izaerari eta pentsamoldeari goratzarrare egiten zioten testuak²⁹³, edota bere pertsonari –eusko askatzailea zenari–, luzaturiko ohorezko kantak²⁹⁴.

Irakurlearen formazio ideologiko-abertzalea osatzera zetorzkeen beste hainbat idatzi, edo eduki ere azpinarratzekoa da. Kultur gaitzat jo badaitezke ere, duten ezaugarri aberkoiagatik funtzio berezi honen barruan kontsideratu ditugu. Horrela ikusi dugu, adibidez, Euskal

Herria osatzen zuten herrialdeen inguruko azalpenak ematen zirenean²⁹⁵; Iruñean euskal Lege Zaharrei jasotako oroigarrian zeuden testuak argitan jarri nahi zirenean²⁹⁶; Euskaldunek izan zituzten gudak eta garaipenak azaltzera jotzen zenean²⁹⁷; Arrotzen agintzak gezurrak zirela ikustaraztera jotzen zutenean²⁹⁸; Donostiako Museo Etnografikoaren irekieraren berri ematen zenean²⁹⁹; edota jeltzaleek argitaraturiko *Euzkadi* egunkariari bertsoak jarri zitzaizkionean³⁰⁰, etab. Idatzi horiek guztiek, eduki desberdinak landu arren, bat egiten zuten oinarritzko ezaugarri batean: guztiek jotzen zuten pentsakera eta ekintza abertzalearen sendotzera, zela Jainkoa eta Lege Zaharrekiko konpromisoa indartuz, zela Euskal Herria nazio gisa identifikatzera zeraman berezko alderdiren bat –politikoa, geografikoa, etnografiko-kulturala, etab.–, sendotuz.

Ikuspegi abertzalea zela eta, ezin buka genezake atala egutegiaren orrietan ere islatu ziren garaiko jarrera kontrajarrien aipamen txikia egin gabe. Izan ere, urte desberdinetako aleak aztertu izanari esker, estrategia mailan abertzaleen artean zegoen eztabaidaren berri izateko aukera izan baitugu egutegiaren testuinguruan ere. Bertan, urtez urte egutegian nabarmendu zen jarrera nagusiaren arabera lehentasuna euskararen alde ekiteak zuen, eta ondorengo langintza zen ekintza politikoa aritzea. Oro har, egutegiak eskaintzen zuen ikuspegia nagusiki euskaltzaletasuna indartzearena zen. Lehenbailehen euskararen egoerari heldu behar zitzaionaren ideia zen azpimarratzen zena, orain arteko azalpenetan ikusi ahal izan dugunez, hain zuzen euskara zelako aberriaren muina eta, ondorioz, berau salbatuz bakarrik lortu baitzitezkeen aberria salbatzea. Ikus:

... Erderea ta erdeldunak sartuaz-sartuaz etorri zaizkigu; euzkeldunak ere apurka-apurka erdeltzaletzen... eta orra orain, gure Euzkera gaxoari gogor eusten ez badiogu, laster gera guziok erdeldunduta, ta orduan... ¡Agur Euzkera, ta euzkeldunak, eta Euzkelerria ta Euzkadi! ¡Ezingo degu geyago bururik jaso! ¡¡Eutsi, ta zabaldu Euzkera!!³⁰¹.

Abertzaleatasunaren ikuspegitik begiratuta, euskararen aldeko ekintza nagusitu beharra ikusten zen. Egutegiko orrialdeetan, oro har, hizkuntzan oinarrituriko jarrera planteamendu politikoari nagusitu zitzaion argi eta garbi. Halere, orrialde horietan ere izan zuen bere isla (bakana izan arren) abertzaleen artean indarra zuen beste jarrera estrategikoak, hots, hizkuntza arazoaren gainetik arazo politikoari lehentasuna ematen zionak, alegia. Ikus, adierazpen zehatz hau:

Euzkotar abertzaliak maite ditu lendabizi Jaungoikua eta Euzkadiko Lege-zarra; gero bere izkuntza, oiturak, abenda, dantzak eta jolasak. Ez lendabizi euzkera eta gero gañerako gauzak.

Lege-zarra Jaungoikoarekin Euzkadi'ko sustraya da.

Euzkotar danak maitatuko bagendu gure bakar eta egitako Aberrija, gure Euzkadi zoragarriya, orduban ekarriko giñuzke gure antziñako Lege maitagarriak.

Orduban aginduko genduke gure Euzkadin. Guk egingo giñuzke gure legiak guretzako. Orduban irikiko giñuzke euzkal-ikastolak eta erakusten jarri erakusle euzkaldunak.

Bañan bitartian ez³⁰².


Lehenetasuna zeri eman, ekintza politikoari ala hizkuntz ekintza kulturalari? Horra hor, abertzaleen artean pizturiko oinarritzko eztabaidetako bat. Egutegiko orritxoetan oso agerpen urria eduki izanak, ez du esan nahi garaiko abertzaleen artean indarririk ez zuen jarrera zenik goian aipatutakoa. Baina egutegiaren eragileek bultzatzen zuten ideiarekin bat ez zetorren ikuspegia dugu eta, hein horretan, isla eskasa izan zuen hemen.

Oro har, testu hauen bitartez helerazi nahi zen mezua oinarritzko ezaugarri batzuetan laburbil genezake: batasun nazionalerako deia, lurraldetasunean eta antolaketa propioan oinarrituriko eskaera eta ideologia nazionalistaren propaganda partidista (gutxi baino badago). Horrela, alderdi jeltzaleak bilduko zituen oinarritzko printzipio ideologikopolitikoen baitan joko zen nazio identitatea sendotzera irakurle euskaldunarengan. Herritartasuna –irakurleak inplizitua zuena gehienbat–, komunitate eta kultura propioaren mugak definitzen zituen kontzientzia politikoaren bitartez esplizitu egiten zuen euskotartasunean berreraiki nahi zen³⁰³, sendo eta irmo, nazio identitatean heziz euskaldun norbanakoa eta, baita hiztun taldea ere.

2.4. Formazio kulturala

Formazio kulturala helburuaren inguruan bildu dugu hainbat eta hainbat testuren bitartez zabaldu zen informazioa. Kultura hitzak, esan dezagun Harrisek³⁰⁴ adierazitakoari jarraituz, oro har ekiteko, jokatzeko, pentsatzeko eta sentitzeko jarraibideen osotasun konplexua izanik, beregan hartzen ditu gizakiak gizartearen eskuratzen dituen eza-gutzak, sinesmenak, artea, moralak, zuzenbidea, ohiturak eta beste hainbat gaitasun eta aztura. Zentzu horretan, ezin bereiz daiteke kul-

tura errealitatea hizkuntzarenetik, moraletik, politikatik edota gizarartetik. Gure azterketari argibiderik ematearren, ordea, eduki berezi gisa sailkatu dugu kultura mailako formazioari dagokiona, inoiz goian aipatu loturak ahaztu gabe. Eta, ildo horretatik, saiatu gara ikusten zein gairen inguruan eta nola finkatu nahi ziren irakurle euskaldunarenagan jokatzeko, sentitzeko eta pentsatzeko jarraibide edo pautak.




Formazio kulturala *Euzkel-Egutegiya*-n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaieen arabera

Iturria: Euskal-Esnalea'ren Egundiya 1909, eta *Euzkel-Egutegiya* 1910-1918

Oro har, kultura orokorreko gaien inguruan argitaratu ziren idatzi kopuruak nahiko ugariak izan ziren urte gehienetan. Salbuespen gisa har ditzakegun bi urtetan izan ezik, 1910ean eta 1911n, beste gaitzetzeko urte guztietan 50 egunetik gorakoa izan da idatzi hauen presentzia. Beraz, nabarmenki herritarren formazio kultural orokorra elikatzen laguntzen zuten testu kopururik eskasena 1911. urtean (34


egunez zenbatuak, urteko idatzi guztien %9 hartuz³⁰⁵) eta 1910.ean (41 egunez zenbatuak, urteko idatzi guztien %11a hartuz³⁰⁶) atzeman dugu, idatzien batez besteko agerraldia hilabeteko hiru egunetakoa izanik, hor nonbait (orekatua balitz). Aitzitik, beste urteetan atzemandako kopuruak arras desberdinak dira. Presentzia eskasena izan zute-neko urteetan ere 70 egunetik gora, gutxienez astean behingo maiztasunez beraz, zenbatu dugu arlo honi dagozkion testuen agerpena, hots, 1917an (72 egunez, urteko idatzi guztien %19 hartuz³⁰⁷), 1913an (75 egunez, urteko idatzi guztien % 20 hartuz³⁰⁸), 1916an (81 egunez, urteko idatzi guztien % 22 hartuz³⁰⁹), eta 1912an (87 egunez, urteko idatzi guztien % 23 hartuz³¹⁰). Urte horietan ez ezik, are nabarmenagoa izan zen kultura izaerako idatzien presentzia, 90 egunetik gorakoa, 1918an (91 egunez, urteko idatzi guztien %24 hartuz³¹¹), 1909an (93 egunez, urteko idatzi guztien % 25³¹²), 1914an (95 egunez, urteko idatzi guztien % 26³¹³) eta 1915an (100 egunez, urteko idatzi guztien % 27³¹⁴).



Euzkel-Egutegiya 1914, edukia kategorietan bereizita, agerpen portzentaian arabera

Iturria: Euzkel-Egutegiya 1914

Egutegia argitaratu zen lehenengo urtearekin (1909) batera, 1914 eta 1915 izan ziren urteko edukiaren barruan formazio kulturalaren inguruko gaietarako handiena eskaini zitzaizkien urteak. Eduki kategorien banaketan begiradaxoa botatzen badiogu grafikoari, ikusten da 1914 urtean, hizkuntz formazioaren eta formazio erlijioso-moralaren inguruko gaien presentzia, baita asmakizunen presentzia ere, gutxiagotu egin zela kultura arloko gaien mesedetan. Bestalde, 1915. urteko grafikoari so egiten badiogu, nabarmenago ikusiko dugu hizkuntzarekin zerikusi zuzena zuten gaien, baita formazio ideologikoarekin zein moralarekin erlazioa zuten edukien presentziaren gutxiagotzea eta, aldiz, kultura orokorreko gaiek eta ateraldi xebebrek urte horretan hartu zuten leku nabarmena.



Euzkel-Egutegiya 1915, edukia kategorietan bereizita, agerpen portzentaian arabera

Iturria: Euzkel-Egutegiya 1915

Era askotariko gaien inguruko informazioa zen egutegi hauetan zabaldu zena. Batzuetan, irakurlearentzat erabilgarria eta praktikoa zen informazioa eskaintzen zen, besteetan gomendio eta aholku multzoa. Bitxikeria zein “jakinbeharreko” gisakoa besteetan. Guztien edukiak, ordea, testu oso baten zati ziren neurrian, formazio mota batekiko –kulturalarekiko–, erlazioan bildu ditugu eta ikuspegi horretatik aztertu, irakurlea kultur esparru desberdinetan nolabait “janztea” eta, askotan, instruituz hura formatzea bultzatu zezaketen neurrian. Horrela, bada, testu hauetan landu oi ziren gaien sailkapena egin dugu hainbat azpigai bereiztuz: Eguraldia, Nekazaritza eta abelzaintza, Euskal Herriko geografia eta historia, Literatura, Esaera Zaharrak eta atso-titzak, Sukaldaritza, Haurren hazkuntza, Osasuna, eta Bitxikeriak.

Eguraldiari buruzko informazioa lehenengo bi urteetan eskaini zen, batez ere, ugarien. Nolabait almanakeen izaera tradizional eta ohizkoari jarraitu nahi izan zitzaion, denboraren neurria ematearekin batera, eguraldiaren inguruko berriak eskainiz eta pronostikoak ere eginez. Bere buruaren propaganda egiteko garaian ere besteekiko be-reizgarritasuna markatzeko almanakeen izaera aurreikusle tradiziona-lari heldu zitzaion, ondorengo pasartean ikus daitekeenez:

Ez dira oraindik egun asko saltzalle batek deitzen zubela *Calen-darios para el año que viene*.

Joan zayo gizon bat bere bekoki illuna oso aserreturik, eta esan diyo:

Aizazu gizon, lengo egunian pronostiku bat erosi nizun eta ira-kurtzen asi nintzan bezela, an etzeguen besterik baizik, eguraldi charrak, aiziak, turmoyak eta kazkarabarrak, gauza guziyen ondame-na ta galera.

Ayek denak ikusirik esan nuben, ez ala jainkesa, eztek zikiñ orrek nai dekanik egingo ire mutur beltz orrekin eta jartzen zubenik ger-tatu etzedin, chiki-chiki egin eta subari eman niyon.

- Ederki egiña.
- Besterik bai al dezu?
- Bai; oso polita eta berri berriya Euskal-Esnalea'rena.
- Eguraldi gaiztorik orrek ez du jarriko?
- Bai zera! Ez al dezu ikusten euskaldunen aldekoa dala?³¹⁵.

Eguraldiaren inguruko argibide ugariak 1909 eta 1910. urtee-tako aleetan argitaratu ziren. Ondorengo urteetan noizean behin baka-rrik ikusi ahal izango ditugu gisa honetako testuak. Proporzionalki ere ez ziren oso ugariak izan, baina ondorengo beste urteetan baino

egun gehiagoz eman zen eguraldiari buruzko informazioa 1909 eta 1910ean, horietako gehienak “Eguraldiya”³¹⁶ edo “Eguraldiyarenak”³¹⁷ izenburu generiko pean, beste zenbaitetan izenburu zehatzagoarekin edo inolako sarbiderik gabe³¹⁸. Oro har, idatzi horietan zehar eskaintzen zena eguraldiaren inguruan egin ohi ziren hainbat pronostikoren argibideak ziren, hala nola: kuarta tenporek edota bederatziruunek eragiten ote zuten eguraldian, nola atzeman zitezkeen eguraldi gaiztoaren etorrera, tximista, kazkabarra, trumoia, euriak, etab. Noiz eta nola gertatzen ziren fenomeno horiek, barometroaren gorabeherak interpretatuz eguraldia nola aurre ikus zitezkeen, etab., esplikatzen zitzaion irakurleari. Bestalde, hainbat gomendio eskaintzen zen ekaitza garaian edota tximista egin ezker har zitezkeen neurrien inguruan. Izan ere, azken urteetako idatzi apurrak tximista eta ekaitzengandik babesteko hartu beharreko neurrietan zentratuko ziren, batez ere.

Almanakeen ohiko izaerari jarraituz, halaber, eguraldiaren inguruko informazioarekin batera eskaintzen zen ere nekazaritzarekin zerikusi zuzena zuen ezagutza. Hemen, aurreko kasuaren antzera, eskaini zen informazio motan aldaketa ikusi dugu lehenengo urtea eta beste gainontzekoen artean. Hasierako urtean, beste egutegi eta almanaka arrunten legez, eskaini zen zenbait hilabetetan erein, iñausi edo txerta zitezkeen barazki eta landareei buruzko oinarritzko informazioa eta aholku multzoa, “Baratza”³¹⁹ izenburua zeramaten idatzien bitartez, hain zuzen. Ondorengo urteetan, aldiz, zabaldu egin zen gaia lorazaintza eta abelzaintzara hedatuz, eta aldatu ere maiztasuna eta azalpen modua. Nekazaritzarekin zerikusia zuten gai zehatzen inguruko aholku eta gomendioak ematen jarraitu zuten, hala nola: tomateen bizitza nola luza zitezkeen, buztin lurra eta ondar lurra bereizten eta bakoitzaren ezaugarriak esplikatuz, nola kendu landare eta arboletako txingurriak, bareak hiltzeko gomendioak emanez, etab.³²⁰. Baita ere lorazaintzari begira igorritako aholku apur batzuk³²¹. Horretaz gain, badirudi zuhaitzaren inguruko kezka berezia bazegoela, herrialdean zuhaitzak mozteko egon zitezkeen joeraren aurrean berauek birlan-datzera bultzatuz, 1912. urtean³²² eta batez ere maiztasun handiagoz 1916an³²³, zabaldu ziren idatziak ikusita. Horietan, basoak husten ari zirela salatzeaz gain kontzientzia hartze kanpaina baten itxura oso-oso hartzen zutelarik, zuhaitzek zekartzaten onurez (uholde eta lehorterik egon ez zedin, errekek beren bideari segi ziezaioten, eguraldia eta hai-zeak nahaspila ez zitezzen) eta aberastasunez jabearazi nahi zen herri-tarra eta berauek landa zitzen konbentzitu, horretarako arrazoi zien-

tifiko, ekonomiko –“IX. belardi-basuetan dago erri menditsuben zori, aunditasun t’aberastasuna; beraz Euzkadi’ko lur maitia zoridun, aundi t’aberats ikusi nai degunok, bere mendi-basuetako utsuniak estaltzeko egiñala degigun.”–, eta abertzale-ideologikoz –“(…) Antziñako aldiyetan arbol bat ebakitzen zubenai, iru landare berri aldatzeko agintzen zion Lege-zarrak(…)”–, baliatuz.

Lurra eta landareen zaintzaz ez ezik, hainbat aberez (txerri, behi eta oilo batez ere), eta berauen produkzioaren hobekuntzari begira informazioa eta gomendio batzuk eskaini ziren ere noizean behin³²⁴. Deigarri egiten dira ahateak haztearen abantaila ekonomikoak azalduz eta berauek hazteko moduz azken urtean ageri diren idatziak, abere horren produkzioa bultzatzera zuzenduriko propaganda kanpainaren itxura hartzen dutelarik hauek ere³²⁵.

Bestalde, almanaken tradizioari helduz baita ere, hainbat eta hainbat idatzitan Gipuzkoako herriei, baita Euskal Herriko beste herrialdeei buruzko informazio zehatz eta erabilgarriak eskaintzen ziren. Gipuzkoako herrialdeari zegokionez, herri mailako informazio orokorra eskaintzen zela ikusi dugu, ez bakarrik baina, batik bat 1909 eta 1912. urteetan: Gipuzkoako jaiak noiz ziren, eta 1896tik 1913ra bitarteko Euskal Festak noiz eta zein herritan ospatuko ziren³²⁶ adieraziz. Gipuzkoa herrialdeak zein beste herrialderekin egiten zuen muga, edota Gipuzkoako herri bakoitza Donostiatik zenbat kilometrotara zegoen, zenbat biztanle zituen eta urteko jaiak eta azokak noiz ospatzen zituen adierazten zen³²⁷, era berean. Gipuzkoako herrien inguruko informazioa aberasten zen noizean behin agertu ziren informazio bitxiekin (Mendaroko erreka, Ordiziako azokaren inguruan, herrien izengoitiak zirela eta, Arriarango intxaurrendoa, etab.)³²⁸. Informazio horrek guztiak egutegiak hartzaile zuen irakurlearekin –batez ere gipuzkoarrarekin–, eta baita garaiko une historikoarekin zuen lotura erakusten digu. Aldi berean, Hego Euskal Herriko lau herrialdeen lotura estutzearren eta aberri identitatea indartzearren argitaratu zela, esan dezakegu, Bitxikeria edo “Curiosidades” atalean kokatuko genukeen herrialde mailako hainbat datu: biztanle kopurua, ezkongai, ezkondu, alargunen kopurua, etxe kopurua, hauetako zenbat erre, erori ziren edota zenbat moja, fraile, mediku eta legegizon zegoen aditzera ematen zuena. Are bitxiago oraindik, garaiko datuak baino ehun eta hogeitau urte lehenagoko datuak zirela kontuan hartzen badugu. Ildo horretatik zihoazen Gipuzkoari zein Bizkaia, Araba eta Nafarroari

buruz 1913an emandako datuak³²⁹, lau herrialde mailako datu estatistiko eta guzti ekarriz.

Aberri identitatea indartzera jotzen zen, halaber, Hegoaldeko lau herrialdeen inguruko informazio geografiko eta historiko eguneratua-goak eskaintzen zirenean, lehenengo urteetan batez ere: Nafarroako ibarren eta mendi nagusien izenak, edota Bizkaiko eta Gipuzkoako mendi nagusiak³³⁰ ematen zirenean. Xede bera beteko zuten, gure ustez, lehenengo bi urteetan zehar “Euzkeldunentzat egun oroigarriak”³³¹ izenburupean edota “Jazopen gomutagarriak”³³² izenburupean argitaratuz eman ziren data eta gertaera historiko ezberdinek. Oro har interesgarriak izan zitezkeen berri historikoen artean (Guttenberg’en inprentaren sorrera, uholde ospetsuak, Europan kolera agertzen den lehenengo aldia, etab.) –asko beste hizkuntzetako egutegi- gietan legez “sucesos” atalean txerta zitezkeenak–, euskotarren ikuspegi ideologiko-politikotik garrantzitsuak izan zitezkeen gertaera batzuk, eta erlijio edo elizaren ikuspegitik ere garrantzia zuten beste batzuk aipatzen ziren bereziki. Guztiak ziren euskaldunak gogoan hartu beharreko gertaera eta data historikoak. Adibidez: Astarloa jaio zeneko data, Berriotsoaren gorpua ekarri zutenekoa, foruen desagertzea, Jesusen Konpainiaren berrezarpena, Canovas hil zuteneko eguna, Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko bake aitormena, Begoñako peregrinazioa, gudaroste frantsesa Bilbotik irten zenekoa, hiru probintzien ordezkariak lehen aldiz elkarrekin aritzeko elkartu zirenekoa, Erregeak Bizkaiari hainbat tokitan aduanak jartzearen agindua, Gipuzkoari pase forala kendu zioteneko eguna, etab.

Kultur ezaguera zabal horri gehitu behar zaizkio, bestalde, noizean behin modu soltean agertu izan ziren euskaldun ospetsu batzuen azalpen historiko edo biografiakoak. Une batean aditzaera eman zenez, “Euzkotar gizon ospetsuen izenak ikas” araztera bultzatzeko nolabaiteko asmo xumea bazegoen eragileen buruetan, eta horren adibide dira zenbait euskotar eta euskaltzaleren berri emanez eskainitako erreferentziatxo historikoak: Elkano eta Goñi, Elisanburu, Bilintx, Errenderiatar Erramon Aba eta Otañorenak, besteak beste³³³.

Literatura ere, ahozkoa bereziki, presente egon zen aztertu ditugun urte guztietan, euskal kanta zahar eta herrikoien bitartez eta, baita ere, hainbat euskaltzale eta idazleren hitz neurtuen bidez. Urtero ematen zen argitara hitz neurtu eta kanta kopuru bat, aldakorra bazen ere. Agerpen egunen maiztasuna zenbatuta bolara desberdinak atzeman ditugu horien presentzian. Gutxien zenbatutako urteetan urteko 20

egunetik behera agertu zaizkigu, 1911. eta 1912. urteetan. Ez da, demagun, batez beste hileko bi egunetara iristen hitz neurtu literarioen presentzia urte horietan. Gehien zenbaturikoetan, berriz, urteko 57 egunez agertu zaizkigu, 1914. eta 1916. urteetan, hain zuzen. Urtean zehar libreki banatuko bagenitu, astean behin bertsoaren bat irakurtzeko aukera genuke. Hogei egunen bueltan (hilean bi egunez gutxi gorabehera) zenbatu ditugu 1910., 1913. eta 1917. urteetan, 30 egunez (hilean ia hiru egunez) 1918an, eta 40 egun inguru (batez beste hilean ia lau egunez) 1909an eta 1915ean.

	1909	1910	1911	1912	1913	1914	1915	1916	1917	1918
Kultur formazioa egunetan	93	41	34	87	75	95	100	81	72	91
Hitz neurtu eta kantak egunetan	45	20	14	18	23	57	43	57	23	30
Hitz neurtu eta kanten portzentaia	48	48	41	20	30	60	43	70	31	32

Euzkel-Egutegiya 1909-1918. Hitz neurtu eta kanten presentzia formazio kulturalaren esparruan, agerpen egunetan eta portzentaiaetan neurtua urtez urte

Formazio kulturalaren helburuaren inguruan bildu eta zenbatu dugun eduki osoaren testuingurutik proportzionalki ikusita, ez zen berdina izan urte bakoitzean ahozko literaturari eskaini zitzaion tokia. Nabarmen ikus daitezke goian aipaturiko bolara edo goiti-behetiak: kultur formazio orokorra eskaintzen zuten gaien artean ia egun kopuruaren erdia betetzen zuten hitz neurtu eta kantek 1909, 1910 eta, zertxobait gutxiago izan arren, 1911n. Ondorengo bi urteetan, 1912an eta 1913an, behera egin zuen nabarmen bertso eta kanten kopuruak, kultura arloko idatzien artean %20ra jaitsiz berauen agerpen egunen portzentaia 1912an. Presentzia nabarmena berreskuratu zuten 1914. eta 1916. urteetan (gutxiago izan arren gorantz ere 1915ean) kultura

arloko idatzien agerpen egunen kopuruaren erdia baino gehiago, de- zente gehiago 1916an, hitz neurtu eta kantek beteko baitzuten. Ondo- rengo bi urteetan, 1917 eta 1918an alegia, beherako joera nabarmen- du dugu herenera jaitsiz hauen proportzioa.

Kultura esparru zabalaren barruan txertatu dugun ahozko litera- tura, alde batetik, euskal kanta zaharrek, herrikoiek eta, askotan, herri- koi bihurtutakoek osatzen zuten. Zenbaitetan, espreski kanta zahar gisa aurkeztutako testuak ziren, hala nola: “Euskalerriko eresiak”³³⁴, “Abesti (kanta) zarrak”³³⁵, “Abesti zarra”³³⁶, edo “(Euzkel-abezti zarra)”³³⁷. Bestetan, sarreratxorik gabe eta egilearen izenik gabe –he- rriak bere eginak zituelarik nonbait–, agertzen ziren herritarrek ongi ezagutzen zituzten kanta eta bertsoak³³⁸. Horiez gain, euskal idazle, poeta eta euskaltzale askok –ezagunak batzuk anonimoak besteak–, jarritako bertsoak ditugu.

Ugarien eskaintzen ziren bertsoak idazle ezagunenak ziren, izen- buruarekin eta egilearen izenarekin aurkeztuak izaten zirenak gehi- enetan. Kasu askotan egile berdinarekin lan desberdinak ematen ziren argi- tara, hots, erlijio gaiarekin zerikusia zuten bertsoak, hizkuntzarekin espreski zerikusia zutenak, kutsu ideologiko-politiko nabarmena zute- nak, eta literarioagoak zirenak, gai poetikoagoak, lirikoagoak jorratzen zituzten bertsoak, alegia. Guk atal honetan azken hauek hartu ditugu kontuan, jakinik, esan bezala, ez direla egile bakoitzaren altxorretik egutegi honetan aurki ditzakegun idatzi bakarrik. Horrenbestez, espreski egilea eta izenburua adieraziak zituzten bertsoak hartu ditugu oinarri eta, horren arabera, bereizi ditugu beren literatur lanak noizean behin argitaraturik ikusi zituzten idazleak, alde batetik, eta, urte des- berdinetan zehar argitaratuak izan zituzten egileak, bestetik.

Egun batez, hala urte betez, beren literatur lanen bat argitaraturik izan zuten idazleen artean aipatu behar ditugu, besteak beste: Pelipe Kasal Otegi, Mendibil, Boni, Kurlola, Mibisus (Imanol Arriandiaga Gorozika), Krak-krak, B.I., Juan V. Arakistain, E.K., M.S. (Martzelino Soroa), P. Ibarra, Emiliano Mujika, Zuaiztialde, Kaiku, Azkue, Baxerritar bat, Mañasi Artzainea, eta S. Uranga³³⁹. Urte betez, baina lehenengoetan ez baizik eta azken urteetakoren batean lanak argitaratu zizkieten idazleak ditugu, adibidez: Aberri, Ramon Inzagarai, Bera'tar Erroman Aba, Juan M. Ugarte, Otano, Ubeon, Joseba Ezkidi, Larrun, Bingen Aizkibel, Kepa Enbeita, Tene (Robustiana Mujika Egaña), Narkixe Gordobil, eta J. Eltzo Azpiazu³⁴⁰.

Horiez gain, aipatu behar da beren bertsoak bizpahiru urtez argitaratuak ikusi zituzten idazleen sorta: Elizanburu, Sabin Arana-Goiri, P.M. (Pedro Migel Urruzuno), Dr. Guilbeau, J.L. Etxeita, Karmelo Etxegarai, I., Iparragirre, Jautarkol (Jose Luis Jauregi Etxenagusia), Pedro M. Otaño, Felipe Arrese ta Beitia, A. edota Azkoiti (Gillermo Larrañaga), eta Migel Antonio Iñarra³⁴¹.

Urtetan, eta egunetan ere, ugarien eta maizenen argitaratuak izan ziren lanak Bilintxenak³⁴², Jose Artolarenak³⁴³, Antonio Arzakenak³⁴⁴ eta, batez ere, Emeterio Arreserenak izan ziren. Bilintx, Artola eta Arzaken bertsoak 1915. urte bitartean ikusi ahal izan ditugu batez ere. Arreseren bertso gehienak, halaber, lehenengo urteetan eman ziren argitara, baina ondorengo hiru urteetan ere bertsoen bat edo beste topatu dugu.

Aurreko idazleen kasuren batean edo bestean gertatu zen legez, azken hauen bertso batzuk urte batzuetan argitalpen errepikatua izan zutela ikusi dugu, adibidez, Bilintxen “;Ja-Jai!” izenburua zeramaten bertsoek³⁴⁵, Antonio Arzaken “Gasua”³⁴⁶ eta “Mendija”³⁴⁷, eta Emeterio Arreseren zortzi bertso hauek: “Sorgin dantza”³⁴⁸, “Neska bati (oroitz-liburuan ipiña)”³⁴⁹, “Egunsentiya”³⁵⁰, “Illunabarra”³⁵¹, “Beazun tantoak”³⁵², “Txantxangorriya”³⁵³, “Bakar-egoitza”³⁵⁴, “Oz-giro (Gau illargiztu batean)”³⁵⁵. Emeterio Arrese bertso gilerik argitaratuena ez ezik errepikatuen ere izan zen, beraz. Ia urte guztietan izan ziren bere bertsoak argitaratuak: 9 egunez 1909an, 1910 eta 1911n ez dugu bere bertsoarik topatu, 5 egunez 1912an, 15 egunez 1913an, egun batez 1914an eta 1915ean, 18 egunez 1916an, 2 egunez 1917an eta egun batez 1918an³⁵⁶.

Bertso hauetan jorratzen zen gaia, herria utzi behar izateagatik edo maitasun ordainik ez jasotzeagatik bertsolariak sofritzen zituen bihotzeko pena eta tristuren ingurukoa zen, batik bat. Bazen, baita, amari, naturari, edota Euskal Herriko bazter eta txokoei gorazarre egiten zion bertso ugari ere.

Oro har, hitz neurtu eta kantetan oinarrituriko ahozko literaturaren presentzia, aldakorra izanik ere, iraunkorra izan zen egutegiko orritxoetan. Bertsoaren bitartez egutegiak bat egiten zuen herriaren tradizioarekin, herriaren ahozko tradizioarekin, irakurlearekiko sintonizazioa bilatuz nolabait. Neurri batean, pentsatzen dugu, egutegiko orrien irakurketa garai hartan Gipuzkoan hain zabaldua zegoen bertso paperen irakurketarekin parekatu daiteke, ahozko literaturari eskaini zitzaion lekua zela eta, irakurketa espazio eta esparru bera konpartitzen

zutela uste baitugu. Eta, zentzu horretan, irakurleria bertsea konpartituko zuten ere. Itz-Jostaldi eta Euskal Festen antzera, *Egutegiya*-k ahozko kultura eta kultura idatziaren arteko erlazioa finkatzen lagundu zuela esango dugu.

Literatur alorrean, bestalde, aipatu behar ditugu zenbait urtetan argitara eman ziren ipuin eta fabula batzuk, hitz lauz zein neurtuz idatziak eta, agerian ondorio moralizatzailearen bat jarritz ala irakurritakotik ondorioren bat jasotzeko modua emanaz, irakurleri nola-baiteko ikasbiderik ateratzeko aukera eskaintzen ziotenak. Ez ziren ugariak izan, baina bai aipatzekoak gainontzeko idatzi eta pentsamendu moralizatzaileekin batera, osotasun batez, erakutsiko baitzioten herritarrari zintzotasunaren bidetik zein jokabidek eramango zuten.

Ipuin eta fabulak 1909, 1913, 1914, 1915, 1916, 1917 eta 1918. urteetan ikusi ditugu. Egun gehienez argitaratuak 1913. urtean (6 egunez³⁵⁷), eta 1914 eta 1915ean (4 egunez³⁵⁸); kopuru horren azpitik beste urteetan³⁵⁹. Horiatariko askotan ez zen egilearen izenik adierazten, zenbaitetan ez eta izenbururik ere. Egileren baten erreferentzia egin zenean Bizenta Ant.º Mogel, Iturriaga eta Jose Artolarenak izan ziren, lehenengoaren “Ipui bat. Leoia ta Aizeria” eta “Txakurra ta katua”, bigarrengoaren “Mendiyak aurgiten (Ipuya)” eta azkenengoaren “Arratoya ta Katua” ipuiak argitaratu zirenean. Kasuren batean edo bestean agertu zen atzerriko ipuinen baten itzulpena. Beste batzuetan “Ipuia” izen generikoaren azpian agertu ohi ziren idatziak. Esan bezala, guztiek bazekarten ikasbiderik, aukeratu ditugun ondorengo pasarte hauetan ikus daitekeenez, lanarekiko zaletasunaz, adibidez: “... Azkarra ta lan zalea danak gorako bidea irabazi oi du, beti ezpadare, askotan bai beintzat”. Besteei on egiteaz, xumea eta zintzoa izateaz: “... Ez ñori gaitzik egin, etortzerik nai ez padezu, bada ikusia dago besteri egindako gaitz ta kaltea azkenik geron gain datorrela”; inbidia edukitzearen kalteaz, Jainkoarekin konplitu beharraz, etab.

Literaturaren esparruan ahozko literaturak eta ipuin zein fabulek erabateko protagonismoa hartu zutela ikusi dugu eta honek, aldi berean, euskal kultura sustatu nahi zuen elite intelektualean herri kulturaren indartzeak hartu zuen garrantzia erakusten digu. Herri kulturari emaniko garrantziaren isla da, hein berean, ezagutza eta jakintza popularraren adierazpide diren esaera zahar eta atsotitzei eskaini zitzaizen leku esanguratsua. Egutegiak kultura popularrarekin zuen lotura eta konpromisoa argi eta garbi ikusten dugu esaera zaharrak eta atsotitzak idatziz jaso eta argitara emateko erabakian.

Esaerek egutegian hartzen zuten tokia zela eta, landutako gaien artean aparteko azalpena merezi dutela uste dugu. Esaerek, zaharrek eta ez hain zaharrek, espazio ugari bete zuten egutegian, batzuetan espreski agerian adierazten zelarik “Esakun zarrak”, “Esaera zarrak”, “Esakerak”, eta zenbaitetan “Atsotitzak” izenburuarekin. Beste kasu askotan, ordea, esaera mordo argitara eman zen solte, ateraldi xelebren batekin edo iritzi testuren batekin orrialdea konpartituz, inolako aurkezpenik gabe, inolako sarreratxo edo izenbururik gabe. Halaber, esaera zahar ugari tartekatu ohi zen beste pentsamendu edo gogamen moralistarekin batera. Joera honek, kasu askotan zaildu egiten du adierazpen batzuen eta besteen sailkatzea, esaera, pentsamendu, gogoeta, gogapenaren arteko mugak oso ahulak egiten baitzaizkigu. Ezin uka daiteke esaera zahar eta atsotitz ugarietan egon bazegoela nolabaiteko irakaskintza moralik, baina ezin murriz daiteke, horregatik, esaerek biltzen zuten ezagutza eta jakinduria guztia mezu moralizatzaileera. Jokabide moralak bideratu nahi izateaz gain herritarrari gizarteratzeko baliagarri zitzaion ezagutza erabilgarri zabala eskaintzen zioten esaera zahar eta erretrauek, belaunaldiz belaunaldi metaturiko jakintza, hain zuzen. Moralaz haratago, beraz, herritarrari kultur formazio zabalagoa eskaintzen ziotela uste dugu, beti ere, tradizioan txertaturiko ezagutza popularraren multzo itxia islatzen zutela kontuan izanda.

Horrenbestez, nahasmen posibleak saihestu nahian eta gure analisiari begira, aparte kontsideratu dugu agerian esaera zahar gisa aurkezturik zabaldu zen ezagutza. Beharbada, esaerek irakurlearengan eragin zezaketen ondorio hezgarria antzeko beste adierazpide batzuen bitartez eragindakoaren parekoa zatekeen, eta, alde horretatik, ez lukete trataera berezirik mereziko. Baina, biltzen zuten ezagutza jaso eta helarazteko eta, zentzu horretan, herri kultura sustatzeko eragileek zuten asmo eta interesaren erakusgarri diren heinean, esaera zaharren edukiarena beste gaietatik bereizi beharreko esparrua dela iruditzen zaigu.

Egutegiaren bultzatzaileek esaerekiko zuten interesa, gehien bat, hasierako urteetan ikusi dugu nabarmen, “esaera zarrak, gezurrik ez”³⁶⁰ leloaz jakintza iturri baliagarri gisa azpimarratzen zelarik, esaera zaharrak bildu eta egunez egun irakurlearen eskuetan jarri zituztenean 1909an eta 1910ean. Lehenengo bi urteetan, orriaren aurrealdean hilak zenbat zuen adierazten zuen zenbakiaren azpian esaera zahar bat ematen zen egunero. Bai lehenengo urtean, bai bigarren goan (aurreantzean utzi zitzaion aurrealdean esaerak jartzeari) 365 egunez argi-

taratu zen, beraz, orri bakoitzaren aurrealdean esaera zahar multzo bera, esaera berberak egun berberetan argitara emanaz.

Aurrealdean ez ezik, ordea, atzealdean ere argitaratu oi ziren esaerak, esaera sortatxo gisa askotan. Horrela, 1909 izan da atzealdeko orrialdetxoetan esaera sortatxoan agerpena egun gehienez (13 egunez³⁶¹) zenbatu dugun urtea. Ondorengo urteetan, batez ere 1912an (7 egunez³⁶²), 1913an (5 egunez³⁶³), 1917an (2 egunez³⁶⁴) eta 1918an (3 egunez³⁶⁵), atzeman ditugu, halaber, izenburu adierazgarriren baten azpian eskainitako esaera sortak. Horiekin batera kontuan hartu behar dira sarrera berezirik gabe, gehien bat 1918an (7 egunez), agertu ziren esaera sorta batzuk, eta modu soltean egun desberdinetan zehar eskainitakoak. Oro har, esan dezakeguna da aldakorra izan zela esaera zahar eta atsotitzen agerraldia, leku gehien 1909. urtean eskaini zitzaielarik, geroago ere, 1912an eta 1918an, espazioa zertxobait berreskuratuz.

Esaera zaharrez, bestalde, azpimarratzekoa da, behin argitaratu zirenekin batera, esaera bat baino gehiagoren kasuan atzeman dugun errepikatzea. Ikusi dugunez, esaera batzuk aurrealdeko orrialdeetan bizpahiru aldiz argitaratu ziren urte bereko egun desberdinetan. Hona hemen, aurrealdeko orrialdeetan agerturiko esaera bat, urte berdineko (1909) egun desberdinetan, aurrealdean ere, errepikatua: “Umiaren ikasiya, echian ikusiya” esaera, adibidez, ilbeltzaren 29an ez ezik jorriaren 22an, “Echean ikusiya, umeak ikasiya”, eta, antzekoa, urriaren 16an, “Umearen zentzuna, echean entzuna”, azaldu zen.

Halaber, aurrealdean agerturiko hainbat esaera berragertzen zela ikusi dugu urte bereko beste egunen bateko atzealdean eskainitako testuan, gutxi batzuk ondorengo urteetan ere errepikatuak agertu zirelarik. Errepikatuak izaten ziren testuen kasuetan, bestalde, grafiaz aldatuak edota hitzen baten aldaketarekin agertu ohi ziren maiz, gai berdinarean bertasio desberdin modura, esango genuke. Esandakoaren adibide argigarri gisa hartu ditugu 1909. urtean, baita ondorengoetan ere, atzemandako esaera errepikatuak. Taula luze gertatzen bada ere, jarraian doa bere zehaztasunean:

(1909) Aurrealdean	(1909) Aurrealdean	(1909) Atzealdean	Beste urteetan
“Adiskide berri bategatik ez utzi zarra” (Ilbeltzak 1)		(Uztaillak 23) “Adiskide zarra berriagatik ez laga	
“Arrai aundiyak jaten du chikiya” (Ilbeltzak 6)			(1918, Orrillak 27) “Arrai aundiak, jaten ditu txikiak”
“Chori bakoitzari eder bere kabiya” (Ilbeltzak 16)			(1918. Orrillak 27) “Edozein txoriri, eder bere kabia”
“Chakur gosetubak, ogiya amets” (Ilbeltzak 18)		(Orrillak 4) “Txakur gosiak, ogiya ames”	
“Obe dek bein to, ez bi bider gero” (Ilbeltzak 22)	(Garagarrillak 4) “Nayago det bein to ez amabi emango”		
“Surik ez dan tokiyan, kerik ez” (Ilbeltzak 28)	(Garagarrillak 16) “Su gaberik, ez da kerik” (Orrillak 16) “Sua zan tokian, kea irten zan”	(Orrillak 22) “Surik ez dan tokitik, ez da ateratzen kerik”	
“Umiaren ikasiya, echian ikusiya” (Ilbeltzak 29)	(Jorrailak 2) “Echean ikusiya, umeak ikasiya” (Urrillak 16) “Umearen zentzuna, echean entzuna” (Dagonillak 14) “Zer ikusi, ura ikasi”		(1912, Orrillak 19) “Umeak zer ikusi, ura ikasi”

(1909) Aurrealdean	(1909) Aurrealdean	(1909) Atzealdean	Beste urteetan
“Nolakuari, alako” (Ilbeltzak 31)	(Garagarrillak 2) “Nolakoari, alako”		
“Olua buruban ta ibilli munduan” (Otsaillak 6)	(Orrillak 20) “Aizea buruan ta ibilli munduan” (Azaruak 11) “Chapela buruan ta ibilli munduan”	(Ilbeltzak 31) “Aizea buruan ta ibilli munduan”	
“Uri galduban, auziya eskuban” (Otsaillak 10) “Arrotzak eskuba latz” (Otsaillak 16)		(Ilbeltzak 28) “Uri galduban, auziya eskuban” (Epaillak 12) “Arrotzak eskuba latz”	
“Arrotz-erri, otso-erri” (Otsaillak 17)	(Azaruak 14) “Atzerri, otsoerri”		
“Pake charra obia da, auzi ona baño” (Otsaillak 23)		(Orrillak 22) “Pake charra obeam da, gerra ona baño”	
“Aurrak azi, nekiak asi” (Epaillak 3)	(Irailak 21) “Umeak asi ta nekeak bizi”	(Ilbeltzak 5) “Umeak asi ta nekeak bizi”	
“Dagonian bon- bon, ez dagonian egon” (Epaillak 9)			(1912, Orrillak 19) “Dagonian bon- bon, eztagonian egon”
“Echiarri eusteko abe charra, urte askuan mutil zarra” (Epaillak 12)		(Azaruak 13) “Echiarri eusteko abe charra, urte askoan mutil zarra”	

(1909) Aurrealdean	(1909) Aurrealdean	(1909) Atzealdean	Beste urteetan
“Urte euritsu, urte ogitsu” (Epaillak 19)		(Orrillak 30) “Urte euritsu, urte ogitsu”	
“Begi bat asko du saltzundunak, eun ez ditu naiko eros- tunak” (Epaillak 27)			(1912, Lotazillak 30) “Begi bat asko du saltzundunak, eun ez ditu naiko erostunak”
“Alper egon ta alper-lana egin, biyak berdin” (Epaillak 31)		(Uztaillak 23) “Berdinak dira alperrik egotia eta alperrikako lana egitia”	
“Erori dan ezkurra, guztien su-egurra” (Jorraillak 3)		(Jorraillak 29) “Jausi dan ezkurra, oroen su egurra”	
“Berriketa asko duenak, gauza on guchi” (Jorraillak 4)		(Orrillak 22) “Berriketa asko duenak, gauza on guchi”	
“Ez itz egin, ez bada nai uts egin” (Jorraillak 12)		(Orrillak 30) “Ez itz egin, ez bada nai utsegin”	
“Esaten duenak bear ez dana, adi dezake nai ez duena” (Jorraillak 15)	(Dagonillak 13) “Esaten duenak nai duena, entzungo du nai ez duena”	(Uztaillak 23) “Bear ez dana esaten dubenak, aditu lezake nai ez dubena”	
“Ardiak beeka egonik, ez du jaten belarrik” (Jorraillak 16)		(Orrillak 30) “Ardiyak beeka egonik, ez du jaten belarrik”	

(1909) Aurrealdean	(1909) Aurrealdean	(1909) Atzealdean	Beste urteetan
“Asko dakik, bizitzen baldin badakik” (Jorraitak 18)		(Uztailak 23) “Aski dakik bizitzen badakik”	
“Simon ta Juda santua, orainchen negua eldu da” (Orrillak 5)		(Azaruak 7) “San Simon eta Juda negua eldu da”	
“Asko badek, asko biarko dek” (Garagarrillak 9)		(Jorraitak 29) “Asko badek, asko biarko dek”	(1918, Orrillak 27) “Asko ba-dok, asko bearko dok”
“Bakoitzak bere opillari ikatza” (Garagarrillak 13)		(Azaruak 16) “Nork beraren opillari, ikatza”	
“Choriak lumatik, zer dan ezagun dik” (Garagarrillak 15)		(Orrillak 30) “Choriyak lumatik zer dan ezagun dik”	
“Oilloari oloa, astoari lastoa” (Garagarrillak 18)		(Orrillak 4) “Olluari olua, astuari lastua”	
“Geroa, alperraren leloa” (Garagarrillak 21)	(Uztailak 29) “Geroa, alperraren leloa”		
“Ardi chikia beti bildoch” (Garagarrillak 27)		(Orrillak 22) “Ardi chikiya, beti bildots”	
“Atean uso echean otso, alako bizikera gaizto” (Uztailak 26)	(Dagonillak 21) “Kanpoan uso, echean otso; alako bizikera, gaizto”	(Jorraitak 29) “Atean uso, etxean otso: alako bizbera, gaxo”	(1912, Orrillak 19) “Atean uso, etxian otso”
“Nolako Perucho, alako Maricho” (Dagonillak 2)		(Orrillak 22) “Nolako Peru, alako Mariya”	

(1909) Aurrealdean	(1909) Aurrealdean	(1909) Atzealdean	Beste urteetan
“Urde goseak, ezkurra amets” (Dagonillak 15)			(1912, Orrillak 19) “Txerri goseak, ezkurra amets”
“Goiz gorri, arrats euri” (Dagonillak 17)		(Orrillak 30) “Goizean odei gorriak, arratse- rako euriak”	
“Chakurrak nun miña an mingaña” (Irailak 9)	(Azaruak 21) “Zakurrak non miña, an mingaña”		
“Oñezkorik nai ez, aldizkorik etorri ez” (Irailak 19)			(1918, Otsailak 8) “Oñezkorik nai ez ta zaldizkorik etorri ez”
“Oillo gosea, kantari” (Urrillak 20)		(Orrillak 22) “Oillo gosea kantari”	
“Guchika guchika, asko egiten da” (Urrillak 30)	(Azaruak 29) “Guchika guchika, urruti joan diteke”	(Ilbeltzak 14) “Gichika, gichika, urrun lioake”	
“Gurasoak nolako, umeak alako” (Lotazillak 1)		(Orrillak 22) “Gurasoak nolako, umeak alako”	
“Aritz asko dan urtea, besteak baño ez obea” (Lotazillak 13)		(Jorraillak 29) “Aritz asko dan urtea, besteak baño ez obea”	

(1909) Aurrealdean	(1909) Aurrealdean	(1909) Atzealdean	Beste urteetan
“Chiroak (pobreak) dirudi inchausti, guztiyok arrika beti” (Lotazillak 14)		(Orrillak 4) “Txirua intxausti dirudi, danak arrika beti”	
“Echeko autsak biar du, echeko suba estali” (Lotazillak 24)		(Orrillak 30) “Echeko sua echeko autsaz estali bear da”	

Euskal-Esnalearen Egundiya 1909. Errepikaturik agertu ziren esaera zaharrak

Iturria: Euskal-Esnalearen Egundiya 1909

Ikusi ahal izan dugunez, errepikatze joera lehenengo urtean izan zen nabarmena, esaera kopururik handiena argitaratu zen urtean, hain zuzen. Ondorengo urteetan sortatxoan ala bakarka azaldu ziren esaera gehienak behin bakarrik izan ziren argitaratuak. Salbuespen gisa hartuko ditugu 1912 eta 1913. urteetan argitaraturiko hiru egunetako esaera sortak, erabat berdinak baitziren batekoak eta bestekoak³⁶⁶.

Errepikatzen ziren adierazpenak eta, noski, errepikatzen ziren gaiak ere. Bazeuden oinarrizko gai batzuk adierazpide desberdinen bitartez iraunkorki azaltzen zirenak, behin eta berriz errepikatuak zirenak. Horien irakurketa zabala egin ondoren, nabarmenki hainbat jokatibide eta baliotan jartzen zela indarra ikusi dugu, hala nola, zuhurtzian eta desioei, ekintzei, esanei eta hitzei neurria hartzearen garrantzian. Ongi ikusten dira balio horiek esaera hauetan: “Asko badek, asko biarko dek”, “Esaten duenak bear ez dana, adi dezake nai ez duena”, “Ez itz egin, ez bada nai uts egin”, “Berriketa asko duenak, gauza on guchi”, “Obe dek bein to, ez bi bider gero”, etab.

Berritukeria salatu eta, aldi berean, hitzei neurria hartzeak (isilik egoteak) dakartzan onuren azpimarratze errepikakorra nabarmena da. Hitzetan –ondorioz, ekintzetan–, zuhurtziaz jokatzeke joera bultzatu nahia ikusten da nabarmen bai esaera zaharren bitartez zabalduriko mezuetan bai gogoeta eta pentsamendu motzen bitartez irakurtzera emaniko mezuetan. Esaera zaharren kasuan aipatu nahi genituzke,

adibide gordin gisa, 1913. urtean bi egunez argitaraturiko esaerak (bertako zein beste herrialdeetako herri esaerekin batera Foncio, Mileto'tar Tales, Zoroastro, etab. bezelako atzerriko pentsalari ezagunen adierak ere biltzen dira bertan), guztiek herritarrengan isiltasunerako joera, hitzak neurtu behararren garrantzia azpimarratzera jotzen zuten neurrian. Ez dira adibide bakarrak, baina joera oso baten erakusletzat har ditzakegu duten kargagatik, eta adierazten duten ikuspegi tradizionalagatik. Argigarria iruditu zaigu egun horietako mezuak bere osotasunean hemen txertatzea:

Asko itz egiten dutenak ontzi utsak lez dira: ots geyagokoak dira utsak, beteak baño.

Asko itz egiteak ez dakar jakintsu izatea, ez du adierazten jakintsua dala.

Ixiltza urrea da.

Itzik onena, esateko dagoena.

Alotetan (dudan) bazaude, ixil zaite.

Esaten degunaren mendekuak gera, ta esan ez degunaren jabe³⁶⁷.

Eta ildo beretik jarraitzen zuten ondorengo egunean:

Zere ixilkayak zeretzako gorde, ez beste ñori ixiltzekotan adirazi.

Askotan mingañoak lepoa mostutzen du.

Mingaño luzeak esku motza.

Lana, lana ta ez berriketa.

Lengo euzkotarrak itz gutxi eta lan askokoak omen ziran, ta gaurkoak...³⁶⁸.

Izan ere, hor zegoen gakoa: euskotartasunean, benetako euskotar izaeran, hitzak alferrik galdu ez eta lanean aritzearekin identifikatzen zen izatean.

Ildo beretik, nagikeriak eta errazkeriak utzi eta lan egin eta saiatu beharra eta, itxurakeriak alde batera utziz, jokabide zintzo eta erdugarriari emandako garrantzia behin eta berriz azpimarratzen zen, "Gurasoak nolako, umeak alako", "Guchika guchika, asko egiten da", "Atean uso echean otso, alako bizikera gaizto", "Geroa, alperraren leloa", "Ardiak beeka egonik, ez du jaten belarrrik", "Alper egon ta alper-lana egin, biyak berdin", "Dagonian bon-bon, ez dagonian egon", "Umiaren ikasiya, echian ikusiya", "Surik ez dan tokiyan, kerik ez", gisa honetako esaerek aditzera ematen diguten legez.

Oro har, esaera eta esakun zaharrek naturaren eta eguraldiaren zeinuak eta giza jokabidea eta giza erlazioak interpretatzeko arrastoak

ematen (beharbada zuzenagoa litzateke gogorarazten aditza erabiltzea) zizkieten herritarrei, baita jokabide sozial, zibiko eta moral zuzena eramateko bidean jartzten zituzten aholkuak eman ere.

Aholku, gomendio eta argibide ugari dugu, izan ere, egutegiko orrietan. Esaera zaharren bidez batzuk, gai bereziren baten inguruan bildutako testu “tekniko”en bidez beste batzuk. Azken hauek, lehen esarekin egin bezala, bildu eta aztertu ditugu formazio kulturala orokorraren inguruan, eta jorratzen zituzten gaien arabera bereizi ditugu. Horrela, sukaldaritzaren inguruko gaiei buruzkoak, haurren hazkuntzari buruzkoak eta, batik bat, osasunari begira eskainitako argibideak, aholkuak eta gomendioak zirela ugarien ikusi dugu. Sukaldaritzaren inguruko idatziak izan ziren gutxien argitaratuak³⁶⁹. Nabarmenagoa izan zen, aldiz, umeen hazkuntzari begira amei zuzenduriko testuen presentzia. Eta, are nabarmenagoa oraindik, osasunaren inguruko gaiei buruzko informazio eta aholku sortena.

Haurrak zaindu eta hezteko argibide teknikoak eta aholkuak (agindu itxura dutenak) espreski ematen zituzten idatziak nabarmen agertu ziren 1914, 1915 eta 1918. urteetan³⁷⁰, egun jarraietan zehar izenburu hauekin azalduz: “Amaren amar agindubak”³⁷¹, “Aurrak azteko”³⁷², “Umientzako kaltegarri bat”³⁷³. Beti ere gaian jakitun zen pertsonaren baten babesean –T-Ltar M., edo L.E.³⁷⁴–, testu horietan lantzen zena, zera zen: haurrak hazteko garaian amak jarraitu beharreko bidearen nondik norakoa, bai alderdi medikutik, ikuspegi pedagogikotik eta, baita, moraletik ere argibideak eta agindu itxura hartzen zuten gomendioak luzatuz. Horrela, jakinaraziko zitzaion amari bularra noiz, nola eta noiz arte eman, nola jantzi haurra, loa nola erregulatu, zer eta noiz eman jaten eta edaten, nola eta noiz garbitu, noiz atera umea pasiatzera, etab. Noski, laguntza teknikoak ematearekin batera ez zen sendagilearen hitza errespetatzearen garrantzia (sendagaiak hartu eta txertoak jartzeko derrigorrezko erreferentzia behar zuen izan) eta Jainkoarenganako maitasuna pizteko beharra aldarrikatzeko aukerarik galtzen. Horrenbestez, gomendio horiekin guztiekin haurraren gorputza, adimena eta afektibitatea nola hezi erakutsi nahi zioten garaiko ama euskaldunari. Haurraren hazkuntza eta hezkuntzarako amaren formazioan eragiteko zuten nahia begien bistakoa egiten da aipatu testuen izenburuetan. Mezuen tonua ikusteko, bestalde, horra adibide gisa ondorengo pasartea:

IV – Zure semia beti garbi eukiko dezu, jantzi geyegirik beñere jarri gabe; ta biarrik gabe ez erantzi.

V – Logalerik eztaukala lorik egitera ez biartu, ta eztiozu janaririk uneoro eman biar, alkohol'a duan edaririk beñere eman gabe.

VI – Aize garbiko artualdi bat egunero emango diozu, eta al dezula, uretan bustialdi bat³⁷⁵.

Bestalde, zenbaitetan egiten ziren zehaztapenek, garaiko herritarren artean zabaldua egon zitezkeen hazkuntza ohiturak erreformatzeko interesa islatzen dutela uste dugu. Ondorengoek, kasu: “Sendalariyak agintzen ditun sendakayak, bakarrik emango dizkiozu, ezjakiñen iritziyak alde batera utziyaz”, “Logalerik eztaukala lorik egitera ez biartu, ta eztiozu janaririk uneoro eman biar, alkohol'a duan edaririk beñere eman gabe”, “Aitzekirik gabe txertatu ezazu”, “aurra bear dan bezela azi ta sendatzeko biderik onena da aurrari bere amaren esnea ez beste iñorena ematea”, “Seaskatik kanpora aurrak ez du beñere lo egin bear”, “Ardoa, aketa (kafia), txerrikiyak, eltzaria eta arnariak (frutak) aurrarentzat arras kaltegarriak dira”, “Amar illabete dituenetik aurrera bein edo bein eman zayozkazuke esne utsaren, edo ur eta gatzarekin nastutako, esne zopak, baño aragiaren edo koipe gauzaren salda edo zukurik iñoz ere ez”. Adibide hauetan, aldi berean, herritarren ezagutza eta praktiken eta ezagutza mediko-zientifikoaren artean zegoen nolabaiteko gatazka edo tentsioa ikus dezakegu.

Esan dugunez, haurren hazkuntzari buruzko idatziez gain, osasunaren inguruko gaiak jorratzen zituzten testuak ziren ugarienetaoak. Gehien bat, 1912. urtean jorratu ziren gai horiek “Osasunerako” izenburupean, bitzta osasuntsua eramateko gomendio eta aholku sortak emanez (21 egunez zenbatuak³⁷⁶). Bertan hainbat hausnarketa motz, burutapen, aholku eta gomendio biltzen zen egoki eta luzaroan osasuntsu bizitzeko bidea ematen zutenak. Hona hemen, horietako adibide bat:

Gutxi jan-edana, pizkortasuna, ibillera, ona emen luzaro bizitzeko bidea. Zorionekuak bularra zabaldurik uda-goizetako aize sendagillea artu dezatekenak!.

Tabako geyegi artzia, ardo geyegi artzia baño kaltegarriyagua da. Goizetako aize garbiya arnastutzia, sendakairik onena da³⁷⁷.

Oro har, “Buruba arin, oñak bero, sabela lasai”³⁷⁸ esaldian laburbil daiteke testu horietan ematen ziren gomendioetan aditzera eman nahi zen mezua. Zentzu berean aritu ziren 1913ko gomendio sortak³⁷⁹,

eta 1914an Z'tar J. sendagileak³⁸⁰ "Osasundun izateko" izenburuarekin idatzirikoak: goiz jeiki, goiz oheratu, haize eta eguzkia hartu, gutxi jan, garbitu, behar adineko atsedena hartu, ondo jantzi, etab. aholkatuz, besteren artean.

Hurrengo urtean, 1915ean, "Japoitarren esaerak"³⁸¹ izenburuarekin eskainitako aholkuak ere ildo horretatik zihoazen: goiz jeiki eta goiz oheratu, ahalik eta ordu gehien aire zabalean egon, egunean behin haragia jan, kafe gutxi hartu, tabakorik eta alkoholik ez hartu, etab. Urte horretan ere deigarria da, "Donosti'ko Artola'rena"³⁸², "Alkoolaren kaltiak"³⁸³, "Alkoola"³⁸⁴ izenburuen azpian, alkohola neurritz kanpo edatearen kalteak agerian jarritz agertu zen idatzi kopurua. Ez da lehenengo urtea, ia konstante bat dela esan daiteke, urtez urte zabaltzen baitzen ordikeriaren aurkako mezuren bat, esaeren bitartez, gogapenen bitartez, edota alkoholaren ondorio kaltegarriari buruz espreski idatziriko testuen bitartez³⁸⁵. Batzuetan kaltea, jakinarazi nahi zenez, fisikoa eta osasun mailakoa zen, "batetik, indarrik batere eztu ematen ta bestetik gaitzak arrapatzeko bidian jartzen du", besteetan kaltea morala zen, "edaten segituz gero laugarren gradua, zerriyarena". Herritarren praktika eta erreformatzaileen nahiaren arteko gatazka iraunkorraren adibide garbia da alkoholaren fenomenoarena, herri mailan finkaturik dagoen jokabidea erreformatzea zein langintza zaila suertatzen den adierazten duena, bestalde.

Osasunaren inguruko gaiez topatu ditugun beste gainontzeko idatziek gaixotasun ezberdinak sendatzeko edota larritasun egoera desberdinetatik onik ateratzeko informazio erabilgarria eskaintzen zuten, batez ere: latza, perrexilaren, limoiaren, igalien onurak eta erabilgarritasuna³⁸⁶, odol jarioak nola eten³⁸⁷, norbaitek su hartu edo ito egiten denean egin beharrekoa³⁸⁸, etab. Idatzi horietan guztietan irakurlea gai zehatzetan formatzera jotzen zuten, eta nolabaiteko oinarri "zientifikoteknikoa" zuten edukiak ziren (edo hori erakusten saiatzen zen).

Azkenik, kultur alorreko formazio orokorraz amaitzeko, Bitxikerien esparruaz hitz egin behar dugu. Hemen, gaztelaniaz "Curiosidades" deitzen zaion sailean sartuko genituzkeen gaiak bildu ditugu, irakurlea "egunean" jartzen laguntzen duen informazio arina, gertakari arraroa jasotzen dutenak. Bitxikeria gisa hartu dugun testu multzoko informazio gehiena arrunta da, beste edozein hizkuntzatan idatzitako egutegietan, gai orokorreko egutegi eta almanaka ohikoei berez dagoen atala osatzen duena. Idatzi gehienetan ez da Euskal Herriari buruzko, ez bertako hizkuntzari edo historiari buruzko informazio

berezirik ematen. Halere, zenbait kasutan bitxikeriatzat hartu ditugu Euskal Herriari buruzko informazio batzuk eskaintzen zituzten idatziak, zela Iruñian Lege Zaharreko monumentuan zeuden euskal idaztien berri ematen zuena, zela 1890. urteko datuetan oinarrituz Hegoaldeko lau herrialdeetako biztanlegoari buruzko datu demografikoak ematen zirenean³⁸⁹, irakurlearen euskotartasuna eta euskaltzale-tasuna indartzeko zabaltzen ziren informazio “bitxiak” ziren heinean. Bestelakoan, oro har, gai eta eduki anitz eta mundu guztiarentzat interesgarria izan zitekeenaz ari gara “bitxikeriak” saileko multzoaz ari garenean.

Zehazki, bitxikeriek egutegian betetzen zuten espazioa nahiko al-dakorra izan zela esan behar dugu. Kultura alorreko gaien artean eduki bitxia zuten idatzien agerpen egunak zenbatu ditugunean³⁹⁰, nola-baiteko pisua izan zutela ikusi dugu 1911. urtean, 1913an, 1915ean, 1917 eta 1918an, kultura alorreko gaietako zegoen osoaren %35aren inguruko proportzioa hartzen zutelarik. Dena den, gai bitxiaren presentzia nabarmenago agertu zaigu 1917. urtean, kultur alorreko gaien agerpen egunen erdia bereganatzen baitzuten testu hauek, batez beste hilean hiru egunez bitxikeriaren bat irakurtzeko aukera eskain zitekeelarik.

Idatzi desberdinek ukitzen zituzten gaiak, ugariak izan arren, urte horietan zehar nahiko iraunkorki landu ziren eta, beraz, ondorengo azpigi nagusietan bildu ahal izan ditugu: Batetik, naste-borraste edo potpourri gisako testuak, munduan zenbat egunkari zeuden, zenbat gizon eta emakume, etab. azaltzen zutenak³⁹¹. Bestetik, ludiaren eta kosmosaren inguruko gaiak lantzen zituzten testuak ditugu, luditik ilargira zenbateko bidea zegoen, izarren izenak eta koloreak zeintzuk ziren, etab³⁹² azaltzen zutenak. Baditugu ere, neurketa mota ugariak –denborarenak, distantzienak, eraikuntzenak, ibaienak, mendienak, itsasontzi eta trenenak, populazioarenak etab.–, eskaintzen zituzten testuak³⁹³. Hor ziren ere anatomia eta giza gorputzaren inguruko informazioa ematen zuten idatziak, ilearen ezaugarriak emanez, gorputz atal desberdinen funtzionamendua azalduz, etab.³⁹⁴. Baita Historiako gertaera eta datu bitxiak ematen zituzten testuak, Alejandro edo Napoleon bezalako pertsonaia historikoen gorabeherak azalduz, hainbat elizaren eraikuntza datak emanez, etab.³⁹⁵. Naturaren eta animalien inguruko informazioa –hainbat txoriren hegaldien ezaugarriak, zapuen onurak, arrainen ohiturak, etab.–, eskaintzen zuten testuak³⁹⁶ ere multzo honetan sartuko ditugu. Herrialde desberdinetako ohitura bitxiak eta bertako egunkariek zabaldu zituzten berriak jasoz,

informazio interesgarriak eskaintzen zituztenak ere baditugu³⁹⁷. “Sucesos” gisako berriak ematen zituztenak³⁹⁸, istripu ospetsuren baten edo jaiotza aldrebesen baten berri emanaz. Eta, azkenik, sorkuntzen eta aurkikuntzen inguruko datu historiko eta teknikoak eskaintzen zituzten testuak³⁹⁹, noiz, nola eta nork sortu zuen adieraziz, adibidez, lurrinontzia, bioliña edo josteko makina.

Beste egutegi ohikoen ildoari jarraikiz, “curiosidades” moduko informazioa eskaintzearekin irakurlea azken berrikuntzen eta aurkikuntzen jakinaren gainean jartzen zuten, bitxikeria mordoaren bueltan “egunean” jarriz. Aukera aprobetxatuz, zenbaitetan, askotan ez bazen ere, informazio bitxi hauetaz baliatzen ziren egileak irakurleari mezu gehigarria helarazteko. Kasu batzuetan mezu moralista-erlijiozkoa izaten zen. Beste batzuetan, ideologiko-politikoa. Ondorengo testu amaiera hauek ditugu, hurrenez hurren, mezu gehigarri horien adibide: “...ta alperrak aste osuan lanik egiten eztunezkeru, esan diteke egunero *erlijio* berriya duela” (erlijio desberdinetako jai egunen berri ematen zuen idatziaren bukaera), “(...) Goikoaren irakastetan ez dabiltzen erridiak ontan ta beste gauz askotan gaizkiagotuko dira”⁴⁰⁰ (dibortzio gehien izan zituzten herrialdeen berri ematen zituen idatziarena), “... eguzkiaren izpiak ez dute-ta gureganatzen 8 iroiren edo minutu eta 13 iroireki edo segundo baizik igarotzen. Esan nazazu, ba, ene irakurlea, altsua ote dan ala ez itz bakar-bakarraz oik gustiyak irazan eta eraldu zituan Jauna eta Irazalea”⁴⁰¹ (izarrak zein distantzian eta zein neurritakoak diren azaltzen zuen idatziarena), “... danak, angoak eta emengoak, zenbatu ta unei (milloi) bat bagera Euzkadi’n dauden maketo gabe or nunbait” (munduko herrialde desberdinetako biztanle kopuruak azaltzen zituen idatziarena), “... guretzako abek guziak baño Euzkadi geyago da ta maiteagotu biar degu”⁴⁰², etab.

Zentzu berean, ez dugu atal hau bukatu nahi informazioa, bitxi-ena izanik ere, Euskal Herriko marko geografiko, politiko eta kultural zehatzera egokitzeko egutegiak egin zuen esfortzua aipatu gabe. Goian aipatu amaiera moralizatzaile eta ideologizatzaileekin batera, ahalik eta aukera gehien aprobetxatzen zen informazio bitxi orokor eta unibertsalaren testuinguruan Euskal Herriari zegokion berezitasunen bat txertatzeko: zela eliz garrantzitsuenen eraikitze datak emateko garaian Nafarroako, Gipuzkoako edo Bizkaiko batzuen ere aipatuz⁴⁰³, zela ehun urtetik gorako pertsonak herrialde desberdinetan zenbat bizi ziren agertzerakoan Euskadiko kasuak ere azalduz⁴⁰⁴, zela Europako ikastetxe ezagunak nongoak eta noiz sortuak azaltzeko garaian

Oñatikoaren aipamena ere eginez⁴⁰⁵, zela egunen izenak Europako hizkuntza desberdinetan nola esaten diren agertzeko garaian ere euskaraz nola diren adieraziz⁴⁰⁶.


2.5. Heziketa moral eta erlijiosoa

Herritarren jarrera moral eta erlijiosoa eragiten zutelakoan atal honen barruan bildu ditugun idatziak zenbait azpimultzotan sailkatu ditugu, aldi berean: ospakizun erlijiosotarako egun bereziekin zerikusituzena zuten edukiak, erlijio testuak eta otoitzak, maxima moralak, bertsoak eta kantak, “Bizitza erredugarriak”, eta euskotartasuna eta erlijioaren arteko lotura indartzen zuten testuak. Ospakizun erlijiosotarako egun bereziekin zerikusia zuten edukitzat hartu ditugu urte sasoiarekin bat (gabonak, aste santua, etab.) atzealdean azaltzen ziren idatziak, erlijio gaiarekin bat zetozenak, eta askotan, urtez urte errepikatzen zirenak. Bidenabar, azpimultzo berean kontsideratu ditugu, baita ere, egun zehatzarekin ez etorri arren, herritarren jokabide erlijiosoa eta moralala indartzera zetozen edukiak. Beharrezkoa ikusi dugu, bestalde, azpiatal berezi gisa hartzea otoitza eta errezen alorra, izan ere hauek euskaraz argitaratzeak erlijio liturgian euskara mailan zegoen hutsunea bete nahia adierazten duela uste baitugu. Maxima moralen kasuan, atal berezia merezi dute, gure ustez, hezkuntza alorrean duten garrantziagatik. Gizarte gainbeheraren aurrean, euskaldunen jokabidea formatu eta erreformatzera zuzenduriko gomendio, gogoeta eta pentsamendu ugari dugu. Horien artean, esaera zaharrek toki propioa zutelarik, kultura tradizional itxietako gazte eta helduen formazioan oso funtzionala izan zen ezagutza korpus itxia aipatu behar da. Izan ere, iraunkorki balio izan zuten helduen artean onartua zegoen egia berretsi, eta bertara gazteak biltzeko. Esaerek, maxima moral eta pentsamenduek zuten inportantzia pedagogikoa ukaezina da, pentsamendua eta jokabidearen erregulatzera jotzen zuten heinean. Faktore hezgarriak dira izan ere: “no sólo transmiten un saber empírico en frases cortas, sencillas y fáciles de memorizar, sino que además alertan, con igual simplicidad, acerca de las penalizaciones que la sociedad depara a aquellos que se desvían” (M. Carreño, 1991, 197). Ahozko-tasunaren presentzia aparte hartu nahi izan dugu oraingoan ere, bertan bilduz argitaratu ziren izaera erlijiosoa zuten bertsoak eta kantak. Beste idatzi batzuetan gertaera erredugarriak eta bizitza erredugarriak kon-

tatzera jotzen zen, baita ere, herritarrak zein ispilutan begiratu behar zuen ikus zezan. Azpiatal berezian aztertu ditugu, halaber, bereziki Euskadik zein euskotar izateak erlijioarekin zuen lotura azpimarratzen zuten testuak.


Ezin da ahaztu egutegiak, hastapenez, erlijio gaiarekin erabat loturik agertzen zirela, bertan denboraren neurketan erabatekoa izanik erlijio erreferentzia, egunari zegokion santuaren aipamena eginez, edota egunari zegokion erlijio araua adieraziz. Gogoan har aurrealdeko orrialdeei buruz goian eman ditugun azalpenak.

Azpiatal hauetan jaso ditugun idatzi guztietan atzeman dugun ezaugarria zera izan da: irakurlearengan komunitate eta kultura kristau, katoliko eta tradizionalista bateko partaide izatearen sentimendua indartu nahi izatea. Herritarraren pertenezia sentimendua indartzea, erlijio eta moral kristauan oinarrituriko identitatea (identitate morala) beregan finkatzen lagunduz.



Heziketa moral eta erlijiosoa *Euzkel-Egutegiya*-n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaia araberakoa
Iturria: Euskal-Esnalearen Egundiya 1909, eta *Euzkel-Egutegiya* 1910-1918

Oro har, kutsu moral eta erlijiosoa zuten testuen agerpena 1910. urtean⁴⁰⁷ izan zen nabarmena, (143 egunez –urte osoko idatzien %39 hartuz–, argitaratu ziren mota honetako testuak). Hipotetikoki idatzien batezbesteko banaketa orekatua egin ezker, urte hartan as- tean bitan, gutxienez, gisa honetako testuren bat argitara emango zela pentsa genezake. Erljio edo moralaren inguruko gaiek leku oso esan- guratsua hartu zuten, beraz, 1910. urtean argitaratu zen egutegian (ikus grafikoa), honen osaketa eta argitalpenaren ardura Isaac Lopez Mendizabal jaunak hartu zuen lehenengo urtean hain zuzen. Euskal- Esnalea elkartearen gidaritzapean sortu zen egutegiaren hasierako izpirituari jarraitu zion Lopez Mendizabalek euskara eta euskaltzale- tasunaren inguruko gaiei tarte nabarmena eskainiz. Baina, nabarmen murriztu zuen ateraldi xelebreen presentzia eta, baita, kultura oroko- rreko gaiena ere, heziketa moral eta erlijiosoaari eskainitako tartearen mesedetan. Gure ustez, tolosarrak bira eman nahi izan zion egutegiari –serioagoa eginez–, Sabino Aranak 1897 eta 1898an argitaratu zituen egutegiak erreferentzia bezala hartuz.




Euzkel-Egutegiya 1910, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaian arabera

Iturria: Euzkel-Egutegiya 1910

Egutegi eta, baita, egunkari eta aldizkari jeltzaleekiko erlazioa ere ez zen hautsi ondorengo urteetan. Sabino Aranaren *Egutegia* (1897) eta *Lenengo egutegia*-ko testuak (1898) argitaratuak ikusiko ditugu, halaber, 1911n eta 1918an. Eta *Euzkadi* egunerokotik, edo *Napartarratik* hartutako idatziak beste hainbatetan. Bizkaiarekiko lotura estutzen saiatu zen, era berean, 1911. urteko egutegian, berau euskalki bitan argitaratuz (bizkaieraz eta gipuzkeraz) eta, ordura arte Bizkaian argitaratu ziren egutegien ildotik, alderdi umoretsu eta jostagarriei tokia kendu eta eduki moral eta ideologiko-politikoei leku gehiago emanen.


Ondorengo urtean, 1911n⁴⁰⁸ (107 egunez –urte osoko idatzien %29–), baita 1913an⁴⁰⁹ (107 egunez –urte osoko idatzien %29–) eta 1917an⁴¹⁰ ere (100 egunez –urte osoko idatzien %27–), urteko 100 egunetik gora –astean bitan–, zenbatu ditugu argitalpen hauek. Maiztasun nahiko esanguratsua, esango genuke.



Euzkel-Egutegiya 1913, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaian arabera

Iturria: Euzkel-Egutegiya 1913

Lopez Mendizabalek egutegiaren ardura hartu zueneko lehenengo bi urteetako saiaketa desberdinen ondoren, badirudi hasiera bateko ereduari (1909an martxan jarri zenari) jarraitu zitzaiola berriro 1912. urtetik aurrera, irakurleriak –merkatuak–, bultzatuta esango genuke, egutegi arinagoa eta irakurterrazagoa eginez. Eduki multzo nagusiak ia urte guztietan mantendu baziren ere, neurri desberdinean izan ziren landuak urte batzuetan eta bestetan. Eta, zehazki, morala eta erlijioaren inguruko gaien presentzia zerbait nabarmenagoa izan zela ikusi dugu 1913. eta 1917. urteetako egutegietan.



Euzkel-Egutegiya 1917, edukia kategorietan berezia, agerpe portzentaien arabera

Iturria: Euzkel-Egutegiya 1917

Gainontzeko urteetan zertxobait jaitsi zen kutsu erlijioso edo morala zuten idatzien presentzia. Urteko 60-65 egunen inguruko maiztasunez agertu zaizkigu (urte osoko idatzien %16) –gutxienez astean behin, demagun–, 1909an⁴¹¹, 1912an⁴¹² eta 1915ean⁴¹³. Presentzia zertxobait nabarmenagoa izan zuten, halaber, 70-75 egunen bueltan (hilean bostpasei egunez), 1914an⁴¹⁴, 1916an⁴¹⁵ eta 1918an⁴¹⁶.

Esan bezala, idatzi hauetan, formazio esparru berean eragiten zuten arren, gai zehatzak jorratzen ziren, modu desberdinean jorratu ere. Horregatik, azpiatal batzuk sortu ditugu, interesgune desberdin horiek bildu eta azterketa sistematikoagoa egin ahal izateko. Bestalde, azpiatalen presentzia nahiko aldakorra izan zela konturatu gara, urte bakoitzetik bestera oso desberdina izan zelarik, adibidez, errezoiei, bertsoei, edo maximei eskaintzen zitzairen tokia, baita erlijiotasuna eta euskotartasunaren arteko lotura finkatzera jotzen zuten idatziei eskaintzen zitzaiena. Ikus dezagun zein izan zen azpiatal bakoitzari eskaini zitzaion tartea.

Urteko data zehatzekin bat zihoazen ospakizun erlijiosoen inguruko testuak ez ditugu urte guztietan ikusi. Ez dugu modu horretako erreferentziarik ez 1912an, ez 1914an ez eta azken hiru urteetan (1916, 1917, 1918an). Bestalde, atzeman izan ditugun urteetan, ezin esan dezakegu ugariak izan zirenik urteko egunak. Adibidez, egun gehienez agertu zireneko urteetan, 1911 eta 1915ean, ez ditugu 11 egunetik gora zenbatu (urte bakoitzean zenbaturiko testu moral eta erlijiosoen artean %10 eta 16 bitarteko portzentaiaz). Zertxobait gutxiago topatu ditugu (8 egunetan) 1910. urtean, eta oso gutxi 1909an (2 egun) eta 1913an (egun 1).

Oro har, idatzi hauek urteko egun seinalatuei buruzko idatziak ziren. Egun berezien inguruko azalpen historikoak eskaintzen zituzten idatziak ziren, elizak ospatzen zituen egun zehatzen inguruko azalpen historikoak, zein biblikoak, ematen zituztenak, zergatik, noiz eta nola ospatzen ziren argituz, adibidez, errege eguna⁴¹⁷, santu guztien eguna⁴¹⁸, otsailaren 1eko eguna⁴¹⁹, Aste Santuko jaiegun bakoitza⁴²⁰, Eguberri eguna⁴²¹, epailean ospatzen ziren erlijio gertaerak⁴²², edota Lurdesko Ama Birjiñaren eguna⁴²³, “Sorrkunde Errugabea”ren eguna⁴²⁴, Ama Mariaren Jasoeraren eguna⁴²⁵, Mariaren jaiotza eguna⁴²⁶, eta abar⁴²⁷. Beste batzuetan, egun bereziari zegokion erlijio testua edo otoitza zen argitaratzen zena egun berean, edo inguruetakoa batean. Hona hemen horietako adibide bat:

Sortaldeko iru errege santuak Gaspar, Melchor eta Baltasarrek mirarizko izar baten bitartez jakin zuten zeruko Erregearen jayotza, eta beren lurak utzi eta aur Jainkoa arkitzeko gogo biziz irten ziran eta Jerusalemen sarturik galdetu zuten: ¿Nun dago jayo dan juduen errege? Berri onek Herodes erregea izutu zuen, baña bildurra bere barrunbean estalirik Errege santu oyei eskatu zien Belenen billatzen zuten aurra arkitzen zutenean itzuli zitezela ostera beragana, ura adoratzera bera ere joan zedin. Joan ziran beren bidean eta erriz kanpotik zegoen estalpe baten gañean izarra gelditu zitayela ikusirik, ezagutu zuten ura zala Gloriko erregia zegoen tokiya; sartu ziran bertan, eta Birjiña aurrarekin besoetan ikustian, argiro ezagutu zuten zekusten aur ura egizko Jaungoikoa zala, eta lurrian auzpezturik adoratatu zuten urre, inzensu eta mirra emanaz; eta beren mendetasuna agertu ondoren itzuli ziran etorri ziran ez beste bide batetik. Aingeruak ala esan zielako⁴²⁸.

Egunak eta ospakizunak urtez urte errepikatzen ziren neurrian errepikatzen ziren ere zegozkien azalpenak, ez kasu guztietan baina bai batzuetan: errege egunaren kasuan, santu guztien egunarenean, Egu-berri egunekoan, Lotazilaren 8ko Ama Birjinaren egunarenean, zein Otsailaren 12koarenean etab. Errepikatuak ere ikusi ditugu zenbait erlijio testu eta otoitzak, bertsoak eta kantak, idatzi erlijioso-ideologikoak. Baita gogoeta bat baino gehiago ere.

Beste esparruetan legez, hots, euskaltzaletasunaren eta euskotartasunaren heziketari dagokienean, zein formazio kulturalakoan, bertso eta kantak ere argitaratu ziren gai erlijioso eta moralen inguruan. Ospakizun erlijiosoen azalpenak eta erlijio testu eta otoitzak ez bezala, erlijio gaia zuten bertso eta kantak urtero argitaratu ziren. Hain zuzen, egun gehienetan argitaratu zituzten urteak 1910 (48 egun), 1917 (32 egun) eta 1913 (27 egun) izan ziren, nahiko presentzia esanguratsuarekin. Urte osoko egunen arabera azpimarragarriak dira 1910. eta 1917. urteko datuak, eta are azpimarragarriagoak egiten dira gai moral eta erlijiosoez ziharduten idatzien artean bertsoek eta kantekek urte horietan izan zuten presentzia ikusita, hots, %33 1910ean eta %32 1917an. Beste urte batzuetan ere, nahiz eta bertsoak argitaratu zireneko egunen kopurua txikiagoa izan, esparruko idatzien artean bertso eta kanta erlijiosoez protagonismo nabarmena izan zutela esan behar da. Ikusi dugunez, esparru honetan bilduriko testuen %30tik gora osatzen zuten bertso eta kantekek 1915ean eta 1909an⁴²⁹; idatzi erlijiosoen %20tik gora 1913an, 1918an eta 1916an⁴³⁰. Aitzitik, bertso

eta kanta erlijiosoen presentzia arras eskasagoa izan zen bai egun kopuruetan bai hartzen zituzten protzentaiaetan 1912an, 1914an eta 1911n⁴³¹.

Beste esparruetan ere ikusi ahal izan dugunez, hauetako bertso eta kanta ugari egilearen izenarekin eman zen argitara. Beste batzuk, ordea, egilearen izenik gabe argitaratu ziren⁴³².

Egilearen izena agerian zeramaten bertsoak kontuan hartuta, beren bertsoak urte gehienez, hiruzpalau urtez alegia, argitaratuak ikusi zituzten egileak Jose Ignazio Arana (1909, 1910, 1914, 1915), Sabin Arana-Goiri (1909, 1910, 1917), B.E.A. (1909, 1910, 1916) eta Jautarkol (1916, 1917, 1918), izan ziren. Bi urtez argitaratuak ikusi zituztenak, berriz, Luis Eleizalde (1909, 1910), Emeterio Arrese (1916, 1917), E. Elizetxea (1910, 1913) eta Erredenderi'tar Erramun Aba Buruñurduna (1917, 1918) izan ziren; urte betez, halaber, azaldu ziren beste idazle hauen bertso erlijiosoak: 1909an Antonio Arzak, Migel Antonio Iñarra, Pio M^a Morata C.R.L., Mibisus eta Karmelo Etxegarai; 1910ean P.M., B.E.M.A, B.A.E., E. Elizetxea; 1911n E'tar J.B.; 1914an Alkain'dar Perdiñanda eta Olantxe; 1915an E.U., Mirendarra, A., Abade Euzkotarra; 1916an R.L., Jose Elizondo, Basil Garitaonandia, Domingo Agirre, D.A. Intza; 1917an Koldobika, Erraimun, Joseba Ezkidi, Etxeita, Luis Etxeberria; eta 1918an K., J. Elzo-Azpiazu, Ebaristo Bustintza. Oro har, bere bertsoak egun gehienetan argitaratuak ikusi zituena, guztien artean alde handiz, Sabin Arana-Goiri izan zen (guztira 24 egunetan). Egun kopuruetan presentzia nabarmena izan zuten beste bertso idazleak E'tar E. (guztira 10 egunetan) eta Jautarkol (guztira 11 egunetan) izan ziren. Gainontzeko egile guztiek 1-5 bitarteko egunetan izan zituzten argitaratuak. Beraz, bai egun kopuruetan bai urte kopuruetan maizenen argitaratu izan ziren bertso erlijiosoak Sabin Arana-Goirirenak izan ziren.

Kanta eta bertso sorta bat Ama Birjiñari eskainitako bertsoek osatzen zuten, batzuk Maria amari gorazarre egiten ziotenak eta, beste batzuk Birjiñak hartzen zituen adierazpen zehatzen ohorez egindakoak, gehienetan -urteroko zita legez-, berauen ospakizun egunekin konplutuz argitara ematen zirenak⁴³³: Maiatzeko loreak, Ama zerutarren jaiotza, Andre Maria Birjiñaren zeruratzea, Sorkunde Errugabeari, Begoñako Amari, Karmeloko Amari, Arantzazuko Amari, Izaskungo Amari, Larraizko Amari, Lurdesko Amari, etab. Hona hemen, horietako bertso batzuk:

Izaskun'eko Ama
Birjiña Mariya
Onez ta edertasunez
Betiko jantziya;
Amatxo zu zerade
Gutzizko garbiya
Goizeko izar eder
Alai ta argiya.

Biotz nereko Ama
Gozo txit laztana
Euzkaldunen zaindari
Ibiltzen zerana;
Alkar arturik gatoz
Pozkiro zugana,
Begiratu bat egin
Dezazu gugana.

Euzko-erri guztiyak
Txit maite zaitugu,
Zurekin bizitzea
Betiko nai degu;
Eta bene-benetan
Esaten dizugu
Zugatikan beñere
Aztuko ez gera gu⁴³⁴.

Beste sorta bat zuzenena Jesukristori eta bere inguruko gertaerei eskainitako bertsoek osatzen zuten. Hemen sartzen ditugu: Jesusen Bihotzari eskainitako kantak, aste santuaren inguruko kantak, eta baita gabonak inguruko kantak eta bertsoak ere⁴³⁵.

Bertso eta kanta gehienak Ama Birjiñari eta Jesukristori eskainiak izan arren, argitaratu ziren, halaber, beste batzuk santu jakinen bati eskainitakoak⁴³⁶, eta beste batzuk, elizako liturgian kantatzeko, edo otoitz gisa idatziak izan zirenak⁴³⁷.

Baita ere, gutxiago baziren ere, kontuan hartu behar ditugu erlijiozko helburu zehatzen inguruan aritu baino, ikasgai moralaren bat eskaintzeko interesa nabarmenagoa zutenak. Horien adibide gisa azpimarra ditzakegu ordikeriari buruz agertu ziren bertsoak, osasun fisiokoaren inguruko hausnarketa baino osasun moralaren inguruko kalteak azpimarratzen zituzten neurrian⁴³⁸.

Aipaturiko idatziez gain erlijio testu ugari argitaratu zen elizaren ospakizun eta liturgien inguruan, otoitzak, ebanjelioak, eta itun zaharreko pasarteak, besteak beste. Horrelako erlijio testuak lehenengo bost urteetan zehar argitaratu ziren ugarien. Gero, hutsune baten ondoren, berriro heldu zitzaion 1918an berauek argitaratzeari. Zehazki, argitalpen egun kopururik handienak 1911n (28 egunez) eta 1910ean (27 egunez) zenbatu ditugu –hilean bi egunetan demagun–. Zentzu berean, erlijio testuen presentzia nahiko esanguratsua izan zen 1909an (14 egunez) eta 1913an (20 egunez) batez ere, formazio moral eta erlijiosoaren esparruan bildu ditugun idatzien artean proportzionalki idatzi hauek izan zuten tokia ikusita, hots: %20tik gorako portzentaia 1911n eta 1909an, %18aren ingurukoa 1910ean eta 1913an. Nahiko esanguratsua izan zen erlijio testuen presentzia ere 1918an, zenbaturiko egunak (18 egun) eta esparruko idatzien artean testu hauek hartu zuten portzentaia (%23koa) kontuan hartzen baditugu. Aitzitik, erlijio testurik topatu izan dugun urteetan artean 1912. urtea izan da argitalpen egunik gutxien (2 egun) atzeman duguna. Halaber, hutsunerik nabarmenena 1914-1917 bitartean eman zen.

Erljio testuen artean egunarekin lotuta zihoan otoitza mota bat ebanjelioena (“Goizpar-itzak”) zen. Ikusi ahal izan dugunez, ia urtero argitaratu zen ebanjelioetako testuren bat⁴³⁹ zegokion egunarekin lotuta, gehienetan “Biyarko Goizperra” edo “Gaurko Goizperra” izenburupean agertzen zelarik. Zentzu horretan, 1913. urtea deigarria egiten da, izan ere bertan atzeman ditugun erlijio testu ia guztiak ebanjelioetako pasarteak baitira⁴⁴⁰. Hona hemen “goizper” hauetako baten adibidea:

Eskatzeko t'eskatzeko desaye jarraileai Josu'k: ziñez diyetzuet, ziarduben Berterosleak azken-apariyan, edozer, gauz Aitari eskatzen badiyozute nere izenean ematen dizute. Nere Aitak maite zaituzte, zuek maite izan nazutelako; eta nik ere zuen aldez eskatuko det⁴⁴¹.

Erljio testuen artean, halaber, ondorengo testu hauek nabarmendu ziren izan zuten agerpen egun kopuru ugariagatik eta maiztasunagatik: Kempis-en *Kristo'ren Antz-bidea* liburua bere hainbat atal argitaratu zelarik⁴⁴² lehenengo urteetan, 1909an, 1910ean, eta 1911n alegia. Azpimarratu behar da ere Ane-Katariñe Emmerich-en *Kristo'ren Nekauztearen (pasiyoaren) ikuspenak* liburua, Kempis-ena baino gutxiagotan agertu arren, bere atalek nolabaiteko presentzia izan baitzuten⁴⁴³ egutegiko lehenengo urteetan. Antzeko maiztasunez agertu

ziren J.-K. Huysmans-en testuak ere⁴⁴⁴. Zentzu berean, aipatzekoa da A. Mendibururen *Otoitz gayak* liburua, bere pasarte batzuk argitaratu baitziren, batik bat, lehenengo eta azken urteetan⁴⁴⁵. Hiru testu horiekin batera beste hainbat euskaltzalek idatziriko, edo itzulitako otoitzek eta erlijio testuek ere izan zuten tokia orri hauetan, hemen sartuz, besteak beste, hauek: “Angelus Domini euskeraz”⁴⁴⁶, Arana-Goirik euskaratutako “Benedictus”⁴⁴⁷, Serafin Albizurik euskaratutako “Josu-Kisto’ren Elestija”⁴⁴⁸, Lopez Mendizabalen Dotriña Laburraren zatitxo⁴⁴⁹, E’tar K.-ren “Ziñezmen, itxaropen eta maitasunezko egipenak”⁴⁵⁰, Emeterio Arreseren “Otoitz”⁴⁵¹, Egutegi Bizkaitarretik jasotako “Artzai onaren deadarrak”⁴⁵², bataiatzerakoan egin beharreko otoitzen inguruko azalpenak⁴⁵³, baita beste hainbat idatzi ere⁴⁵⁴.

Bai ospakizun erlijiosoetako idatziak, bai erlijio testu eta otoitzak eta, baita ere, bertso eta kantak argitaratzearekin, euskararen erabile-rari zegokionez euskaltzaleek garaiko elizkizunetan ikusten zuten hutsunea bete nahi zen nolabait, irakurlearen esku jarri nahi izan zirelarik euskaraz eginiko otoitzak, erlijio testuak, kantak, eta abar, herritarrek (baita apaizek ere) beraien elizkizun eta otoitzetan euskara erabil zeza-ten edo, behintzat, erabili beharraren kontzientzia eduki zezaten. Horrelako testuak egutegi honetan egotearen arrazoï nagusia horretan ikusten dugu: erlijio liturgiak euskaraz egin zitezten kontzientziae-raztean eta horretarako baliabide materialak eskura jartzean.

Bestalde, orain arte aipatu ditugun erlijio testuei loturik aipatu behar dira ere ia urte guztietan zehar argitaratu ziren kontakizun erlijioso eta moral luzeak, hots, bizitza eta gertaera eredugarrietatik abiatuz ikasgai moralaren bat emanez amaitzen zutenak. Bereziki oinarrizko erlijio testuetara joaz (Itun Zahar eta Berrira), baina baita ere atzerriko adibideetara, esperientzia anitzetan oinarritutako kontakizun luzeak eskaini ohi ziren, jokabide egoki eta eredugarriak zeintzuk ziren argi erakusteko asmotan moralejaren batekin amaitzen zutenak. Maxima eta esakunekin batera, eta helburu bertsuei jarraituz, bizi-tzarako jokabide eredugarriak erakustera zuzenduriko hainbat eta hainbat idatzi argitaratu zen, ia urte guztietan. Maxima eta proberbioak ez bezala, ordea, idatzi hauetako gehienak testu luzeak ziren, orrialde osoa hartzen zutenak. Beraietan ikusi dugun berezitasuna, luzeraz gain, zera izan da: irakurlearentzat eredugarriak izan beharko zuketean jokabideak azpimarratzera zuzenduriko kontakizun histori-

koak eta erlijiosoak zirela. Hauetako asko “vidas ejemplares” moduko kategorian txertatuko genituzke.

Iraunkorki argitaratu ziren gisa horretako testuak, nahiz eta, oro har, urteko egun kopuruetan presentzia oso nabarmena ez izan, ez eta heziketa moralaren inguruan bildu ditugun idatzien artean ere. Egundakopururik gehienak 1911n (32 egunez) –gutxienez hamabostean behin, demagun–, 1912an (30 egunez), 1918an (25 egunez) eta 1914an (20 egunez) zenbatu ditugu. Kopuru eskasena, berriz, 1909an (2 egunez), 1916an (3 egunez), 1910ean (11 egunez), 1917an (15 egunez), eta 1915ean eta 1913an (17 egunez). Heziketa erlijiosomoralaren inguruan bildu ditugun idatzien artean, halaber, idatzi mota horrek tokirik esanguratsuen 1912an (%48) izan zuen, zertxobait gutxiago 1918an (%32); %28-29aren inguru hartu zuen 1911n, 1914an eta 1915ean. Portzentaia horietatik behera agertu ziren gairontzeko urteetan (%15 1917an eta 1913an, %7 1910ean, %4 1916an, eta %3 1909an).

Bai atzerriko pertsonaiaren baten inguruko informaziotik, bai santu, elizgizon eta hainbat ongileren biografiatxoetatik abiatuz, zabaldu nahi izan ziren ikasgaiak ondorengo gai hauen inguruan ibili ziren, batik bat: Jainkoarenganako maitasuna, batetik, eta beronek agindutakoa behar bezala betetzearen garrantzia bestetik, hots, igandetan lanik ez egitea, meza entzutea, jaunartzea, eta abar⁴⁵⁵. Testu batean aditzera eman zenez, *Euzkel-Egutegiya*-k herrian zuen eragina garrantzitsua baitzen, honen arrakastaz baliatu beharra zuten herritarren jokabide moralean eragiteko. Egutegia etxe askotan sartzen zenaren frogat bat dugu adierazpen hau eta, aldi berean, jokabideen erreforma bultzatzeko plataforma gisa erabili izan zitekeenaren adibidea. Ikus, adierazpen zehatza:

Jakiñik “Euzkel-Egutegiya” etxe askotan sartzen dala, onen birtarte, irakurle guziaz esker bat eskatzen dizuet: “otordu aurretik Aita gure bat esateko oiturari, zintzo jarraitu deyozuela”.

Nabaitu det Euzkelerriko etxe askotan egunetik egunera galtzen dijoala, iya oraindano gorde dan oitura ori; eta egiaz txit mingarriya da galtzen uztea.

Edo sinismena aztu dalako, edo zabarkeriz, sendi askotan asten dira jaten, ez Aitagure bat esan, eta ziñatu ere gabe, zakurrak bezela.

Askok, badakit zer esango dezuten au irakurtzean –apaizen bat dek ori jarri duna, etzian zer jarri aundirik– baña sinistu, ez naiz apaiza, baizik, oitura on guzian maitale bat⁴⁵⁶.

Halaber, zabaldu zen beste mezu nagusi bat erlijioa eta erlijioza-leen –eliza eta elizgizonen–, aldeko begirunea izan zen, eleizgabekoen aurrean tinko eutsi beharra azpimarratzen zelarik⁴⁵⁷. Hona hemen, erlijio katolikoaren eta erlijioza-leen aldeko kontakizun horietako baten adibidea:

Mexico'n aurtxoan gaxotetxean sua sortu zan. Lekatemiak (mon-jatxuak) ziran gaxozaileak.

Aurtxo gaxoak erre etzitezen ari ziran lekatemiak su tartetik atezatzen. Nai zutena iritxi zuten aurtxoak gaizkatzea (salbatzea). Lan artan sei lekateme il dira.

Toki batzuetan jarri dituzten gaxozaile *laica*'k izan baziran zer gertatuko ote zan? Ikustekoa izango zan noski. Zer dala ta ote da onelakoetan beti gopatz (religi6n) aldekoak agertzea?

Gopatz bagerik orrelakorik ez dago. Ala ere gopatz kaltez dabiltzanak aurrerapide zaleak omen dira. Gopatzaleak dira noski atzerapidez dabiltzanak, aurtxo gaxoak gaizkatzearren su tartean bizia galdu dutenak⁴⁵⁸.

Bidenabar, azpimarratu nahi zen ohitura onak jarraitu beharraren garrantzia (gutxiago jan eta edan, gutxiago gastatu, beraz, aurreztu eta bizitza sanoagoa eraman, idazti onak irakurri, lan egin, apustuetatik ihes egin, etab.). Gezurrari aurre egitearen, ongia egitearen eta jokabide moralizatzaile horien bidez gazte, heldu eta gurasoei begira zabaldu ziren beste batzuk⁴⁵⁹. Hona hemen, haur eta gazteen heziketaz gurasoek ardura har zezaten eman ziren azalpenetako baten adibidea:

Gizon batek deitu zion motiko bati ematen zizkela idazkia (karta) iru txakurtxorekin; oa, dio, ta idazki au *selloa* jarrita gero bota zak.

Mutikoa or dijoa *estankora* ta alde guzietara begiratuaz, iñork ikusten etzuala iruditu zitzaionean *sellu* gabe idazkia bota ta or dijoa arinka gizonarengana diola: tori iru txakurtxoak, iñork ere ikusi ez nau idazkia botatzean.

Etzan ijitoa izango, bestela ¡alajaiña! Iru txakurtxoaz zer egin asmatuko zuan jabeari biurto gabe.

*“Ondo asitako gaztetxoak beti ezagunak dira. Irakasten zayena ta batez ere ikusten dutena da egin oi dutena. Landaria biguña dan bitartean zuzendu leiteke; gero alperrikako lana izaten da”*⁴⁶⁰.

Aipagarriak dira edariak menderatuta bizi izateak zekartzan jokabide eta egoera desegokiez ohartaraztera zuzenduriko azalpen

luzeak⁴⁶¹. Baita ere, espreski, emakumezkoen jokabidea bideratzera zuzenduriko gomendio eta aholku multzoak⁴⁶².

Oro har, kontakizun erlijioso eta moralizatzaileen helburua irakurlea egin behar ez zuenaz ohartaraztea zen, jokabide desegokien ondorio kaltegarriak begien bistan jarritz. Eta, aldi berean, egin behar zena eta tinko eutsi behar zena irakatsi nahi zitzaion, bizitzarako oinarritzko printzipio moral batzuk sendotzen lagunduz.

Urteak pasa ahala, erlijio testuak gutxiagotuz joan ziren aldi berean esakun zuhur eta gogapenak gero eta ugariagoak izan ziren mezu morala zabaltzerakoan, hots, herritarren heziketa morala zuzentzeko garaian. Erlijio testu eta kontakizun luzeen bitartez landutako gaiak gero eta nabarmenago izan ziren atsotitz eta maxima moralen bidez zabalduak. Adierazpide generiko desberdinen pean –“Gogapenak”⁴⁶³ eta “Itz Oroigarriak”⁴⁶⁴ izan ziren maizen erabilitako terminuak–, urtez urte argitaratuz joan ziren, egutegi arrunt oro legez, hiruzpalau pentsamenduz, gogoetaz, zein aholkuz osaturiko sortatxoak. Hona hemen, gogapen sorta hauetako baten adibidea:

Bere gora-berak eta atsekabeak ondo eramaten eztakien gizona
baño zori gaiztogorik ezta.

İñoren beldurrik gabe bizi nai badezu, zere biotza beti garbi eduki
dezazu.

Ikasi dezazu ixillik egoten eta mintza zaite bear dalarik bakarrik⁴⁶⁵.

Gogoeta sortak adierazteko erabili ziren beste terminuak “Idazti Deunaren esakunak”⁴⁶⁶, “Esakun oroigarriak”⁴⁶⁷, “Esakun zarrak”⁴⁶⁸, “Esan gogoangarriak”⁴⁶⁹, “Egiyak”⁴⁷⁰, “Oldozkuna”⁴⁷¹, “Gogaiak”⁴⁷² izan ziren. Beste zenbaitetan, kasuan kasuko izenburu zehatzagoren batetara jotzen zen⁴⁷³ edo, besteetan, inolako izenbururik gabe⁴⁷⁴ agertzen ziren.

Pentsamendu eta gogoeta gehienegileak, adierazten zirenean, atzerritar ospetsuak baziren ere, euskaldunek egindako hausnarketak ere argitaratu ziren noizean behin. Horien adibide dira Domingo Agirrearen *Garoa*-tik hartutako “Esaera bereziak”⁴⁷⁵.

Maxima horiek motzak izaten ziren, oro har, hiruzpalauz osaturiko sortatxo gisa egun bati zegokion idatziaren lekua hartzen zutenak. Beste kasu askotan, pentsamendu, gogoeta edo maxima motzen batek orrialde osoa hartu ez baizik eta beste edukiren batekin konpar-

titzen zuen orrialdea. Hona hemen, adibidez, ateraldi xeblere batekin orrialdea konpartituz:

- Bai aldakizu zubi ertzean zer gertatu dan?
- Ez.
- Automobil bat eta gurdi batek, alkar juaz biyak oso puskatu egin dira.
- Eta barrenen zijuaztenak?
- Etxejuan inor barrenen.
- Orduan pozik egon ditezke oker aundigorik izan ez dutenian.

“Zartzen zeranian, zure umiak zuri egingo dizute, zuk zure gurasoai egin diezuna”⁴⁷⁶.

Maxima moralen presentzia, bertso eta kanten antzera, iraunkorra izan zen, urtez urtekoa. Presentzia esanguratsua izan zela ere esan behar da, bai urteko egun kopuruari dagokionez, bai moral eta erlijio kutsuko idatzien artean hartu zuten tokiari dagokionez. Nabarmena eta esanguratsua izan zen maxima eta atsotitzen presentzia, batez ere, 1916. urtean, agertu ziren egun kopuruarengatik (53 egun –demagun, astean behin gutxienez–), eta, baita ere, irakurlearen heziketa morala bideratzera zuzenduriko ia testu gehienak gisa honetakoak izan zirelako (%72). Nabarmena izan zen ere heuren presentzia 1917an (50 egunez –atalean bildutakoen %50–), 1914an (42 egunez –atalean bildutakoen %60–), eta 1913. urtean (42 egunez –atalean bildutakoen %39–). Esanguratsua izan ere beraien presentzia, atalean bildutako idatzien artean izan zuten tokiagatik, 1909an (24 egunez –atalean bildutakoen %39–), 1912an (18 egunez –atalean bildutakoen %29–) eta 1910ean (35 egunez –atalean bildutakoen %24–). Beste urteetan, 1918an (15 egunez –atalean bildutakoen %19–), 1915ean (11 egunez –atalean bildutakoen %16–), eta 1911n (16 egunez –atalean bildutakoen %14–), nahiko presentzia esanguratsua izan zuten, oro har, pentsamendu eta gogoeta moralek, nahiz eta urteko agerpen egun kopuruak jeitsi.

Goian aipatu atalburuetako batzuek adierazten duten legez, maxima motz hauen asmorik garrantzitsuena zeramaten mezua gogoan hartua izatea zen, izan ere “las máximas breves, cuya evidencia es palpable, se imprimen facilmente en la imaginación: el hombre no las olvida; le sirven a veces para hacerle volver atrás del camino del vicio y, cuando menos, le enseñan a discurrir porque es incalculable el número de pensamientos que se originan y nacen, a veces, de una sola

verdad”⁴⁷⁷. Gogoan hartu, beraz, zer? Bada, gizakiari zegozkion “egin-beharretan” txertatuko genituzkeen oinarrizko gaiak, hala nola guraso ona izateko kualitateak, seme zintzoari dagozkionak, etab. Ikus, adibidez, ondorengo pasarteak:

Egizko Jakinduriyaren asiera Jainkoaren bildurra da.
Santutasunaren asiera apaltsu izatea da.
Gizon jakintsu baten epai on gabe ez da ezer egin bear.
Zure egikera guziyak Jainkoaganontz zuzendu itzazu.
Guziz gain Jainkoa maite izan zazu.
Charkeriyari ez charkeriz erantzun⁴⁷⁸.

Gazteei zein helduei zuzendurik, hemen eskaintzen zena *loci* batzuen inguruko aholku eta ohar mordoa zen: jainkoarekiko maitasuna lantzea, lagun hurkoarenganako begirunea eta maitasuna edukitzea, hitzontzikerian ez baizik ekintzan oinarritzea, alperkeriarako joerari aurre egin eta langilea izatea, gaztetik jateari eta edateari, loari, diruari, itxurakeriari, hitzari, eta gogoei neurria hartzen ikasten hastea, baita ere gaiztakeriatik aldenduz gizarte jokabideari ere neurria hartzea, etab. Egutegiak ohartarazi nahi zuen irakurlea jokabide desegokiak, ekar zitzakeen ondorio kaltegarrietaz eta, jokabide egokiaren bidea hartzeko beharrezko aholkuak eman, hots, ondorengo hamar hauetan laburbil daitezkeenak:

- 1.- Al dezun on guzia guziaz egin.
- 2.- Ez infortzaz gaizki esan.
- 3.- Erabaki baño len, gogaldu.
- 4.- Aserretua zaudenean ixildu.
- 5.- Eskatzen zaitzuna, al badezu, egin gabe ez gelditu.
- 6.- Ezeukiak soroskitu (lagundu).
- 7.- Egindako utsunak aitortzeko ez bildur izan.
- 8.- Guziakin eroapendun agertu.
- 9.- Eztabaidetatik aldendu.
- 10.- Berritxuak diotena ez lasterregi ta errazegi zifñistu⁴⁷⁹.

Zentzu horretan, heziketa moralari dagozkion kuestioetan egutegiak irakurleak orientatzeko zuen asmoa garbia da, maxima, atsoitiz eta esaeren bitartez, nagusiki, irakurlearengan bertutea, erlijioa, ordena eta lanarekiko maitasuna pizten hartu zen lana ikusita.

Azkenik, aipatu nahi ditugun idatziak euskotartasuna (abertzale-tasuna) eta erlijioaren arteko lotura estutzera jotzen zutenak dira. Ez ditugu testu hauek urtero atzeman. Atzeman ditugunean ere ez dira

oso ugariak izan. Baina, ikuspegi kualitatibotik, adierazgarria dela uste dugu egutegi honetan testu erlijioso-politikoek izan zuten presentzia. Zehazki, kutsu erlijiosoarekin batera nolabaiteko kutsu ideologiko-abertzalea zuten testuak atzeman ditugun urteak 1910 (14 egunez –ataleko idatzien %9–) eta 1911 (11 egunez –ataleko idatzien %10–) izan dira. Geroago, egun gutxiagoz izan arren, 1917an (4 egunez –ataleko idatzien %4–) eta 1918an (2 egunez –ataleko idatzien %2–). Azpiatal honetan bildu ditugun idatzietan atzeman dugun ezaugarririk esanguratsuen zera izan da: zenbait gertaera erlijioso aukeratu izan zenean ikuspegi euskotar eta abertzaletik aukeratuak eta azalduak izan zirela. Horien artean kokatu ditugu, adibidez, jatorri euskalduna zuten santuen azalpen biografiazkoak, beraien bizitzaren gorabeherak eta jokabide aipagarrienak azaltzen zirelarik, heuren jatorri euskalduna azpimarratu nahia bistakoa baitzen idatzi horietan⁴⁸⁰. Halaber, aintzat hartu ditugu Euskal Herriarekin eta bertako semeekin zerikusia zuten gertaera eta ospakizun erlijiosoen inguruko azalpenak⁴⁸¹. Horietako idatzi batzuetan, ematen ziren azalpen eta adierazpenez baliatuz, bide-nabar, dei egiten zitzairen euskotarrei beraien izateari zegokion kristautasuna zaindu eta sendotu zezaten, honela adibidez: “¡Euzko-Erriya! Euzko-Erriya, antziñako zure guraso zarren erlijioa eta sinismena ez utzi, benetan zorionsua, zorionekua izan nai badezu”⁴⁸².

2.6. *Ateraldi xebreak*

Egutegiaren edukiaz egin dugun azterketan kontsideratu dugun beste esparrua ateraldi eta kontakizun xebreak osaturikoa da, umoreari eskainitakoa, alegia. Esan daiteke egutegiaren muina, hein handi batean, umorez eginiko testuak, hots, ateraldi, gertaera eta kontakizun xebreak izan zirela. Alde batetik, 1917ko agurrean gomendatu zen legez, agerikoa zen eragileengan irakurlea modu atseginean hezteko zuten asmoa: “... Ez ba aztu jolas-tartean esan dizkizun onu edo kontseju onak...”⁴⁸³. Horretaz gain, egutegiak zuen alderdi umoretsuaren garrantzia ikus dezakegu ere horma egutegiaren estalkiak –1910. urtekoan zehazki–, alboetan zeramatzan iragarkietan, hots, “Igarkizunak” (ezkerreko alboan) eta “Izkirimiriyak” (eskuinekoan). Salmentarako propaganda gisa umoreari erreferentzia egitea ez zen egutegiari bakarrik zegokion ezaugarria izan. Herritarren artean antzerki, liburu eta abarren inguruko komentarioak eta propaganda egin nahi zenean maiz

jotzen zen testuaren edo ekitaldiaren alderdi umoretsuari erreferentzia egitera. “Farregarria” edo “jostagarria” bezalako izenlagunak maiz erabili ohi ziren herritarra ekintza kulturaletara hurbil zedin animatzeko garaian edo libururen bat, aldizkariren bat, edota egutegia erosi eta irakurtzera anima zedin propaganda egiteko garaian. Umorea faktore garrantzitsua izan zen, amu gisa, herritarra euskarazko ekitaldietara, antzerkietara eta irakurketara erakartzeko garaian.


Egutegiarentzat oinarritzko baldintza zena, irakurterraza eta atsegina izatearena, alegia, oinarri-oinarritzkoa zen baita ere garaiko euskarazko aldizkariarentzat, baserritar eta herri xeheari zuzenduriko aldizkariarentzat, batez ere. Halaber, irakurterraztasuna eta atsegingarritasuna bi errekurtsos baliatuz lortu bide zela nagusiki: umoreari eta ahozko kulturari tartea esakainiz. Ildo horretatik ezarri ziren *Baserritarra* aldizkarian, adibidez, “Izkirimiriak” atal bereizi moduan. Era berean, irakurterraztasun eta atsegingarritasunaren ezaugarria azpimarratu zen *Gipuzkoako Nekazaritza* aldizkarian bere agerpenaren berri eman zenean, hots:

... Errebista au da terrama probintzialarena eta bertan asaltzen diran ez bakarrik terrama artako lagunak jakiñ bear dituzten guztiak baizik baserritar denari chit komeni zaizkanak. Gañera, bertoztan eta zelebrekeritan, bere buru zein dan esaten duen modukoa dator eta onela egiten da beraren irakurtzea edo leitzea chit atzegiñezkoa⁴⁸⁴.

Helburu berarekin argitaratu ziren *Ibaizabal* astekarian ere hizkirimiriak, igarkizunak, barrea sortarazteko bertsoak, egoera dibertigarriak, etab. Ondorengo pasartean astekariaz esaten dena esan daiteke, neurri handi batean, *Euzkel-Egutegiya*-ren gainean, bai edukiaz bai asmoaz:

¡Josuuu! Guardi-zibil bati barrezka negar eraguiteko beste. Gainera, ipuñak, irakurkizun edo artikulo politik Euskal-erriko gauzen ganean, irakasbide onak baserritarrentzat, gatz-piperdun zapladak gure artean euskereari destaiñaz beguiratuten deutsenari, igarkizunak burua sor daukenari elchoa baiño zoliago ipiñi eraguitekoak; berba baten, zapatu arratz domeka goizak aida baten eta gozoro igaro erazoteko papelik onena (...) Euskera gaisoa, ain ederra ta ain maitagarria, ta ain baztertua euskaldun askoren gogoetan, jasotea da IBAI-ZABAL-en eguinkizun bakarra. Barrezka barrezka euskaldunai euskerea maite izaten erakutsi⁴⁸⁵.

Egutegiaren kasuan, beraz, alderdirik alaiena eta jostagarriena Igarkizunek, Hizkirimiriek eta ateraldi xelebreek bete zuten. Zentzu horretan, propagandarako erabil zitekeen estrategia izateaz aparte, oso nabarmena izan zen urtez urte egutegiko orrietan izan zuten presentzia. Argitalpen egun kopuruen arabera, egutegiko atalik oparoena ateraldiena izan zela ikusi dugu.




Ateraldi xelebreek *Euzkel-Egutegiya*-n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaien arabera

Iturria: Euskal-Esnalea'ren Egundiya 1909, eta *Euzkel-Egutegiya* 1910-1918

Gutxienezko zenbatu ditugun urteetan ere, 1910ean (121 egunez, urteko idatzi guztien %33 hartuz⁴⁸⁶) eta 1911n (129 egunez, urteko idatzi guztien %35 hartuz⁴⁸⁷) alegia, 100 egunetik gora zenbatu ditugu –demagun, astean bi egunetako maiztasunaz–. Halaber, lehe-

nengo urtean, 1909an ezarri zen egun kopuru altuaren ildotik (153 egunez⁴⁸⁸), 150 eta 160 egunen inguru ikusi ditugu (urteko idatzi guztien %40-45 hartuz) –demagun, astean hiru aldiz–, gainontzeko urte gehienetan, hots, 1912an (151 egunez⁴⁸⁹), 1913an (159 egunez⁴⁹⁰), 1914an (160 egunez⁴⁹¹), 1917an (147 egunez⁴⁹²) eta 1918an (165 egunez⁴⁹³). Bi urteetan ateraldien presentzia urriagoa atzeman dugun bezala, beste bi urte, 1915 (195 egunez, urteko idatzi guztien %53 hartuz⁴⁹⁴) eta 1916 (187 egunez, urteko idatzi guztien %51 hartuz⁴⁹⁵) nabarmendu zaizkigu alderantzizko arrazoirengatik, ateraldi xelebreen presentzia nabarmenagoa edukitzeagatik, hain zuzen, urteko idatzi egunen erdia baino gehiago hartuz, –demagun, astean ia lau aldiz–. Hona hemen bi urte horietan edukiaren banaketa nolakoa izan zen erakusten diguten marrazkiak.




Euzkel-Egutegiya 1915, edukia kategorietan bereizita, agerpen portzentaien arabera

Iturria: Euzkel-Egutegiya 1915

Bistan da, goiko grafikoa ikusita, 1915. urtean zehar egutegian zabaldu ziren edukien artean nabarmenki nagusitu zirela umorearekin loturiko testuak eta maila esanguratsuan ere kultura orokorraren inguruko idatziak. Murrizketa nabarmena izan zuen formazio moral eta erlijiosoarekin zerikusia zuketzen idatzien igorpenak, eta nabarmen jeitsi ziren ere euskara eta euskal gauzen inguruko mezu eta idatzi zuzenak.

Hurrengo urtean, 1916an, antzeko banaketa eman zela esan daiteke (grafikoak erakusten duen bezala). Alderdi umoretsuak nagusitasuna zuelarik, zertxobait areagotu zen euskaltzaletasunaren eta euskotartasunaren inguruko idatzien presentzia. Bestalde, ez dugu hizkuntz formazioarekin zerikusia zuzena eduki zezakeen testurik atzeman, ez eta asmakizunen esparruan sar genezakeenik ere.



Euzkel-Egutegiya 1916, edukia kategorietan bereizia, agerpen portzentaien arabera

Iturria: Euzkel-Egutegiya 1916

Argitaratu ziren idatzi umoretsuen nondik norakoa argiago ikustearren, bestalde, edukiaren eta moduaren araberako bereizketa bat egin beharra ikusi dugu, nolabaiteko azpitipologia sortuz. Horrela, kontakizun xebleak, elkarrizketa moduan emandako ateraldiak eta bertso moduan jarritako ateraldi xebleak bereizi ditugu. Idatzi mota horiei ez ezik, aparteko arreta eskaini diogu Fernando Amezketarraren gertaera eta ateraldiak argitaratu izanari.

Batetik, beraz, kontakizun xeble moduko idatziak argitaratu ziren, gertaera xeblearen baten inguruan egiten ziren kontakizunak edo gertaeraren baten inguruan egiten ziren azalpen xebleak –modu bietarako baitzegoen tartea–, izaten zirenak, alegia. Honela adieraziak izaten ziren, adibidez:

Madrillen ikaskuntzetan ebillen mutil batek eutsan bere aitari eskutitz bat esanaz:

[Aita maitea: Poztuko nintzake au artueran osasun oso osoan bazengoz echeko guztiakaz batera. Bialduidazuz ainbat lasterren ogetabost ogerleko, euren bearrean nago ta.

Biotzetik maite zaituen seme

Anton]

Onetariko eskaerakaz kiskalduta eukan aita aspaldian, da onek erosi eban paper andi bat, eta azpitik ogerleko bat jarri ta ganetik lapitz bategaz diruaren irudia atera eban ogetabost bider; bialdu eutsan paper au ogetabost irudiakaz eta eskutiz onegaz:

[Seme maite-maitea: Pozarren artu ta irakurri ioadat ire esku-titza. Aonegaz ioazak eskatu deustaazan ogetabost ogerlekoak; eta, ene semechoa, bearrean aurkitzen azanean eskatu ardura barik, moldea echean iaukaguk-eta.

Eure aita maitati

Jose]⁴⁹⁶.

Halaber, horietako kontakizun batzuk, beste izaera (moral, kulturala, teknikoa, ideologikoa, etab.) zuten idatzietan gertatu legez, egun desberdinetan segida zutelarik argitaratu ziren, atalkako argitalpen gisa. Ez ditugu kasu askotan atzeman, baina bai noizean behin. Hona hemen, bi egunetan zehar azaldu zen horietako beste adibide dibertigarria:

Gabon jayak ziran eta txauburu (vicario) jaunak dirautxo margolarijari: Imini egixu *kontua*, ia zeure lanakatik zer emon biar yatzun. Amarr agindubak barrieztutiagatik 4 erreal

Pillatos'i mosua garbitu ta bere txapelari ayebita barrija ezartziatik	3 >
Deun Kepa'en ollarrari bustan barrija ipiñi ta gangarra gorritutiagatik	5 >
Lapur deungea obeto lotu ta ziri bat ezkerreko eskuban sartutiagatik	3 >
Kaipas'en mirabeari mosua garbitu ta uliak orrastutiagatik	4 >
Zerua barrieztatu, ixerr bi geitu, ta idargijari eskumako adarra zuzendutiagatik	7 >
Purgatoriyoko zua biztu, ta inpernuko drago ta pistijari agiñak zorrostutiagatik	12 >
Balan'en astuari belarri asitxuaguak ipiñi, bustan gallurra mostu ta atse-aurretako perra zarrak untze barriajak jostiagatik	6 >
Tobias'en semiari abarka barrijak egin eta sakel zarrari ugel barrija ezartziatik	3 >
Guztira	47 >

Beste onenbeste, gixon batek, egin dabela iñok entzun edo ba-daki,
datorren urtian jakin eraso dagijala⁴⁹⁷.

Kontakizun luze gisa hartu ditugu elkarriketa klabeen eskaini ez ziren idatziak. Gertaeren bat modu farregarrian kontatzen zuten idatziak, batik bat. Hala, idatzi umoretsuen artean kontakizun luzeen presentzia ez zela oso nabarmena izan ikusi dugu. Argitalpen joerak marrazteko asmotan orientazio gisa egin dugun zenbaketaren ondorioz, urte guztien artetik 1911 ikusi dugu kontakizun umoretsuetarako joera nabarmenen azaldu zen urtea, batez beste hilean bi egunetakoa izanik kontakizun luzeak agertu zireneko maiztasuna. Ez dugu, halaber, inolako joerarik atzeman hauen argitalpenean, urteen arabera nahiko aldakorra izan baitzen maiztasuna.

Aitzitik, idatzi umoretsuen artean gehien argitaratu zen testu mota elkarriketa moduan jarritako ateraldi eta gertaera xelebreena izan zela ikusi dugu. Elkarriketara jotzeak, bere aldetik, idatzizko eta ahozko komunikazioaren arteko loturaren estutzea adierazten du, herri-

tarren hizkeran eta espresio moduekin idatziak ziren neurrian, ateraldi horiek ahozko komunikazioa eta adierazpen idatzia uztartzeko birtarteko aproposa baitziren. Elkarrizketaren errekurtsoren bitartez herriarren ahozko komunikazioaren isla fidela bilatzen zela esango dugu egoera eta gertaera hauek nolabaiteko antzezpen xumerako aukera irekitzen zutelarik aldi berean. Elkarrizketaren errekurtsoa, esan daiteke, herri xehearekin sintonizatu nahi zen komunikazio egoera anitzetan erabili izan zela, nahiz eta komunikazio egoera horiek idatzizkoak izan. Hainbat adibide ikus daiteke garaiko euskarazko aldizkarietan, hala nola, *Gipuzkoako Nekazaritza*-n eta *Baserritarra*-n argitaratu zen “Berrichukeriak” atala, *Euskal-Esnalea*-k zuen “Jokin Arteaga eta Euskal-Esnalea” pasarte finkoa, eta abar, guztietan irakurlearengana informazioa zabaldu eta iritzia egiteko bide gisa erabili zena, irakurlearengandik hurbil beti ere.

Zehazki, elkarrizketa motzez eta erdimailakoez osatutako multzoa⁴⁹⁸ kontakizun xeble luzeena baino handiagoa izan zen urte guztietan zehar. Kopururik urrienak 1911. urtean ikusi ditugu. Beste gaitontzeko urteetan, aldiz, 50 egunetik gora zenbatu ditugu bai ateraldi motzen kasuan bai erdimailakoen kasuan. Ondorengo ateraldian ikus daiteke maizen argitaratu zen xeblekeria moduaren adibidea:

Mutil koskor batek bere aitarentzako zeramakiyen gozariyaren erdiya bidean jan zuben eta aitarengana irichi zanean asi zan negarrez.

– ¿Zer dezu seme? – galdetu ziyon bere aitak – ¿Zerbait gertatu altxaizu?

– ¡Ai aita! Korrika nentorren bedorren gozariyarekin eta...zapla! Koska batian trabatu ta arri tarte batzuetara lapikua erori zait ta... salda bakar bakarrik jaso det⁴⁹⁹.

Zenbaitetan ere, elkarrizketa moduko xeblekeria motzak binaka argitaratu ohi ziren orrialde berean, honela:

Ikastetxian

Maxubak: – Sagarrak artzeko garairik onena noiz da?

Mutil koskorak: – Zakurrik eta baserritarrik eztagonian.

Maitetasun-azalketa

Mutillak: – Zuk erretako taloak jango nituzke ba nik.

Neskak: – Pozik erreko nizkitzuke ba⁵⁰⁰.

Binaka argitaraturiko ateraldiak maiztasun handienez ikusi ditugu 1909an, 1912an eta azken bi urteetan (1917 eta 1918an), 20 egunen

bueltan, hain zuzen. Gutxien argitaratuak, aldiz, 1914-15 urteetan izan ziren. Beste gainontzeko urte guztietan 10 egunetik gora zenbatu ditugu.

Halaber, beste ateraldiren batekin ez ezik, gertaera xelebrea maiz agertu ohi zen beste eduki motaren batekin orrialde bera betetzen. Konbinaketarik arruntena igarkizunaren batekin, eta, batez ere, aurreko eguneko igarkizunaren emaitzarekin egindakoa izaten zen⁵⁰¹. Era berean, umorearen laguntza aprobetxatu ohi zen mezu serioagoak zabalatzeko, hala nola, gogoeta moralaren bat edo beste, mezu euskaltzale edota euskotarraren bat, edo informazio kulturalen bat⁵⁰².

Ez zen harritzekoa ere mezu erlijioso-morala zein ideologikoak zabalatzeko zuzenean umoreaz baliatzea, hainbat kasutan ikusi ahal izan dugunez. Hona hemen adibide bat:

Azpeitiko ostatu batean zan. Beste askoren artian indiano bat an ari zan esan alak esaten praille, abade, jesuita'gatik. Alako batian esan zuan orratik berak gabero errosarioa errezatu oi zuala.

– Aizak, esaten dio aldamenean zedukan batek, nai dek ontza urre bat apustu egin Agur Maria errezatu ezetz?

– Bai uraxe bereala ixildu. Ez ixildu bakarrik maitikan altxatuta andikan alde egin zuan.

Etzan ori ordea politena. Aizu –galdetzen diote apustu egin nai zuanari,- ontza urrerik bai al zenduan?

– Ez, ez nian baño billatuko nian.

– Nola orrenbesteraño aurreratu zera ba?

– Banetxekian nik orrek errosarioa errezatzen etzuela. Errosarioa errezatzen duanak orrenbeste berriketa ez dik erabiltzen. Agur Maria ere, errezatzen ez bada, aztu egiten dek, orri ori gertatu zikok⁵⁰³.

Xelebrekeria gehienak izenbururik gabe agertu ohi ziren. Halere, batzuetan irakurlea gidatzen zuen izenburuarekin ere agertzen ziren. Izenburuak generikoak izaten ziren batzuk, hala nola, “Baserritarren ateraldiyak”, “Ateraldiya”, “Izkirimiriak”⁵⁰⁴. Beste batzuk, aldiz, irakurlea egoeran sartzan laguntzen zuten izenburuak izaten ziren. Hona, adibide gisa, agertu ziren irakurburuen aukeraketa bat: “Irakaslea eta Ikasleak”, “Sermoi ondorian”, “Aroztegiyan”, “Bata bezelakua bestia”, “Artzekodun batek zortzalleari”, “Nagusi-Morroyak”, “Euskalerriko andaluzak”, “Epailleak ijituari”, “Senar gaizto baten aitorpema”, “Eche-koandria ta neskacha”, “Arrantzale batena”, “Motikoen alkate”, “Erritazalea”, “Txartelekoetan”, “Ikaslari baten azkarkerijak”, “Bizartegiyan”, “Bi baserritar trenean”, “Sagar-lapurretan”, “Nongoa ote zan”, “Epai-

learen aurrian”, “Garizuman”, “Mutil pizkorra”, “Morroi-artian”, “Nestor Donosti’n”, “Patxi ta Sendagillia”, “Bultzian (trenian)”, “Eiztari bizkorrak”, “Ikastetxean”, “Ostatu kaxkar batian”, “Jostunarekin”, etab.

Ildo honetatik, hainbat pertsonaiaren (irakaslea, baserritarra, apaiza, bizargina, arotza, udaltzaina, tabernaria, harakina, epailea, arrantzalea, alkatea, ehiztaria, sendagilea, jostuna, haginlaria, zapata-riaren...) bitartez behin eta berriz errepresentatuak agertu ziren lanbide batzuk ikusi ditugu. Behin eta berriz, hein berean, islatu ziren herri-tarren bizitzan oinarritzakoak ziren guneak: taberna, kalea, harategia, arrandegia, zapatadenda, eliza, tren, etxea, baserria, eskola, burdino-la, antzokia, auzitegia, espetxea... Eta, behin eta berriz, errepresentatu ziren gizarte egoera horietan gauzaturiko erlazioak, umore klabean interpretatuak noski, ondorengo pertsonaia hauen arteko elkarrizketetan, nagusiki: apaiza eta herritarra, nagusia eta morroia, etxeoandrea eta neskamea, kaletarra eta baserritarra, baserritarren artekoa, maisua eta ikaslea, kanpotarra eta bertakoa, eskolatua eta eskolatugabea, aita eta semea / ama eta alaba, mozkorren artekoa, ehiztarien artekoa, etab. Lanbideak, espazioak eta erlazioak, guztiak ziren, nolahi ere, Gipuzkoako herri gehienetako irakurleentzat ezagunak, arruntak eta gertukoak egiten zitzaizkionak, herri bizitzaren errepresentazio karikatuzatua eginez.

Egoera xelebreetan egiten ziren leku erreferentziak ere irakurlearen ganako gertutasuna bilatzen zuten. London, Amerika, Filipinak, Maroko, Sevilla, Valentzia, Bartzelona, Logroño, Andaluzia, etab. bezalako atzerriko hiri eta zonalde “entzunen” ondoan agertzen ziren Euskal Herriko hainbat herriren izenak (Bilbo, Garai, Argintzano, Mundaka, Nafarroa, Leitza, etab.). Dena den, gertaeren testuinguru bezala ugarien agertu zirenak Gipuzkoako herrienak izan ziren, Donostia, Hernani, Ormaiztegi, Zumarraga, Altzo, Alegia, Tolosa, Albiztur, Azpeitia, Zegama, Beasain, Leaburu, Berastegi, Villafranca, Berrobi, Altza, Lazkao, Bedaio, Astigarraga, Erreterria, Matxinbenta, Amezketa, eta Orendain, adibidez.

Ildo beretik, herri tradizio eta kulturarekiko hurbiltasuna zaintzen zela ikusi dugu ateraldietako protagonistak ziren giza-emakumeengan, behin eta berriz agertu zirenak. Herri pertsonaiez osaturiko unibertso oso bat dugu aurrean: Pello Kirten, Txanbolin, Tomate, Pachara, Jeolimo, Lesaka, Marrakax, Tripotx, Argintzanoko Manu, Anton Kaiku, Ijitoa, Joxe Krakas, Praxku, Triku, Pello itzaia, Koska itzaia eta, baita

ere, Pernando Amezketarra... Horietariko asko garaiko izen arruntak ziren (Joxe, Praxxu, Mikela, Pello Matilde, Josebatxu, Pelipe, Patxi, Koxme, etab.) zenbaitetan modu farregarriagoan ipiniak. Gertaera eta istorio umoretsuetako protagonistak ziren pertsonaia horiek behin eta berriz entzun eta irakurriak izango zituzten herritarrek eta, zentzu horretan, hurbileko sentituko, herri kulturaren erreferentzia esanguratsuak izango zirelarik.

Oro har, ateraldi xeblere gehienak egilearen izenik gabe argitaratu ziren, inorenak ez eta, aldi berean, guztionak bailiran. Bakan batzuk besterik ez ditugu topatu, azken urteetan batik bat, egilearen izena zeramatenak: P.M., Biktoriano Iraola (maizen aipatua 1916. urtean, batez ere), Toribio Alzaga, Pillipe, A.A. Arruti, Nik, Jaxinto, Agirre, Antonio Arzak, Jajai, eta J. Elzo-Azpiazu⁵⁰⁵. Proportzioan gutxitan agertu arren, ikusten da nolabait idatzi umoretsuetan espezialistak zirenen ordezkartza, esan bezala, azken hiru urteetan gehienbat.

Proportzioan, egilearen izenaz argitaratuak ikustea arruntagoa izan zen umorez eginiko bertsoen kasuan, nahiz eta baziren egilearen izenik gabe eta izenbururik gabe ere argitaratu zirenak. Espreski egilearen izenarekin argitaratu zirenetatik abiatuz, bada, urte gehienez (hiru urtez) eta egun gehienez argitaratuak izan ziren bertsoak Marzelino Soroarenak izan zirela ikusi dugu. Bi urtez Biktoriano Iraola, Emeterio Arrese, eta E. Elizetxearenak. Eta, urte batean, E.M. Azkue, Felipe Arrese ta Beitia, Jose Artola, eta Pillipenak⁵⁰⁶.

Esan bezala, egutegiaren alderdi umoretsuaren baitan bereiztu dugun beste aspektu bat umorez eginiko bertsoena izan da. Edo, beste modu batean esanda, bertso umoretsuen agerpena. Izan ere, elkarrietzeta moduan jarritako ateraldi asko erriman eginak izan ohi ziren eta, alderantziz ere, erriman jarritako bertso askotan elkarrizetak tartekatuak zeuden. Bertsoetan jarritako umorea ez dugu urte guztietan atzeman, eta atzeman dugunekotan nabarmen 1909. urtea agertu zaigu oparoen, ia hilean bi egunez agertuz. Lehenengo urtean atzeman dugun bertso umoretsuetarako joera, ondorengoetan, jada, ia desagertzut joan zela esan dezakegu.

Era berean, aparteko aipamena eskaini nahi izan diogu Pernando Amezketarren pasadizoen argitalpenari. Izan ere, eragileengan istorio horiekiko interes berezia sumatu baitugu berauek jaso eta zabalkuntzan hartu zuten lanean. Momentu batean adierazi zutenaren arabera, badirudi komenigarria ikusten zela, herritarren artean zuten oihartzun eta arrakastagatik, Pernandokeriak bildu eta liburu batean argitaratzea:

“...Pernando ote zan? Eztakit; dakitana da, Pernandoren ateraldi, esakera, neurtitz eta gañerako burukaldiak idaztitxo batean norbaitek bilduko balitu, salduko litzakeala”⁵⁰⁷. Liburu desiratu hori azaldu bitartean, badirudi, bestalde, egutegiak beregain hartu zuela Pernandoren pasadizo ospetsuak herritarrei idatziz itzultzearen erantzukizuna. Uste honek bultzatuta jaso ditugu aparte Amezketako Pernandori zegozkion ateraldiak, espreski horrela adieraziak zetozen idatzietan oinarrituz, batez ere, baina baita ere, nahiz izenbururik agertu ez, berarenak zirela adierazten zuten aztarnak ematen zituzten idatziak aintzat hartuz, honelakoak adibidez: “Pernando bazijoan bere semiarrekin baso batera eta onek galdetzen diyo aitari...”. Bildu ditugun erreferentzien arabera ugarien agertu zireneko urteak 1909 (12 egunez⁵⁰⁸) eta 1911 (20 egunez⁵⁰⁹) izan ziren. Gainontzeko urteetan askoz neurri txikiagoan (7 egunetan ikusi ditugu 1915ean, 4 egunetan zenbatu ditugu 1910ean, 1913an, eta 1917an, 2tan 1912an eta batean 1914an eta 1916an⁵¹⁰). Oro har, egun kopuruetan eskaini zitzaizen tartea oso esanguratsua ez bazen ere, aipamen berezia egitearekin azpimarratu nahi izan duguna zera izan da: umore euskaldunaren esparruan Pernandori arreta eskaintzearen egutegiak egin zuen ahalegina.

Xelebrekerietan, beste esparrutan baina maizago eta ugariago agian, errepikapenerako joera oso nabarmena izan zen. Ez dugu sistematikoki neurtu zenbat ateraldi izan ziren errepikatuak, ez eta ateraldi bera ere zenbat aldiz argitaratu zen. Baina, idatziak egunez egun irakurtzen joan garen bitartean berehala ohartu gara ateraldi asko eta asko irakurriak genituela, jada, ezagunak egiten zitzaizkigula. Azterketa sistematikoagoa ezean, oraingoz “susmo” gisa bakarrik adierazi nahi dugu joera hau. Hemen, adibide moduan baliagarriak izan daitezkeen erreferentzia gutxi batzuk bakarrik jaso ditugu, errepikatuak izan zirenen susmoetan jarri ditugun ateraldiak askoz ugariagoak baitira. Adibidez, ondorengo ateraldia, lehen aldiz 1911n irakurri duguna... (hamahiru mahaian eseritzea hamarrentzako tokia dagoenean):

- Zuk uste al dezun amairu mai batian eseritza txarra dala?
- Oso txarra...amarrentzat bakarrik bazkariya badago.

Errepikatua ikus daiteke, 1916an, zertxobait aldatua:

- Mai batian amairu eexeritza gauza txarra dala uste al dek?
- Izugarri txarra..., jana amarrentzat bakarrik dagonian.

Eta, baita ere, 1917. urtean:

Mayean amairu eseritzea txarra dala al deritzat?

– Oso txarra...jana amarrentzako besterik ez danean⁵¹¹.

Fenomeno berdina ikus dezakegu ondorengo egunetako adibideetan: *Euskal-Esnalearen Egundiya 1909*, Jorraillak 4 “Zillargillia ta Per-nando” errepikatua ageri da in *Euzkel-Egutegiya 1917*, Orrilla 1 “Izki-rimiriya” izenburupean. *Euzkel-Egutegiya 1911*, Azaruak 5 eta 6 “Betse onenbeste ezta iñoiz entzun, gixon batek egiteko...” errepikatua ageri da *Euzkel-Egutegiya-n 1914*, Ilbeltzak 26 eta 27 “Par egiteko” izenburupean eta orain, gipuzkeraz. *Euzkel-Egutegiya 1913*, Azaruak 12ko ateraldia errepikatua ageri da *Euzkel-Egutegiya-n 1915*, Garagarillak 24 “;Aitak ala semiak ote zekian geyago?” izenburupean. *Euzkel-Egutegiya 1915*, Ilbeltzak 4 “Ipui zarra” ateraldia errepikatua ageri *Euzkel-Egutegiya-n 1917*, Dagonillak 22 “Begi-sendagille baten etxean” izenburupean. *Euzkel-Egutegiya 1916*, Uztailak 24 “Izkirimiria” izenburupean agertutako ateraldia errepikatua ageri da *Euzkel-Egutegiya-n 1918*, Jorraillak 5 (izenbururik gabe). *Euzkel-Egutegiya 1916*, Urrillak 2ko ateraldia errepikatua ageri da *Euzkel-Egutegiya-n 1917*, Garagarillak 30. *Euzkel-Egutegiya 1917*, Urrillak 28 “Ateraldia” izenburupean azaldu ateraldia errepikatua ageri da *Euzkel-Egutegiya-n 1918*, Jorraillak 2 (izenbururik gabe).


Begien bistakoa egin zaigu xeblekeria asko urte bat baino gehiagotan argitaratua izana izatea. Askotan zertxobait moldatua agertu ohi zen grafia aldetik (hitz bat edo beste aldatuta ere), urte batean gipuzkeraz zegoena beste batean bizkaieraz topa zitekeen, sarrera aldatuarekin agertu ohi ziren beste batzuk. Zitekeena zen, ere, urte batean izenbururik gabe agertu zena beste urte batean izenbururen baten pean irakurtzea, edo urte batean izenburu batekin eta bestean beste izenburu baten pean agertzea. Moldaketak moldaketa, finean, ateraldia berdina zen. Baliteke, beharbada, ateraldi xeble asko ezagunak izatea. Dena den, idatziak eta honela zabalduak izatean beraien finkatzeari mesede egingo zitzaion eta, eduki bera behin baino gehiagotan agertu izanak (testuinguru berean, edo idatzi desberdinetan irakurketa egoera desberdinetan) finkatze horretan ere lagundu egingo zuen, zalantzarik gabe.

Azken batean, herritarren hizkeran eta komunikazio moduetan, ahozkotasunean, finean, oinarrituz idatziriko ateraldi eta gertaera xebleen argitaratzearekin lortu nahi zutena zera zela esango dugu: euskaraz irakurtzea ahalik eta ekintza arinen eta positiboena izatea

irakurlearentzat. Beste modu batean esanda, irakurtze ekintzak lanik ez ematea, ahalik eta neke gutxien ematea irakurleari. Zer hobe, dibertituz burutzen dugun ekintza baino? “Instruir deleitando” izango litzateke oinarrizko abiapuntua. Hala, eduki umoretsu eta atseginen bitartez, irakurlearengandik eta bere egunerokotasunetik gertu, irakurlearengan euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatu nahiko zen. Hori zen herri umorearekin lortu nahi zen helburua: euskalduna euskarazko irakurketan zaletzea. Halaber, ateraldi eta txisteeek eskaintzen zituzten aukerak anitzak ziren: irakurleari gertukoak zitzaizkion kultur erreferentziak eta bizipenak jasotzeko aukera eskaintzen zuten, egoera eta jokabide ereduak eskaintzeko bidea ematen zuten, memorizatzen zein ahoz erreplikatzeko errazak ziren testuak ziren, jendearena urrean, taldeari ahoz kontatzeko (antzesteko) edo irakurriak izateko aukera paregabea eskaintzen zuten, denbora libre pasatzeko aukera ematen zuten, hizkuntzaren ikaskuntzarako estrategia gisa erabiliak izan zitezkeen, eta, funtsean, guretzat oinarrizkoena dena, irakurketara gonbidatzen zuen umorea zeramatenez, alfabetakuntzarako baliabide garrantzitsua ziren.

2.7. Asmakizunak

Egutegiaren alderdirik jostagarrien eta dibertigarriena asmakizunek osaturikoa dugu. Izan ere, ateraldi xelebreekin batera, egutegiaren irakurketak zenbaitetan suposa zezakeen lan astuna leuntzen laguntzen zuten, neurri batean. Hainbat izen generiko pean, hots, “Igarkiya”, “Igarkizuna” eta “Asmakizuna”ⁿ⁵¹² batez ere, agertu ziren, orrialdea bere osotasunean hartuz ala beste edukiren baten (gogoetaren bat, ateraldi xelebriren bat, kultur arloko gairen baten, etab.) laguntzaz betez. Gainera, asmakizuna agertu ondorengo egunean eman ohi zen bere emaitza argitara, gehienetan ere beste edukiren baten azpian.



Asmakizunak *Euzkel-Egutegiya*-n, agerpen maiztasunaren bilakaera 1909-1918, portzentaien araberakoa

Iturria: Euskal-Esnalearen Egundiya 1909, eta *Euzkel-Egutegiya* 1910-1918

Lehenengo urtea izan zen, 1909 (28 egunez, %7⁵¹³) gutxi gorabehera hilean bi egunetako maiztasunarekin edo, asmakizun kopuru handiena argitaratu zeneko urtea. Kopuru nahiko adierazgarrian agertu ziren, halaber, 1910ean (18 egunez, %4⁵¹⁴), zertxobait gutxiago 1917an (8 egunez, %2⁵¹⁵), eta gainontzeko urteetan behin edo behin⁵¹⁶ besterik ezin izan dugu topatu modu bateko edo besteko asmakizun edo denborapasarik. Izan ere, asmakizunen atalean bildu ditugun arren, beraien artean ere beste bereizketa bat egin dugu Gurutzegrama gisa adierazitakoen, Hieroglifiko moduan jarritakoen, Igarzikizun moduan emandakoen eta Bertsotan jarritako asmakizunen artean. Gurutzegrama gisa hartu ditugun asmakizunak gehienetan izartxo batzuren ordez hizkiak jartzea eskatzen zutenak izaten ziren. Honela:

* * * *
* * * *
* * * *
* * * *

Izarrtxuok izkiz ordeztu, ta goitik bera ta ezkerretik eskubira, darraitzen onek irakurri: 1^a. baserriyetan eta kale-etxe batzubetan dagoena; 2^a arrtzen iñork atsegini ez tuana; 3^a. gau baten izena; 4^a. Landarei dagokioten aditza⁵¹⁷.

Urte gehienez eta egun gehienez present egon ziren asmakizun moduak gurutzegramak eta buruhauste moduko asmakizunak izan ziren. Gurutzegramak kopururik nabarmenenak, zehazki, 1909an eta 1917an agertu ziren. Asmakizunak, berriz, ugarien 1910. urtean. Buruhauste moduko asmakizun edo igarkizunak esaten dugunean, batetik, irakurlea buruketa matematikoak egitera eramaten zuten ariketei egiten diegu erreferentzia, honelakoei adibidez:

Bi lagunak bide batian dijuaztela arkitzen dute zakeltxo bat, eta barrenen dagona ikusiyaz dio batak bestiari:

– Zakeltxo onen dirua nereak daukanari erantsiyaz, zuk bezelako bost izango det.


Besteak erantzuten dio:

– Eta nik, arkitu degun zakeleko diruba nere zakelekuakin nas-tutzen badet, zuk, bezelako zazpi izango det.

Zenbat errial zituen bakoitzak eta zenbat zeuden arkitutako zakelean?⁵¹⁸.

Eta, bestetik, asmakizun arruntagoei, ¿zer zen? ¿nor zen? Asmatu beharrekoak zirenei, gisa honetakoei, alegia:

Nere gurasoak kantatzalleak dira, bañan ni ez naiz kantatzallea: nere soñekua zuriya da, ta nere biyotza gorriya. Nor ote naiz?⁵¹⁹.



Euskal-Esnalea'ren Egundiya 1909, edukia kategorietan berezia, agerpen portzentaiei arabera

Iturria: Euskal-Esnalea'ren Egundiya 1909

Oro har, 1909. urtea (ikus grafikoa) izan zen buruhauste gehien argitaratu zenekoa, urte osoko edukia kontuan hartuz, nahiko presentzia esanguratsua izan zuela esan genezakeelarik. Ateraldi xebleen kopuruari gehitzen badiogu asmakizunena, lehenengo urteko egutegiaren izaera, oro har, nahiko jostagarri eta atsegina zela esango dugu. Era berean, eta, zehazki, hieroglifiko moduan planteaturiko asmakizunak lehenengo urtean agertu ziren, 1909an, nahiko modu nabarmenean, gainera. Gerora ez dugu honelakorik gehiago topatu. Hieroglifiko horietako asko marrazki eta guzti argitaratu zen.

Berezi nahi izan dugun beste asmakizun mota bertso moduan jarritako igarkizunena izan da. Izan ere, gainontzeko atal eta gaietan ikusi dugun legez, asmakizunen kasuan ere argitaratu baitziren bertsoen bitartez moldatutako asmakizunak. Hala ere, ezin dugu esan urteetan zehar mantendu zen joera izan zenik. Asmakizun bertsoak

batez ere 1909. urtean agertu ziren, eta oso kopuru nabarmenean, gainera, urteko igarkizunen argitalpen egunen zenbatekoa kontuan hartzen badugu. Esan daiteke, lehenengo urte hartako ia asmakizun gehienak bertso moduan jarriak izan zirela⁵²⁰. Ondorengo urteetan, berriz, apenas izan dugu horrelakorik topatzeko aukerarik. Hona hemen, bertso moduan jarritako asmakizun horietako bat adibide gisa:

Etxian ditut bi zik...3
ollo ta ollarrak dira ama...3
zekor guriyak, beyak...3
uso, ollagor eta m...3
Txokak kantatzen tiru l...3
Bear da ale ta mij...3
Denak saldu ta zenbat d...3
Naiko gauza det, ona zen...I
Aztu ez bazait besteren...I
Gutxigo duna bada an...I
Buru austeko badet din...I
Etortzen bazait gizonen...I
Eta galdetu dena zen...I
Egingo degu tratu on...I⁵²¹.

Jose Artola eta, batez ere, Ramon Artola izan ziren asmakizun bertso gehienegileak, bai bahintzat agerian agertu zireneko egileak. Bi egile horiez kanpo ez zen beste gainontzeko kasuetan egilerik adierazi ez bertsoetan, ez gurutzegrametan, ez hieroglifikoetan ez eta buru-haustetan ere.

Asmakizunaren esparruarekin amaitutzat eman dugu egutegiaren edukiaren nondik norakoen azalpenari. Nahiz eta egutegiak edukiaren inolako sailkapen agerikorik ez eduki, garbi ikusi dugu bere baitan argitaratu ziren idatziek hainbat oinarritzko gai lantzen zituztena: hizkuntzaren (euskararen) ingurukoak batzuk, politiko-ideologikoak beste batzuk, kultur orokorrekoak besteak, erlijio eta moralaren inguruko gaiak beste batzuk eta, baita umorea eta aisialdiari begira landurikoak ere. Aldi berean, kontsideratzen dugu horien irakurketak irakurlerian nolabaiteko eragin hezgarriarik sortzen zuela, berauen iza-tea formatuz eta izaera “euzkeldun zintzoa”⁵²² legez heziz. Zentzu horretan, eskola curriculum agerikoan hautatzen eta irakasten diren edukiek identitate pedagogikoaren, sozialaren eta, baita, nazionalaren eraikuntzan eragiten dutela onartzen delarik (G. Ezkurdia, 2004), kontsideratzen dugu, hein berean, aztergai dugun epealdian eskoletan

hedatzen zen ezagutza hegemonikoaren aurrean egutegiaren bitartez, kasu, indartu eta zabaldu nahi izan zen ezagutza multzoak –curriculum ez ofiziala eta ez eskolarra osatzen zuena–, identitate hegemoniko ezarriari aurre egingo zion erresistentziazko identitate sendotzen lagundu zuela euskal herritarren artean. Identitate hori “euzkel” kontzeptuak bildu zuen, gure kasuan, eta aipatu esparruek osaturiko edukian oinarritu zen. Kulturaren eta gizartearen kontzeptzio tradizional eta katolikoaren testuingurutik eta “Izkuntza eta Lege Zarrak” lemak gidaturik (Lege Zaharrak abertzaletasun terminoetan birdefinituak gero eta gehiago) jo zuen egutegiak “euzkeldun zintzoa” konfiguratzeko laguntzera.

3. Publizitatea

Bere baitan publizitatea eramateak oinarrizko dokumentu bihurtzen du egutegia, *Euzkel-Egutegiya* bereziki, hainbat arrazoiengatik. Batetik, dokumentu interesgarri da, lehenik eta behin, kontsumorako zerbitzuen eta produktuen propaganda eta publizitatea egiteko tresna izan zelako, garaiko aldizkari, egunkari eta egutegiaren antzera. Bertan enpresa, zerbitzu eta produktuen salerosketarako publizitatea egiteak *Euzkel-Egutegiya*-k herritarren artean zuen harrera ona eta arrakasta adierazten digu. Zentzu berean, euskaldun irakurleari (erosleari kasu honetan) baliagarriak suerta ziezazkiokeen zerbitzuen eta produktuen eskaintza nolakoa zen ezagutzeko aukera ere ematen du egutegiko publizitatearen azterketak. Bestetik, euskarazko liburu eta aldizkariaren publizitatea ere egiten zelarik, herritarrek argitalpen horien berri izateko bide aukera-aukerakoa zuen *Euzkel-Egutegiya*-n. Geuk, halaber, egiten zen propagandaren azterketatik abiatuz ikus dezakeguna da, batez ere, zein idatziren erosketa eta irakurketa zen bultzatzen zena. Euskarazko kultura idatziaren eragintza zein terminutan zehazten zen –zein eduki idatzi eta baliabidetan oinarritzen zen, alegia–, ezagutzeko informazio iturri interesgarria dugu *Euzkel-Egutegiya*. Ildo horretatik, egiten zen euskarazko idatzien propaganda aztertutik ezagutu dezakegu non zentratzen zen inprimatzailearen interesa eta, aldi berean, nondik nora joan zitezkeen irakurlearen irakurketa edukiak eta moduak.

Izan ere, *Euzkel-Egutegiya*-n egindako publizitateak izaera eta modu desberdinak hartu zituen, eta horretan datza ere iturri gisa duen aberastasuna. Alde batetik, egutegi liburuxkaren kontrazalaren barrual-

dean (horma egutegiaren azken orrialdean) egiten zen publizitatea dugu. Hemen, Eusebio Lopezen etxean salgai ziren euskarazko liburu batzuen berri eman eta, aldi berean, saltokiaren propaganda egiten zen, modu honetan:

*Lopez mendizabal'tar Isaak'*ek egindako «Euskeraz eta erderaz itz egiteko esku-liburua»

Campion Arturo jaunaren «Euskal-Izkindea»

Lardizabal'en «Testamentu zar ta berriko kondaira»

*Mendiburux'*en «Otoitz-gayak»

Aizkibel ta Novia de Salcedo'ren «Iztegiyak»

Lopez Mendizabal'en Aita Santu amargarren Pio'ren dotriña laburra, eta beste euskal liburu asko.

Euskarazko sei obra horien, eta bere saltzailearen propaganda etengabea izan zen 1909. urtetik 1913. urteraino⁵²³. Ondorengo urteetan aldaketaren bat edo beste egin zen publizitatea egiten zitzaien idatzien adierazpenean, batzuen aipamena deuseztuz eta argitalpen berriak txertatuz, adibidez: Mendibururen *Otoitz-gayak* lana ezabatu, eta Emeterio Arreseren *Nere bidean* eta Lopez Mendizabalen *Zenbakizti edo Aritmetika euzkeraz* bi erreferentzi berriak txertatu ziren 1914an. Ondorengo urtean, 1915ean⁵²⁴, aurrekoei gehitu zitzaien aipamen berri bakarra laster salgai jarriko zen, *Erderatik-euzkerara ta euzkeratik-erderara itzultzeko sakeleko iztegiya*-rena izan zen. Lan hori jada salgai zegoenaren berri emanez agertu zen txertatua 1917. urteko propaganda tartean, gaztelera hutsean kasualki, honela: “Obra nueva: Bera-Lopez Mendizabal. *Diccionario manual castellano-euskera y vice-versa*.- 10ptas.” Urte berean, aipatu berrikuntzarekin batera desagertu zen propagandatik Aizkibel eta Novia de Salcedoren *Iztegiyak*. liburua- ren aipamena. Azken urtean, halaber, txertaturiko berrikuntzei gehitu zitzaizkien beste bakar batzuk: Olabideren *Giza-soña*, Iztuetaren *Euzko-dantzak*, Mendibururen *Otoitz-gayak* (berreskuratua) eta Gorosabelen *Gipuzkoako edestia*. Adierazgarria da 1918an azken orrialdean eginiko propaganda, urteen poderioz, eta berrikuntzak berrikuntza, nahiko ongi finkatuta zegoena, honela:

E. Lopez'nean salgai daude:

Bera-Lopez Mendizabal'en *Erdera-Euzkera ta Euzkera-Erdera iztegia*.

Lopez Mendizabal'en *Alkarizketako idazti edo liburua*.

Kanpion'en *Euzkel-Izti edo gramatika*.

Olabide'ren *Giza-soña*.

Arese'ren *Nere bidean* (itz-neurtuak).
 Lopez Mendizabal'en *Zenbakizti edo Aritmetika euzkeraz*.
 Lardizabal'en *Testamentu zar ta beriko kondaira*.
 Iztuetaren *Euzko-dantzak*.
 Mendiburu'ren *Otoitz-gayak*.
 Gorosabel'en *Gipuzkoa'ko edestia*.
 Lopez Mendizabal'ek gipuzkeraz eta bizkayeraz euzkeratutako *Aita Santu amargaren Pio'ren dotriña*.
 Eta abar.

Urteetan zehar azken orrialdean egin zen publizitateak erakusten digu, nahiko argi, zeintzuk ziren saltzailearen, inprimatzailearen, eta berarekin batera ere egutegiaren eragileen, interesguneak: batez ere eta iraunkorki, euskara ikasi eta sakontzeko lagungarriak izan zitezkeen lanak, hots, gramatikak, hiztegiak eta elkarrizketarako eskuliburuak. Neurri berean, herritarren heziketa erlijioso eta morala sendotzeko lagungarriak ziren liburuak, hots, otoitz liburuak, dotrina, itun zahar eta berria, etab. Eta, azkenik, berrikuntzak pixkanaka txertatuz joan ziren mailan, kultur alorreko gaiak lantzen zituzten liburuak, batik bat, ahozko literaturari zegozkionak, bertako historia eta ohitura onen erakusketan zihardutenak zein formazio tekniko-matematikoari begira eginiko libururen bat, neurri askoz ere eskasagoan errepresentatua azken alor hau. Oro har, publizitatea egin zitzaizen liburuetako edukiak oso bat zihoazen egutegiko orrialdetxoetan landuz joan zen eduki multzoarekin. Are gehiago, testu hauetako zati asko eta asko egutegiko orrietan argitaratuak izan zirela kontuan hartzen badugu.

Euzkel-Egutegiya-n egin zen beste publizitate modu bat zera izan zen: egunari buruzko oinarrizko informazioa ematen zen orriaren aldean (horma egutegian aurrealdea zena eta, egutegi liburuxkan eskuinaldea zena) azaltzen zen propaganda. Orrialde bakoitzean etxe, enpresa edo dendaren bateko propaganda egiten zen bere zerbitzuen berri emanez egunari zegozkion zenbakiaren inguruan. Ezkerreko albotik hasi, gora eta eskuinaldeko alboan jarraitzen zuen publizitate mezuak. Egun guztietan agertu ez bazen ere, modu honetako propaganda 1917 eta 1918. urteetako ia egun guztietan egin zen⁵²⁵. Gainera, azken bi urte horietan hasi zen joerak ondorengo urteetan ere neurri berean jarraitu zuen, egutegiko propaganda modu nagusia izatera bihurtuz.



Euskal-Egutegiya, egutegi liburuxka formatoan. Publizitatea barrualdeko orrialdeetan

Egunari zegokion oinarrizko informazioa eskaintzen zen testu-inguru berean egiten zen publizitatea zen hau. Bertan egiten zen propaganda eta publizitatea, batez ere, enpresa eta establezimendu batzuen ingurukoa zen, beren produktuen eta zerbitzuen berri emanez irakurleari. Horrela, ikusi ahal izan dugunez, baziren enpresa, denda eta lantokiak aipatu bi urte horietan beren zerbitzuen publizitatea egin zutenak, hala nola: Tolosako Eusebio Lopez, Tolosako Pedro de Amondarain (edo Amondarain'dar Kepa) eta Zaragozako Orus etxea. Urte betez publizitatea egin zuten enpresak, aldiz, hauek izan ziren: 1917an Bergarako Uribealgotar Toribio, eta 1918an Donostiko Zabalo ta Jauregi etxea, Orioko Lasat'ar Euken (Euskal-Esnalea elkarteko ordezkaria izan zena), Tolosako Elozegi (Elosegitarren artean Euskal-Esnalea elkarteko bazkide-babesle izan ziren Joaquin Elozegi Tolosako Bankuaren sortzailea -1911, eta Juan Elozegi txapelen enpresako zuzendaria eta Tolosako alkatea -1914-1916-), Amorebietako A. De Urriolabeitia (Euskal-Esnalea elkarteko ordezkaria izan

zena), Logroñoako Horacio Rodriguez, Eibarko Marcos de Iriondo eta Bergarako Pastor Añibarro⁵²⁶.

Horieta enpresa eta establezimendu batzuk, halaber, eslogan eta publizitate mezu bat baino gehiago erabili ohi zuten urte berean beren publizitatea egiteko. Hona hemen, gure azken bi urteetan agertu zirenak: Eusebio Lopezen etxearen publizitatean “E. Lopez – Tolosa. Ingar-kutxa-ola. Fábrica de cajas de carton” (1917, 1918), “iztegiyak, egutegiya, mezetako liburuak. E. Lopez-Tolosa” (1917), “Irarkola-lanak-(Imprenta-lanak). Mezetako euzkel-liburuak. Lopeztar Eusebio'ren etxia – Tolosa'n.” (1917), “Iztegiyak, Egutegiya, Mezetako liburuak euzkeraz ta erderaz. E. Lopez Tolosa.” (1917, 1918), “Alkafizketako idaztitzoa – Egutegiya, Mezetako liburuak euzkeraz ta erderaz. E.Lopez – Tolosa” (1918) moduko esloganak.

Tolosako Pedro de Amondarain jaunaren publizitateko esloganak honako hauek izan ziren: “etxiak egiteko gayak, onak eta merke Pedro de Amondarain – Tolosa” eta “egindako arrinabar-lantegiya-talleres de marmol comprimido Pedro de Amondarain – Tolosa” 1917an. Eta 1918an, berriz, “Amondarain'dar Kepa –Tolosa. – Iragigei-bildegia – Almacén de materiales para construcciones”.

Era berean, Zaragozako Joakin Orus jaunaren etxeak hainbat esloganen bitartez egin zuen bere produktuen publizitatea: “txokolate bikañenak zaragoza'ko Joakin Orus'enak dira” (1917), “artu itzazute Orus'en txokolatiak etzazute damutuko” (1917), “Orus'en txokolatiak garbiyenak eta ongien egiñak dira” (1917, 1918), “txokolatiak eta goxokiyak onenak zaragoza'ko Orusenak dira” (1917), eta “zaragoza'ko Orus'en txokolatiak bikañen-bikañenak dira” (1917, 1918).

Bergarako Uribesalgotar Toribio jaunak eginiko publizitatean, halaber, “euritakuak (impermeables), atorrak (alkandorak), ari utsesko eunak eta abar- Uribesalgotar Toribio, Bergara'n” eta “oyalak, artillergauzak, oin-oyalak, aterkiyak (guardasolak) Uribesalgotar Toribio – Bergara'n” bezalako mezuak.

Donostiko Zabalo ta Jauregi etxeaz agertu ziren esloganak hauek izan ziren: “Zabalo ta Jauregi – Drogeriya. Legazpi 3, – Donostiya'n-Bere etxe-ordeko: Antigu'ko Matia Klean, 6-16-53”, “Zabalo ta Jauregi – Legazpi 3, – Donostiya'n – Argazkintzarako (errettratatzeko) gayak” eta “Zabalo ta Jauregi – Legazpi, 3 – Donostiya'n. Garbikayak (jaboyak) ta usai-gozokiyak”.

Eibarko Marcos de Iriondo jaunaren publizitatea ondorengo bi eslogan hauen bitartez egin zen: “Ikatzik ez da bear. Erosi tximistar-

gizko zapilkiak (plantxak) – Marcos de Iriondo – Eibar” eta “Ikatzik bear ez duten berotzeko ontziyak. Garbi ta merkeak. Marcos de Iriondo – Eibar”.

Bergarako Pastor Añibarro, Arana ta Lagunak enpresa, berriz, ondorengo bi hauek erabili zituen: “Pastor Añibarro, Arana ta Lagunak – Bergara Ekintz (industri) guzitarako anilina-margoak, urdin-biziak” eta “Pastor Añibarro, Arana ta Lagunak – Bergara. “Soc. Pour l’Industrie Chimique à Bâle”koaren ordezkook”.

Eslogan bakar batez agertu zirenak, berriz, ondorengo enpresak izan ziren: Orioko Lasatar Eukeni, “Lasatar Eukeni – Orio. Sendagayak, margolaritzako gayak (koloriak)”; Tolosako Elosegi etxea, “Elosegi – Tolosa. Txapelik onenak etxe ontakoak dira”; Amorebietako A. De Urriolabeitia, “Laran-ur laspeltsua – Limonada Gaseosa. A. de Urriolabeitia – Amorebieta”; eta Logroñoiko Horacio Rodriguez, “Horacio Rodriguez – G. Espartero 4, Logroño. Etxe ontan saltzen dira Txokolate-esneko ta beste goxoki asko”.

Bestalde, publizitate testu edo eslogan bakoitza urte bakoitzean, batz bestea, 22-23 egunetan agertu ohi zen hilabete desberdinetan zehar banatuta. Eslogan gehienen agerpen maiztasuna hileko bi egunetakoa izan zen gutxi gorabehera. Horrenbestez, oro har, agertu ziren eslogan kopuruak eta argitalpen egunak kontuan hartuta, bi establezimendu agertu zaizkigu, konparazioan, publizitatea egiteko modu berri horretan presentzia nabarmena izan zutenak, hots, Eusebio Lopez jaunaren etxea (89 egunetz agertu zen 1917an, 47 egunetz 1918an), noski, eta Orusen txokolate-etxea (112 egunetz agertu zen 1917an, eta 24 egunetz 1918an). Amondarainen etxea bi urtez agertu arren, guztira 67 egunetz egin zuen propaganda. Antzeko egun kopuruaz baina urte batean (urtean 67-69 egunetz agertuak) egin zuten publizitatea ere Urribesalgoren etxeak eta Zabalo ta Jauregi etxeak. Dezentez egun gutxiagoz egin zuten propaganda Iriondoren etxeak (43 egunetz), Añibarrorenak (27 egunetz), Lasarenak (23 egunetz), Elosegirenak (23 egunetz), Urriolabeitiarenak (22 egunetz) eta Rodriguezen etxeak (19 egunetz). Nabarmena da hainbat enpresaren protagonismoa ekinbide honetan, kontuan hartzen badugu, gainera, ondorengo urteetan beraien publizitatea egiten jarraitu zuten enpresa batzuk zeintzuk izan ziren.

Eusebio Lopez jaunaren eta bere etxearen publizitatea areagotu egiten zen eredu berdinari helduz egiten zen zenbait euskarazko libururen publizitatea gehitzen hartzen badugu. Izan ere, enpresak, zerbi-

tzuak eta kontsumorako zernahi produkturen publizitatea egiteaz gain Lopezen etxean argitaratu eta salgai zeuden euskarazko liburu batzuen inguruko propaganda ere egiten baitzen. Gure azterketa epealdian azken bi urteetan egin zen aurrealdeko publizitatean bi liburuei egin zitzaien erreferentzia. Bata, Bera-Lopez Mendizabalen hiztegia, honela ezagutarazia 1917an eta 1918an: “Bera-Lopez Mendizabal’ek egindako Erdel-Euzkel eta euzkel-erdel-iztegia. E. Lopez’enean – Tolosa’n”⁵²⁷. Eta, bestea, Olabideren *Giza-Soña* liburua, modu honetan ezagutaraztera emana: “Olabide-Giza-Soña- euzkel – idazti berria E. Lopez’enean saltzen da”⁵²⁸. Eusebio Lopez jaunaren etxearen inguruko propaganda zabalak, bestalde, hainbat ondorio ateratzeko nahiko pista eskaintzen digula esan behar dugu.

Batetik, egutegia inprimatzearen ardura Lopezen etxearena zena baieztapena sendotzeko datu baliagarria zaigu bere publizitatea iraunkorki agertu izana. Izan ere, lehenengo urteetan Eusebio Lopez jaunak Tolosan zuen inprimategian argitaratua zela adierazten bazen ere –horma egutegietan estalkiaren aurrealdean edota gainaldean, eta egutegi liburuxkan barrualdeko lehenengo orrialdean⁵²⁹– 1916. urtetik aurrera ez zen inprimategia izan zitekeenaren inguruko adierazpen zehatzik azaltzen. Horrela, itxura eta egituran mantendu ziren ezaugarriekin batera, publizitatean iraunkorki inprimategi berdinen presentzia nabarmena izateak Lopez jaunaren etxearen erantzukizun iraunkorra adierazten du.

Bestetik, beste produktu eta zerbitzuen eskaintzaz gain, Eusebio Lopezek egiten zuen euskarazko liburuen publizitatearen informazioa baliagarria zaigu euskal kultura idatziaren merkatuaren interesguneak non kokatzen ziren ezagutzeko. Zentzu horretan, nahiko garbi ikus daiteke zeintzuk ziren, gutxi edo gehiago, irakurlea (euskalduna zein erdalduna) erakartzen ei zuten eta saltzailea motibatzen ei zuten esparruak: hiztegegintza, mezetako liburuak eta, baita ere noski, egutegiak, inprimategiak berak erabiltzen zuen salmentarako mezu honek adierazitakoari helduz, hots: “Iztegiyak, Egutegi yak, Mezetako liburuak euzkeraz ta erderaz...”.

Salerosten ziren euskarazko idatzi mota oinarrikoak zeintzuk ziren ezagutzen laguntzen digun hein berean, testu horien hedapena zeintzu enpresek eta pertsonak babesten zuten ezagutzeko aukera eskaintzen digu publizitateak. Euskarazko egutegian publizitatea eta propaganda egitea hautu pertsonala zela kontsideratzen dugu eta, neurri horretan, euskal kulturarekiko jarrera babeslea zutela pentsatu

behar da. Zitekeena zen beren etxeen publizitatea egutegian jartzeari nolabaiteko errentagarritasuna ikustea, honek euskaldunen artean izan zezakeen eraginaz baliatuz. Ez gaude errentagarritasun posible hori neurtzeko moduan oraindik. Dena delakoa izanda ere, ez dugu uste merkatu irizpide soilak bultzaturik jarri zutenik goian aipatutako enpresek beren publizitatea ez *Euzkel-Egutegiya*-n, ez euskarazko beste hainbat egutegi eta aldizkaritan. Euskarazko idatzietan publizitatea egitea ez zetorren, hein handi batean, merkatuak behartuta. Kasu horietan hautu pertsonalaz hitz egin beharko genuke gehiago. Izan ere, hainbat lantegi eta etxe egutegian publizitatea egiten azaltzeak egutegiari eta, oro har, euskarazko idatziari, batez ere, babes sinboliko handia eskaintzen ziola uste dugu, euskaldunentzat eta euskaltzaleentzat erreferentziatzeko etxe bihurtuz. Euskara eta euskal kulturaren aldeko jarrera ideologikoaren adierazpen gisa interpretatu beharko genuke. Egon zitezkeen merkatu interesak inondik inora ahaztu gabe ere, honelako hautuan elementu ideologikoa –testuinguru euskaltzale eta abertzalean kokatua–, garrantzitsua zen. Merkatu irizpide soilak baino, irizpide ideologiko-ekonomikoak bultzaturiko hautua zela esango genuke.

Arestian egutegiaren eragileez hitz egin dugunean Euskal-Esnalea elkarte eta Lopeztarren etxea aipatu ditugu bereziki. Oraingo honetan, eragile taldearen barruan bereziki sartu eta aipatu beharko genituzke, halaber, beren publizitatea eginez egutegia iraunkorki babestu zuten enpresa eta komertzio txikiak, besteak beste, Tolosako Elosegitarrena, Orioko Lasatarrena, Zaragozako Orus etxea, Tolosako Amondarainen enpresa, Donostiako Zabalo ta Jauregi etxea, Amorebietako Urriolabeitiaren enpresa, eta Logroñoeko Horacio Rodriguezen etxea.

EUZKEL-EGUTEGI TXIKIYA (1910-1920)

Hormarako *Euzkel-Egutegiya*-rekin batera argitaratu zuen Lopezen etxeak, Isaac Lopez Mendizabal jaunak tajutua, sakelerako beste bat *Euzkel-Egutegiya txikiya* izenarekin. Egutegi horri buruz Diaz Nocik argitaraturiko erroldan ematen diren datuek zehaztasun falta handiak dituztela eta nahiko nahasgarriak suerta daitezkeela ikusita¹, lehenik eta behin, aztertu ditugun aleetatik², eta garaiko prentsan adierazi zenarengatik ezagutu ditugun xehetasun berriak eman nahi genituzke, besteen osagarri izan daitezzen.

Euzkel-Egutegi txikiya izenez ezagutzen dugun sakeleko almanaka argitaratu zen, “Lopez Mendizabal’tar Isaak’ek tajutuba”, 1910. urtean, lehen aldiz, “Tolosan: E. López’en echian”. Nahiz eta lehenengo izenburuan *Euzkel-egutegi txikiya*-ren izena jarri beharrean *Euskal-Egundi chikiya* agertu, egutegi berberaz hitz egiten ari garela esan behar da. Hormarako egutegiarekin gertatu zen legez, sakeleko honetan ere lehenengo izenburuan Euskal-Esnalea elkarteak gustukoak zituen euskal (ez euzkel) eta egundi (ez egutegi) terminoak agertu ziren. Deigarrian utziko dugu, sakeleko lehenengo egutegia plazaratzerakoan berriro ere termino horietara jo izana, jada inprimategi berberak argitaratutako 1910. urterako hormarako egutegian –*Euskal-Esnalea ren Egundiya* ordez *Euzkel-Egutegiya*– izenburua aldatua zegoela kontuan izanda. Esplikazioren bat bilatzearren, pentsa liteke herritarren artean behar adinako harrera izateko –errekonozitua izateko, alegia–, lehenengo momentuan behintzat garrantzitsua izan zitekeela termino mailako erreferentzia hari heltzea, Euskal-Egundiarena alegia, eta gero, behin irakurleria ziurtatua izan ondoren, *Euzkel-Egutegiya* terminoetara jotzea. Ezin dugu horrelakorik baieztatu, hipotesi soil bat besterik ez dugu izenburuaren inguruko gorabehera hori esplikatzeko.

Dena den, lehenengo urtea eta ondorengoan artean izenburuak desberdinak izan arren, egutegia berdina da. Hori bai, iturri desberdinetatik baieztatu geratzen da. Batetik, egutegitik bertatik. Lehenengo urtetik, jada, egutegiaren lehenengo orrialdean “Euskal-eché guztietan arkitu bihar litzake”en 1910. urterako hormarako *Euskal-egundiya*-ren (*Euzkel-Egutegiya* izango zenaren) argitalpenaren berri ematen zen aldi berean, adierazi zen, Lopez Mendizabalek egin-dako agurrean, nola urte horretan eman zitzaion hasiera *Euskal-egun-di chikia* argitaratzeari. Ondorengo urteetan, halaber, *Euzkel-Egutegi txikiya* izenarekin jada, adierazten zen ere zenbatgarren argitalpen urtean geunden, 1917ko alean, adibidez, zortzigarren urtean.

Garaiko prentsatik ere jaso dugu egutegitxoaren argitalpenari buruzko berririk eta, baita noski, iruzkinik. Bai *RIEV* aldizkarian bai *Jesus en Biotzaren Deya*-n ere, eman zuten hormarako eta sakeleko *Euzkel-egutegiya*-ren berri, baita beraien inguruko komentatarik egin ere³. Halaber, *Baserritarra* aldizkarian, 1910. urterako salgai zegoen beste hormarakoarekin batera orrialde bakoitzean hil osoa agertzen zuen esku egundi txiki bat atera zela adierazi zitzaion irakurleari, “...bestea baño bilduagua eta bakoitzak berekiñ ibiltzeko oso pollita”⁴, zioen. Baita, *Euskal-Esnalea* aldizkariak, adierazi ere, nola 1911. urtean Lopezen etxeak bi egutegi argitaratu zituen, “Bat ormarakoa, “Euzkel-Egutegiya deritzona”, eta bestea “Euzkel-Egutegi txikiya”, “gure echietan chiki-chikitandik ikusten oituta gauden zaragozano oien antzekoa”⁵. Bertan esango zenez, aurreko urtean ere honelako egundi bat tajutu omen zuen Lopez Mendizabal jaunak, baina 1911. urtekoari aurrekoak ez zuen atal bat erantsi omen zion, iragarriena. *Euskal-Esnalea* aldizkariak urtez urte eman zuen bi egutegien argitalpenaren berri 1918. urte arte. Ondorengo urteetan ez dugu egutegi txikiaren argitalpenaz berririk jaso aldizkari horretan. Zentzu honetan, hasierako data jakin badakigun arren, ezin dugu gauza bera esan amaiera urteaz, ez baitakigu zehatz-mehatz zein urtetan utzi zion Lopezen etxeak egutegi txikia argitaratzeari. Azkue liburutegian ditugun aleen erreferentziak aintzat hartuta, bestalde, amaiera urtea 1920. urtea izan zela pentsatzearen aldekoak gara, beste daturik ezean.

Euskal-Erria aldizkarian ere, hormarako egutegiaren argitalpenaren berri eman ohi zen aldi berean egin ziren *Euzkel-egutegi txikiya*-ri buruzko aipamenak. Bai gaztelerazko *Calendario zaragozano*-k herri-tarren artean betetzen zuen irakurketa espazioa euskarazko egutegi txikiak betetzeko zuen “asmoa” eta, aukera agerian jarriz, bai beronen

irakurketak izan zitzakeen aspektu dibertigarri eta atseginak azpimarratuz, egutegi txikiaren berri ematen zen, eta egiten zen bere aldeko propaganda. Ikus, 1911-garren urterako *Euzkel-Egutegi txikiya*-z ziotena:

También ha publicado la misma Casa editorial, el Almanaque de bolsillo para 1911, digna continuación del que con general aplauso publicó el año pasado. Hora era de que el *Calendario zaragozano*, contiene mentiras para todo el año' como pregonaban los ciegos en la Brecha, cediera su puesto entre baserritarras y kaletarras á un Almanaque tan completo y tan bien confeccionado como el que tenemos presente.

Además del calendario, contiene este librito una colección de graciosísimos cuentos, entre los que, como era de esperar, figuran unas cuantas salidas (de las más escogidas), del indispensable Pernando Amezketarra.

Bien puede decir quien compre este librito, que si no mentiras, tiene risa para todo el año. ¡Ler egiñ arte!

Termina el Almanaque con buen número de anuncios redactados en euskera. Vaya un aplauso a los anunciantes y al editor.

¿Necesitamos recomendar este Almanaque? De ningún modo. Hay cosas que se recomiendan ellas solas, y entre ellas está el *Euzkel-egutegi txikiya* para 1911⁶.

Ildo beretik, 1916. urterako atera zen *Euzkel-egutegi txikiya*-ren berri ematerakoan, azpimarratu nahi izan zen bere egokitasuna, zela edukiaren aldetik, zela prezioaren aldetik⁷, eta baita hizkuntzaren aldetik ere, euskaraz idatzita zegoelarik euskaldun askok gaztelerako egutegiak irakurtzerakoan zituzten zailtasunak saihesten zituen neurrian. Ikus, hitzez hitz, iruzkina:

Siete años lleva publicándose este recomendabilísimo almanaque de bolsillo, euskérico desde el título hasta el pie de la imprenta, con santoral y anotaciones propias de esta clase de libritos, y con su apéndice final de chascarrillos, capaz de convertir un temporal de invierno en delicioso día primaveral.

La presentación, la baratura del precio, todo recomienda la adquisición de este calendario, que no debiera faltar en ninguna casa euskeldun.

Principalmente en los caseríos debiera ser el único calendario de uso, desechando todos aquellos libritos que, cual aquel *Zaragozano*, “contiene mentiras para todo el año”, como lo pregonaban por aquí, y que tras de costar un sentido a nuestros caseros el deletrearlo, resultaba que no le entendían al fin.

No ofrece tal inconveniente el *Euskel-Egutegi txikiya*, aquí hallará el casero todo en su lengua y no necesita consultar a nadie para su interpretación⁸.

Egutegi horiek liburuxka txikiak ziren (10zm x 15zm), 30en bat orrialdetakoak, paper finean eginak eta koloreetako azalez (arrosaz, berdeaz, horiaz, beixaz...) hornituak. Guk aztertu ditugun aleak, Koldo Mitxelena kulturguneko Julio Urquijo fondokoak alegia, folleto gisa daude katalogatuak, “Almanagues” gaian sailkatuak zehazki. Berrietaz ikusi ahal izan ditugun iruzkinetan adierazi bezala, arinak, merkeak, oso eramangarriak eta erabilgarriak ziren. Hona horietako baten argazkia:



1910.garren urterako Euskal-Egundi chikiya

Argitaratu zen lehenengo urtean egutegiaren arduradunak, Lopez Mendizabal jaunak, egindako agurrean garbi azaldu zuen zergatik eta zertarako hasi zen horma egutegiarekin batera sakeleko egutegitxo hau argitaratzen:

Euskal-egundi chiki baten biarra ondo ezaguna zan. Laburdi-aldeko euskaldunak beriak badituzte, bañan alde onetakuak ayetako bat gabe bizi giñan, erderazkuak erosi biarrian arkiturik.

Gaurtik aurrera onelako gauzik ez da gertatuko, eta ormarako (pareterako) egundiya argitaratu degun bezela egundi chiki au ere argitaratzen degu, alde guzietan zabaldu dedin.

Euskera eta euzko-erriyaren aldez lan egitera gatoz, ta egundicho au, bada, begi onez artu ezazute⁹.

Euskarazko egutegigintzan, batez ere Hegoaldekoan, sentitzen zen hutsunea betetzera zetorren. Hormarako *Euzkel-egutegiya*-rekin batera eskaintzen zen euskarazko irakurketarako beste aukera bat dugu. Irakurlea egutegia erostera eta irakurtzera animatu nahi zen, euskaraz irakurtzeko garaian aurki zitzakeen zailtasunak eta arazoak (hitz berri bat edo beste ezagutzen edo ulertzen ez zuena, etab.) alde batera utzi eta aurrera segi zezan animatu. Egutegitxoa argitaratzearekin lortu nahi zena ezinbestean erdal pronostikoak, ezer ulertu gabe, irakurri behar zituen baserritarrari aukera zentzuzkoagoa ematea zen¹⁰. Zentzu horretan, pronostikoak euskaraz irakurtzeko zaletasuna piztu nahi zen euskaldunarengan, zela horma egutegiaren irakurketaren bitartez zela sakeleko egutegiarenaren bitartez. Irakurketa ohi-tura berria ezartzeko egutegi txikiak zeraman amurik eraginkorrena, beronen irakurketak eskaintzen zuen alderdi jostagarri eta dibertigarria zen: “Eguneroko santuen izenaz gañera, gogapen, igarkizun, izkirimiri ta par egiteko gauz polit asko dakarzki, ta bein erosten duenak urteoro erosiko duela esan diteke”¹¹.

Egutegiak bi zati zituela esan daiteke. Lehenengo zatia, liburuaren erdia hartzen zuena, denboraren neurketa eta berari loturiko eginbeharrei buruzko informazioari zegokiona zen. Oro har, eskaintzen zen informazioa atal hauen inguruan zebilen: “Urteko illen izenak”, “Urtearuak”, “Urtek jai-egun aldakorrak”, “Barukaldiyak (Tenporak)”, “Barau-egunak” eta hilabete guztietako egunen zerrenda, zegozkien santuen izenekin. Urte batetik bestera agerpen ordena aldatuta agertu arren, funtsean atalak berdin mantendu ziren.

Bigarren zatia, liburuxkaren orrialde kopuruaren erdia gutxi gora behera hartzen zuena, idatzi desberdinez osatuta zegoen. Hori dela eta, horma egutegiarekin erabili dugun analisi ildo berari heltzea erabaki dugu sakeleko *euzkel-egutegiya*-k aztertzerakoan. Eta, ondorioz, zenbait aspektu azpimarratu nahi genuke segidan. Horma egutegian legez, sakeleko egutegi txikian ere testuaren irakurketa eta ulermena errazteko estrategiak agertu ziren, lehenengo urteetan, batik bat. Euskarazko hainbat hitzen ondoan (edo behean) gaztelerazko termino erabiliagoa jartzea eta gaztelerazko itzulpen zuzena ematea izan ziren egutegi txikian agertu ziren estrategia ohikoena.

Gaztelerazko termino erabiliagoa jartzea izan zen joera nabarmenena. Adibide deigarria dugu, kasu, zenbait hilabeteren izendapena bi modutan emana agertzea, honela adibidez: “Epailla (Marchua) / Jorrrailla (Apirilla) / Orrilla (Mayatza) / Dagonilla (Abuztuba) / Lotazilla (Abenduba)”. Adibide honek agerian uzten du, beste behin, egutegiari hain funtsezkoa zaion informazioaren inguruan (hilabeteren izendapenean) euskaldunek izan dituzten zailtasunak, nahasmenak eta adostasun ezak. Gaztelerazko itzulpenak emateari dagokionez, bestalde, hemen ere jada 1911. urterakoan santuen izenak lehenik euskaraz eta gero gazteleraz agertuko ziren. Halaber, 1915. urterakotik aurrera, hilabete bakoitzaren euskarazko izenaren azpian gaztelerazkoa emango zen. Egitura mailako informazio horri gehitu behar zaio, noizean behin, hitz bati edo besteari parean jarri zitzaion gaztelerazko itzulpena.

Egutegi txikian landu ziren gaiak dagokienez, bestalde, azpimarragarriena zera dugu: umoreak hartu zuela gero eta nagusitasun handiagoa. Izan ere, lehenengo urteko idatzi multzoa kenduta, esan daiteke beste gainontzeko urte guztietan egutegiaren bigarren zatia deitu duguna ateraldi eta gertaera xelebrez osatua zegoela nagusiki. Lehenengo urtean, 1910.ean, bai gai desberdinen inguruan ziharduten idatzi mordoska argitaratu zen, horma egutegiaren ildoari jarraitzen ziotenak, oro har. Hain zuzen, testu ia guztiak, guztiak ez esateagatik, 1909ko *Euskal-Esnalea*ren *Egundiya*-n ere argitaratuak izan zirela ikusi dugu. Argitaratu ziren, bada, testu batzuk herritarren euskaltzetasuna piztu eta indartzera jotzen zutenak, hala nola: E'tar K.-k sinaturik “Euzkeltzale zintsubaren agintzak”¹² izenburua zeraman idatzia, edo euskara erabiltzen ez zuten euskaldunak kritikatu agertu bost hausnarke-ta zorrotzak¹³. Ondorengo urtean, 1911.ean, pare bat mezu ere agertu zen ateraldi xelebreen artean, beharrik gabe erdara erabiltzen zuen

euskotarra benetakoa ez zela salatuz bata eta, euskaldunei euskara ikasten saiatu ez izana leporatzen ziena bestea¹⁴. Azaldu ziren ere, euskotarraren identitate zeinuak indartzera jotzen zuten idatziak: Emeterio Arreseren “Euskalerrria”¹⁵ bertsoa, edo aureskua behar bezala dantzatzeko Iztuetak ematen zituen aldaerak agertzen zituen “Aureskuba”¹⁶ idatzia. Azaldu zen, horma egutegian legez, irakurlearen heziketa erlijioso eta moralerako elikagaia izan zitekeen errezurik, hots, “Angelus Domini euskeraz”¹⁷. Baita, herritarrari bere inguruaren ezagutza orokorra aberasteko baliagarria suerta zekiokkeen informazioaren bat edo beste, hala nola: Juan Migel Orkolagak idatzitako “Eguraldiya ezagutzeko bide batzuek” (17-23 orr.), eguraldiaren nondik norakoak ezagutu eta ulertzeko hainbat esplikazio dira, guztira hogeita zortziren bat argibide. Argibide horietako batzuk *Euskal-Esnalearen Egundiya*-n ere izan ziren argitaratuak egun desberdinetan zehar, egilearen izenik gabe orduan. Guztiak elkaturik eskaintzen diren honetan badute egilerik, aldiz¹⁸. Eguraldia ezagutzeko bideak eskaintzeaz gain, ematen zitzaion irakurleari bere inguruko jaien berri “Gipuzkoako jayak” izenburupean agertu zerrendan, egunak eta herriak adierazten zirelarik¹⁹. Herrialdeko jaien inguruko atal hau mantendu zen ondorengo urteetan ere, ateraldi xeblete eta izkirimirien osagarri gisa.

Azkenik, egutegi txikiaren izaeraren adierazgarri izan zen esparrua aipatu behar dugu, umorearena, alegia. Urtero agertu ohi ziren 5-7 orrialde ateraldi motzez zein luzez beteak²⁰. Horietariko asko argitaratuak izan ziren, halaber, garaiko aldizkari eta egutegietan. Gehienak ez ziren espreski egutegi honetarako prestatuak izan. Aitzitik, garai hartan batera eta bestera zebilen umore unibertsoaren zatiak ziren²¹. Bestalde, umoreak eskaintzen zituen penetrazio aukerak ere ez ziren alferrik galduak izan, behin baino gehiagotan jo izan baitzen ateraldi eta gertaera xebleteara mezu serioagoak zabaltzeko bide bezala. Horma egutegian bezala, egutegi txikian ere agertu zen gisa horretako adibide bat edo beste²². Goian, *Euskal-Errria* aldizkaritik jaso ditugun iruzkinetan azaldu zena berriro hona ekarriz, (“...Bien puede decir quien compre este librito, que si no mentiras, tiene risa para todo el año. ¡Ler egiñ arte!...”), esan daiteke lehenengo urtekoa –*Euskal-Esnalearen Egundiya*-ren bertsiotxia izan nahi izan zuena–, salbuespen egin zuen saiakera izan zela eta, berez, *Euzkel-egutegi txikiya*, batez ere, eskaintzen zituen umorez betetako sei-zazpi orrialdek ezaugarritu zutela. Finean, umorearen bitarteko irakurtzaletasuna

zen herritar xeheen artean bultzatu nahi zena. Eta, zentzu horretan, *Euzkel-egutegi txikiya* da, gure ustez, aztergai dugun garaiko eredurik esanguratsuen.

Sakeleko egutegiaren beste ezaugarri nabarmen bat, berarekin zeraman euskarazko publizitatearena zen. Nabarmena diogu, batez ere, garaiko euskaltzaleek ere horrela nabarmendu zutelako. Lehenago adierazi dugunez, *Euskal-Esnalea* aldizkariak bereziki aipatu zuen, 1911. urterakoaren berri ematerakoan, euskarazko iragarkiak gehitu izanaren datua. Izan ere, publizitatea eta iragarkiak euskaraz jartzearen kezka bazuen elkarreak, eta saiatuko zen, bere aldetik, ahal zen neurrian berau bultzatzen:

... Aun los periódicos que se publican en euskera, si anuncian lo hacen en castellano. Para tratar de acabar con estas inconsecuencias se acordó que la Revista publicara anuncios, esquelas de defunción etc. en euskera. No son los anuncios tan numerosos como fuera de desear pero confiamos en que por fin, rota la rutina, siquiera nuestros socios se acordarán del euskera al anunciar sus productos²³.

Horregatik, azpimarragarria egiten zitzaion Euskal-Esnalea elkar-teari publizitatea euskaraz jartzeko egutegi txikiak, eta bertan publizitate egiten zuten etxeek egin zuen esfortzua. Ildo beretik, eginiko ahalegina goraiatu zen ere *Euskal-Erria* aldizkarian, 1911. urterako egutegiaren argitalpenaren berri ematerakoan: "... Termina el Almanaque con un buen número de anuncios redactados en euskera. Vaya un aplauso a los anunciantes y al editor"²⁴.

Batetik, atzeko azalean agertzen zen propaganda dugu. Hau, horma egutegiaren antzera, Tolosako Eusebio Lopezen etxean saltzen ziren liburuei eskainitako tartea zen. Lehenengo urteetan agertu zen liburu zerrenda honako hau dugu:

Lopez-Mendizabal'tar Isak'ek egindako *Euskeraz eta erderaz itz egiteko esku-liburua*.

- Campion'dar Arturo jaunaren *Euskal Iztiya* edo gramatika.
- Lardizabal'en *Testamentu zar ta berriko kondaina*.
- Mendiburu'ren *Jesusen amore nekei dagozten zenbait otoitz gayak*.
- Aizkibel ta Novia de Salcedo'ren *Iztegiyak*.
- Lopez Mendizabal'ek Bizkai ta Gipuzkoako euskerara itzultitako *Amargarren Pio Aita santuaren ikasbide edo dotriña laburra*.
- Iturzaeta'ren *Gipuzkoako dantza gogoangarriyen kondaina edo historiya*.

- Iturriaga'ren euskerazko *Ipuyak*.
- Kardaberaz'en *Euskeraren berri onak*.
- Apaiz bat'en *Aralar'ko Miguel Santuaren edesti edo kondaira*.
- Lardizabal'en *Mirabe eta lantegietako gazteentzat Konsejuak*.

Urte guztietan iraun zuen zerrenda izan zen, zenbait liburu kendu eta berriak erantsi baziren ere. Campionen gramatika, Lardizabalen Kontsejuak eta Iztuetaren Gipuzkoako dantzak desagertu ziren azken urteetako zerrendatik. Horien ordeaz, berriz, zerrendan sartu ziren Iztuetaren *Euskal dantzak ikasteko liburua*, Iturzaetaren *Urtearen domeka guztiyetarako Berbaldiak*, Emeterio Arreseren *Nere Bidean*, Lopez Mendizabalen *Zenbakizti edo Aritmetika euzkeraz* eta *Erderatik-euzkerara ta euzkeratik-erdarara itzultzeko sakeleko iztegiya*.

Atzeko azalean agerturiko inprimategian propaganda hormarako *Euzkel-Egutegiya*-n agertu ohi zenaren antzekoa zen. Oro har, salgai zeudenaren berri emanez agertu ziren liburuak berdintsuak ziren bateko eta besteko zerrendan, Lopezen etxean euskaraz argitaraturiko lan funtsezkoenak, alegia. Propaganda horretaz aparte, ordea –garaiko egutegi, liburu eta prentsan arras arrunta zena–, egutegi txikian egin zen enpresa, lantegi eta zerbitzu desberdinen publizitatea euskaraz, euskara hutsez jartzeko saiakera, lehenengo urteetan, batez ere. Eta hori ez zen, jada, hain ohikoa ez garaiko egutegietan, ez prentsan ez eta liburuetan ere. Ikusi besterik ez dugu, adibidez, Bilbon bizkaieraz argitaratu zen *Euzkel-Egutegi txikija*-n agertu ziren publizitate mezuak, non 15 gazteleraz eginak ziren eta 2 euskaraz²⁵.

Egutegi txikija-ren kasuan, bestalde, ahalegina saiakeran geratu zela esan behar da, ez baitzuen bi urtez baino iraun apustuak. 1911 eta 1912. urteetako egutegietako azken lau orrialdeetan agertu ziren enpresa, lantoki eta dendak jarritako publizitate mezuak. Lehenengo urtean azaldu ziren etxe eta lantegi guztiak Tolosakoak ziren: Lopezen etxea, noski, ondorengo mezu honekin: “Liburu-lanetan Euzkalerriko zarrena au da, berreun urte baño geyago ditu ta bera da euzkel-liburu geyenak egiten ditubena.... Irarkola edo *imprenta* bateko lan guztiyak ondo ta laxter egiten dira. Liburuai azala jartzen zayo”; gauza askotariko J. Azaldegiren denda; “Elosegi'ren Euzkal-boina-ola”; “Rekondo begi-sendagillia” ren informazioa ordutegi eta guzti; “S. Kalparsoro'ren burnitegiya” nekazariantzat gauzak, bizikletak eta burdinari zegozkion gauzak saltzen zituen; aleak saltzen zituen “F. Etxeberriaren Aletegiya” eta “zimaurreak” saltzen zituzten “Arritegi Anayen” mezua. Bigarren urtean ere, 1912an, aurreko etxez gain, beste Tolosako, Donostiako

eta Debako hainbat etxek jarri zuten beren propaganda. Guztira zazpi orrialde eskaini zitzaizkion publizitateari. Lehenagoko etxeei, beraz, gehitu zitzaizkien ondorengo mezuak beren gauzen salmenta eta zerbitzuen berri emanez: Donostiko “Imaz ta Buenetxea” oihalen saltmentan aritzen zena; Donostiako (Tolosan ere etxea zuena) “Arrillaga ta bere semiak. Antzezkilariyak (Erretratogilliak)”;

“Tolosako Diru-etxia”, lan guztiak ondo eta laster egiten zituena; “Tolosako P. Amondarain gurdigilliaren” etxea; gizonaekoentzat jantziak egiten zituen Tolosako “E. Novion jostuna”; eskopetak eta abar saltzen zituen Tolosako “C. Irazusta'ren etxea”, eta goxo, argizaria, azukre eta abar saltzen zituen “Urkiola-Goxogillea”.

Esan bezala, bi urte horietako publizitate saiakera bere horretan geratu zen, saiakeran alegia, ondorengo urteetan ez baitzen horrelakorik errepikatu. Aztertu ditugun aleen artean, azken urtean soilik, 1917.ean alegia, ikusi dugu modu honetako publizitate mezurik. Bakarra, Zaragozako Orus-en txokolate fabrikak jarria. Baina oraingoa mezu elebiduna zen, lehenengo euskaraz jarritako mezua gero gazteleraz ere agertu baitzen. Finean, hau guztia euskara gizarte bizitza eta esparru guztietara zabaltzeko egin ziren eginahal anitzen adibide bat besterik ez dugu. Urte batzuetan bederen segidarik izan ez zuen adibidea. Bestalde, ikusi dugu azken urteetan, 1917. urtetik aurrera zehazki, une berri bati eman zitzaiola hasiera, baita euskarazko publizitateari zego-kionean ere. Gogora dezagun, hormarako *euzkel-egutegiya*-n urte horrietatik aurrera hasi zirela publizitate mezuak egunero-egunero orrialdearen aurrealdean azaltzen. Mezu gehienak euskara hutsean egin ziren eta, ordukoa saiakera baino ohitura baten finkapena izan zela esan dezakegu. Urte guztietan zehar, halaber, hormarako egutegian edota sakeleko egutegian beren publizitatea jarri zuten etxeen artean badira batzuk tinko babestu izan zutenak euskara eta euskarazko kultura idatzia. Horiek Tolosako Lopezen etxea, noski, Tolosako Pedro Amondarainen lantegia, Zaragozako Orus gozotegia eta Elosegiren “boina-ola” ditugu. Bai lehenengo saiakeran, egutegi txikiaren lehenengo urteetan, bai egokiera aproposagoa izan zeneko ondorengo urteetan ere agertu ziren etxe horiek euskarazko egutegietan eta, ondorioz esan dezagun, euskarazko egutegiak babesten.

Laburbilduz esan dezagun, lehenik eta behin, *Euzkel-Egutegi txikiya* hormarako *Euzkel-egutegiya*-ren eredu bertsuari jarraituz agertu zela, bertan jorratu izan ziren gai multzoak landuz, nolabait, sakelekoan ere. Lehenengo alea hormarako egutegiaren bertsio mu-

rriztu gisa har dezakegu, bertarako aprobe txatu baitzen jada, edota aldi berean, hormarakoan argitaratu zen hainbat eta hainbat idatzi. Baina, berehala hartu zuen bide desberdina eta bihurtu zen hormarakoaren “digno complemento”²⁶ esango zutena. Sakeleko almanaka arruntak behar zituen oinarrizko informazioak eskaintzen zituen, alde batetik. Zentzu horretan, ezaguna zen jakintza baten oroigarri funtzioa betetzen zuen. Urtero errepikatzen zen eta urtero berregokitzen zen ezagutza multzo itxia eskaintzen zuen. Urteak, berez, gai beraren bertsio berrituak ziren, egunak, gertaerak, erlijio arau eta betebeharrak errepikatuak eta gogoraraziak zirelarik. Beste aldetik, euskaraz irakurtzea irakurleari ekintza erraza, atsegina eta gustagarria egitea eta, ondorioz, euskaraz irakurtzen zaletzea zen, batez ere, *Euzkel-Egutegi txikiya*-ren helburua eta funtsa.

EUZKEL-EGUTEGIYA-K ETA EUZKEL-EGUTEGI TXIKIYA-K HERRITARREN ARTEAN IZAN ZUTEN HARRERA ETA HEDAPENA

*Euzkel-Egutegiya-n, zein Euzkel-Egutegi txikiya-n argitaratu ziren testu eta idatzi asko eta asko garaiko aldizkarietan argitaratuak izan ziren lehenago edo geroago. Euskararen inguruko berriak, iritziak, bertsoak, ekintzen eta liburuaren argitalpenaren inguruko berriak, irakurketarako gonbidapenak, oro har, egutegian agertu mezu euskaltzaleak ohikoak ziren garaiko prentsan, bai euskarazkoan bai gazteleraazkoan. Zehazki, *Euzkel-Egutegiya-n* agertu zen idatzi ugari *Euskal-Esnalea* aldizkarian ere argitaratuak izan ziren. Horietako batzuk dira, adibidez, “Gaztechoentzat irakurtzak”¹, “Euskerazko tsinpartak”², “Euskeltzale zintsubaren agintzak”³, Albizurik sinaturiko “Euzkel-Gayak”⁴, eta abar luzea. Ildo horretatik, Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak 1915. urtean egindako bilera batean adierazi zenaren arabera, zeinetan Lopez Mendizabal jaunak aldizkarian argitaratu izan ziren lan motzak 1916. urterako prestatzen ari zen horma egutegian erabiltzeko baimena eskatu izango baitzion elkarteari⁵, *Euskal-Esnalea* aldizkaria eta *Euzkel-Egutegiya* egutegiaren arteko “harremana” iraunkorra eta estua izan zela esan dezakegu. Ikusi dugu, halaber, edukia aztertu dugunean ere, *Euzkadi* egunerokotik idatzi bat baino gehiago jaso izan zela horma egutegian.*

Zentzu horretan, egutegiak zabaldu zuen mezua ez zela berria esan behar da. Bere baitan uztartzen zituen beste hizkuntzetan idatzitako ohiko horma egutegietan arruntak ziren informazioak, eta garaiko euskal aldizkari kulturaletan zein liburuetan azaltzen ziren infor-

mazioak eta lantzen zen edukia. Horiek ziren, bada, bere informazio iturriak: beste hizkuntzetan argitaraturiko egutegi orokorrak, eta urte haietan argitaratu ziren euskarazko aldizkariak eta liburuak. Izaera eta egile anitzeko idatziak biltzen zituen heinean garaiko euskaltzaleen ideologia ezagutzeko iturri baliagarria da egutegia.

Euzkel-Egutegiya-ri buruz adierazi ditugun ezaugarri asko, halaber, ez ziren berari espreski zegozkien ezaugarriak. Aipatu ditugun testu estrategiak (gaztelerazko itzulpena, sinonimia, etab.) erabiltzea, adibidez, joera zabaldua zen garaiko prentsan eta euskarazko idatzi askotan. Aitzitik, garaiko euskarazko aldizkako prentsarekin konpartitzen zituen osagaiak ziren. Horrela, adibidez, egutegiarentzat oinarritzko baldintza zena –irakurterraza eta atsegina izatearena, alegia–, oinarritzko-oinarritzkoa izan zen baita ere garaiko euskaraz idatziriko aldizkariarentzat, baserritarrei eta herri xeheari zuzenduriko aldizkarietan, batez ere. Izan ere, irakurterraztasuna eta atsegingarritasuna, bi errekurtso horiei helduz lortu bide zen, nagusiki, umoreari eta ahozko kulturari tartea eskainiz.

Aldizkari eta liburuekiko zuen desberdintasunik handiena, bere formato partikular eta modernoa izan zen, zeinak Gipuzkoako gizartean aldizkariak baino egokiago txertatzea ahalbideratu baitzion. Egutegiak izan zuen arrakasta eta iraupena dira txertatze eta finkatze horren frogarik indartsuena.

Euzkel- Egutegiya-k eta *Euzkel-Egutegi txikiya*-k izan zuen harrera eta hedapenaren inguruko datu zuzen askorik ez dugu. Garaiko aldizkarietan berrikuntza bibliografikoen berri ematerakoan euskarazko lanei egiten zitzaizkien iruzkinez baliatu gara ondorio batzuk ateratzeko. Prentsako komentaketa horiek baliagarriak izan zaizkigu egutegiek Gipuzkoako herritarren artean izan zuten ezarketa ezagutzeko eta, ondorioz, beraien eraginaren inguruko ondorioak ateratzeko. Oro har, Gipuzkoan zabaldua zeuden euskal kulturaren inguruko aldizkariak eta euskarazko aldizkako prentsak eman zuten *Euskal-Esnalea*ren *Egundiya* eta *Euzkel-Egutegiya*-ren inguruko berririk. Bere sorreraren berri eman zen *Euskal-Esnalea* aldizkarian, noski, egutegiaren izaera, egitura eta asmoen xehetasun guztiak ere emanaz.

Harrera beroa egin zitzaion ere *Baserritarra* aldizkarian, egutegia argitaratzear zegoela adierazi zenean lehenik⁶, eta, behin martxan jarria izan ondoren irakurleak berau erostera gonbidatuz. Lopezen etxean 1910. urterako salgai zeuden horma egutegia eta sakeleko egutegiaren notizia ere eman zuten bertan. Argi egiten zuten apustu, *Baserritarra*-n,

egutegiaren alde, etxe guztietan aurkitu beharko zitekeela azpimarraz. Halaber, jakinarazi nahi zitzaion baserritarrari egutegia alderdi guztietan zabaltzen ari zela eta aukera ederra –galdu behar ez omen zuena–, eskaintzen ziola honek egunero euskaraz zertxobait irakurtzeko eta irakurritakoa gogoan hartzeko. Hona hemen, hitzez hitz, egiten zioten propagandaren adibidea:

Zenbatak esaten ez digute eziñ dutela irakurri euskeraz... ¿Zergatik?, irakurtzen ez dutelako. Ara emen egunero zerbait irakurtzeko bide pollita eta onela uste gabe euskeraz irakurtzen eta irakurtzen dana bururatzen jakiteko modu erresha, orri guzitan agertzen dana, euskera garbiya, erresha, biguñ ta farragarriya dalako⁷.

Harrera hotzagoa, baldintzatuagoa atzematen zen *RIEV* aldizkariaren inguruko euskaltzaleen artean eta, baita ere, *Euskal-Erria* aldizkariaren ingurukoetan egin zitzaiena. Julio Urkijo jaunak zuzentzen zuen RIEVen ez zuten erabateko konformidadean hartu egutegiaren argitalpena. Txertatu zituen neologismoak zirela eta, beraien jarrera kritikoa nabari zen: "... el mejor, indudablemente de los publicados hasta el día. Es interesante y está escrito en hermoso vascuence. Sólo sentimos se hayan introducido en él algunas palabras de moderna invención"⁸. Bestetik, ez zetozen bat egutegian egin ziren ortografia mailako hautu batzuekin, hala nola "euskera" eta "euskaldun" hitzetan *z* erabiltzearekin⁹ eta Santuen izenak euskaratzeko moduarekin (plantamendu aranistengandik hurbilago zeuden hautuak ziren neurrian, esan dezagun bide batez). Baina, aldizkariak egutegiarekiko zuen errezeloa ez zen hizkuntza eta ortografia mailakoa soilik, lantzen zituen edukiak ere zalantzarriak iruditzen zitzaizkien eta, ondorioz, balio handiegirik gabekotzat hartzen zituztela pentsatzen dugu. Baziren, bada, euskaltzaleen artean euskaraz kultura eruditoagoa landu behar zenaren iritzia defendatzen zutenak eta, ondorioz, euskararen aldeko inbertsioa kultura popularrari begira egitea oso begi onez ikusten ez zutenak. Honela zioten *RIEV*ekoek 1912. urterako argitaratzekoa zen egutegiaren inguruan:

Por más que disintamos de la ortografía que emplea al transcribir las voces euskera y euskaldun (pues conocidas son en esta parte nuestras opiniones), y nos apartemos igualmente del modo como se trata de interpretar en vascuence los nombres del Santoral, no por eso hemos de pasar en silencio la publicación de los calendarios de pared y de bolsillo que para el año de 1912, ha dado á luz el joven y labo-

rioso vascófilo don Isaac López Mendizábal, el cual ha sabido reunir no pocos diálogos y cuentos y chascarrillos populares que figuran en el folk-lore vasco, aunque de muchos de ellos quepa sospechar muy fundadamente que tienen sus similares en el folk-lore de otros pueblos, y que es muy probable que de ellos hayan pasado al nuestro. Bien es verdad que no hay nada menos original que los cuentos populares, que emigran de un extremo á otro del mundo con asombrosa facilidad¹⁰.

Lehenengo urteetan egutegiak zenbait euskaltzale zirkulutan izan zuen harrera hotz eta errezeloz beterikoa ere atzematen da *Euskal-Erria* aldizkarian agertu ziren adierazpen eta iruzkinetan. Hasierako egoera ezkorra atzeman daiteke 1918. urterako argitaratu zen *Euzkel-Egutegiya*-ren inguruko berria ematerakoan, hots:

Hace ya algunos años fue una novedad la aparición del primer almanaque de pared editado en euskera. La idea hasta llegó a parcer atrevida. Desde luego se consideró un fracaso. Una chifladura más.

Felizmente se equivocaron los vaticinadores. Hoy ha dejado de ser novedad para constituir una verdadera necesidad.

¿Qué familia vasca puede prescindir en el día de colgar en sus paredes el simpático Egutegi, como homenaje a nuestra lengua venerada y como manifestación de amor a nuestro hidalgo solar?

Así que el Egutegi adorna las paredes del lujoso despacho y los honrados muros del apartado caserío. Se ha extendido ya su uso por todo el país. Si llegara a faltar un año el Egutegi, habría de sentirse tanto como hoy la falta de carbón. Es ya una imprescindible necesidad¹¹.

Hasiera batean batzuentzat erokeria izan zena, urte batzuren buruan beharra izatera iritsi zen gipuzkoarren artean. Beraiek ere, *RIE*Vekoen antzera, jarrera kritikoa agertu zuten 1910. urtetik aurrera egutegiak egin zituen ortografiatzeko hautu batzuen aurrean. Halere, baztertu ez ezik, urtero eman zuten egutegien argitalpenaren inguruko berri iruzkindua, bere propaganda ere eginez, zeren eta, “bien merece que el ímprobo trabajo que supone la confección de un Almanaque tan esperadamente editado, no se malogre por z de más o menos”¹². *Euskal-Erria* aldizkarian atzeman dugun jarrera, oro har, horma egutegiaren aldekoa baino sakeleko almanakaren aldekoa izan dela esan behar dugu, eta, zehazki, Barojatarren etxeak argitaratu ohi zuen *Calendario de las Provincias Vascongadas* zelakoaren aldekoa. Konparazioan, gorai-pamenak nabarmenagoak ziren, gure ustez, azken honen alde *Euzkel-*

Egutegiya-ren alde baino. Askoz ere funtzionaltasun handiagoa onartzen zioten sakelekoari –hormarakoari baino–, eta, bereziki, gazteleraz idatzia argitaratzen zen *Calendario*-ari, egunen nondik norako zehatza ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia gisa aurkezten zutelarik. Hona hemen, aurkezpen horietako bat:

Los almanques de pared no llenan por completo las necesidades que con respecto a los días del año, fiestas de precepto, etc., se sienten en las familias; y las echekoandres, con excelente acuerdo, muestran sus preferencias por el *Calendario de las Provincias Vascongadas* que anualmente edita la centenaria casa editorial. (...) La misma forma diminuta de este calendario le hace sumamente práctico y manual, porque las desproporcionadas magnitudes que han adquirido algunos calendarios o almanques, no consienten emplearlos para los fines caseros a que obedeció su creación, y a este objeto responde cumplidamente el excelente¹³.

Horra etxekoandreen artean egutegi honek zuen arrakastaren arrazoirik nagusienetakoa: erabilgarritasuna. Zentzu horretan, *Euzkel-Egutegi txikiya*-ren inguruan egin zituzten iruzkinak ere aldekoak izan ziren, sakeleko almanakaren ezaugarriak betetzen zituen neurrian. Halere, azken hau beste irakurleria bati begira aurkeztu eta gomendatua agertu ohi zen. Bertan agertu ziren adierazpenen arabera, badirudi gazteleraz idatzitako sakeleko almanaka nahiko finkatua zegoela, tradizioz, hiriburuan: “Todo ello hace que sea este calendario el preferido por las familias donostiarras y ni pocas guipuzcoanas”¹⁴. Badirudi, salgai jartzen zenaren egunarekin bat, “...es tan tradicional entre los donostiarras como el chorizo de Santo Tomás”.

Euskal-Erria aldizkarian egutegien inguruan urteetan egin ziren adierazpenak aztertuta atzeman dezakegu nola ikusten zuten heurek egutegi bakoitzari zegokion populazioa. Propaganda egiteko garaian bereizten dute zein jenderengana zuzendu, zein egutegi ereduren alde gehiago edo gutxiago egin jakiteko. Zabaldu zituzten mezuek agerian uzten dutenari helduz, beraz, esango genuke kultur eragile horien baitan irakurleriaren bereizketa egiten zela, populazio tipo bati egutegi eredu bat lotuz. Beraien propaganda adierazpenetatik ondorioztatzen dugun banaketa honelakoa da: *Calendario de las Provincias Vascongadas* aproposa zeritzoten hiritarrarentzat, donostiarren tradizioan xertatuta baitzegoen. Hormarako *Euzkel-Egutegiya* aurkezten zuten, gehien bat, gipuzkoako kaletarrari begira. Eta, sakeleko *Euzkel-Egutegi txikiya* oso gomendagarria eta erabilgarria ageri zen baserritarrarentzat, batik bat.

Ez dugu esango bereizketa hau erabatekoa zenik. Baina, gutxi gorabehera, eragileen baitan egon zitezkeen joera batzuen marrazkia izan daitekeelakoan gaude.

Errezeloak errezelo, orde, errealtatea nagusitu egin zen eta horumarako *Euzkel-Egutegiya* urtez urte gero eta arrakasta handiagoa lortuz joan zen, Gipuzkoako euskal etxe askotan oinarrizko identitate zeinu, erreferentzia eta beharra izatera iritsi zen arte. Horra, askok aurreikusten omen zuten porrotaren aurrean gailendu zen arrakasta nola islatu zen *Euska-Erria*-ko orrialdeetan:

Nunca hubiéramos creído que un almanaque euskérico de pared alcanzara en tan poco tiempo la enorme popularidad adquirida por el que viene publicando la Casa Editorial de Eusebio López, de Tolosa, tan conocida en el país por el gran número de obras euskéricas, religiosas y profanas, que ha dado a luz, con unánime aprobación del país, en los largos años de existencia que lleva el acreditado establecimiento tipográfico.

El éxito del almanaque ha superado a cuanto en el género euskérico se ha hecho hasta el día. Ninguna otra iniciativa ha tenido tan rápido y abrumador desarrollo. No sólo se disputan su adquisición en aldeas y caseríos, sino que en las poblaciones más importantes y en la misma capital se arreban los ejemplares, agotándose todas las existencias.

En el Mercado de esta Ciudad vimos a una mujer que deseaba un almanque vasco, y la acosaban con otros erdéricos, diciéndole que los vascos eran más caros. No importa, respondió aquella varonilmente, almanaque vasco quiero yo y almanque vasco he de adquirir. Y adquirió uno, por fin, en la Casa de E. López, después de recorrer varios establecimientos en que la repetían invariablemente: Ya no quedan, se han agotado.

Nunca con más razón pudo decirse que la publicación de este almanaque responde a una verdadera necesidad. Los hechos lo proclaman con avasalladora elocuencia.

Y no digamos lo que viste en una casa vasca un almanaque escrito en su propia lengua...¹⁵.

Esan daiteke 1915. urterako, jada, *Euzkel-Egutegiya*-ren presentzia nahiko finkatuta zegoela etxe kopuru handi batean. Izan zuen arrakasta arrazoi desberdinengatik da azpimarragarria: askok inondik inora espero ez zuen erantzuna jaso zuelako herritarren artean, eta euskaraz idatzitako lanik hedatuena eta irakurrienetarikoa izatera iritsi zelako. Goian hainbat euskaltzalerengan sortu zituen errezeloak azaldu

ditugun bezala, jaso behar dugu, baita ere, hasiera arrakastatsua azpimarratzen zuen jarrerarik, lehenengo urtekoa argitaratu zuen Euskal-Esnalea-koena, batik bat. Beraiek esandakoaren arabera, eskaeren kopurua hain izan zen handia, “de que el calendario es esperado con impaciencia está la prueba del grandísimo número de pedidos que tenemos recibido, así es que es de esperar quede agotado en poquísimos días(...)”¹⁶, ezen ale guztiak agortuko zirenaren itxaropena baitzuten. Eta hala gertatu zen 1909. urteko zenbakietan adierazi zutenaren arabera. Lehenengo urtean 2000 aletako botaldia egin zelarik, berehala agortu zen. Arrakasta ikusita, bestalde, 1910. urterako botaldia handitzea erabaki zuen Lopezen etxeak. Halere, 1910. urtekoak eta, batez ere, 1911. urteetako aleek ez zuten aurrez espero zen harrera onik izan. Hala dirudi 1912. urterako horma egutegiaz *Euskal-Esnalea*-n egin zen iruzkina ikusita, bertan espreski azpimarratzen baitzen aurrekoan ez bezala oraingoan gipuzkeraz bakarrik idatzia argitaratuko zela, eta ez gipuzkeraz eta bizkaieraz, eta, “gañera beste urtietakoa baña atsegi-ñagoa da, errezagoa irakurtzekoa”¹⁷, omen.

Pentsatzekoa da Lopezen etxeak egutegia argitaratzearen ardua bere gain hartu zuenean lehenengo bi urteetan egin zituen aldaketa saiakerak ez zutela nahi bezalako harrera onik izan ez euskaltzale askoren artean, ez eta irakurle arrunten artean. Egon bazegoen ikusminik 1911. urterako bi euskalkietan argitaratu zuen aleak izango zuen erantzunaren aurrean, *Euskal-Erria* aldizkariko iruzkin hau lekuko: “(...) Una novedad que encontramos este año, es la de estar escrito en dialecto guipuzcoano, vizcaino y...modernista ¿Cuajará? Allá veremos(...)”¹⁸. Ikusi ahal izan dugunez, ez zuen “cuajatu” –beraien hitzez honela baliatzea onartzen bazaigu—. Arestian azaldu dugu bizkaieraren presentzia, neurri batean, iraunkorra izan zela oro har gipuzkeraz idatzita zegoen egutegian. Noizean behingo presentziak ez ei zion arazo handiegirik sortuko ohiko irakurleari. Baina bizkaieraren presentzia areagotzea, egutegia euskalkibiduna egitera iristeraino, oztopo garrantzitsua bihurtu zen nonbait. Norberaren euskalkian idatzita ez zeuden idatziak irakurtzeko zailtasun eta erresistentzia handiak atzematen dira, ez bakarrik egutegian, baita ere antzeko apusturik egin zuten aldizkarietan ere, gipuzkeraz eta bizkaieraz argitaratu zen *Ibaizabal* astekarian kasu. Hona hemen gatazkaren adibidea:

... Bizkaiko jendeak ez du aditzen ondo emengo izkera eta nai du albiste gueienak azaldu ditezela bizkaitarrez, eta bestetik berriz

guipuzkoatarrak ez degu ondo aditzen Bizkaiko euskera, eta nai degu *Ibaizabal* gueiena betetzea emengo euskaraz izkribatutako gauzakin (...) ¹⁹.

Euzkel-Egutegiya-ren kasuan, dena den, harrera eskasagoa izan zuen, ez bakarrik euskalkien arazoagatik, baita ere aipatu bi urte horietan eduki mailan egin ziren aldaketengatik. Lopeztarren lehenengo bi urteak oro har ikusita, esan daiteke eredu bizkaitar eta “bizkaitarriista” rantzgo bira egiten saiatu nahi izan zutela, *Egutegi bizkaitarra*-n eta *Egutegi Euzkotarra*-n garatu zen eredutik hurbilago, ortografia zein lexikografia mailan planteamendu aranistetara gehiago hurbilduz eta eduki ideologiko eta moralistei leku gehiago eskainiz, eta umorea eta atsegingarritasunaren aspektua zertxobait gehiago murriztuz. Ondorioz, testu luze, mardulago eta irakurtzen zailagoak zirenen presentzia areagotu egin zuten. Eta, eredu horrek kale egin zuen, neurri batean, irakurle gipuzkoarren artean. Halabeharrez, behar bada, 1912. urtean berriro heldu zioten lehenengo urtean markatu zen eredu atsegingarriari, alderdi formatzailea eta euskaltzalea ahaztu gabe, irakurketa erraz eta erakargarrien nagusitasuna berreskuratu zelarik. Ondorengo urteetako egindako adierazpenetan “pollitak, atsegiñak” bezalako terminoak erabiliko ziren berriro. Horrela lortu zuen egutegiak Gipuzkoako euskal etxe askotan sartzea, nobedade izateari uztea eta eguneroko bizitzan txertatzea. Bere presentzia hain arrunta eta finkatua egin zenez, ez zuten aipamen berezirik egitearen beharrik ikusten, jada 1913. urtean. Izan ere, “Onezkero euskaldunen etsietan zintzilika daude eta egutegi oiezaz itzegitea alperrik itzegitea izango da” ²⁰.

Eduki zuen arrakastaren beste aspektu adierazgarria bere salneurrian eman zen merketzea da, lehenengo urtean 1,5 pezetatan saltzen hasi zirelarik, 1923. urtean 0,90 pezetatan saltzen baitzen. Gaztele-razko egutegiek bete ohi zuten lekua, jada, euskarazko *Egutegiya*-k bereganatua zuen, erabat ez bazen ere bai neurri handian, 20ko hamar-kada hasi zenerako. *Argia* aldizkaria bere egutegia argitaratzen hasi zenerako hain zuzen, oso errotuta zegoen ordurako gipuzkoarren artean euskarazko horma egutegiaren irakurketa, *Euzkel-Egutegiya*-k ahalbideratu eta bideratu, zergatik ez, zuena. Ezin dugu esan euskarazko egutegiek gaztele-razko almanaken tokia erabat ordezkatu zutenik (hor dago *Calendario de las Provincias Vascongadas*). Neurri batean ordezkatuak izango ziren, batez ere herrialdeko zonalde euskalduna eta irakurketarako trebezia zabaldua zegoenekotan. Baiezta dezakeguna

da, konpetentzia bai egin zietela gazteleraz idatzitakoei eta, neurri horretan, irakurketa modu honen unibertsoa erdibitua geratu zela, jada, euskarazko eta erdarazko egutegien artean. Bestalde, *Argia* egutegia sortu zenean merkatuaren lehian sartu behar izango zuen Lopez etxe-koak, pixkanaka bere protagonismoa galduz joango zelarik. Testuinguru berri horretan, lehen bizkaierarekin egin zuen apustuaren ildotik, 1924. urtetik aurrea Gipuzkorako eta Lapurdirako hasi zen argitaratzen Lopez Mendizabal, egindako guztiak berehala saltzen omen zitue-larik. Telleriak dioenaren arabera, 10.000 ale gipuzkeraz eta 2.000 ale lapurteraz argitaratzen zituen azken urteetan²¹.

Aleen salmenta, noski, egutegiak izan zuen arrakastaren indika-tzaile esanguratsua da. Baina egutegia erosten zutenen kopurua bezain garrantzitsua da, gure kasuan, testu idatziaren inguruan sortzen zen irakurle zirkulua kontuan hartzea, are gehiago herri irakurketa azter-tzeko garaian, mezu idatziaren hedapen esparrua eroslearen zirkulu hurbilera zabalduz, hots, familiara, lagun artera, edo hauzora gutxie-nez. Zentzu honetan, esanguratsuak iruditzen zaizkigu oso irakur-ketaren gomendioa egiten zenean, zenbaitetan, propagandan igortzen ziren mezuak. Beraietan euskarazko irakurketa gizartera zezan ani-matzen zen herritarra, bide eta testuinguru desberdinetatik eskatzen zitzaioz berak irakurtzen zuena gero beste euskaldunei igortzea, hauek ere irakur zezaten. Bi mezu jaso ditugu hemen, jokabide zabal-tzaile horren erakusgarri izan daitezkeenak. Bata, aldizkariaren irakur-keta zabaltzera zuzentzen zelarik, *Gipuzkoako Nekazaritza*-n herrie-tako idazkariei egiten zitzaien eskabidea:

Se ruega a todos los señores secretarios de los pueblos, procuren dar la mayor publicidad á esta revista, repartiendo sus números entre los caseros más aptos para que estos a su vez, y después de leídos, los pasen á otros para que hagan el mismo uso²².

Beste adibidea, zehazki, *Euskal-Esnalearen Egundiya*-ren inguruan egin beharreko propagandaz dihardu, irakurleen zirkulua zabaltzeko zeharkako proposamenean oinarritua:

- Egun on, Garibarri. ¡Or daukazu zeuk be gela erdi erdian Euskal Esnalearen tambolintero! ¡Mutil ederra alajaina!
- Supongo que también tu lo tendrás.
- Bai orise. Gure echean sartzen danak be lenen lenen ikusten dabena Esnalearen *Egundia* da.

- Ha sido un excelente acuerdo de los amigos de Esnalea la publicación de ese Calendario vasco.
- Bai, gizona. Gehiago egin balituzte be salduko eizituezen danak aguro asko.
- Y si este año ha sido un éxito su publicación, figúrate lo que será el año que viene.
- Batez bere nik egiten dodana askok egiten badabe.
- Pues qué ¿vas recorriendo los pueblos y las casas haciendo propaganda del nuevo calendario?
- Echetik urten barik nabill ni *Egundiaren* orriak or da emen zabaltzen, da orri bakoitzian datozen Euskal alechoak ereiten.
- Ese debe de ser algún nuevo sistema de siembra que has inventado.
- Ez da gauza berria. Edozeñek egunero egin leikeana da. Ara nola geldo egonda... nabillen: Egundiaren orri bakoitza echeko danok irakorri-ta-gero sartzen dogu *sobre* batean, idasten deusagu ezagunen baten izena, ta lauziko laurdeneko *sellu* bat ipiñita, bialtzen dogu *korreora*. Gauza erreza ta merkea dala eztozu ukatuko.
- Efectivamente. Y no solo es fácil y barato, sino que puede resultar muy fructífero ese sistema de propaganda, porque, como dice el adagio filosófico: “Nihil volitum quin praecornitum”. Para amar una cosa, es preciso antes conocerla.
- Bai, argia begietatik sartzen da ta *Egundiaren* orri bat daukanak urte gutziak eukitzea naiko ditu, Euskaldun ona bada beñepeñ edo Euskereaganako maitasun pitin bat badauka bere biotzean. Ori askok egiten badabe, ta orren gañez *Egundiaren* egilleak aurten baño be merkeago saltzen badituz datorren urtekoak, *Egundia* izango da noski Euskal-eche guztietan euren euskaltasunaren ezagugarria. (...)²³.

Mezu horiek bi modutan irakur ditzakegu: egon indarrean zegoen irakurketa praktika baten isla eta afirmazio gisa, edo hedapen praktika berriaren sorrera bultzatzera zuzenduriko gomendio gisa. Dena den, aintzat hartu beharreko jokabidea dela kontsideratzen dugu. Litekeena da horrelako gomendioak, ez eta praktikak ere, pertsona batzuegan inolako eraginik ez izatea. Baina, litekeena da ere, hein berean, zenbait testuingurutan finkaturik zegoen praktika izatea. Orri solteekin egin antzera, egutegiko testuen irakurketak irakurketa eremu zabala zuela pentsatzen dugu, testuinguru batzuetan familiaren esparrura zabaltzen zena (hedapen eremu naturalena litzateke), besteetan beharbada baita lagunen artekoa ere, eta beste kasuetan, gotxiagotan seguruen, hauzokideen artera zabal zitekeena. Liburu, liburuki edo egutegia erosi eta

irakurtzen ez zuten herritarrak egon bazeudela kontuan hartu behar dugun bezala, onartu behar dugu, harpidedun, erosle eta, aldi berean, irakurle zen herritar askoren inguruan irakurketa esparru zabalagoa irekitzen zela, kuantitatiboki neurtzen ia ezinezkoa bazaigu ere. Erosle izan ez arren irakurle (entzule) bihurtzen zirenen zirkulua, alegia.

Hain zuzen, horma egutegia irakurketa kolektibizaturako egina dagoela esango genuke. Edukiaren azterketan ikusi ahal izan dugunez, etxeko kide guztiei begira idatziriko liburua da, gurasoei, umeei, aiton-amonei, gizonezkoei, emakumezkoei, etab. Etxerako eta bertako guztientzako liburua da, finean. Oso esfortzu gutxiarekin ale bakoitzerako irakurle zirkulua etxeko kideekin erraz zabaltzekoa zen, kide bakoitzak berak orriak zuzenean irakurriz edo besteek irakurritakoa entzunez. Egutegiaren irakurketa espazioa, batik bat, etxeko espazio pribatu eta kolektiboarena zen, familiak betetzen zuen espazioarena. Kasu horretan, egutegiaren irakurketa ekintza esplikatzeko garaian testua-irakurlea erlazioan oinarrituriko formula gainditu egiten zela esan behar da, bere ordeztua-etxea (gutxienez hiruzpalau familiakidez osaturiko irakurle-entzule zirkulua) arteko erlazioaz hitz egitea egokiagoa litzatekeelarik. Beraz, egutegiaren bitartez zabaltzen ziren edukiek eta mezuek saldutako aleen kopurua nabarmen gainditzen zuen irakurle zirkuluan eragiten zutela pentsatu beharko dugu, zalantzarik gabe.

Bukatzeko, 1917. urterako argitaratu zen alearen inguruan –lor-tutako arrakasta azpimarratuz–, egin ziren adierazpen batzuk jaso nahi ditugu, bertan nahiko garbi ikus baititzakegu *Egutegiya*-k izan zituen esanahiak:

En pocos años se ha popularizado por todo el país este Almanaque de pared, que hoy lo vemos colocado en casas y caserías, con gran contento de muchas familias que hasta hace poco no creían pudieran imprimirse en euskera más que esos *berso berriak* publicados con permiso.... de fusilar la lengua.

Versos *zarrak* eta *berriak* se ven con profusión en este recomendable Almanaque, pero son de otro marchamo muy distinto a esos otros partos de ingenio *sagardoteril*.

Y no sólo hay versos, sino que hay prosa, prosa selecta y castiza. ¡Quién había de decir a ciertas gentes que los caracteres de imprenta debían emplearse para la prosa vascongada!

Pero hoy desgarran el papel del Almanaque deseosos de saborear los conceptos contenidos en el reverso de la hoja diaria; y leen en verso y leen en prosa. Pero sobre todo leen en euskera.

Miles de labios repiten diariamente las frases euskéricas contenidas en el Almanaque. Nuestros caseros acuden a separar la hoja con el mismo anhelo que en las ciudades se busca el periódico para informarse de la guerra mundial.

Pocas obras de propaganda euskérica habrán tenido éxito tan rotundo como este recomendabilísimo Almanaque, que viene a ser el mejor adorno en las paredes de las viviendas vascongadas. Celebremos el éxito, y adelante. ¡Bizi bedi euskera!²⁴.

Laburbilduz, esan dezagun, *Egutegiya*-k esanahi desberdinak bereganatu zituela bere ibilbidean: Gipuzkoako geografian herri irakurketa modu berriaren finkapena suposatu zuen, herrietan euskarazko egunkariaren hutsunea betetzen zuena, euskarazko aldizkariak iristen ez ziren tokietara iristen zelarik. Herri kulturatik abiatuz eta herriari begira idatzia izanik bere baitan uztartzen zituen herri kultura eta kultura eruditoagoa (eskolatuagoa). Eta, herritarren euskaltzasuna eta euskotartasuna suspertu nahi izan zituelarik, aldi berean, egutegia bera bihurtu zen euskalduntasunaren eta euskotartasunaren zeinu, goian jaso den adierazpenean irakur ahal izan dugun legez, bera bihurtu zen “euskaltasunaren ezagugarria”.

IRAKURLERIAZ INFERENTZIA BATZUK

Euskarazko egutegien irakurketa praktika soziokulturalaren nola-kotasunak argitzeko geratzen zaigun beste gakoa egutegia irakurtzen zuen irakurlearen ingurukoa da, hain zuzen, ze jende motak –eta nola– irakurri ohi zuen *Euzkel-Egutegiya* edota *Euzkel-Egutegi txikiya?* galderari erantzutea. Horretan saiatuko gara ondorengo lerroetan.

Erabili ditugun iturrien bitartez ezin dugu norbanakoak testua zein modutan jasotzen zuen, nola hartzen zuen zuzenean ezagutu. Idatziaren harrerak ezaugarri indibidualak ditu, pertsona bakoitzari dagozkion ezaugarri partikularrak, eta horien ezagutzak beste ikerketa bideetatik joatea suposatzen du. Ildo horretatik erosi eta irakurri gauza berdinak ez direnaz ohartu behar dugu. Kasu bakoitzean indar, motibazio eta arrazoi desberdinek eramango dute nor edo nor bata, bestea ala biak egitera. Joera bakoitzaren ezaugarri kolektiboez beste hautu pertsonala dago, guztien oinarrian dagoena. Halaber, eta oro har, irakurleria ez da talde homogenea, irakurketa modu desberdinak dituzten irakurleez osatutako taldea baizik. Horma egutegiaren kasuan, adibidez, irakurketa joera desberdinen arabera irakurle profil anitzak marraz ditzakegu, hala nola: egutegiaren aurrealdea bakarrik irakurriko zuten irakurleak, aurrealdeko zein atzealdeko orrialdea diziplina handiz egunero eta urtez urte irakurriko zituztenak, edukiak sorrarazten zien interesaren arabera edota, oro har, irakurtzeko eta bereziki euskaraz irakurtzeko zuten gaitasunaren arabera, noizean behin orrialderen bat edo beste irakurriko zuten irakurleak, etab. Horrela, hainbat eta hainbat azpitalde –norbanako adina– sor ditzakegu irakurle talde orokorrangoaren baitan. Oro har, irakurlearen gaitasunak eta praktikak baldintzatuko zuen irakurketa modua, are gehia-

go euskarazko irakaskuntza erakundeturik ez zegoen garaia izanik. Baldintzatuko zuten irakurketa modua, halaber, testuaren edukiek, egiturek eta idazkerak ere.

Bestalde, egia da, esanahia eraikitzekeo prozesua ez da bat batekoa. Irakurtzea, hitz egitea eta idaztea bezala, gizarte ekintza bat da eta, honela, faktore sozialek esanguratsuki eragiten dute irakurleek testuei ezartzen dizkieten esanahietan. Bada dimentsio publikoa testuaren esanahiarentzat. Dimentsio horrek mugatzen du irakurleek testuak ulertzeko duten modua, beraiek diskurtso komunitate baten partaide baitira, hizkuntzaz gain, beste hainbat elementu konpartituak dituztenak. “El ‘mundo del texto’ es un mundo de objetos o de ‘performances’, esango digu Petrucci-k (1999, 12), cuyas formas permiten y constriñen la producción del sentido, y que el ‘mundo del lector’ es aquel de la comunidad a la que pertenece y que define un mismo conjunto de competencias, de normas, de usos y de intereses”. Ildo horretatik, irakurketa testuinguru sozial eta kultural jakinean ematen den praktika orokortu gisa hartuta, oinarrizko ezaugarri kolektiboak atzeman ditzakegu. Guk erabili ditugun iturri eta datuekin ez dugu egutegiaren irakurleen unibertsoa azpitalde zehatzetan marrazteko aukerarik izan. Horren ordeaz, egutegiaren irakurleria zabala osa zezakeen herri masaren oinarrizko ezaugarri sozialak eta kulturalak marrazten saiatu gara, garaiko euskararen erabileraren testuingurutik, populazioaren alfabetatze mailetatik eta alfabetatzearen sustapenerako burutu ziren praktika kulturaletik hainbat aburu eratorriz. Egutegiaren edukiaz egin dugun analisitik eta garaiko prentsan gaiari buruz agertu ziren iritzi eta iruzkinetatik abiatu gara gazteleraz idatzitako eta euskaraz idatzitako egutegiaren artean azken hauek aukeratu ohi zituen erosle-irakurlearen profil orokorraren oinarrizko ezaugarriak marrazteko. Zehazki, eragileek egutegia nori zuzendu nahi zioten ikusten saiatu gara, neurri batean, nork irakurtzen zuen ondorioztatuz ahal izateko.

Horrela, bada, egutegia bultzatu zuten eragileen lehenengo adierazpenak hartzen baditugu, egutegiaren irakulea, hasiera batean bederen, euskaldun sentitzen zen oro izan zitekeela ikusten dugu, hots: “Nosotros creemos que todo el que se sienta vasco adquirirá “nuestro calendario” en la seguridad de que con ello además del beneficio y solaz que al comprador reporte, habrá contribuido eficazmente á la conservación y propagación del euskera”¹. Hasiera batean, behintzat, euskaldun edo euskara maitatzen zuten herritarrengan pentsatu zuten

Euskal-Esnalea-koek. Hizkuntzarekiko nolabaiteko kontzientzia zuen irakurlea zuten buruan, gaztelerazko egutegia utzi eta euskarazkoa hartuko zuen irakurlea. Euskarazko aukera hautatzera derrigorrezakeen testuinguru sozial, ekonomiko edo politikorik ez egotean, herritarren eragingo zuen presioa presio sinbolikoa, kontzientzia mailakoa, zela pentsatu behar dugu. Horretaz gain, kontuan izan euskarazko alea gaztelerazko ohikoak baino garestiagoa zela eta, beraz, berau erosteak esfortzu ideologikoz gain ekonomikoa ere suposatzen zuela. Ildo honetatik, bada, *Euskal-Esnalea* aldizkariko lehenengo zenbakia ikusita, *Euzkel Egutegiya* (*Euskal-Esnalearen Egundiyā*), hein handi batean behintzat, elkarteko bazkideentzat –eta bere ingurukoentzat–, egina zegoela pentsa daiteke, oso antzeko edukiak lantzen baitziren aldizkarian zein egutegian. Gainera, elkarteko bazkideen artean, denak euskaltzaleak izanik, euskaraz zekitenetaz gain –eta horiei egutegiak euskaraz irakurri eta sakontzeko aukera ematen zien–, baziren euskaraz ez zekitenak, eta horiengana zuzenduko ziratekeen egutegian agertzen ziren euskara ikasten lagunduko zieten hainbat testu. Lehenik, beraz, populazio euskaltzalea izango zen egutegia jaso zuena; urteen poderioz, ordea, herritar arruntek ere jo zuten egutegia erostera, irakurleria batik bat motibazio ideologikoz bultzatutakoa izatetik motibazio instrumentalagoa zuena izatera ere igaro zelarik.

Halaber, garbi ikusi dugu, egutegia –eta baita garaiko beste euskarazko idatzi guztiak–, gazteleraz alfabetaturik zegoen euskaldunarentzat zegoela egina. Euskal kultura idatzia sustatzen ahalegindu ziren kultur eragile desberdinek abiapuntu zuten euskarazko irakurlearen irudi tipoa irakurtzen eta idazten zekien euskalduna zen, gazteleraz idazten eta irakurtzen ikasi zuena hain zuzen, bere borodantzez eta autodidaktikoki euskaraz irakurtzen eta idazteari ekingo ziona, hots, autoalfabetatuko zena. Testuinguru horretan, beraz, berebiziko garrantzia hartuko zuen kultura idatziaren eragintzak –liburuak, liburuxkak, eta egutegiak argitaratu eta zabaltzearen bitartez–, eta euskaldunari autoalfabetakuntza erraztuko zioten kultur eta hizkuntza baliabide berriak eskaintzeak. Euskaltzale haien mentalitatearen oinarritzko ustea “erderaz irakurten dakien euskaldun bat egon be eztago euskeraz irakurri eziñ leikeanik”² baitzen, hortik ekin zioten Euskal-Esnalea-koek zein Lopezen etxeok, besteak beste, *Euzkel-Egutegiya* eta *Euzkel-Egutegi txikiya* argitaratu eta zabaltzeari, eta euskal herritarren artean euskarazko irakurketa sustatzeari.

Printzipioz, euskal herritar orori zuzenduriko egutegiak baziren ere, praktikan –urteak pasa ahala gero eta nabarmenago–, gipuzkoarrentzat egindako egutegiak zirela esan behar da. Alde batetik, erabiltzen zuten euskalkia gipuzkera izanik nagusiki, irakurleria potentziala, batez ere, hizkera ere gipuzkera edota gipuzkeratik gertukoa zuena izango zen. Gogoratu, euskarazko alfabetatze erakundeturik ez zegoen testuinguruan, are eta beharrezkoagoa zuela irakurle autodidaktak irakurtzen zuena esaten zuten modutik gertu egotea, hots, idatzia ahozko adierazpenaren isla ahalik eta zuzenena izatea. Horrela, eta ez bestela, ulertu ahal izango zuten mezu idatzia, ahozko adierazpen arruntari lotzen zitzaioarik. Zentzu honetan, egutegian uztartzen saiatu ziren gipuzkoarren herri hizkera, batetik, herritarraren hizkuntza eta kultur erreferentziekin bat eginez. Eta, bestetik, euskara landuagoa, herritarren formazioari begira erabilia. Idazkeran ez ezik gipuzkoarrekiko sintonia ere bilatu ohi zuten testuetan egiten ziren herrien eta pertsonaien erreferentzietan. Edukiaren azalpena egin dugunean adierazi dugu, mezu desberdinak (moralak, kulturalak, euskaltzaleak, selebrekeriak, etab.) gipuzkoar arruntengandik gertu ei zeuden leku erreferentzietan testuinguratuak zeuden –batez ere Donostialdeko eta Tolosaldeko herriekiko erreferentzietan–. Baita herritarrari ezagunak egiten ei zitzaizkien pertsonaiei erreferentzia eginez. Egutegiaren, *Euzkel-Egutegiya*-ren, izaera bikulturalari erantzunez, oraingoan, atzerriko erreferentzia geografiko eta kultural zabalak (London, New York, Sokrates, Seneka, etab.) eta herriko erreferentzia geografiko era kultural partikularrak (herrien izenak, bertako festak, azokak, berriak, etab.) uztartzen ziren bertan. Bestalde, egutegian (hormarakoan zein sakelekoan) agertu ohi zen publizitateak –Gipuzkoako entepresek eta komertzioek egindakoa ia gehiena–, batez ere Gipuzkoatik eta gipuzkoarrentzat egindako egutegiez hitz egiten ari garela adierazten du.

Gipuzkoarren artean, ordea, ez zituzten guztiek euskarazko egutegi hauek irakurtzen. Kanpo faktoreez gain, jantziak, egutegiaren formatoak kasu honetan, zeresan handia dauka testua irakurtzeko moduaren ezaugarriak zein irakurleria potentzialaren tipologia atzeman eta zehazteko garaian. Izan ere, inprimakiaren itxurak, formatoak, eragiten baitu irakurketan, irakurketa lekuan (non irakurri behar den ala irakur daitekeen), irakurketa moduan (nola, noiz, norekin irakurri behar den ala irakur daitekeen) eta, noski, irakurle populazioan, irakurketa moduak eta irakurleak batzuk ala besteak (nor izango edo izan daitekeen) izatea ahalbideratuz eta, baita, baldintzatuz ere.

Horma egutegiarekin bat-bateko irakurketa, egunerokoa, egunerokotasunean txertaturiko irakurketaren praktika iraunkorra zen bideratzen zena. Formato horrek eskaintzen zuen irakurketa egoera ideala hauxe da: Egunez egun takoaren orrialdeak askatuz, irakurleak orrialde bakoitzak zituen idatziak irakurtzen zituenekoa; eguneroko praktika zena, finean, hileroko eta urteroko irakurketa praktika bihurtuz. Printzipioz, itxurak irakurketa espazioa baldintzatuta zuen, horma behar zen gutxienez. Takoan oinarrituriko irakurketa modu ideala horma itsatsitako idatziaren inguruan emanikoa da. Irakurketa baldintza egokiak jarraitu ala ez irakurlearen esku egongo zen beti, halere. Takoan prentsaturia zegoen idazki multzoa, halaber, eraldatu egingo zen askatua izaten zenean, orrialde bakoitza “orri solte” bihurtuko zelarik. “Orri solte” diogu, izan ere “orrialde aske” (idatzi aske) horiek “hojas volantes” deiturikoen antzera irakurriak izateko aukera aparta eskaintzen baitzuten. Bertsopaperek eta hainbat foiletok egin legez, horma egutegiko “orri solteek” bakarka eta isilik, ala taldean eta ozenki –alfabetatuak alfabetatuari, alfabetatuak ez alfabetatuari, erdialfabetatuak ezalfabetatuari–, irakurtzeko aukera eskaintzen zuten, banakako irakurketa edota irakurketa kolektiborako bidea irekiz. Baita, esan behar dugu, irakurketaren zabaltzea eta gizarteratzea ere ahalbideratzen zutela eta, neurri handi batean, hori zela ere egutegia argitaratu zutenen helburu nagusitako bat arestian azaldu dugun bezala, eta egutegiak irakurleari egin zion gomendio honetan ikus daitekeen bezala: “Euskal-Egutegiko orriak zeorrek irakurtzean ez bota, baizik eman beste bati eta euzkeraren alde onela lan egingo dezu”³. *Euzkel-Egutegiya*-k irakurtzeko moduko testu motzak jartzen zituen irakurlearen eskura, oso erraz transmititu zitezkeenak, erraz memorizatu eta erraz komunika zitezkeenak. Testu horiek txikiak ziren, hauskorrak, kalitate arrunteko paperean inprimatuak, kolaz elkarrekin lotuak eta, bere erabileragatik, manipulazio eta mailegu ugarietara zuzenduak. Eta, zentzu horretan, erraz hedatu eta gizartera zitezkeen edukia zen helarazten zutena.

Baina, irakurketa modu desberdinak ahalbideratzen dituen forma honek ere, duen arintasun eta hauskortasunagatik, baditu bere mugak testuaren kontserbazioari dagokionean bederen. Aipatutako ezaugarriak nahiko arrazoi dira beraien kontserbazioa lan zaila zela pentsatzeko. Auskalo egunean askatu eta irakurritako orrialde bakoitzak zer nolako amaiera izango zuen. Hipotesi desberdinak egin ditzakegu: baliteke edukia irakurri eta memorian gorde ondoren orria puskatu eta

zakarretara botatzea (joera arruntena litzateke), baliteke ere hainbat orritxo, bere edukia interesgarritzat edo baliagarritzat hartua zelako, nonahi edo nolanhai jasoa izatea, eta baliteke ere orri solte moduan kutxatxo edo libururen baten barruan gordea izana. Dena delakoa izanda ere, garbi dagoena da testuaren forma hauskorrak zaildu egiten zuela idatziaren iraupena eta, ondorioz, gaur egun irakurketa fenomeno bere osotasunean gureganatu ahal izatea.

Egutegi liburuxkaren kasua, bestalde, fenomeno bitxia egin zaigu. Egon bazegoen interes berezirik hormarako saltzen zen takoa bera azal itxurosoz hornitua eta liburuki gisa saltzekoa. Zertarako? Galde egin dezakegu. Zertarako saldu eduki bera, egitura bera baina beste formatoan? Bada, erantzuna erraza da: egunero irakur zezaketen idatzi hori erreparatu, berrirakurri, kontsultatu, memorizatu, aztertu eta, batik bat, gordetzeko. Edo, behintzat, guzti hartarako aukera eskaintzeko. Horma egutegiek zuten izaera hegazkorra saihesten zelarik, orrialdeak elkarrekin lokarri estuki lotuz liburuki gisan eskainitako egutegiek edukiaren kontserbazioa ziurtatzen zuten, beste liburuekin batera kultura mailako edo hizkuntza mailako ondasuntzat hartuak eta gordeak izan zitezen merezimendu guztiak eginez aldi berean.

Edukia bera zen horma egutegian eta egutegi liburuxkan eta, beraz, egutegi hauen irakurleen ezaugarri kultural eta sozialak berdintsuak zirela pentsa genezake. Halere, egutegien formatu ereduak irakurleriarengan (eta honi loturik itxura bakoitzaren kostoak) desberdintasunak sortzen zituela pentsatzea egokiagoa litzateke. Formato bakoitzak garai hartan euskaraz irakur zezakeen eta irakurtzen zuen populazioan irakurle tipo desberdinak erakar zitzaieela uste dugu. Eduki bera bi modutan saltzeak, jada, herri mailan euskarazko irakurketarekiko interes eta motibazio desberdinak egon bazeudela pentsatzera garamatza. Bata interes arrunta izango litzateke, ohikoa, beste edozein herritan izaera bereko egutegiarekiko egon zitekeenaren antzekoa, eta horma egutegiaren irakurketan oinarritzen zena. Kasu horretan irakurketa menperatzen zuen euskaldungo arruntak, xeheak, osatuko zuen irakurleria potentziala (alfabetatu-oso ala erdialfabetatua izan zitekeen). Ahozko kultura oraindik ongi sustraituta zegoen herritarra genuke horma egutegiaren eroslea (irakurlea), egutegiak zuen funtzio instrumentalak, hots, denboraren erregistroa eta honekin batera zetorkion informazio soil eta iraunkorrek motibaturiko irakurlea.

Bestea, interes edo motibazioa bereziagoa litzateke, irakurle espe- zifikokoagoa zuena. Euskaraz idatzitako testuekiko (baita egutegian argi-

taratuak badira ere) arreta berezia zuen irakurlea (eroslea) litzateke. Egutegi liburuxkak ondasun gisa gordetzeko aukera ematen zuen eredu zenez, bertako testuen azterketaz eta kontserbazioaz kezkatuta zegoen irakurlea izan zitekeen, aurrekoa baino eskolatuagoa eta, batik bat, euskara eta euskal kulturaz herritar xeheak baino kontzientzia ideologiko-politiko handiagoa zuena. Egutegi liburuxken erosle eta irakurleria posibleen barruan sar genitzake, alde batetik, euskaldun intelektualak, ondasun kultural eta linguistikotzat harturik *Euzkel-Egutegiya*-k irakurri, aztertu eta kontserbatuko zituztenak. Multzo honetan sar genitzake ere, euskara jakin ez baina beren burua euskaltzaleztat zuten irakurle intelektualak. Eta, azkenik, erosle posible ziratekeen ere, gure ustez, horma egutegia irakurtzeaz gain, beren kontzientzia euskaltzale handiak bultzatuta, egutegi liburuxka ere eskuratuko zuketzen herritar xeheak.

Herri xehearen irakurketa praktikak zirela eta, bestalde, kontuan hartu behar dugu egutegia argitaratzen hasi zirenerako Gipuzkoan (beste herrialdeetan baino gehiago) tradizioz finkaturik zegoen irakurketa praktika zabaldua, hots, bertsopaperen irakurketarena. Irakurleek zein idazleek izan zezaketen euskaltzaletasun neurriaz gain egon bazegoen, jada, euskaraz irakurtzeko ohitura herrian. Gure ustez, aurreko mendetik zetorren eta Itz-Jostaldi eta Euskal Festekin indarra hartu zuen bertsopaperak irakurtzeko ohituran dago XX. mendearen lehenengo hamarkadetan garatu ziren euskarazko irakurketa modu berrien –aldizkarien eta egutegien–, arrakastaren gakoak. Gakoa izan zen, seguruen, *Ibaizabal* bezalako aldizkariak Gipuzkoan Bizkaian baino irakurle eta idazle gehiago izateko, Errenteriako herriaz egin ziren iruzkin hauek erakusten dituzten legez:

Emen, nere iritzian, arrera ona eguingo zaio euskaraz atera dezuten paper orreri, baldin guipuzkoarrez jarten badezute beraren berria, zergatik dan oso euskarazalea emengo jende guzia; eta gaiñera ikusten degulako, itsuak eta beste zenbaitek ekartzen dituzten euskarazko berso-paperak, berealasean saltzen dirala⁴.

Aldizkariak herrian zuen harreraz ere adierazten den ezaugarriarik aipagarriena bertsoekiko zaletasuna zen. Aldizkariarekiko lotura, neurri handi batean, bertsoak ziren, hots, “Jai goizetan baserritar askok artzen dute eta arrapazka ibiltzen dira bertso politik badakar”⁵, esaten zaigu. *Ibaizabal* aldizkariaren kasuan, bertsoak eta bertso modukoak zekartzan neurrian, baldin eta gipuzkeraz idatziak bazeuden, arrakasta

ziurtaturik omen zegoen. Egutegiarekin ere antzeko fenomenoa gertatu zen, gure ustez. Gipuzkoarra ohituta zegoen irakurketa moduarekin (bertsopaperen irakurketarekin) jakin zuen lotzen bai edukian eta baita forman ere. Hainbat bertsolariaren biografietatik⁶ ere ezagutzen dugu beraietako zenbaitek egutegia irakurtzeko zuen zaletasuna. Pixkanaka, esan daiteke, egutegia bertso-paperek bete zuten irakurketa espazioa hartzen joan zela, hamarkada batzuetan elkarrekin iraunez eta azken hauek erabat desagertu arte. Gizartea eta herritarren bizimodua modernizatuz joan zen neurrian, *Euzkel-Egutegiya* ordezkatuz joan zen lehenago bertso-paperek eskusiboki bete zuten irakurketa espazioa.

Bai bertso-paperekin irakurketarekin, eta baita egutegiarenarekin ere zerikusi handia izan zutela uste dugu herrialde mailan XIX. mendean izan ziren irakurketa tasek –altuak beste herrialdeekiko konparazioan–, eta, bereziki, emakumezkoen populazioan irakurtzen zekien herritar kopuruak. Emakumezkoen artean ikusi irakurketa tasek aditzera ematen dute ez bakarrik teknikaren ikaskuntza, baita ere irakurketa praktika bat, batzuk gizonezkoengan hain nabarmen atzematen ez zutena. Dudarik ez dago herritarren (berdin emakumezko zein gizonezkoen) irakurketa zaletasunen artean leku nagusia zuela eliz liburuen irakurketak. Baina, egutegiaren irakurketarako etxekoandek zuten joera ikusita, pentsatu behar dugu, gehiegi okertu gabe, emakumezkoena egutegiaren irakurle multzoaren zati handia izango zela⁷. Izan ere, egutegia etxerako pentsatua egin zen, kaleko etxe zein baserrietarako, are gehiago, baserriko sukaldarako, eta etxea zein etxeko sukaldea emakumearen jabetzako espazioa zen. Horregatik, etxekoandrea gaztelarazko egutegiaren irakurlea izan bazen, halaber, euskarazko egutegiaren irakurlea ere izango zela pentsatu behar dugu, eta ale bakoitzaren inguruan sor zitekeen irakurle zirkuluaren oinarritzko pieza Gipuzkoako etxe askotan.

Zehaztaperen guzti hauek egin ondoren, atalari amaiera emateko azpimarratu nahi genuke –*Euskal-Erria* aldizkariko adierazpenetatik egutegiaren irakurlearen inguruan atera dugun bereizketa kontuan hartuta aldi berean–, *Euzkel-Egutegiya* eta *Euzkel-Egutegi txikiya*-ren irakurlearen profil orokorrari erantzungo lioketela Gipuzkoako baserrietan bizi ziren baserritarrek neurri handi batean. Baina baita ere, barne migrazioaren ondorioz, kalera jaitsi zen baserritarrak eta bere ondorengoak, gune urbanoan kokatuak, jada, modernotzearekin batera bizi-bizi gauzatzen ari zen gaztelaratze eta akulturatze fenomenoan murgilduta, gero eta gehiago.

ZENBAIT BURUTAPEN, AMAITZEKO

Euskaraz idatzi eta Gipuzkoan zabaldu ziren egutegien inguruan egin dugun azterketa hezkuntzaren ikuspegitik burutu dugu eta, zehazki, herri irakurketa praktikaren ezagutzan zentratu gara. Abiapuntu izan dugun iritzia zera izan da: egutegiak aztergai izan dugun epean zehar informazio iturri izateaz gain –aldizkako publikazio gisa irakur ditzakegu–, formazio bide ere izan bazirela –hezkuntza testuliburu gisa irakur ditzakegu–. Uste horretatik egin dugu egutegien analisi historikoa eta beraien analisi morfologikoa. Euskara idatziaren alderdi produktiboak eta irakurketan zituen efektuak adieraziz egutegiek alfabetatze prozesuetan eta, batez ere, euskara idatziaren erabilean eta euskarazko irakurketaren praktikan izan zuten garrantzia azpimarratu nahi izan dugu. Guztia herri heziketaren esparruan, bere alderdi informalean ulertuta.

Egutegiak, bai bere edukiengatik bai bere itxura materialarengatik, herri entziklopedia txiki gisa interpretatuak izan daitezke. Hala adierazi izan da ere beste hizkuntzetan idatzitako hainbat ikerketetan. Izaera hau are eta nabarmenagoa eta esanguratsuagoa da euskarazko egutegien kasuan, kontutan hartzen badugu aztergai dugun epealdiko kultur testuingurua eta garatzen ari zen irakurketa estentsiboa. Hau da, momentu hartan irakurlea hainbat irakurketa testuinguruetara hel zitekeen (prentsa, literatura, erlijio testuak etab.), orokorki gazteleraz idatzitakoetara, eta neurri txikiagoan elebidunetara eta euskara hutszkoetara. Horrekin batera, ohartu behar gara euskara hutsean argitaratu ziren testuek oso bizitza laburra izan zutela, katiximak alde batera utziz noski. Guzti horrengatik, euskarazko egutegiek herri irakurketan bete zuten lekua eta izan zuten eragina biziki esanguratsua izan zelakoan gaude.

Euskaraz idatzi ziren egutegien artean arreta berezia eskaini diogu *Euzkel-Egutegiya*-ri, izan ere bere baitan aurkitzen baititugu, nabarmenki, dokumentazio guzti honen azterketa egitera eraman gaituen hezkuntza helburuarekin bat datozen ezaugarriak. Horretaz gain, kon-tuan hartu behar dugu egutegi honek hedapen esparru nahiko kontrolatua izan zuela (Gipuzkoa) eta luzaroan ikusi zuela argia, baldintzak denak hauek herri irakurketa mota honekiko eman zen bila-kaera, hausturak eta etenak ezagutzeko aukera aparta eskaintzen digu-tenak. Aztertu dugun testu mota, *Euzkel-Egutegiya* (1909-1934), era-bat zegoen euskaraz idatzia eta izan zuen biziraupena bera dugu izan zuen arrakastaren seinalerik argiena, euskarazko argitalpenetan, Gi-puzkoan bederen, ohikoa ez zen arrakasta hain zuzen. Denbora di-mentsioak, halaber, herrian irakurketa ohitura berria finkatu zenaz hitz egiteko aukera eskaintzen digu, gisa honetako argitalpenak eska-tzeko prest zegokeen irakurzaletasunaren finkapenez. Denbora eta espazio dimentsio horiek justifikatzen dute, berez, helarazten ziren hezkuntza edukien eta espazio pribatuan kokaturiko irakurlearen pro-filaren inguruan egindako azterketa.

Bestalde, herri alfabetatzearen testuinguruan azpimarratu nahi izan dugun aspektu garrantzitsua zera izan da: herri xeheak, nekazal ingurunetakoak batez ere, kultura idatzira heltzeko zuen aukera. Ikerketa lan ugarietan frogatu izan denez, ahozko kulturatik kultura idatzira iragateak ahozkotasanari dagozkion jokabide batzuk bertan behera uztea eta kultura idatziari dagokion hainbat praktika eskuratzu suposatu izan du. Zentzu honetan, herri kulturaren baitan hiru irakur-keta praktika nagusi azpimarra ditzakegu: batetik, ahozko tradizioak jada herri kulturaren finkaturik zeuden bertsopaperetan aurkituko luke segida. Bestetik, kristau dotrinak eta katiximek ahozkotasan errepika-korra mantentzen jarraituko zuten idatzian. Eta, azkenik, herri irakur-ketarako espazio berria irekiko litzateke egutegi hauei esker, arrakasta izango zuen espazioa hain zuzen, bere baitan biltzen zituelako ber-tsopaperen jarraipena (desagertuko ez zirenak), eta katiximen azpian zetzan irakurketa praktikari zegozkion aspektu batzuk. Egutegiakin garatu zen irakurketa praktikaren berrikuntza aldizkako prentsak mo-mentu hartan suposatu zuen modernitatea gehitu izanean zetzan. Elementu guzti horiek, bai praktikoez (ahozkotasuna, errepikakorta-suna, irakurketa iraunkorra), bai eduki mailakoez (herri kultura, tradizioak) mota honetako argitalpenak izan zuen gero eta tirada han-diagoa esplikatuko lukete.

Egutegien arrakasta ez zen bat-batekoa izan, halere. Aitzitik, kon-tuan hartu behar ditugu aurretiko saiakerak eta egutegien ekoizpen materialean izaniko bilakaera. Lehenengo ekoizpen saiakerak ahalegi-netan geratu ziren, bai bilatzen zen produktuari zegokionez bai irakurleko potentzialean sortu ziren itxaropenei zegokienez. Eraman-dako bilakaeran ikusi ahal izan dugu argitalpenaren egokitzapen mate-rial hobearen (hormarakoa ala sakelakoa) eta bilakaera berari loturiko ondorengo irakurketa ereduaren finkapenaren arteko dinamika. Gi-puzkoan ekoiztu ziren egutegien tipologia bat egin dugu, alderdi for-maletan eta eduki mailakoetan erreparatuz. Aipatzekoa da egutegiaren itxura eta baita aurkezpena ere, gure kasuan, garrantzitsuak direla, irakurleria onartzeko prest zegoen espektatiben neurria ematen digute-lako. Hau da, testu neurri txikietara ohituta zegoen baserritarrari ezinezkoa zitzaion aldizkaria edo prentsa bezalako neurri handiagoko argitalpena barneratzea. Eta, gainera, edukietan hartzailea zen popu-lazioak kontsumitu ohi zituen irakurketekin nolabaiteko familiarteko-tasuna mantentzea beharrezkoa izango zen.

Edukietan eraman zen bilakaeran azpimarratu behar dugu hasiera batean Euskal-Esnaleak egutegiari eman zion izaera modernoa, Campion-en hizkuntza planteamenduetatik gertu, besteak beste, as-makizun mordoa (argazki eta guzti) txertatu zuen heinean, orduarte-ko euskarazko idatzietan ohikoa ez zena. Aldiz, I. Lopez Mendizabalen ardurapean argitaratu ziren lehenengo urteetako aleetan (1910-1911), bai erabili zuen idazkera eta ortografiagatik, nabarmenago landu ziren eduki esparruengatik eta, baita ere, bizkaieraren presentzia areagotua-gatik (1911), abertzaletasun sabiniarraren hizkuntza planteamendue-tatik eta planteamendu ideologikoetatik gertuago zegoen egutegi ere-durako joera nabarmendu dugu. Halere, merkatuaren dinamikak berak, uste dugu, eraman zuen egutegia argitaratzailea hasieran Euskal-Esnaleak argitaratu zuen ereduarekin bat zetozen terminoetan bir-planteatzera. Lehenengo urteko izaera modernoa eta ludikoa berresku-ratu zuen eta, pixkanaka, gorabehera batzuk bidean, beste hizkuntze-tan idatzitako antzeko egutegietan ohikoa zen eduki multzoa landuz joan zen. Mezu ideologikoen presentzia urrituz joan zen heinean, areagotu zen publizitateari zegokion lekua, urteen poderioz, garaiko euskarazko aldizkako prentsaaren publizitatea egiteko biderik inportan-teenetakoa izatera iritsiz eta, era berean, egutegi modernoagoarekin bat zihozten edukiak landuz. Neurri batean, irakurleen gustuak eta harrera inposatu zirela esan dezakegu. Edukiaren bilakaeran ikusi ditu-

gun aldaketek zerikusia dute, era berean, egutegiak irakurlearekin iraunkorki lotuta egoteko zuen beharrarekin, eta landu zituen estrategiekin, hots, eduki tradizionalak (esaera zaharrak), bertsoen eta elkarrizketen errekurtoa, herri pertsonaien unibertsorekiko erreferentziak, bertako erreferentzia geografiko arruntak etab.

Dena den, gure interesgunea egutegian zetzan hezkuntza alderdian kokaturik zegoenez, edukiaren azterketa egin dugunean honek hainbat esparru ukitzen zituela ikusi dugu, sortaraz zezakeen hezkuntz eragin motaren arabera honela sailkatu ditugunak: Hizkuntz Formazioa, Euskaltzaletasunaren Heziketa, Euskotartasunaren Heziketa, Formazio Kulturala, Heziketa Moral eta Erlijiosoa, Ateraldi Xelebreak eta Asmakizunak. Esparru hauek kuantitatiboki eta kualitatiboki izan zuten presentzia azaldu dugu, hiru oinarrizko aspekturen inguruko ondorioak atera ditugularik: estrategia didaktikoa, balio formatzailea eta balio ideologikoa. Zentzu horretan, eta herritar xeheen irakaskuntza metodoetan ohiko praktika zenari jarraituz, egutegi hauetan (baita garaiko kultur aldizkari gehienetan ere) nagusi zen printzipioa Horacio-ren “Instruir deleitando” maxima zen. Printzipio hau esplizituki ageri zen ateraldi xelebreek betetzen zuten egun kopuru izugarrian eta asmakizunei (aisialdi eta denbora pasarako tresna gisa) ere eskaini zitzaizen tartean. Bestalde, esan, aztertu ditugun kategorietan atzeman ditugun balio formatzaileak inplizituki agertzen zirela. Esan daiteke, egutegiaren orrialde askoren azpian moralarekin, erlijioarekin edota kultur formazioarekin zerikusia zuten aspektuetan hezteko asmoa zetzala. Azkenik, ia kategoria guztiak zeharkatzen zituen, eta askotan agerian azaldu zen, alderdi ideologikoa aipatu nahi dugu, batez ere euskaltzalea, eta zenbaitetan euskotarra ere, izan zena.

Azken helburua, garaiko joera ideologikoekin –batez ere abertzaleekin–, bat zetorrena, “Euzkeldun zintzoa” adierazpenean laburbilduko litzatekeen eredu osatzen zuten balioen multzoa lortzera zetorren. Egutegi osoa zeharkatzen duen aspektua izateak, beraz, egutegia “Euzkeldun zintzoa”ren etxerako eskuliburu gisa irakurtzea ahalbidetzen digu. Eredu honen ezaugarriak adierazgarriena, formazio politikoa eta alderdikoa baino, hizkuntza, moral eta kultura mailako formazioa litzateke, herri kulturaren finkaturiko eredu tradizionalarekin bat letozkeen jokabideen multzoa sustatuko lukeena. Egutegia bereziki ezaugarritu zuen aspektu berria zera izan zen, hain zuzen: eredu horren sintesian hizkuntzak eduki behar zuen kontsiderazioa.

Esandako guztia honela laburbilduko genuke: aipatu elementu guztiek hizkuntza kontzientzian oinarritzen zen kultur identitatea (egungo terminoetan nazionala kontsidera dezakeguna) garatzen zuen talde irudikapena osatzen zuten. Ildo beretik, garaiko idazle euskaldun gehienek izan zuten tokia egutegiko orrietan, euskaltzale gehienak eta beraien arteko ideologia diferentzia gehienak bertan ordezkatuak geratu zirelarik.

Prentsa idatzia iritzi edo interes ekonomikoen inguruan bilduriko taldeekin lotura zuten eragile batzuen inguruan sortu zen legez, egutegiaren eragileak euskara eta euskal kulturaren defendatzaile sutsuak izateagatik ezagunak ziren kultur erakundeekin eta enpresa taldeekin zuden lotuta. Ikusi ahal izan dugunez, batez ere Euskal-Esnalea elkarte eta Lopezen inprimategia izan ziren egutegiaren ekoizpenari eutsi ziotenak bai ekonomikoki eta bai ideologikoki. Bestalde, oinarritzko sostengu horiez gain, aipagarriak dira ere *Euzkel-Egutegiya*-n eta *Euzkel-Egutegi txikiya*-n publizitate iragarkiak ezarri zituzten enpresen presentzia. Enpresa eta komertzio txiki eta ertainen multzoa zen, Donostia eta Tolosa inguruetan ezarriak, egutegiaren argitalpenaren sostenguan lagundu zutenak.

Euzkel-Egutegiya-k herritarren artean izan zuen harrera baloratzeko garaian, bere argitalpena zela eta, lehenengo momentuetan bederen, jarrera desberdinak egon zirela esan behar dugu: alde batetik, proiektua erabat defendatu zuten euskaltzaleak ditugu, *Euskal-Esnalea* eta *Baserritarra* aldizkariaren inguruan ikusi ditugunak. Bestetik, euskaltzaleen artean ere baziren batzuk, *RIEV* eta *Euskal-Erria* aldizkariaren ingurukoak, kategoria eskasekotzat eta antzutzat hartzen zutena, honelako ekintza batean ahalegina egiteari errezelo handiz begiratzen ziotenak. Errezeloak errezelo, eta gorabehera batzuek alde batera utzita, gauza da sortu eta hiruzpalau urteetara gipuzkoarren artean lortu zuen arrakasta harrigarria eta, askorentzat, ustegabea izan zela.

Lehenengo momentutik, saldu ziren aleek probintziako euskarazko beste edozein aldizkako argitalpeneko harpidedun eta bazkideen kopurua errez gainditu zuten. Eta, urteak pasa ahala, urteko aleen tirada handituz joan zen, aldi berean, salneurria merketuz joan zelarik. Honen irakurketa praktika etxe euskaldun askoren eguneroko bizitzan txertatu zen, orduarte ezezagunak ziren dimentsioetan gainera, eta batzuentzat erokeria izan zena gipuzkoar askorentzat beharra izatera pasa zen. Halaber, egutegiaren arrakasta ez dugu soilik neurtu behar

saltzen ziren aleak kontutan hartuta, berauen irakurketatik erator zitekeen erabilera zabala ere aintzat hartuta baizik. Zuen egiturak, kolaz loturiko “orri solteen” formatoak, orriak irakurriko zituzten irakurleen zirkulua zabaltzea ahalbideratzen zuen —ez gutxitan gomendatua—, familia ingurunean, lagunartean edota auzoen artean kolektibizatuz euren irakurketa. Hori askoz zailagoa suertatzen zen aldizkarien kasuan. Horregatik diogu, bada, egutegiaren irakurle multzoak eta bere orrien bitartez helarazi zen edukiaren eragin esparruak gainditzen zuela, diferentzia handiz, egutegiaren erosle kopurua. Fidagarriagoa dirudi, kasu honetan, alea-irakurlea formularen ordeztu alea-familia formula erabiltzea. Izan ere, egutegia etxerako zegoen pentsatua, familiako kide guztiei begira egina eta honen irakurketa praktika kolektiboa eta kolektibizatua bultzatu zen.

Egutegiaren irakurle posibleen tipologiari dagokionez, bestalde, aztertu ditugun alderdietatik zera inferitu dugu: egutegia batez ere gipuzkoarrari begira zegoen egina (bai erabiltzen zuen euskalkiagatik bai egiten zituen bertako erreferentzia iraunkorregatik), beste gaitzaren herrialdeetako euskaldunek ere irakur zezaketarik baztertu gabe. Helarazi zen edukitik abiatuz, eta edukian islatzen ziren kezketatik abiatuz —batik bat hizkuntza mailakoak zirenak—, lehenengo momentuan gaztelazkoa ez baizik eta euskarazko egutegiaren hautua egin zuen irakurleria hizkuntzarekiko kontzientzia nahiko handia zuen populazio euskaltzalea izan zela dirudi, eta, batez ere, Euskal-Esnalea elkartearen inguruan biltzen zena. Bidezkoa da lehenengo erabiltzaileak bertako bazkideak —eta inguruko lagunak—, izan zirela suposatzea, salmenta bideak ez baitzeuden oso zabalduak. Urte gutxitara, ordea, irakurle zirkulua zabalduz joan zen gero eta euskaldun gehiago bereganatuz, hizkuntza, kultura edo nazio gaiekiko kontzientzia berezirik ez zuena, beharbada, eta motibazio ideologikoak baino gehiago arrazoi instrumentalek bultzatuta. Halere, ez dugu uste egutegia irakurtzen zuen irakurle populazioa inola ere homogeneoa zenik. Hainbat aspektuk, hots, norbanakoak irakurtzeko —eta euskaraz irakurtzeko—, zuen abilezia, testuen edukiak eta sortaraziko zuten interesa, testuaren luzera etab., baldintzatuko zuten praktika anitza eta aldatkorra izango zen. Finean, norbanakoaren gaitasun eta praktikak eta testuaren edukiak, egiturak eta idazkerak baldintzaturiko irakurketa izango zen. Egutegiaren irakurleriaren oinarri sozialari dagokionez, halere, konturatu gara intelektualen irudikapenean egon bazegoela nolabaiteko bereizketa modukoa, egutegia eredu bakoitza populazio

mota zehatzari egokitzen ziona, hots, sakeleko egutegia –*Euzkel-Egutegi txikiya*– oso aproposa zatekeen baserritarrentzat, eta hormarako *Euzkel-Egutegiya*, aldiz, egokia oso Gipuzkoako herri gehienetan bizi zitezkeen kaletarrentzat.

Gipuzkoaren kasuan, aipagarria da 1900-1920 epealdia eta, bereziki, 1910-1920 hamarkada. Batetik, gaztelerazko alfabetatze mailetan aldaketa esanguratsua eman zelako, erdialfabetatze alfabetatze osorakoa. Bereziki esanguratsua emakumezkoen artean. Aldi berean, euskarazko alfabetatzeari dagokionez, XIX. mendean garatu ereduak indarra galdu zutelarik, euskara eta euskal kulturaren sustapenerako bide berriak hasi ziren finkatzen. Herrialde osoari zuzenduriko ekintzak indarra hartu zuten. Lehenengo ikastolak hasi ziren Donostian eta Gipuzkoan. Kultura idatziaren garapen modu modernoagoetara jo zen, ahozko herri kulturekin baino kultura letratuarekin erlazioa zuten formato berriak hartuz. Finean, euskara eta euskal kulturaren garapena bilatzen zuten ekintzen aukera ireki zen, neurri handi batean Eusko Ikaskuntzak zentralizatuko zuena, bere inguruan Euskal Herriaren identitate zeinuen defentsan eta euskal kulturaren aldarrikapenean interesa zuten, baita bertako erakundeek garapenaren alde zeuden pertsona guztiak bilduz.

Aztertu dugun kultur praktikaren oinarrian ikaskuntza-irakaskuntza eredu bat zen bultzatu zena euskarazko irakurketaren eta idazketaren ikaskuntzarako abiapuntu eta helburu gisa: autodidaxia. Gure gai zehatzera aplikatuz, autoalfabetakuntza litzatekeena. Autodidaxia zen garai hartako euskaltzaleen herritarren artean bultzatu nahi izan zuten hezkuntz eredua. Autodidaxia da, bestalde, ikerketa ugaritan agerian jarri denez, Errejimen Zaharreko kulturetan herritarren alfabetakuntzan nagusi izan den eredua. Egutegiko orrien bitartez herritarren artean sustatzen saiatu ziren autoalfabetakuntza prozesuak bi ardatz nagusi zituen bere baitan: herritarren borondatea, oinarriko eta funtsezko baldintza, eta ezagutza transferitzeko helduari onartzen zaion gaitasuna. Hizkuntza batean eskuraturiko trebetasunak beste hizkuntza batera transferitzeko gaitasuna, alegia. Beste modu batean esanda, gazteleraz eskuratutako irakurketa eta idazketa tekniken ezagutza euskarara transferitzea zen eskatzen zena. Aztertu dugun garaian eta fenomenoetan egon bazeuden baldintza batzuk irakurtzeko eta idazteko tekniken ezagutza –gazteleraz lortutakoa–, euskarara transferitzeko prozesua arrakastatsua egin zutenak (irakurketarako bederen). Batetik, trebetasuna transferitu behar zeneko hiz-

kuntza ama hizkuntza zen (euskara), herritarrak ahozko adierazpenean erabat menperatzen zuena. Idatziz adierazitako kultur edukiak, bestalde, ezagunak, gertukoak zitzaizkion irakurleari, neurri handi batean menperatzen zituen ezagutza tradizionalen multzo itxiari zegozkion ezagutzak ziren. Transferentzia sustatu nahi izan zutenen partetik nolabaiteko laguntza didaktikoa eskaini zen. Eta, azkenik, euskaraz irakurri eta idazteko motibazio ideologikoa zegoen. Baldintza horiek zaindu eta bultzatu ziren neurrian, esan daiteke, lortu ahal izango zen transferentzia prozesua arrakastatsua izatea. Baldintza horiek bete ezean, oso zaila, ezinezkoa esango genuke, izango litzateke herritar xeheen artean maila horretako transferentziarik egitea, oso zaila euskarazko irakurketaren kasuan, eta ezinezkoa idazketarenean.

Ildo beretik, sustatu zen irakurketa modua ahozko-idatzizko trantsizio garaia dagokiona da. Kasu askotan mantendu ziren ahozko kulturari zegozkion ezaugarriak, besteak beste informazioaren errepikatzea. Ez zen asko sortzen, eta sortzen zena ahalik eta espazio posible gehienetara zabaltzen saiatzen ziren behin eta berriz. Eduki berriak baino gehiago, ezagutza zaharrak ziren –bertsioak bailiran–, idazten eta irakurtzen zirenak.

Eredu pedagogikoari dagokionez azpimarratu, azkenik, alderdi ludikoak eta umorearen errekursoak jokatu zuen funtzio garrantzitsua. Egutegiaren irakurketa praktika gidatu zuen maxima honela laburtuko genuke: “Parrez euskeraz irakurri errez”.

Oro har, esan dezakegu aztertu dugun epealdiaren ezaugarri azpimarragarrienetako bat zera dela: herri kulturaren ahozkoaren eta idatziaren artean eman zen elkarreragina eta elkarrekintza. Zentzu horretan, nabarmendu dugu ahozko literaturak eta ahozko errekursoek izan zuten presentzia eta garrantzia. Ahozko kulturaren esanahia azpimarratzekoa da herri irakurketa praktiketan ikusi dugun garapenean izan zuen garrantziagatik. Izan ere, *Euzkel-Egutegiya* eta *Euzkel-Egutegi txikiya*-ren irakurketan ikusi dugun arrakasta gipuzkoarren artean jada finkaturik zegoen irakurketa praktikagatik esplikatu litzateke neurri handi batean. Bertso-paperak irakurtzeko herrian finkatuta zegoen tradizioagatik hain zuten. Bertso-paperak ireki zuten irakurketa eremuan txertatu zen, XX. mendean, egutegiaren irakurketa praktika, pixkanaka haiek bete zuten lekua ordezkatzera iritsiz.

Idazketarekin zerikusia zuten gizarte eta kultur praktika batzuen bitartez aurrera eramane zen P. Freirek alfabetatzeari egotzi zion oinarriko funtzioa, kontzientzieraztea, alegia. Euskarazko idazketaren eta,

batez ere, irakurketaren bitartez euskararen eta Euskal Herriaren inguruko kontzientzia hartzea bultzatu nahi izan zen, beren herriarekiko atxikimendu naturala bai baina jarrera ideologiko argia ez zuten herritarren artean. Eragileek erabili zituzten aditzak, “esnatu”, “ezagutu”, “ikus” etab. nahiko esanguratsuak dira maila honetan.

Alfabetatzearen bitarteko hizkuntz kontzientzia hartzea ez zen irakaskuntza zuzenaren bidez egin, baizik eta euskarazko irakurketa eta idazketarako motibazioan eraginez, eta tekniken erabilera eta praktikarako laguntza emanez. Zentzu horretan, garaiko kultur eragileen artean garrantzi handia izan zuen Euskal-Esnalea elkarteak. Bai zuzenean aldizkarigintzan, euskarazko lanen argitalpenean eta zabalkuntzan egin zuen lanagatik. Baita ere, erakunde publikoen dinamizatzaileria gisa egin zuen lanagatik, haiek euskara leku publikoetan garatzera, euskarazko kultura idatzia sustatzera eta euskarazko irakaskuntzari laguntza ematera bultzatuz.

Arturo Campionek Irungo Euskal-Festetan (1903) egin zuen hitzalditik hartu dugun esaldi honekin, “¡Sería cosa de ver que por huir del grotesco sambenito de analfabetos, dejásemos de ser baskongados!”, azaldu nahi genuke aztertu dugun epealdian euskaltzeek bizi izan zuten dilema. Nola eragin herritarren alfabetatze prozesua euskaldun izateari utzi gabe. Garaiko presio gazteleratzaileak sortu zuen identitatea galtzearen kezka adierazten du. Kezka horrek eraginda, bestalde, zenbait erresistentzia ekintza eramango zen aurrera, euskarazko idazketa eta, batez ere, irakurketa bultzatuko zuten kultur praktikak garatuz eta, aldi berean, euskaldun izatearen identitate zeinuak “Euzkeldun zintzoa”ren definizioan indartuak geratuz.

OIN-OHARRAK

Sarrera

- ¹ DÁVILA-ren koordinazioaren pean argitaratu zen *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*. Bilbo, UPV-EHU, 1995, liburuan argitaraturiko artikulua oinarritzekoak dira euskal alfabetatzearen historiaren ikerkuntzan. Ikuspegi historiko zabalaz buruturiko azterketa historikoetaz gain bertan daude argitaratuak ere XX. mendearen azkenaldeko alfabetatze prozesuetan zentratutako azterketa lanak, hots, IZTUETA, P. “Sociología de la alfabetización y euskaldunización (1940-1992)”, 79-98; ZABALETA, I.: “Control y autonomía: Conflicto en la alfabetización y euskaldunización de adultos (1981-1990)”, 98-128; eta, EIZAGIRRE, A.: “Usos de la lectura y la escritura en euskara (1970-1990)”, 128-158. Ikus, baita ere, UZTARO aldizkaria bere 9. zenbakian, 1993, “Euskararen batasunaz” argitaratu ziren artikulua: ZABALETA, I.: “Helduen alfabetatze-euskalduntzea: erakundetze polarizatua (1981-1990)”, 5-26. EIZAGIRRE, A.: “Euskal alfabetatzea: euskararen erabilerak (1970-1990)”, 27-58. Euskal alfabetatzea zein euskarazko alfabetatzearekiko dituzten erreferentzia zuzenak direla eta, goian aipatu dugun artikulubildumaz gain oinarritzeko dokumentutzat hartu beharko lirateke UZTARO aldizkariaren aipatu zenbakia eta *ELE* aldizkariaren 8. zenbakia (1991) monografikoki *Alfabetatzeaz* diharduena. Aipatzekoak dira, halaber, Dávila, Fernandez eta Eizagirrek alfabetatzearen euskal eredu historikoaren definizio eta epeketaren inguruan argitaratu dituzten lanak. Azken ikerketaren emaitza da, berriki, gure sailean aurkeztu dudana doktoradutza tesia, hots, EIZAGIRRE, A. (2005): *Alfabetatze espazioak eta herri beziketa Gipuzkoan, 1876-1918*. E.H.U.
- ² Irakurketa ekintza aztertzeak eskatzen du, ikuspegi honi helduz, gizarte bakoitzean eta momentu bakoitzean nor irakurtzen duen eta zer irakurtzen duen zehaztea, baita ere non eta noiz, zergatik eta, batez ere, nola

